



AYUNTAMIENTO DE IRUÑA DE OCA

IRUÑA OKAKO UDALA



## IRUÑA OKA HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA BEHIN-BEHINEKO ONESPEN AGIRIA

INGURUMEN IKERKETA ESTRATEGIKOA  
2020ko AZAROA





## **IRUÑA OKAKO HAPOaren BEHIN-BEHINEKO ONESPENAREN BERRIKUSPEN AGIRIA**

HIRIGINTZA AGIRIAREN idatzizko dokumentazioa:

- I LIBURUKIA INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIA
  - I.ERANSKINA: Generoaren araberako eraginari buruzko txostena
  - II.ERANSKINA: Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa
- IILIBURUKIA BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN AZTERKETA ETA IRAUNKORTASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA
- III LIBURUKIAHIRIGINTZA ARAUAK eta I ERANSKINA
- IVLIBURUKIA BABESTUTAKO ELEMENTUEN KATALOGOA

HIRIGINTZA AGIRIAREN dokumentazio grafikoa:

- V INFORMAZIO PLANOAK
- VI ANTOLAKUNTZA PLANOAK

**INGURUMEN AGIRIAREN** dokumentazioa:

- **VII LIBURUKIA INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOA**
  - I.ERANSKINA: Inpaktu akustikoaren azterketa



Ayuntamiento de  
IRUÑA DE OCA

IRUÑA OKAKO  
Udala

**IRUÑA OKAKO HAPO**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPEN AGIRIA





Ayuntamiento de  
IRUÑA DE OCA

IRUÑA OKAKO  
Udala

**IRUÑA OKAKO HAPO**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPEN AGIRIA

## **VII LIBURUKIA** **INGURUMEN IKERKETA ESTRATEGIKOA**

**BEHIN-BEHINEKO ONESPEN AGIRIA. 2020ko AZAROA**





## AURKIBIDEA

<b>1</b>	<b>Aurrekariak eta Planaren Helburua.....</b>	<b>1</b>
1.1	Sarrera .....	1
1.2	Ingurumen Ebaluaketa estrategiko prozedimenduren arau esparrua .....	2
1.3	Hasierako agiri estrategikoaren idazketarako metodologia .....	3
1.4	Izapidetza .....	7
1.5	Edukia eta planaren objektua .....	10
1.6	Idazketa taldea .....	11
<b>2</b>	<b>HAPOko Helburuen Deskribapena eta Aukeren eta Proposamenen kontsiderazioak lortzeko.....</b>	<b>13</b>
2.1	Jarduketa eremua etaplanaren irismena .....	13
2.2	Berrikusi beharreko plan orokorraren helburuen garapen eta betebehar maila .....	15
2.3	HAPOaren irizpide orokorrak .....	19
2.4	Ingurumen helburuak eta hiri garapenaren irizpideak .....	24
2.4.1	Ingurune naturala.....	24
2.4.2	Hiri ingurunea (Hiri lurzorua eta urbanizagarria) .....	25
2.5	Landutako Aukeren definizioa eta aukeraren justifikazioa .....	28
2.5.1	Lurralde eredua .....	28
2.5.2	Hautatutako aukeren analisia.....	30
2.6	Proposamen planaren sintesia .....	33
2.6.1	Egituraren antolamendua .....	33
2.6.2	Zonifikazio eta garatu beharreko eremuak .....	35
2.6.3	Lurzoru Urbanizaezinerako kategorizazio eta zehaztapenak.....	42
<b>3</b>	<b>Beste Plan eta Programen interakzio analisiak, eta aplikagarria den ingurumen araudia .....</b>	<b>52</b>
3.1.1	Lurralde Antolamenduaren gidalerroak .....	52
3.1.2	Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala .....	54
3.1.3	Lurralde Plan Sektorialak .....	57
3.2	Azpiegituren zortasun legalak .....	80
3.3	Legedi eta araudi xedapenak .....	81
<b>4</b>	<b>HAPOren berrikusketan hunkitutako eremuaren analisia, diagnostikoa eta ingurumen ebaluaketa .....</b>	<b>89</b>
4.1	Lurralde enkoadraketa .....	89



4.2	Ingurune fisikoa.....	89
4.2.1	Klima.....	89
4.2.2	Geologia y Litologia.....	91
4.2.3	Geomorfologia.....	93
4.2.4	Edafologia.....	94
4.2.5	Hidrologia.....	94
4.3	Ingurune biotikoa.....	97
4.3.1	Landaretza eta flora.....	97
4.3.2	Fauna.....	104
4.3.3	Paisaia.....	120
4.4	Babestutako espazio naturalak eta ingurumen balioko beste eremuak.....	124
4.4.1	Babestutako Espazio Naturalak eta natura 2000 Sarea.....	124
4.4.2	Europar Batasuneko interesdun habitatak.....	126
4.4.3	Onura Publikoko Mendiak eta beste baso eremuak ....	127
4.4.4	Mehatxatutako espezieen kontserbaziorako interes bereziko eremuak.....	128
4.4.5	EAEko espezie natural azpimarragarrien katalogo irekia.....	131
4.4.6	Hezeguneko LPSaren Hezeguneen inbentarioa.....	134
4.5	Lurralde eta ingurune sozio-ekonomikoa.....	138
4.5.1	Demografia.....	138
4.5.2	Hazkundearen aurreikuspena.....	141
4.5.3	Ekonomia.....	142
4.5.4	Ekonomia-Jarduerak.....	143
4.5.5	Hiri egitura eta etxebizitza.....	148
4.5.6	Azpiegiturak eta ekipamenduak.....	151
4.6	Kultura Ondarea.....	155
4.6.1	Ondare historiko-arkitektonikoa.....	156
4.6.2	Ondare arkeologikoa.....	160
4.7	Baldintzatzaileak eta ingurumen arriskuak.....	162
4.7.1	Akuiferoen kalteberatasuna kutsadurarekiko.....	162
4.7.2	Higaduraren kalteberatasuna.....	163
4.7.3	Eremu uholdegarriak.....	164
4.7.4	Sute arriskuak.....	165
4.7.5	Lurzoru kutsatuak.....	165
4.7.6	Arrisku teknologikoak.....	167
4.7.7	Kutsadura akustikoa.....	168



<b>5</b>	<b>Identifikazioa, karakterizazio eta inpaktuen balorazioa .....</b>	<b>175</b>
5.1	Planaren helburuen ingurumen-ondorio posibleen analisisa.....	175
5.2	Planean agertzen diren efektu nagusien identifikazioa, karakterizazioa eta balorazioa .....	186
5.2.1	Ebaluazio orokorra .....	186
5.2.2	Proposatutako garapen-eremuen ebaluazio partikularra .....	205
<b>6</b>	<b>Ingurumenaren gaineko ondorioak saihesteko, murrizteko eta kompentsatzeko neurrien proposamena .....</b>	<b>276</b>
<b>7</b>	<b>Ingurumen Zaintza Programa.....</b>	<b>297</b>
7.1	Ingurumeneko zaintza programaren gidalerroak.....	297
7.2	Ingurumen adierazleak.....	311
<b>8</b>	<b>Laburpena.....</b>	<b>319</b>

#### Eranskina: Inpaktu akustikoaren azterketa

#### IIE-en planoak

- EAE01. Kokapena
- EAE 02. Litologia
- EAE03. Geomorfologia eta interes geologikoko eremuak
- EAE04. Maldak
- EAE05. Edafologia
- EAE06. Hidrologia
- EAE07. Lurpeko Urak eta ur-bilketak
- EAE08. Landaretza eta mehatxupeko flora
- EAE09. Batasun intereseko habitat naturalak
- EAE10. Fauna
- EAE11. Babestutako espazio naturalak
- EAE12. Interesdun beste gune batzuk
- EAE13. Paisaia bereziak eta bikainak
- EAE14. Kultura Ondarea
- EAE15. Zonakatze akustikoa



Ayuntamiento de  
IRUÑA DE OCA

IRUÑA OKAKO  
Udala

**IRUÑA OKAKO HAPO**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPEN AGIRIA



## 1 Aurrekariak eta Planaren Helburua

### 1.1 SARRERA

Agiri hau Iruña Okako HAPO berrikusketaren Ingurumen Ikerketa Estrategikoa (IEE) osatzen du, bere helburua ingurumenaren ebaluaketa egitea da, aukera bakoitzerako definitutako garapenetik ondorioztatua, eta aldi berean, Hasierako Onespeneren planifikazio tresna garapen maila.

Abenduak 9ko ingurumen ebaluazioaren 21/2013 Legean ezarritakoaren arabera, Planak ingurumen estrategikoaren ebaluaketa prozesuaren menpe egongo da. Beste alde batetik, indarrean dagoen lurzoru araudiaren arabera, 7.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrri bati buruz ari garenez, arduratu beharreko saila Araba Foru Aldundiaren Hirigintza eta Ingurumen Saila da.

Berrikusten diren Plangintzako Arau Subsidiarioak behin betiko onartu ziren 839.zenbakiko Foru Arauan, 1998.urteko azaroaren 18an, Arabako Foru Aldundiarena (ALHAO 140zk. 1998.urteko abenduak 7). Testu osoa 1999.urteko apirilak 26ko ALHAO 46zk.an agertzen da.

Udalak Plangintzaren AASSen berrikusketa egiteko erabakia hartu zuen HAPO berria osatzen duen dokumentuarekin eta Iruña Okako udalerrriaren beharretara egokitzen dena.

Denbora tarte honetan, EAE-ko hirigintza antolamenduan aldaketa sakon bat egin da, Iruña Okan eragina daukana. Ondorioz, indarrean dauden AASSak EAEko onarpen berriko antolamendura egokitzearen beharra dago.

Honengatik, hiri politika bat egitea komenigarria da, lurralde eredu berri bat lortzeko, Iruña Okako udalerrriaren beharretara egokiena da eta benetako gaitasunekin.

Ekainak 30eko 2/2006 Legea indarrean sartu ondoren, HAPOa eta AASSak batu dira Plan Orokor bakarra sortuz, hirigintza antolamendua egiten duena eta HAPO izenarekin, hortaz, hau izango da AASSen agiria berrikusten duenaren izena Iruña Okako udalerrian.

Hiria Antolatzeko Plan Orokorra bide egokiena da, bai tekniko-juridiko ikuspuntutik eta bai politiko bezala, aginduen xedeak betetzeko. Agerikoa da, udalerriko kudeaketa koherente eta eraginkor bat izateko Plan Orokorrean ondorengo helburuak egotea: epe luzera Udalerria garatzeko gidalerroak eta estrategiak, sistema orokorren garapenerako epeak eta aurreikuspen espezifikokoak.

Jarraipen praktikoaren arrazoiak plangintzarako aukeratu den tresna justifikatuko zuen. Baina, gainera, juridiko izaerako beste batzuk ere existitzen dira, gai honetan gaur egungo legeriaren ondorioz sortutakoak, bere ondorioa berdina da.



Gaitasun hauen erabilpen antolatua, Planaren bitartez aukeratutako biztanleri eredia eta batez ere, sortutako gainbalio Udallerriaren alde eta jabetza soziala betetzea da, hirigintza tresnak honek ez bakarrik komenigarria edo gomendagarria delako baizik eta legeak eskatzen duelako bete behar da eta bere behin betiko onespena baldintzatzen du.

Behin arrazoi legalak eta komenientziakoak bildu eta aztertu ondoren, bistakoa da Iruña Oka Hiria Antolatzeko Plan Orokorra egokiena dela udallerriaren hirigintza plangintzaren definizioa eta erregulazioa egiteko.

## 1.2 INGURUMEN EBALUAKETA ESTRATEGIKO PROZEDIMENDUREN ARAU ESPARRUA

Iruña Oka udalerriko udal-mugartearen HAPOaren Berrikuspenaren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozesuan garatzen den erreferentzi araudi esparrua ingurumenaren ebaluazioarentzako (estatala) *abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin, Euskal Autonomi Erkidegoko Ingurumenaren Babeserako otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorrarekin eta programa eta planen ebaluazio estrategikoaren prozesua arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuarekin* egokitzen da.

Iruña Okako HAPOaren ingurumen tramitazioari dagokionez, ez da aplikatuko HAPO honen ingurumen tramitazioa: *9/2018 Legea, abenduaren 5koa, zeinaren bidez aldatzen diren 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa, 21/2015 Legea, uztailaren 20koa, zeinaren bidez aldatzen den 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, mendiei buruzkoa, eta 1/2005 Legea, martxoaren 9koa, zeinaren bidez arautzen den berotegi efektuko gasak aireratzeko eskubideen salerosketa-erregimena. Ingurumen ebaluaketaren prozesu osoan, tramitatu beharreko agirien edukia egokituko da Europako Parlamentuaren 2014/52/UE, 2014. urteko apirilak 16, zuzendaritzaren aurreikuspenak betetzen direla ziurtatzeko, honen eraginez 2011/92/UE zuzendaritza aldatuko da, abenduaren 13koa, ingurumenean proiektuen eragina aztertzeakoari buruzkoa.*

Ingurumenaren ikuspuntutik, *ingurumenaren ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legearen* onespena, Ingurumen Ebaluazio Estrategikoarentzako plan eta programa araudi esparru berria barneratzen du, planen Ingurumen Ebaluazioak gauzatzeko beharra ezarriz, Iruña Okako herriko gaur egungo HAPOaren berrikuspena bezala, ingurumenean efektu esanguratsuak eduki ditzakeenak eta administrazio publikoak onartu beharko duenak. Arau honek ordenamendu juridiko espainiarrean *2001/42/CE eta 2011/92/UE Zuzendaritzak* barneratzen ditu.

*21/2013 Legeak*, bere xedapen indargabetzaile bakarraren lehenengo atalean, hurrengo adierazten du:

*“Presente dagoen legearen kontra doazen gutxiagoko edo maila berdineko xedapen guztiak indargabetuak geratzen dira, bereziki hurrengoak:*

*a) Ingurumenean plan eta programen jakineko efektuen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legea.*





*b) Proiektuek Ingurumenean daukaten Inpaktuaren ebaluazioaren testu bategina, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuak onartua.*

*c) Ingurumeneko Inpaktuaren ebaluazioaren ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua egiteko erregelamendua onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua.”*

Bere aldetik, bere xedapen indargabetzaile bakarraren bigarren atalean, ingurumeneko legegintza propioa daukaten Autonomi Erkidegoei buruz ezartzen du, goian aipatutako araudia, indarrean sartu eta urte bateko epe maximoan indargabetuko dela. Hala ere, epe hau amaitu baino arinago seinalatzen du ere, Autonomia Erkidegoek lege honetara moldatutako araudi testuak onartzen badituzte, gorago aipatutako aurreikusita dagoen indargabetzea araudi autonomiko berriak.

Euskal Autonomia Erkidegoak bere legeria aipatutako 21/2013 Legearekin ez duela egokitu kontuan izanda, dokumentu honen egituraketarentzako jarraitutako eskema *Plan eta Programen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozesua arautzen duen urriaren 16ko indarrean dagoen 211/2012 Legean* agertzen dena da, *Ingurumen Ebaluaziorako abenduaren 9ko 21/2013 Legea* osatzen duenean.

Bestalde, *Euskal Herriko Ingurumen babesaren Otsailak 27ko 3/1998 Lege Orokorrak* jadanik ezartzen zuen 41.artikuluak “[...]Euskal Autonomi Erkidegoko lurraldean egingo diren, eta lege honen I Eranskinean jasoak dauden *Plan eta proiektuak, bai pribatuak zein publikoak derrigorrez ebaluatu dagokion ingurumen inpaktuaren ebaluazio prozedura*”-ren beharra, eta Ingurumen Inpaktuaren Talde-ebaluazioaren definizioaren 43.artikuluak, prozeduraren zuzeneko garapenaren intentziora jasotzen zuen baita ere, geroago, aipatutako Uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan (*ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duena*) jasoko dena; eta azken hau indargabetua, gaur egungo 211/2012 Dekretua, *urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.*

Gainera, aipatutako *Otsailaren 27ko 3/1998 legeko 43. artikulua*, Ingurumen Inpaktuko Ebaluazioko hiru prozedura ezartzen ditu; hiru horien artean, Talde-ebaluazioa daukagu, Planaren aplikazioaren ondorioz ingurumenak jasan ditzakeen arazoak neurtzeko erabiltzen dena. Honela, 3/1998 Legearen I eranskineko A) atalean egonik, aipatutako prozedurarekin prozesatutako Planen zerrendaren artean, Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorrak eta urbanizaezinak diren lurzoruei eragiten dioten aldaketak aurkitzen dira.

### 1.3 HASIERAKO AGIRI ESTRATEGIKOAREN IDAZKETARAKO METODOLOGIA

Iruña Okako udalerrriaren HAPOaren Berrikuspenaren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozesuaren gauzatzeko jarraitu beharreko esparru metodologikoa deskribatzen da atal honetan.



Aurreko atalean aipatutakoarekin bat etorritik, 21/2013 Legea izango da, Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren plan eta programak gauzatu ahal izateko burutuko diren lanak garatzeko araudi esparru oinarria. Lege honek aplikazio prozesu ezberdinak ezartzen ditu bere artikulatuetan, planaren, programaren edo exekutatu den proiektuaren izadiaren arabera.

Ingurumenaren Ebaluazio Estrategikoari dagokionez, plan eta programetatik datorrela, entitatearen proposamenaren arabera (ingurunean egindako inpaktuaren ebaluaziora behartuak dauden proiektuen onarpenerako esparrua, Natura 2000 sareari afekzioa, ingurumenaren organoen erabakiak kasuz kasu, etab.), ingurumenaren organo eskudunaren Ingurumenaren Deklarazio Estrategikoaren formulaziorako prozesu arruntari buruzko araudian bildutako lehenengo prozesua izanda, ingurumenaren organo eskudunaren Ingurumen Informe Estrategikoa eskuratzeko prozesu sinplifikatuan bigarren egonda.

Horrela, 21/2013 (art. 6) Legeak biltzen duen moduan:

*“6. Artikulua. Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren aplikazio esparrua.*

*1. Administrazio publiko bategatik onartutako eta bere elaborazioa eta onespena disposizio legal edo Autonomia Erkidego baten Gobernuaren Kontseilua edo Ministroen Kontseiluaren akordio bategatik onartutako plan eta programak Ingurumen Ebaluazio Estrategiko arrunterako objektu izango dira, baita hauen modifikazioak ere, egoera hauetan:*

*a) Ingurumen inpaktuaren ebaluaziora legalki azpiratutako proiektuen etorkizunerako proiektuetarako esparrua ezartzen dutenean eta nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, akuikultura, arrantza, energia, meatzaritza, industria, garraioa, hondakin-kudeaketa, hondakin hidrikoen kudeaketa, itsas eta lur domeinu publikoen okupazioa, itsas ingurunearen erabilera, telekomunikazioak, turismoa, hiri eta landa lurzoruen antolamendua, edo lurzoruen erabilerekin zer ikusia dutenean ; edo,*

*b) Ebaluazio bat behar dutenean Natura 2000 sarea espazioetan eragiteagatik, Natura Ondare eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legean aipatutako terminoetan.*

*c) Bigarren atalean agertzen direnak ingurumen organoak horrela erabakitzen duenean 5. eranskinaren irizpideen arabera ingurumen informe estrategikoan.*

*d) 2. ataleko plan eta programak, ingurumen organoak horrela zehazten duenean, sustatzailearen eskaerarekin.*

*2. Ingurumen ebaluazio estrategiko arrunt baten objektu izango dira.*


*a) Arinagoko atalean aipatutako plan eta programen modifikazio txikiak.*

*b) Arinagoko atalean aipatutako herri mailako hedapen murrizteko zonaldeen erabilera ezartzen duten plan eta programak.*

*c) Etorkizunerako proiektuen baimenerako esparrua ezarritik, arinagoko atalean aipatutako beste betekizunak betetzen ez dituzten plan eta programak.”*



Iruña Okako udalerrriaren HAPOaren berrikuspenaren kasu espezifikoan, aplikazio prozesua Ingurumen Adierazpen Estrategikoaren lorpena helburu moduan daukan Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Arruntarena da. Ondoren, inplikaturako zati ezberdinek bete beharreko papera adierazten duen prozesuarekin egindako eskema barneratzen da:



*Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legearen araberako Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Arruntaren prozesu eskema.*



## 1.4 IZAPIDETZA

2008ko apirilaren 11an ALHAO 41 argitaratu zen Iruña Okako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren proiektua eta ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren azterlana idazteko aholkularitza eta laguntza lanak kontratatzea. 2008ko irailaren 10ean ospatu zen osoko bileran Iruña Okako Udalak, Iruña Oka Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) idazketa MECSA S.A. enpresari esleitu zion, 2008ko urriaren 8ko ALHAO 115 argitaratuz.

Idazketa taldeak HAPO idazketaren aurretiko ikerketa agiriaren idazketarekin hasten da eta ondoren Iruña Okako HAPO berrikusketaren agiriarekin jarraituz, 2010.urteko martxoaren 5ean aurkeztu zen. Agiriaren erakusketa publikoa adostu zen berari buruz dagokion iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

HAPOaren Aurrerapen Agiria eta bere Ingurumen Inpaktuaren Ebaluaketa Azterketa bi hilabetetan zehar erakusketa publikoan egon zen.

Behin jendeari aurkeztu ondoren eta iradokizunak bertaratu ondoren (administrazioko eta partikularren 34 iradokizun), Iruña Okako Udalak proposamen bat egiten du Iruña Okako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren idazketan jarraitu beharreko irizpideei buruzkoa eta hasierako onespinari begira.

Ingurumen Ebaluaketari buruzko prozedurari dagokionez, Ingurumen Eraginaren Aurreikuspeneko Txostenarekin hasten da, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzua prestatua, 2010ko urrian udalak idazketa taldeari erraztu ziona. Jaso ondoren, Hasierako Agiri Estrategikoa idazten da, Iruña Okako Udalerriaren HAPOko berrikusketaren Ohiko Ingurumen Ebaluaketa Estrategikoaren tramiteari hasiera emanez.

Iruña Okako Udalak Ingurumen eta Hirigintza Sailari idatzitako Hasierako Agiria bidali zion, 211/2012 Dekretuaren V. Eranskineko 8. Artikuluak araututakoaren arabera. Erreferentzia Agiriaren bidezko erantzunik ez zen egon, tramitazio gelditu geratu zen "Pequeña Navarra" Harrobiaren hedapenagatik, HAPOaren Aurrerapenean ez zen sartu informazio idatzi aurrerapena idatzi ostekoa delako.

Ingurumen Iragazkortasunaren Zerbitzuak, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren menpean, 2016.urteko maiatzaren 4ean, gutxi gora behera Hasiera Agiri Estrategikoa jaso eta sei urteetara, **Ingurumen Ebaluaketa Estrategikoaren Irismen Agiria** igortzen du, Iruña Okako HAPOaren Ingurumen Ebaluaketa Estrategikoaren prozedurari buruzkoa.

2016.urteko irailak 28, ALHAO 109, Iruña Okako Udalerriaren Hiria Antolatzeko Plan Orokorra eta Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren proiektuak idazteko aholkularitza eta asistentzia lanak kontratatze eskaintza argitaratzen du, Alkatetzaren 2016ko irailaren 16ko 426/2016 Ebazpenaren bidez. Alkatetzaren 2017.urteko martxoak 7ko 92/17 ebazpenaren bitartez Iruña Okako Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren eta Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren idazketa TRION PLANES Y SERVICIOS S.L.P. enpresari esleitu zaio.



Idazketa taldeak 2010.urtean aurkeztutako Aurrerapen Agiriaren Irizpide eta Planteamenduei dagokien eraginen txostena idazten du, bertan aldaketak eta azken zazpi urteotan egondako ebaluazioari buruzko txosten bat egiten da eta Hasierako Onespen Agiria idazteko oinarri bezala erabiltzen da.

Erakusketa publikoan auzokideak, elkarteak, enpresak, etab aurkeztutako 34 iradokizunen harrera eta erantzunaren ostean, HAPO Aurrerapen Agiriaren idazketa taldeak txosten osagarri bat egiten du, irizpideak, helburuak, aukerak eta antolamendu proposamenak onartzeko eta planaren ondorengo faseetan garatzeko eta honela HAPO Aurrerapenaren azkenengo fasea bukatu ahal izateko. Txostenak erakusketa publikoan aurkeztutako idazkien analisia da eta Planaren memorian garatzen diren ondorengo alderdietan zentratzen da:

- Harrobiak "Pequeña Navarra" 1977zk. eta "Azkorrigana" 2033 zk
- SAU-N1 Hedapena Langraiz Okaren ipar-ekialdean
- Garabo eremuan planteatu beharreko konponbidea
- Langraiz Okaren erdigunean dauden ekipamenduzko zuzkidurak
- Industrialdearen desklasifikazioa "Lehergaiak"
- Ingurumen-inpaktuaren aurretiazko txostena

Hasierako Onespen fasearekin hasten da Hiri Antolatzeke Plan Orokorren intzidentzia txostenaren aurkezpenarekin, 2017.urteko maiatzean.

Informazio-saioez gain, udalerria osatzen duten gunek bisitatu ziren, administrazio-batzar bakoitzeko ordezkariekin eta bizilagunekin batera, 2017ko irailean. Kontuan izanda zazpi urte pasako direla Iruña Oka agiriaren onespentik, fase honi garrantzi handia ematen zaio, idazketa taldeak daukan informazioa eguneratua izateko eta behin-behineko onespen agiria idazteko.

2019.urteko urtarrilaren 30ko sesioan Iruña Okako Udalaren plenoan onartu zen: Iruña Okako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko hasierako onespena eta plan orokorra publikoari eskaini zitzaion dagokion ingurumen ikerketa estrategikoarekin batera.

Hasierako onespenaren hitzarmena ALHAO 26.zenbakian, 2019.urteko martxoak bat argitaratu zen eta bi hilabeteetan zehar informazio publikoari erakutsi zitzaion. Tarte honetan zehar Iruña Okako Udalak, administrazio publikoei jakinarazi zien bere ezagupenerako eta txostenerako kompetentzia sektorialak.

Alegazioak jaso eta bere analisia egin ondoren HAPOan hainbat zehaztasunak aldatu dira; haietariko batzuk aldaketa txikiak izan dira Planaren xehatua egokitzeko, beste batzuk berriz, akats materialak izan dira eta sumatu ondoren konpondu ahal izan dira dagokion pertsonekin eta interesatuekin, azkenik, eremu batzuei dagokionez aldaketa askoz zorrotzagoak egin dira, auzokideek azaldutako desadostasunagatik zein hunkitutako kontzeju organoengatik.



**AOP-T2 eremuaren kasuan Trespondesen**, erromatar zubitik daukan hegoaldeko sarbidea nukleoaren hiri kalitatea hobetzeko proposamena dauka, espaziora sartzeko “ate” moduko bat daukan parke eta plaza baten sorrerakin. Interesatuena oposizioak eta Administrazio Batzarrak erakutsitako ezespena ikusita, lurzatu honetarako AASSen antolamendua berreskuratzea proposatzen da, bizitegi azpi-eremu gisa kalifikatuz.

**Billodasen**, beste puntu eztabaidagarrietako bat **AOP-V1** izan da, “Kanpai etxearen” inguruko espazio publikoa hobetu nahi zuen zentro soziala sartuz eta plaza biko ekipamendu espazio berria, Billodasen erdigune berria sortuko zuena. Alegazioen ondoren, eta jendaurrean erakusteko prozesuan zenbait auzotarrek eta Administrazio Batzarrak proiektu hori garatzeko interesik ez dutela egiaztatu ondoren, jarduteko eremua murriztu egin da, asmo gutxiagoko proiektu batekin, “kanpai etxearen” sarreraren aurrean plaza bakarra planteatzen duena.

**Langraiz Okako erdigunean** antolamendu xehatuko doiketak eta aldaketa batzuk egin dira, jarduketara guztien bideragarritasuna orekatzeko helburuarekin.

Era berean, egokitzen jo da AOP-N4 eremu horrek antolatzen duen plazari Sistema Orokor izaera ematea; izan ere, *Maiatzaren Hiruko parkeko eta errota eta karobiaren parkeko* sistema orokorrak lotzen ditu, eta, gainera, espazio publiko bat eskaintzen du Gizarte Etxearen aurrean, Langraiz etorbidearekin.

**Lurzoru industrialean**, AHTarekin muga egiten duen sektore industrialen afekzio zonalde bat sartu da. AOP-I3 Subillabide sektorearen muga zabaldu da, existitzen diren lursailak eta aprobetxamendu saileko lursailak kontuan hartuz, modu honetan poligonoaren erdian espazio libreak hedatu ahal izan dira, egun lotura ekologiko bezala dagoena Jundizko Muinoa eta Badaia mendilerroaren artean. AOP-I2 Los Llanos sektoreari dagokionez, aurretik zeuden etxebizitzak eta landetxeak gain, pabilioi agrikola finkatzen da. Honek aurretik existitzen zen antolamendu xehatuz egokitzen behartzen du.

**Lurzoru Urbanizaezinean** Langraiz Okako eta Trespondeko harrobien mugapena sartu da eta LEUaren kategorizazioa birplanteatzen da Arabako Aldundiak proposatutako araudiari egokitzeko helburuarekin.

Txosten sektorialeki dagokionez, administrazio publikotik zazpi txosten ezberdin jaso dira, hauen informazioa eta iradokizunak HAPOko Behin-behineko agirian sartu dira. Aipatzekoa da Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren txostena, dokumentuan udalerriko lurzoru urbanizaezinen kategorien azalaren azterketa globala jasotzen baita, bereziki eremuz-eremu lurzoruaren afekzioa aztertuz, eta bereziki lurzoru agrarioz, babes neurriak ezarriz eta lurzoru agrarioak mantenduz eta zaharberrituz, bereziki Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza eta Abeltzaintza lurzorua.



## 1.5 EDUKIA ETA PLANAREN OBJEKTUA

Plan Orokorraren agirien idazketa 2/2006 Legearen Lurzoru eta Hirigintza 61 eta 62 artikuluetan azpimarratutakoaren arabera egiten da, hirigintza, egitura eta xehatu edukiaren garapenarekin. Dokumentazioa hurrengo edukiak izango ditu:

### 1. Antolamenduaren informazio eta justifikazio memoria.

Plangintza-ahalmen ekitaldirako beharrezkoak diren irizpideen-elementuak dakartzan informazio guztia jasotzen du, zehazki, erabakiak hartzerakoan aukerak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta aukeratutako soluzioen justifikazioa.

### 2. Ingurumen Ikerketa Estrategikoa

Agiri hau da.

### 3. Informazio planoak

### 4. Proposamenaren planoak

Planteatutako planoen proposamenak argi eta garbi bereizte ditu Egiturazko Antolamendu Planoak eta Xehatutako Antolamendu planoak bereizten ditu, ondorengo aldaketetan tramitazioak suposatzen dutenagatik.

### 5. Hirigintza Araudia:

Orokorrean ondorengo terminoak dauzka:

- Lurzoruaren Erregimen Orokorra
- Udalaren Esku-Hartzea eraikuntzan eta lurzoruaren erabileran
- Eraikuntzaren erregimena
- Erabileren Arau Erregulatzailleak
- Eraikuntzaren Zehaztapenak eta Arau Orokorrak
- Eremuen fitxak

### 6. Babestutako elementuen katalogoa

Udalerrian dagoen ondare arkitektoniko, arkeologiko eta paisajistikoa agertzen da eta dagokion babesa.

### 7. Ekonomi-Finantzen bideragarritasun azterketa

Lurzoruen lorpenerako eta sistema orokor eta tokikoen urbanizaziorako berrikuntza guztiak dituen Ekonomia-Finantzen Azterketaren aurrerapena.





## 8. Iraunkortasun ekonomikoaren memoria

Iraunkortasun ekonomikoaren memoriaren helburua epe luzera tokiko ogasunean iraunkortasun ekonomikoa zehaztea da, hiri berri edo urbanizazio berrien sarbidea hiri multzora. Horretarako kuantifikatu behar dira urbanizazio berria mantentzeko ondorioztatutako gastuak zein Udalaren aldetik aurreikusitako diru-sartzeak. Udalak jasan beharreko gastuen eta diru-sartzearen arteko diferentziak.

Aurrerago ikusiko denez, Agirian agertzen diren proposamen multzori esker Iruña Oka nortasun bereko kokapen bat dela esan daiteke, oreka bat bilatzen duena biztanleen etxebizitza eta biztanleriaren artean, ugaritasun tipologiako eta espaziala proposatzen duen bizitegi eskaintza, jarduera industrial eta zerbitzu eremuen baldintzen hobekuntza, zuzkidura propio nahiko eta eremu berdeen eta oinezkoen sarrera. 2010.urtean aurkeztu zen Aurrerapen Agiriak aipatzen zuen bezala, Iruña Okak Plan berri honekin Udallerriaren hobekuntza bilatzen du.

Mugikortasunari, irisgarritasunari, lanbideari, etxebizitza irisgarri, etab. dagokionez herritarrek eskatutako beharizan berriak egungo hirian integratu behar dira, hiri bera eraldatuz, eta atseginagoa eta osasungarriagoa den hiri eredu bat eraikiz. Gure esku daukagun lurraldea ondasun urri bat dela ahaztu gabe, nortasun handiko erliebe nahasiaz guztiz baldintzatua dagoena, eta etorkizuneko iruñatarren oinarria dena eta izango dena.

Zentsu honetan, abiadura handiko trenbide berriaren sarrera eta hurbileko sarearen hobekuntzak, zein azpiegitura berriak sustatutako ekonomia-jardueren agerpena, hiriaren erdialdean eragin zuzena daukaten aukerak dira. Etxebizitza babestuen apustua, ondare historiko-arkitektoniko eta arkeologikoen aberastasuna balioan jarriko dituzten erabilerak, bizitegi eremuetatik gertuko industria hondamendiak, hiri egitura eta oinezkoen eta txirrindularien arteko ekipamendu sare berriaren arteko loturak, HAPOan aurreikusitako adibide ezberdinak dira.

Guzti hau, bereziki gizakiagatik eraldatua dagoen lurzoruaren gain lan egiten duten proposamen eta emaitzak bilatu izan dituen Planaren barruan bilduta dago, egungo orbain eta hiri interbentzio formula berriez baliatuz, kirurgia ebakuntza bat balitz bezala.

### 1.6 IDAZKETA TALDEA

Planaren sustatzaileak kontratatua, Hasierako Agiri Estrategikoa PROINTEC, S.A. (Ingurumen Departamentua) enpresako talde multidisiplinar batek idatzia izan da.

Estudioaren oinarrizko idazle taldearen konposizioa ondorengoa da:



Ayuntamiento de  
IRUÑA DE OCA

IRUÑA OKAKO  
Udala

IRUÑA OKAKO HAPO  
BEHIN-BEHINEKO ONESPEN AGIRIA

Javier Bernal Gómez  
NAN: 11787594W

*(Biologia-zientzietan lizentziaduna)*

Jesús Redondo Mazarracín  
NAN : 50424076A

*(Mendi Ingeniaria)*

Juan Carlos Rebollo Izquierdo  
NAN: 51920350N

*(Biologia-zientzietan lizentziaduna).*

Marta Quintero Barrio  
NAN: 50869583T


*(Ingurumen zientzietan lizentziaduna).*



## 2 HAPOkO Helburuen Deskribapena eta Aukeren eta Proposamenen kontsiderazioak lortzeko

### 2.1 JARDUKETA EREMUA ETAPLANAREN IRISMENA

Iruña Oka, Araba erdialdeko zonaldean dago, Arabako Lautadaren mendebaldeko ertzean, Iruña eta Langraiz Okaren loturarekin sortu zena, eta bost Administrazio Batzarrez edo kontzejuez osatua dago: Langraiz, Olabarri, Mandaita, Tresponde eta Billoda. Bere mendebaldean Ribera Alta/Erriberagoitia dauka, ipar-mendebaldean Parzoneria Badaia/Badaia elkarrekikoa eta iparraldetik eta ekialdetik Vitoria-Gasteiz, guztiak Arabako Lurralde Historikoan daudenak, eta hegoaldean La Puebla de Arganzón (Burgos).



*Iruña Oka udalerraren mugak*

Iruña Okak 53,3 km<sup>2</sup>-ko azalera dauka eta Arabako Lautadan dago. Administratiboki Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalean eta Añanako Kuadrillan dago.

Añanako Kuadrilla Arabako lurraldearen zazpi kuadrilletako bat da, 693,2 km<sup>2</sup>-ko azalera dauka eta 8.300 biztanle gutxi gorabehera. Añanako kuadrilla ondorengo udalerriez osatua dago: Añana, Armiñón, Berantevilla, Kuartango, Lantarón, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Valdegovía, Zambrana eta Iruña Oka. “Kuadrilla” edo eskualde guztiak izenaren arabera *Azaroaren 20ko Eskualdeei buruzko 63/1989 Foru Arauaz* definituak daude.



2017.urtean Iruña Oka udalerrriaren biztanle kopurua 3.382koa zen, banaketa ondoregoa zen. Ikus daitekeenez, biztanleria gehiena (%74) Langraiz Okan aurkitzen da:

<i>Iruña de Oca/Iruña Okako udalerrriaren biztanle banaketa</i>		
<i>Udalbatza</i>	<i>Biztanle kop.</i>	<i>%</i>
Montevite/Mandaita	56	1,7
Nanclares de la Oca/Langraiz Oka	2.512	74,3
Ollávarre/Olabarri	226	6,6
Trespuentes/Tresponde	283	8,4
Víllodas/Billoda	306	9,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.382</b>	<b>100</b>

*Iturria: Eustat datuetatik abiatuta egileak moldatua*

Udalerrriak komunikazio sare bikaina dauka: (A-1) iparraldeko autobia barne, ardatz nagusia bezala, hegoaldeetik ekialdera lurraldeak zeharkatzen du; eskualdeko-errepideak eta tokiko errepideak: A-2622, A-3302 eta A-3308, errepide auzokideak A-4315, A-4314, A-4358, A-4359 eta A-4302, eta landa bideak herrialde txikienera heltzeko. Gainera, Madril-Hendaya trenbidea dauka, Langraiz Okaren hegoaldean kokatua dagoena.

Iruña Okako HAPOaren lurralde eremua, udal mugarte osotik zabaltzen da.

Planaren denbora tartea zortzi (8) urtekoa da, bere behin betiko onarpenetik antolamendu tresnaren bat edo barruti handiagokoa aldatu den momenturarte. Bere berrikuspena egungo araudiaren aukeren arauz zehaztuta etorriko da.



## 2.2 BERRIKUSI BEHARREKO PLAN OROKORRAREN HELBURUEN GARAPEN ETA BETEBEHAR MAILA

Indarrean dagoen plangintzak izan duen garapena aztertzen badugu hurrengo ondorioak ateratzen ditugu laburpen bezala:

**Mandaitan** hego-ekialde eremuan familia bakarreko bederatzi etxebizitzaren dentsitate baxuko hazkundera proposatzen zen, haietariko zortzi HAPOaren idazketa baino lehen eraiki dira, eta falta dena eraikuntza fasean dago. Hortaz, plangintza guztiz osatu dela esan dezakegu.



*Mandaita*

**Olabarrin** bi hazkunde planteatzen ziren, dentsitate baxukoak, iparraldean eta hegoaldean existitzen zen hiri egitura osatuz. SAU O1 eremua, Olabari hegoaldean 30 etxebizitzaren hazkundera planteatzen zuen eta guztiz gauzatu da. Hala ere, SAU O2, bi egikaritze unitatetan banatu zen, gauzatu diren bakarrak udalerriko etxebizitzaren tasatuak izan ziren. Hortaz, AASSetan planteatutako 70 etxebizitzetatik 24 falta dira eraikitzeko. Gauzatu gabeko atala ez dauka urbanizaziorik.



*Olabbarri*

**Billodan**, hegoaldeko kontzejua bukatzeko dentsitate baxuko bizitegi sektorea planteatu zen, SAU V1, 40 etxebizitza berri planteatu ziren, hauetako hiru eraiki dira. Eremua garatu egin da urbanizazioa burutu arte, beraz, gaur egun merkatuan erabili gabeko 37 lursail dauzkagu.



*Billoda*

**Tresponden**, lurzoru urbanizagarriko eta dentsitate baxuko 27 etxebizitza berri planteatu ziren, SAU T1, plangintzako garapena dauka baina gaur egun arte ez da gauzatu.





*Tesponde*

Mandaita, Olabari, Billoda eta Tresponden planteatutako bizitegi hazkunderen garapenak, kontzeju hauen dentsitate baxuko plangintzak egokia dela adierazten digu. Aldi berean, administrazio-batzar hauen izaera gauzatzen duen hazkunde mota bat dela kontsideratzen da. Hortaz, plangintzako bizitegi berriko hazkunderan bide beretik jarraitzea egokia dela ustea da, gune libre eta ekipamenduei buruz hobekuntzak proposatuz, irudi hoberena eta bizi kalitatea bilatuz.

**Langraiz Oka**, udalerraren burua da eta hortaz hiri izaera dauka, eraikuntza tipologia ezberdineko tipologiaren aldi bereko existentziarekin eta hiri morfologia ezberdineko eremuekin.

Langraiz Oka, AASSak 560 etxebizitza planteatzen zituzten, haietariko 278 gauzatu dira, SAU N3, SAU N4 sektoreei dagokionak eta gehienak SAU N2-renak, bertan erabiligabeko lursail batzuk geratzen dira. Mendebaldean eraikitako lurzoru urbanizagarria babestutako etxebizitzaren blokeak dauzka, eta eraikitako gainontzeko lurzoruaren dentsitate baxuko etxebizitza dauka, bereziki elkarri atxikitako etxebizitzak.



Langraiz Oka

Hala ere, hirigunea ez da garatu, UAK Langraiz etorbidea izenarekin, ezta iparraldean planteatutako dentsitate baxuko SAU N1 bizitegi hazkundera, hurrengo ondorioak atera ahal dira:

- **Langraiz Etorbidearen egikaritze unitateek** kudeaketa zailtasun gehiago dituzte antolamendutik kanpoko eraikuntzak dituztelako eta egun okupaturik daudelako.
- **SAU N1** zuzenduta dagoen eraikuntza-tipologiarako tamaina oso handiko sektorea da, dentsitate baxua, eta horrek egungo egoeran bideragarritasun zaileko lurzorua bihurtzen du.

Kontuan hartu beharreko ondorioak dira, HAPOan egongo diren bizitegi hazkunde eremu berriak proposatzeko.

Gaur egun, AASSak programatutako 370 etxebizitza eraikitzeke geratzen dira.

Ondoren zehazten dira, kudeatzeko geratzen diren sektoreak 2018.urteko Irailean.

Sektorea	AURREIKUSITAKO ETXEBI. KOP. EDO AURREIKUSITAKO BIZITEG. ERAIK	ZAIN DAUDEN ETXEBIZ. KOPUEDO EDO BIZITEGI ERAIKINA
UA M1	9	0
SAU O1	30	0
SAU O2	40	24
SAU N1	140	140
SAU N2	80	9





Sektorea	AURREIKUSITAKO ETXEBI. KOP. EDO AURREIKUSITAKO BIZITEG. ERAIK	ZAIN DAUDEN ETXEBIZ. KOPUEDO EDO BIZITEGI ERAIKINA
SAU N3	123	0
SAU N4	84	0
R1 LS1	1.850,7 m <sup>2</sup>	1.850,7 m <sup>2</sup> (17 etxeb)*
R1 LS2	1.901,46 m <sup>2</sup>	1.901,46 m <sup>2</sup> (18 etxeb)*
R1 LS3	1.603,42 m <sup>2</sup>	1.603,42 m <sup>2</sup> (15 etxeb)*
R1 LS4	3.712,64 m <sup>2</sup>	3.712,64 m <sup>2</sup> (35 etxeb)*
R1 LS5	3.861 m <sup>2</sup>	3.861 m <sup>2</sup> (36 etxeb)*
R1 LS6	1.332,1 m <sup>2</sup>	1.332,1 m <sup>2</sup> (12 etxeb)*
UA V1	10	0
SAU V1	40	37
SAU T1	27	27
		<b>Guztira: 370 etxebizitza</b>

*\*Kontuan izanda dekretuak ezartzen duela etxebizitza libreetan batezbesteko azalera globala 106 m<sup>2</sup>-koa dela.*

Gaur egun Iruña Oka B motako Arau Subsidiarioen bidez arautua dago. Indarrean egon den bitartean, 1998.urtetik, mota ezberdinetako 28 Aldaketa Puntual egin dira, eta Planaren Memoriako 2.1 atalean azaltzen direnak.

### 2.3 HAPOAREN IRIZPIDE OROKORRAK

Orokorraren helburu nagusia garatu beharreko hirigintza prozesuak bideratzea dira, bakoitzak daukan arazoak modu xehatua landuz, bere garapena garatzea oztopatu dituzten kausak aztertuz eta beste aukerak instrumentatuz martxan jartzea posible egiten dutenak hiriren barruan.

Plan Orokorraren bidez gai ezberdinak azpimarratu nahi dira, horregatik ondorengo helburuak eta irizpideak ezartzen dira:

#### Eskualdea

Helburu nagusienetariko bat biztanleri hazkundera eta ekipamenduzko hazkunderaren garapena da, Iruña Oka eskualdearen burua bihurtzeko eta Araban bigarren mailako udalerrri bat bihurtuz. Ondorioz, orekatsuen, biztanleriari, ekonomia-jarduerei eta zerbitzuei dagokionez.



Araba Erdialdeko LPPak Iruña Oka eta Salvatierra-Agurain “hiri espazio nagusia duten nukleoak” bezala identifikatzen ditu. Tamaina handiko hazkundera bultzatzen da bigarren mailako hiri nukleoak osatzeko Araba Erdialdeko hiri sistemaren barruan.

Udalerriaren gertutasuna Vitoria-Gasteizrekiko eta etorkizun hurbilean gauzatzen diren azpiegitura berriak, haien artean, abiadura handiko trenbidea, Langraiz Oka eta Vitoria-Gasteiz lotzen duten trenbide hobekuntzak eta Jundizko Geltoki Intermodala, Iruña Okaren goikoburuan daude zehatzago Langraiz Okan, bigarren mailako hiri nukleo bezala.

Berrikuspen honi sartu beharreko helburu batzuk daude:

- Nortasuna bilatu, Udalerriak bigarren mailakoa bihurtzeko behar duen indarra lortzeko, erakargarria, Araba Erdialdeko lurralde eskemaren barruan.
- Zuzkidura estandarren eta zerbitzu publikoen hobekuntza, eragina berezia daukatenak udalerriaz gaindiko izaera duten ekipamendu publikoetan, kuadrilla osoaren Udallerri motorra izatera heltzeko.
- Hiri egituraren lotura, udalerriak baditu olio mantxa formako hazkundera naturala jasan ez duten hiri nukleoak (bereziki Langraiz Oka), baizik eta espazioan modu etenean garatu direnak, zatikatutako udalerrri bat sortuz.
- Bizitegi dibertsifikazioa bai espaziala bai tipologikoki.
- Ekonomia-Jaduerentzako lurzorua aurreikuspena, udalerrian lurzoru berrien agerpena hazkundera demografikorako ezinbestekoa da.

Garrantzitsua da, bereziki Langraiz Okan kontzentratuta dagoena, modu orekatuan, eta planaren gainontzeko helburuak errespetatzea garapen honetan.

### **Nortasuna**

Iruña Oka, azken prozesu hau modu bereizgarrian jasan du, nekazaritza etxebizitzaren egitura kontserbatuz Batzarreko hirigune historikoan, bitartean azken urteotan “Lorategi hiria” hedapenak garatu ditu kultura honen barruan. Horregatik garrantzitsua da gaur egun elementuen identitateari eta Udalerriaren Batzarrei mantentzeari eta hazkunderari lehentasuna ematea.

Halaber, ohiko sustapen eta mantentze jardueren sartzea garrantzitsua da, nortasun ezaugarriak indartzeko, apatu den bezala, Iruña Okan nekazaritza eta abeltzaintzaren erabileren itzulera presente dago.

### **Bizi kalitatea**

Iruña Oka txikia bada ere, eskaintzen zaizkion aukerak baliatuta, Plan berriak benetako baldintzak sortzea ahalbidetu behar du Iruña Okak nolabaiteko autonomia maila, erabilera eta jarduera anitzekin, lor dezan, hiri-kokapen bat positiboki gaitzen duten eta bizitegi-sarean, industria-sarean eta zerbitzuen arloan (Iruña Okak indar handia du Turismo Aktibo eta Kulturala



esaten zaion esparruan) kalitatezko Udalerri gisa posizio-atzeko aukera ematen dioten prozesu guztiak bultzatuz.

### Sektore tertziarioa

Sektore hau momentuz eragin txikia dauka Iruña Okan, baina sustatzea ezinbesteko kontsideratzen da, hirigintza informazioko fasean egindako azterketa sozio ekonomikoan ezarri den bezala, ingurunearekin industria garbia eta bateragarri batez apustu egiten da, aisialdira eta turismo aktiko eta kulturalera zuzendutako sektore tertziarioa, Ondarearekin (Iruña-Veleia) eta Naturarekin (Badaia mendilerroa, Lorategi Botanikoa, Ibilbide berdeak, etab) zerikusia daukana. Agiriak, aurrera pauso bat emanez, industriari lotutakoa garatu nahi du, isurialde biren artean:

- Lehenengoa, hiritarren zerbitzuetara, merkataritza, banku zerbitzuak, etab. Vitoria-Gasteizko menpekotasuna murrizteko eta turismoa. Agiri honen helburua Langraiz Okaren erdialdean merkataritza sustatzea da.
- Bigarrena, enpresen zerbitzuetara, kudeaketa bulegoak eta administrazioa, enpresa zerbitzuak, biltegia, etab. etxebizitzaren eta instalazio industrialen artean trantsizio elementu bezala jokatzeko.

### Ekipamenduak

Gizarteratze-prozesuen hiritar harremanen barruan ekipamendu kolektiboak funtsezkoak dira eta hiritarren beharrak asetzeko eraginetan ere. Behar hauek ez dira berdinak gizartearen kide guztientzat, horregatik gizarte egituraren zatiketa, denborazko espresioa eta “giza beharra” kontzeptu berak, gizartearen gozamenerako ekipamenduak planifikatzerako orduan baldintzak ezartzen dituzte. Behar hauek ere ez dira estatikoak, baizik eta aldatuz doazen sortzen diren giza beharrei egokitzuz, horregatik kontu handiarekin mugitu behar dugu ohizko plangintzaren estandar tinkoen artean. Sexu eta adinaren arabera ezberdintasunak ere azaltzen dira, horregatik biztanle kopuru osorako neurri uniformeak ez dira egokienak, kontrajarria izanik.

Estandar hauei gizartearen kontzepzio heterogeneoan oinarrituriko aukerak bilatu behar zaizkie, non gizabanakoak gizarte mailak osatzen dituzten, egitura ekonomikoarekiko harremanaren arabera, formazio, kultura eta soldata ezberdinekin, hori dela medio bere behar kolektiboak ez dira berdinak.

### **Hiri eszena**

Iruña Okan, Langraiz Okako Langraiz etorbidea hiri eszena nagusia da, bere zuzkidura multzoagatik, alboko komuneko espazioak eta biztanleriaren pisuagatik. Bere bilbea Udalerriko zerbitzuen oinarritzko euskarria da, hedapen eremu berriak eta influentzi eremuak barne.



Iruña Okako Plan Orokorraren berrikuspenerako, espazio publiko eta ekipamenduen bilbea bultzatu eta balioztatzen dituzten gidalerroak ezartzen dira, bereziki eraikuntzen morfologiaren koherentzia aldarrikatuz, hiri lurzoru erabileran integrazioa bereizketa espazialaren aurrean, eta azpiegituren optimizazioa eta arrazionalizazioa. Sentsibilizazio prozesu hau beste jarduera sektoreetan positiboki hunkituko dute, adibidez: industrian, zerbitzuetan; azken finean Hiriaren irudian.

Ondorioz, Iruña Okako Plan Orokorraren Berrikusketari dagokionez ondorengo Helburu Orokorrak planteatzen dira:

- Hiriaren bilbea aberastuko duten hiri erabileren integrazioak, hiri hutsuneak eta loturarik gabeko hiriaren zatiak eta hiri irlen existentzia, inguratzen duten hiri bilbe bizitegiarekin bateragarritasun gutxiko erabilera daukatenak. Zentzu honetan, eta bide bilbeari dagokionez, eraikuntzen koherentzia tipologiakoa bilatuko da, bateragarriak diren erabileren egokitzapena sustatuko da bideak eremuan daukan helburuan, bide bakoitzaren tarteari inguruneko ezaugarri egokiak esleituz.
- Eraikuntzak eta zuzkidura eremuak eta baita gune antolatuek, hiri bilbean eginkizun garrantzitsua daukate eta Iruña Okan oso ondo baloratutako ondasuna daukate. Horregatik, ezinbestekoa da existitzen diren egoera batzuk zuzentzea, adibidez eraikin batzuk daukaten kokapen eta irisgarritasun eskasa edo haien gehiegizko erabilpenak. Etorkizunari begira, ekipamenduen zonifikatze baxua planteatzen da, hiritarretik hurbilago dauden kontzentrazio gutxiko zerbitzuak prestatuz, irisgarritasun maximoa bilatuz eta hiriaren bizitza garatzen den bizitegi bilbera eta gune libreetara hurbilduz.
- Erabakigarria kontsideratzen den beste alderdi bat bideragarritasuna da, espazio libreko bilbean garatzen diren jarduera multzoak bezala ulertuz eta ez bakarrik zirkulazio modu bat bezala ulertuz.

Mugikortasunarekin eta garraioarekin irizpide koherente bat bilatu behar da, hiri eredu orekatu batekin, hiriaren espazio publikoen bilbean osatzen duten erabilera eta jarduera guztiak osatuz Hiri Eszena hobetzeko.

Ezinbestekoa da egokitzen diren irizpideak koherentzia globala edukitzea, horretarako garrantzitsuak izango dira jarduera ezberdinen eskema orokorrak eta ez bakarrik zirkulazio eskemak. Hortaz, ekipamenduak eta espazioak elkarrekin lotu beharko dira, existitzen den eta existituko den bizitegi bilbera lotzeaz gain, oinezkoen eta txirrindularien ibilbideak sustatuz mugikortasun planen aukera bezala, maila handiago batean erantzunez inguruneko erakunde eta udalerrri loturak konpontzeko eta iparraldea zeharkatuko duen Langraiz Okaren iparraldeko zonaldeari irteera bat bilatuz Langraiz etorbidearen trafiko dentsitatea murrizteko.

### Ingurumenaren kontserbazioa

Iruña Okan, gaur arte udalerrriak izan duen hedapen eskasiagatik, ingurumenaren egoera ona dela baieztatu daiteke, biztanleengandik eta bisitatzaileengandik aintzat hartutako balio bat izanik, baina hobetu beharreko urritasun txikiekin. Horregatik gaur egungo egoeran, dimentsio



hazkunde handi bat planteatzen da eta Ingurune Fisikoa presente edukitzea ezinbestekoa da eta haien arteko oreka bilatzen da jardueren euskarria izateko.

Plan Orokorrak natura ingurunean jarduerak garatu daitezzen ez du ekidin behar, baina beste alderdietan eragin behar du:

- Ingurune fisikoaren eraldatze maila arautu behar du, plangintza zuzenaren bidez erabilerak arautuz, jarduera batzuk arrazionalizatzeko gaitasun gisa ulertuta.
- Hazkunde guztiek aurreko ingurunea aldatzea suposatzen dutenez gero, jarduketek eragiten dituzten ondorio ezkorak saihestu behar dira, ahal den heinean.
- Dentsitatea altuak hiri batean lurzoruaren okupazioa optimizatzen du, landa lurzoruaren gaineko presioa murrizten du, masa kritiko handiago bat daukaten espazio eta hiri erdiguneak sortzen ditu, merkataritza aldaketak, aldaketa sozialak eta kulturalak errazten ditu, espazio publiko eta segurtasun okupazioa gehitzen du, desplazamenduak murrizten ditu eta garraio publikoari errentagarritasuna ateratzen dio. Aurreko guztia bereziki kontuan izan da Langraiz Oka birdentsifikatzeko orduan eta dentsitate handiagoko hazkunde berriak planteatzen dira tokiaren identitatea kaltetzen ez duten eremuetan.

Lurzoru Urbanizaezina antolatu gabekoa balitz bezala kontuan hartzen da eta hau jarduketara tamalgarrien kausa izaten da. Planak prozesu hauek aurreikusteko mekanismoak artikulatzeko, bideratzeko eta arautzeko asmoa du, hau guztia, LAG-ek proposaturiko erabilera antolaketari jarraituz.

Iraunkortasun ertz barruko eta udalerririk inguruatzen duen ingurumenen garapen bat proposatzen da, arreta berezia jarriz Zadorra Ibaian eta zaharkituak dauden maila altuko eremuetan, gizakiak sortutako higadura akzioengatik.

Hiri-Lurzoruan, hiriko parkeak sortzea eta babestea ezinbestekoa da, hauek elementu natural bat beste artifizialean sartzeko saiakera baino ez dira, horrela ehundura harrotzen da eta inguruko guneek kalitatea hartzen dute.

### **Gizarte-inklusioa eta genero perspektiba**

Garapen irizpideen artean hirigintza inklusiboa zehaztea dago, biztanle mota batean oinarritu gabe, baizik eta pertsona mota (gizonak, emakumeak, umeak eta zaharrak) guztien beharretara heltzen saiatuz, bereziki zeharkako barne generoan kokatuz, hortaz ondorengo puntuei ezinbesteko garrantzia eman zaie:

- Lurralde eredu trinko eta kohesionatu batez apustu egiten du, ibilbide luzeek eta hiri hutsuneek aldenduz.
- Zaharkitutako espazioak eta erabileren nahasketa, pertsona ezberdinak eta ordutegi ezberdinenetan erabiltzeak sortzen du, ondorioz hirigintza generoan eragin mesedegarria dauka, enplegurako ingurune ziurragoak sortuz bereziki emakumeentzako.
- Oinezkoentzako ibilbide sare ziurragoen sorrera, bizitegi eremuak udalerriko zein eskualdeko zerbitzuekin edo gune libreekin lotzeko, eta eskala eta ezaugarri egokiekin ingurune ziurragoak sortzeko.



- Kale eta espaloien hobekuntzak, eskala egokia emanez, irisgarritasuna irabaziz, ikuspena eta ondorioz beraien segurtasuna.
- Langraiz Okaren bizitegi hazkunde handiagoa garatuz gainontzeko kontzejuekin alderatuz, hiriburuaren herri garrantzitsuenetarikoa izanik, garraio publikoa hobetuz daukalako eta bere erabiltzaile nagusia emakumea delako.
- Merkataritzaren egokitzapen estrategikoa, erdiko espazio publikoei bizitza emanez, beharrezko kopuruan beharrezko zerbitzuak sortzeko eta hurbileko merkataritza sustatuz.
- Hala ere behe-solairuko bereizi gabeko merkataritza erabilera sahiestuko da, gehiegizko lonjak sortuko zirelako, hortaz lokal hutsak handituko ziren, hirigintza inklusiboan edo genero ikuspuntuan eragin negatiboa suposatuko zuelako. Lonjaz beteriko kale bat jende gabe dagoelako eta ondorioz ez da oso ziurra.

## 2.4 INGURUMEN HELBURUAK ETA HIRI GARAPENAREN IRIZPIDEAK

Jarraian deskribatutako helburuen funtzionamendurako irizpideak zerrendatu egiten dira, nahiz eta ataletan banandu, zeharkako moduan funtzionatuko dute.

### 2.4.1 INGURUNE NATURALA

- Udalerriko Balio naturalen, ekologiko, geomorfologiko, hidrauliko eta paisajistikoen babesa, lurzoru mota bakoitzerako baimendutako kontrolaren bidez.
- Udalerriaren barruan erlaitz naturalen sustapena, hiri multzoa birkalifikatzeko.
- Indar naturaleko lurzoruen landarediaren birsorpena eta birgaitzapena.
- Lurzoru eta paisaien zaharberritzea interes naturaleko eremuetan, gaur egun zaharkituak daudenak.
- Zadorra ibaiaren ertzeko ingurune kalitatearen babespena eta ur-bazterreko landarediaren birsorpena.
- Nekazaritza-lurra babestea, ekoizpen-ahalmen txikiena duten eremuak eta balio estrategiko handia dutenak bereiziz, horietan nekazaritza-ustategien finkapena indartzen baita eta hegaltia mantentzen eta lehengoritzen laguntzen duten nekazaritza-jardunbideak lehenesten baitira.
- Lurralde eredu trinko baten garapena, landa ingurunearekin ez oso inbaditzailea, hortaz, lurzoru urbanizaezinaren ahal den gainazal gutxien urbanizatzea.



#### 2.4.2 HIRI INGURUNEA (HIRI LURZORUA ETA URBANIZAGARRIA)

Hiri-ingurune orokorrean, garatu beharreko irizpidean jarraian agertzen dira. Gainontzekoak beste ataletan azaltzen dira:

- Indarrean dauden AASetaik datozen lurzoru urbanizagarrien berrikusketa, garapen maila ezberdinean dauden eremuak onartuz eta garatu ez direnak berrikusiz, arrazoiak eta proposatutako zuzenketak egokiak diren aztertuz.
- Finkatutako hirian hobekuntzaren bat suposatuz gero, prozesu ezberdinak aurrera eramatea, kasu batzuetan birgaitzapenen bidez eta beste kasu batzuetan zaharberritzen bidez.
- Hiriaren erdigunearen dinamizazioa, berriz aztertuz garatu gabeko plangintzaren unitate bakoitza, geldiuenearen arrazoiak aztertuz, eta handik aurrera proposamen berrien diseinua.
- Hiri-kirurgia, hutsuneak antolatzeko helburuarekin, eta ekipamendu eta espazio libreak lortuz hiriaren erdialdeko berrantolaketarekin lagunduz. Eremu zaharkituen eta erabilera nahasketen berreskurapena, espazio hauek pertsona kopuru handiago batez erabiliak izango dira eta ordutegi ezberdinetan, hirigintza generoan eragina izango dutenak emakumentzako enplegurako ingurune ziurragoak sortuz.
- Hiri zentroen desklasifikazioak, existitzen den hiri nukleoa lotzeaz gain lurzoruaren okupazioa optimizatzen du, landa lurraerakiko presioa murrizten du eta masa kritikoa duten espazio edo hiri zentroak sortzen ditu merkataritza, sozialki eta kulturalki aldaketak errazteko; gune publikoaren eta segurtasunaren okupazioa handitzen du, desplazamenduak murriztu eta garraio publikoari errentagarritasuna ateratzen dio. Generoaren ikuspuntutik edo hirigintza inklusiboa, dentsitatea eta hiriaren trinkotasunak hiri bilbean arrisku faktoreak txikitzen dituzte, biztanleez beteriko inguruneak sortuz, jendez beteta, erabilera anitzekin beraien ordutegia zabalagoa izateko. Espazio trinko hauek modu egokian beste sektoreko beharrak betetzen dituzte, adibidez emakumeak, pertsona nagusiak, umeak, etab.
- Garapen eremu berrien aurreikuspena, hazkunde antolatu baten bila, izakinen integrazioa bateragarri batekin aukeratutako hazkunde ereduan.
- HAPOaren denbora esparruaren hazkundea mugatu, eraikitze eta etxebizitza kopura maximoa mugatuz HAPO honen iraunaldi tartean eta LAGak adieraziak. Bere ezarpenaren hazkundea Aurrerapen Agirian dagoenarekin alderatuz neurtuagoa dago, eremuetan etorkizuneko garapena programatuz, aukeratutako hazkunde ereduari erantzuten eta mugatutako etxebizitza kopura gaituz.
- Zerbitzuetarako eremu zehatzen finkapena, erabilera industrial eta bizitegi erabilera osatzen duten erabilera tertziarioak mesedetuz.



- Elementu arkitektoniko eta arkeologikoen katalogozioa, eta baita tokiko erakunde txikiak, bere ezagupen eta babeserako, ondarearen aberastasuneko oinarriak ezarriz, bereziki Iruña Okan.
- Hiri bilbea mugatzen duten industria hondamendien birkalifikazioa bizitegi erabilerarako, gaur egun bizitegi hazkunde natural eta normala oztopatzen duelako. Hiriaren erdialdean erabileren eta koherentzia formal bat lortzeko aukera berriak irekiko dira eta beraz, lurzoru birkalifikatuetan mugatutako zonaldeen bizi kalitatea hobetuko zaie.

**Bide-sistemari** dagokionez, orokorra zein tokikoa,

- Bide sistemaren antolamenduan parte-hartzea Udallerriaren antolamenduko oinarrizko parte bezala, egitura minimoa ezarriz, sistemaren egokitasuna hobetuz hiri erlazioei dagokionez.
- Oinezkoen ibilbideak sortu eta finkatu, egiturazko bideak bezala, baina oinezkoentzako edo txirrindularientzako izaerarekin, bere lorpena ez da aisialdia bakarrik izango, baizik eta, izaera funtzional bat izango dute hiriaren parte ezberdinak erlazioz haien artean, gune libreen loturak eta gaur egun loturarik ez daukaten ekipamenduak azpimarratuz.

**Ekipamendu eta Gune Libreen Sistema Orokorrei** dagokionez,

- Zuzkidura sistema orokorren egitura sarea biztanle guztiei zerbitzua emateko, antzemandako gabeziak ordezkatzeko, hirian ekipamendu berriak jarriz, ibilbide berriak irisgarritasuna erraztuz.
- Zuzkidura espazio berrien ekipamendu sistema ezarri finkatutako egituratik diseinatutako operazioetatik aterata, zuzkidura berriak aurkitzen diren espazioak libre utziz.

**Langraiz Okari** dagokionez, garapen irizpideak ondorengo printzipioetan oinarritzen dira:

- Hiri finkatuaren berregituraketa, bides sare konfigurazio baten bidez hiri egituratzeko eta bide nagusiak arintzeko, aldizkako ibilbideak prestatzeko eta existitzen den ibilbide egitura ixteko.
- Eraikitako hiriaren barne eremuen identifikazioa, birmoldaketa edo bihurtaketa prozesu bat jasan behar dutenak.
- Egitura finkatuan kontserbatzeko lerrokatzeak, osatuak ez daudenak bukatuz eta antolamendu berriak finkatzeko beharrezkoak direnak aldatzeko.
- Ibilbide sistemaren hierarkizazio eta dibertsifikazioa, aukeratutako parte-hartzeekin gaur egun sareak osatzen duten elementu batzuen gainean.





- Udallerriaren erdiko zonaldearen tratamendua eta konfigurazio berria, eraikuntza ezberdinak ezartzen diren birkalifikazioen parte.
- Aniztasun espazioaren irizpideri arreta berezia, hainbat kokapenekin, halaber, eskaintza aniztasuna etxebizitza motekin hazkunde berrietan.
- Bizitegi erabilerarako lurzoruen eskaintza nahikoaren segurtasuna, hausnarketa prozesuak saihestu gainbalio parte bat sozietateari itzultzeko, eta Administrazioaren parte-hartze aktiboaren bidez higiezin-enpresa prozesuen kontrolean.
- Babes publikoko etxebizitzaren berdin banaketa irizpideak jarraituz, tipologia honen kontzentrazioa saihestuz eremu bakarrean edo gainontzekoen falta egotekotan.

#### **Toki-erakunde txikiei dagokionez,**

- Nortasun bereko Administrazio-Batzar ezberdinen integrazioa komuneko ereduaren barruan, SAUalerrir anitza osatzen dutenak, eta batzar bakoitzaren aniztasunez mesede egiten den egitura.
- Tokiko Erakunde Txikietan ezaugarri berezien mantentzea: Mandaita, Olabarri, Billoda eta Tresponde. Bere morfologia ahuldu ahal duten parte hartzeak alde batera utziz eta balio ekologiko, paisajistiko eta kulturalen kontserbazioa bermatuz eta sustatuz.
- Eremu bakoitzaren indartzea dagokion nolakotasun eta ezaugarri espezifikoak, landa populazioari lotzen diren baliabide naturalen ustiapena eta ohiko jarduerak baliabide hauek kontserbatzeko.

#### **Ekonomia-Jarduerari zuzendutako lurzoruei dagokionez,**

- Eremu industrialen eta zerbitzuen lorpen-maila, jarduera ezberdineko funtzionamendu egokirako azpiegitura eta zerbitzu egokien bidez.
- Kalitate eskaintza, ekonomia jarduera egokiak finkatzeko baldintzak sortuz eta inbertsio berriak erakartzeko, Lurzoru Urbanizagarri sailkapen berriaren bidez Ekonomia-Jarduerarako estrategi puntuetan, lehenengo mailako udalerriz gaindiko azpiegituraren loturagatik eta hurbiltasunagatik.
- Poliki-poliki hiri nukleoko industria jardueren mugimendua (Tresponde eta Billodan adibidez) Lurzoru Industrialeko zonalde berrietara lekualdatu, bere irisgarritasuna hobetuz eta batzarren gain sortzen diren jarduera mota hauen eragozpenak saihestuz: trafikoa, zarata, kutsadura,....
- Erabilera industrialak daukaten lurzoruen berrikuspena eta gaur egun erabiltzen ez direnak, erabilera atseginagoa eta hondakin industrialen ondoan dauden bizitegi bilbearekin bateragarriagoak direnak, eta hiri nukleoentzako hazkunde bizitegi naturalaren hesia menperatuz.



- Erabilera berrien ezarpena, sektore turistikoa adibidez, udalerrian existitzen den ondare naturalistiko, historiko-artistiko eta arkeologikoa balioan jartzeko, hazkunde ekonomiko berria eta balioak bat osatuz.

## 2.5 LANDUTAKO AUKEREN DEFINIZIOA ETA AUKERAREN JUSTIFIKAZIOA

### 2.5.1 LURRALDE EREDUA

Langraiz Okagatik AASSak aurkezten zuten eredu garatuaren kontrajartze, bizitegi hazkundeak aurkezten duten olio mantxa lurzoru gutxiago okupatzen dute Aurrerapen Agiriko planoetan agertzen direnekin konparatuz, kasu gehienetan **ingurunearen** inpaktua murrizten hiriko hazkundeetan. Hiriaren dentsifikazioak lurzoruaren okupazioa optimizatzen du, landa lurzoruaren presioa murrizten du eta espazio publikoaren okupazioa eta segurtasuna sortzen duten espazioak edo hiri erdiguneak sortzen dira, desplazamenduak murrizten dira eta garraio publikoari errentagarritasuna ateratzen zaio. Hortaz hiri eredu trinkoago bat planteatzen da dagokion hobekuntzekin, hiri erosoago bat eta bizi kalitate gehiagorekin, beti ere harmonian eta tokiaren nortasuna mantentzeko helburuarekin.

Hazkunde iraunkor baten bila, planteatutako garapen askok hiri lurzorian egiten dira, bai Langraiz Okan zein gainontzeko lau tokiko erakunde txikietan, bertan itxaroten den hazkundera mugatuagoa da, ohiko izaera errespetatu nahi delako, hiri kirurgiaren aldaketa txikietan oinarrituz eta garatzen ari diren AASSetatik datozen jarduketak errespetatuz.

**Langraiz Oka** foru mailara udalerrri nagusi bat osatzeko egoeran dago; Araba Erdialdeko LPPak argi uzten du, Vitoria-Gasteiz daukan udalerrri pisua alboko pisu gutxiago duten udalerrrien artean banatuko ditu. Arabako hiriburuarekin daukan komunikazio onari esker egoera hau sortzen da, hortaz, lurralde ereduak hazkundera oinarritzen da, hiriaren erdigunea kohesionatuz, gaur egun apur bat zatikatua dagoena, eta bitzita kalitatearen hobekuntza ekartzen dituzten jarduketan bidez.

Ildo beretik jarraituz, ekipamenduei begira hazkundeak eta kalitate hobekuntzak daude, kalitatezko eta mugikortasuneko gune libreak, oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbideak sustatuz, udalerrria bizitzeko toki erakargarria bihurtzeko. Erabileren nahasketa bultzatzen da, kanpoaldean fokalizatu gabeko ekipamenduen xedapena azken urteotan egin den bezala, hiriaren erdigunean kokatutako puntuak, haien artean oinezkoentzako eta txirrindularientzako trazaduren bidez lotuak, zuzkidura sare eskuragarriago bat lortzeko, ekipamenduz eta kalitatezko gune libreez osatuak.

Langraiz Oka, Iruña Okan osatzen duten bost kontzejuetatik nagusiena da, gainontzekoei begira erdiko kokapen bat eta hiri forma gehiago dauka. Billoda eta Trespondekin batera Arabako Harana osatzen du, bigarren mailako errepidez osatuak, Zadorra ibaiaren alboan jaiotzen direla komunean daukate. Arabako hiriburutik gertuen dauden erakunde biak dira, hortaz, Vitoria-Gasteiztik datorren biztanleria jasotzen dutenak.



**Billoda**, Langraiz Okaren atzetik bizitegi eskaintza handiena daukan kontzejua proposatutako jarduketa berriei dagokionez, AASSetatik datozen eremuko jarduketak baztertuz. Proposatutako antolamenduak kaleak ixten ditu eta hirigunea hobetzen du jolastoki berrien bidez. Hondamendi industrial berrien berreskurapen aukera berriak planteatzen ditu eta ekonomia jarduera iraunkorren ezarpena, sektore tertziarioa eta bizitegi erabilerara zuzenduak. Aldi berean, zuzkidura espazio bat sortzen du, udalerraren zuzkidura sistema orokorrera hornituko duena azalera handi batekin eta kokapen pribilegiatua izango duena bideen loturari dagokionez eta Arabako hiriburuko gertutasunagatik.

**Trespondek** aurreko hirigintza plangintzan proposatu zen bizitegi hazkundera mugatzen da, bertan kontzejuak osatzen duten bizitegi auzo biak batzen ditu: Santa Katalina eta Santiago, koherentzia morfologiko handiagoa sortuz hiri nukleoaren multzoa elkartzerakoan. Aldi berean, planak sarbide arazoak konpontzen saiatzen da, A-4359 errepidekoak Gasteitik, zein oinezkoarenak A-4358 errepidetik datorren zubitik eta Billodakin lotzen duena, akzio biak Zadorraren ingurukoak.

Mandaita eta Olabbarri, Badaiaiko eta Tuyoko Mendilerroen korridorean kokatuak daude, Langraiz Okaren ekialdean, foru errepidearen bidez lotuak, AP-68 Bilbo/ Miranda de Ebro eta A-1 Vitoria/Miranda de Ebro lotzen duenak.

**Mandaitan** biztanleriaren bizi kalitatea hobetu nahi da irisgarritasun hobekuntzen bidez, bai garraio zerbitzuei dagokiona eta bai existitzen den zuzkidura sarearen bidez, etxebizitza berri gutxi sortuz. Tamaina txikiena eta biztanle kopuru gutxiago daukan erakundea da, eta ziur aski bere ohiko irudia hobetu mantendu duena, hortaz, hazkunde handiegirik ez du behar eta bere nortasuna kontserbatzeko neurriak egokitu dira.

**Olabarri**, AASSetan planteatzen zen bizitegi parke berriaren garapena zain dauka, hortaz ez ditu hazkunde berriak planteatzen; hala ere, Langraiz Okarekin lotzen duen oinezkoen eta txirrindularien ibilbide hobekuntzak proposatzen dira, udalerrari garrantzi handiagoa emateko. Neurri honekin Olabarriko biztanleen eta bereziki Langraiz Okan dauden ekipamenduen arteko loturak hobetuko dira, iraunkortasun mugikortasunaren gehikuntza hobetuz ibilgailu erabileraren aurrean. Kontzejuari dagokionez, gainontzeko tokiko erakunde txikiak bezala, lerrotzeko zuzenketak planteatzen dira beharrezko kaleak zabalduz 5metrotako zabalera eduki arte, gehienetan oinezkoak eta ibilgailuak elkar bizi behar dira hiri lurzoruen alde bietan dauden lursailetan.

Hiri hazkundeak alde batera utziz, **lurzoru industrialak** kontzejuetatik bereizten dira, jarduera gutzia N-1era lotua dauden industrialdeetan kontzentratua dagoelako. Sakabanatutako enpresa batzuk daude, bai bere erabilerengatik (lehergaiak adibidez, segurtasun ertzak baldintzatzen dutenak) edo hiri nukleotik gertuko industrialde txikiak osatzen dituztelako. Azken hauen birkolokapena bilatzen da industrialdeetan, bizitegi erabilerarekin harreman gehiago daukaten erabilerak ezartzeko, bizi kalitatea hobetzeko eta erabileran antolamendu arrazoizko bat lortzeko.



Etorkizun hurbilean, **trenbide azpiegitura** sarera N-1 errepidea eta Madrid-Irun trenbidearen trazadura sartuko dira, abiadura handiko trena, zonaldeko ekonomia-jardueraren itxaropen hazkundeak gehituz eta tokiaren potentzialtasuna ekonomia-jarduerentzako puntu estrategiko bezala, Jundizko geltoki intermodalaren hurbiltasunagatik.

Azkenik, lurralde ereduak tertziario motako **ekonomia-jarduera** berriak ezarpenetik pasako da, ez bakarrik bere hazkunde ekonomikoa industrian oinarrituz, baizik eta balioan jarriko dituzten udalerriko baliabide naturalak, historiko-arkitektoniko eta arkeologikoen jarduera turistikoak. Modu honetan, Iruña Okako sektore tertziarioaren pisua orekatuko da gainontzeko lurraldearekiko, gaur egun batez bestekotik behera dagoelako. Industria baino ekonomia-Jarduera iraunkorrakoak dira eta bereziki harrobien ustiapena baino, batez bestekotik behera dagoelako. Gainera, ingurunearen eta ondare arkitektoniko eta arkeologikoaren zaintza handiagoa suposatzen dute.

## 2.5.2 HAUTATUTAKO AUKEREN ANALISIA

**Aurrerapen Dokumentuan** hainbat proposamen egiten dira. Alor hauetako batzuetan izan diren aldaketak ikusirik, eta kontuan hartuta udalerriri eragiten dion araudian hainbat aldaketa egin direla eta Aurrerapen Dokumentuan jasotzen diren zenbait proposamen eta eraikuntza azken urteotan gauzatu direla, proposamenak eta, Iruña Okan esku hartzeko modua birplanteatu beharko lirateke.

Jarraian aipatzen dira gerta izan daitezkeen eta Aurrerapen Dokumentuan planteatutako proposamenei zuzenean eragiten dieten aldaketak:

### 2.5.2.1 Bizitegi garapeneko proposamenak.

Plangintzaren Aurrerapenean bizitegi garapen mota bi planteatzen dira: hiriko finkapenean oinarritutako garapenak eta hedapena.

#### Finkatutako eremua: birmoldatzeko eremuak (Aurrerapen agiriaren arabera)

Aurrerapen Dokumentuan Langraiz Okako erdigunea leheneratzeko proposatzen zen prozedurak hainbat ekipamendu txertatzea zuen helburu; horrek, bizitegi-parke berriarekin batera, erakapen-eremu bat sorraraziko bailuke. Horretarako, erdigunean 300-350 etxebizitza berri eraikitzea proposatzen zen, eta horrek zabalkuntza garrantzitsua zekarren indarreko Arau Subsidiarioetan ezarritakoarekiko.

Aukera bi zeuden Langraizeko hirigunea finkatzeko, gaur egungo antolamendurako oinarri izan direnak baina egoera berriei egokitu beharko dira, azken urteotan hainbat esku-hartze eta aldaketa egin direla, horietako batzuk dokumentuan bertan proposatutakoak: plaza bat eraikitzea Langraiz etorbidearen alboan, lurzati esleitzea osasun-zentro berrian eta hezkuntzarako ekipamendu berri bat eraikitzea, eskola publikoaren alboan.



Kultur ekipamenduen **gainazala handitzeko helburuak oinezkoen eta txirrindularien arteko komunikazioa eta Administrazio-batzordeetan**, gainera, **biztanleak erakartzeko eta biltzeko nortasuna eta gaitasuna duten espazioak berriz**, iraunaldian jarraitzen dute.

#### Hedapen eremuak (Aurrerapen agiriaren arabera)

Aurrerapen Agirian aurkeztutako proposamenean, hiriaren logikari jarraituz eraldatu ez ziren lurzoruetako etxebizitzaren hedapenak gehienbat Langraizeko Batzordearen ekialdean kontzentratzen ziren, Iparraldeko Auzoko eremu txiki batean izan ezik. Era berean, gaur egun indarrean dauden Arau Subsidiarioetan jasotzen den SAU-N1 sektorea mantentzen da.

Hiru aukera proposatzen dira, guztietan garapena ekialderantz proposatzen da, Langraiz etorbidea finkatuz eta eraikitako eskolaren zonaldea antolatuz. Haien artean bereizten dira B eta C aukerak, Langraiz Etorbidearen hegoaldea barne zeukan eta ondorioz, etxebizitza kopurua handitzen zihoan:

#### A Aukera



- 700 – 800 etxebizitza.
- Langraiz etorbidea finkatzea.
- Ikastetxeko eremua antolatzea eta trantsizioa egungo bilbearekin.

#### B Aukera



- 1300 etxebizitza
- Langraiz etorbidea finkatzea.
- Ikastetxeko eremua antolatzea eta trantsizioa egungo bilbearekin.
- Ikastetxearen hegoaldeko eremua antolatzea.



### C Aukera



- 1500 etxebizitza
- Langraiz etorbidea finkatzea.
- Ikastetxeko eremua antolatzea eta trantsizioa egungo bilbearekin.
- Ikastetxearen hegoaldeko eremua antolatzea.

Goiko atalean azaldutakoaren arabera, hedapenerako hiru hautabideetan, lehendik zegoen ikastetxearen alboan, hezkuntza-ekipamendu bat eraikitzea proposatzen zen. Hori azken urteotan egin da.

B hautabideak proposatzen zuen Aurrerapen Dokumentua garatzea. Hala ere, gaur egun, ezinezkoa litzateke B edota C hautabideak burutzea, goian aipatutako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako (LAG) bizitegi-kuantifikazio metodoaren bitartez kalkulaturako gehieneko bizitegi-ahalmen onargarria gaindituko lukete. Zehazki, bizitegi-parkean ezingo dira 807 etxebizitza baino gehiago eraiki; beraz, kasu honetan **“A aukera” soilik da bideragarria**, plan honetan erreferentzi gisa hartu dena.

#### 2.5.2.2 Ekonomia-Jarduera garapenaren proposamenak

Ekonomia-Jarduerako lurzoruei dagokionez, **Aurrerapenaren proposamena mantentzen da**, AHT-aren trazadura berria kontuan hartu da eragin zuzena daukala Aurrerapen Agirian “Los Llanos” hegoaldearen lurzoru industrial berrietan, N-1 errepidearekin muga egiten zuen iparraldetik eta AHT trazadurarekin hegoaldean. Hortaz, lurzoru honen mugak aldatzen dira baldintzatzaile berriei egokitzeko.

Aire zabaleko ustiapenei dagokionez, alderdi garrantzitsu bat “Navarra Pequeña” harrobiaren zabalera da. Gaur egun, bere hedapena tramitatzen ari da, nahiz eta ingurumen ikuspuntutik erauzketa hazkunde gutxiagoko aukeren ebaluaketa egin nahi da, ingurumenaren eragina murrizteko.

Edozein kasuan, **harrobiek kokapena eta hedapena udalerriaz gaindiko zehaztapen bat da**, hau da, plangintzaren azkenengo proiektuan HAPOak **Plan Berezi** baten bidez sartu beharko du, eta bere erregulazioa agertu beharko da Araudi Sektorialera lotua.

Etorkizuneko ustiapenaren finkapena Olabarri eta Langraiz Oka nukleotik gertu dago, hortaz, Plan Bereziak kontzejuetaraino segurtasun distantzia bat ezarri beharko du eta ingurune



naturalean eta jendea bizi den zonaldeetan ezarpena ahalik eta kaltegarritasun gutxiago izateko baldintzatzaileak ezarri beharko ditu.

## 2.6 PROPOSAMEN PLANAREN SINTESIA

### 2.6.1 EGITURAREN ANTOLAMENDUA


#### 2.6.1.1 Lurzoruaren sailkapena

Iruña Okako udal-mugartea osoa sailkatu da ondorengo lurzoru motetan, perimetroa mugatuz ondorengo lurzoru motetan oinarrituz:

- **Lurzoru Urbanizaezina**, urbanizaziotik gordetzen den landa lurzorua, balio natural edota nekazaritza abeltzaintzako lurzorua zaintzeko. Azpibanatzen da atal espezifiko bakoitzaren kategorietan. Gainera lurzoru urbanizaezineko kategoria propioez gain, Sistema Orokorrak eta Asentamendu Bereziak sartu ahal dituzte.
- **Hiri lurzorua**, hiri bilbean aldatutako lurraldeak, integratuak edo integragarriak, ibilguentzako sarbidearekin eta oinarritzko hornigaiekin, eta hornigai nahiko ez dituen etorkizun eraikinerako proposatutako espazioa 2/3 okupatzen duena. Lurzoru mota hau bitan banatzen da: **Finkatutako lurzorua eta Finkatugabeko lurzorua**. Hiri lurzoru mugatutako AOPak eta jarduketa integratuak dagokionak: (AOP-N1, AOP-N2, AOP-N3, AOP-N4, AOP-N5, AOP-N8, AOP-M1, AOP-V1, AOP-V2, eta AOP-T2) udalerraren Finkatugabeko Hiri Lurzoru osatzen dute, eta bitartean gainontzeko lurzoru sailkatua urbanizazioaren Finkatutako Hiri Lurzoru osatzen du. AOP-G1 salbuespen bat da, urbanizaziotatik finkatugabeko hiri lurzoru aurkituko diguna, baina hala ere eraikigarritasunagatik finkatua dago.
- **Lurzoru Urbanizagarria**. Landa egoeran dauden lurzoruak osatzen dituzte, eta hiriaren hazkunderako haztea aurreikusten da. Bi azpikategorietan banatzen dira, **Sektorizatua eta Ez sektorizatua**. Plan honetan sailkatutako Lurzoru Urbanizagarri guztia sektorizatua da, eta hiri lurzoru eta jarduera integratuaren bidez garatzen diren AOP-z osatuak daude, hau da, AOP-N6, AOP-N7, AOP-O1, AOP-T1, AOP-I2 eta AOP-I3.

Definitutako sailkapena *P2 Plano zenbakian* irudikatzen da eta atxikitako irudian:





*HAPOan proposatutako lurzoruaen sailkapena (Iturria: Egileak moldatua)*





### 2.6.1.2 Lurzoruaren kalifikazioa

Lurraldearen hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria guztira **eremuaren erabilera globalean** oinarrituz sailkatu da, hau da, erabilera bereizgarria edo nagusia. Erabilera publikoak banandu dira (sistema orokorra edo ekipamendu publiko egituratzailea) erabilera pribatuetatik eta beraz irabazikoetatik (bizitegiak, tertziarioa, industrialak, sistema pribatu orokorra edo egiturazko ekipamendu pribatuak), eta hiri lurzorua eta urbanizagarria azpi banandu da.

*Finkatugabeko hiri lurzoru* guztia eremuetan banandu da, eta lurzoru urbanizagarri guztia sektoreetan; mugatutako gainazalak antolamendu eremu xehatuak (AOP) osatzen dituzte, sailkapen globala egiten denaren arabera. Sailkapen globalaz gain, eremuaren erabilera berezia dela, eremu bakoitzerako baimendutako erabilera zerrenda bat esleitu zaio, eta bere eraikigarritasuna guztira.

Finkatutako Hiri Lurzoru azpi-zonaldean banandu da, honela zonalde bakoitza eremu homogeneo bati dagokio eraikuntza morfologiari eta hirigintzari dagokionez

Zehaztapen eta ezaugarri multzoak Planaren *Hirigintza Araudietan* agertzen dira.

## 2.6.2 ZONIFIKAZIO ETA GARATU BEHARREKO EREMUAK

Azaldutakoaren emaitza bezala, ondorengo eremuak definitu dira, hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriari buruzkoa, eta ondorengo sistema orokorrak:


- ZONA PUBLIKOAK: Sistema Orokorrak (SO) eta ekipamenduzkoak:
  - E1: Komunikazio, kale eta errepideen S.O.
  - E2: Oinezko eta Bizikleten komunikazioarako S.O.
  - E3: Trenbide komunikazioarako S.O.
  - E4: Beste egitura komunikazio batzuk
  - F1: Gune Libreko S.O.
  - F2: Beste Gune Libre egituratzaile batzuk
  - G1: Batasun ekipamendu publikoaren S.O.
  - G2: Batasun ekipamendu publiko egituratzaileak
  - H: Azpiegituren zerbitzuak
  - I: S.O. hidraulikoa
- ZONA PRIBATUAK:
  - A: Bizitegia
  - B: Industrialak
  - C: Tertziarioa



D1: Batasun ekipamendu pribatuko S.O.

D2: Beste batasun ekipamendu pribatu egituratzailea

Zonifikazioa P3 zenbakiko Planoan agertzen da eta erantsitako irudian sintetizatzen da.



*HAPOak proposatutako zonifikazioa (Iturria: Egileak moldatua)*

Mugatutako antolamenduko eremuez gain, aurrerago azalduko dena, udalerrian (AXE) Antolamendu Xehatuko Ereku batzuk mugatu dira:



## **AOP Bizitegikoak**

### Langraiz Oka

- AOP-N1 Razuela
- AOP-N2 Milagros González
- AOP-N3 Errota
- AOP-N4 Kare-Labea
- AOP-N5 Iparraldeko Langraiz
- AOP-N6 Torko
- AOP-N7 Eskolak
- AOP-N8 Bolen

Jarduketa integratuen bidez garatzen dira.

### Mandaita

- AOP-M1 Mandaita

Jarduketa integratu baten bidez garatzen da.

### Billoda

- AOP-V1 Mendebaldeko Billoda
- AOP-V2 Tertiarioa (erabilera orokor tertziarioa, bizitegiko portzentajearekin)
- AOP-G1 Garabo ( existitzen diren etxebizitzentzako zerbitzuak)

Jarduketa integratuen bidez egiten da, azkena izan ezik, HBPB bezala ondorioztatzen dena.

### Ollabarri

- AOP-O1 Ollabarri (iraunaldian dauden AASSen SAU-O2 dagokio, PParekin onartua)

Jarduketa integratu baten bidez garatzen da.

### Tresponde

- AOP-T1 Tresponde (iraunaldian dauden AASSen SAU-T1 dagokio, PParekin onartua)
- AOP-T2 Zubia

Jarduketa integratuen bidez garatzen dira.

## **AOP Industrialak**

Lurzoru industrialei dagokionez antolamendu xehatuko hiru eremu mugatzen dira. Lehenengoa zuzkidura jarduketaren bidez garatzen da, eta gainontzeko biak jarduketa integratuaren bidez.

- AOP-I1 Lehergaia
- AOP-I2 Los Llanos II
- AOP-I3 Subillabide II

Lehenengoa zuzkidura jarduketaren bidez garatzen da eta gainontzeko biak jarduketa integratuaren bidez.



### Sistema orokorrak

Sistema orokorren zuzkidura-sareak 2/2006 Legearen 54.artikuluaren arabera: plangintza orokorrak ezarritako antolamenduak direnak, eta bereziki, espazio libre eta ekipamenduko kolektibo publikoak, ekipamendu kolektibo pribatuak eta komunikazio-azpiegiturak eta sareak, plangintza-eremu bat baino gehiago hartzen badute funtzionaltasunez eta zerbitzuz.

Plan orokorraren hiri-bilaketarako eta lurzorua okupaziorako estrategiaren arabera beharrezkotzat jotzen da:

- a) Espazio libreak eta jabari eta erabilera publikoko berdeguneak.
- b) Titulartasun publikoko ekipamendu kolektiboak; adibidez, hezkuntza, kultura, osasuna, asistentzia, kirol eta administrazio-erabileretarako.
- c) Era guztietako zerbitzuak sarean emateko azpiegiturak, emate horren araubidea edozein delarik ere. Eta, edozein kasutan, urbanizazioa definitzen duten zerbitzuak ematekoak, eta bereziki zerbitzu hauek: ibilgailu eta oinezkoentzako bidea, uraren eta energia elektrikoaren hornidura, saneamendua, argiteria, telekomunikazioak, eta ibilgailuen aparkalekua
- d) Bide publikoak, oinezkoentzako bideak eta ibilgailuentzako bideak.
- e) Ekipamendu kolektibo pribatuak; esaterako, merkataritzakoak, erlijiosoak, kulturakoak, irakaskuntzakoak, kirolekoak, osasunekoak, laguntzakoak, zerbitzu teknikoetakoak eta garraiokoak, bai eta interes publikoa edo gizarte-interesa duten gainerako ekipamendu pribatuak

Plan batekin garatuko da. Eremu bati esleituta ez dauden Sistema Orokorrek honela mugatu dira: AOP-SG edo AOS-SG, jarduketarako kudeaketa irudi bat behar den kasuetan. Irudien arteko ezberdintasuna da: AOP *Antolamendu Xehatuaren Eremua* eta AOS *Udalez Gaindiko Antolamendu Eremua*, Udalez gaindiko plangintzari erantzuten diona.

Planak ondorengoak azaltzen ditu:

- *AOS-SG1*: Jundizko Geltoki Intermodalari dagokio. Iruña Oka eta Vitoria-Gasteiz, Bateragarritasun Plan bat behar izango du eta Trenbide komunikazio Sistema Orokorra bezala kalifikatzen da.
- *AOS-SG2*: Abiadura Handiko Trenbide berriaren (AHT) tartea da. Udalerriz gaindiko azpiegitura bat da. Oraindik ez da behin betiko trazadura garatu, Sustapen Ministerioak aurkeztutako aurreproiektuan oinarrituta dago. Trenbide komunikazio S.O. bezala kalifikatzen da. Iruña Okako HAPOk *trenbidea Gasteizen integrazteko proiektuaren* informazio-azterketan adierazitako trazadura hartu du kontuan. (2012ko martxoaren 17ko EAO, 66 zk.), egoera aurreratuan dagoelako, eta Burgos-Gasteiz tarteko plataformaren oinarritako proiektua garatu delako 2019ko irailean. II. Fasea. Hala ere, HAPOak behin-betiko trazadura berrira egokitu beharko da, eta ondorioz, AHTarekin muga egiten duten sektoreekin egokitu beharko da.



- *AOP-SG3*: Torkako erreka inguruko Gune Libreko Sistema Orokor bat da. Ingurune natural pribilegiatu batez besteko zein sarbide espazio eta nukleo inguruko naturaz gozatzeko erabiliko da. Aisialdirako eremu pribilegiatu bat osatuz, bere ezaugarri naturalengatik eta Espazio Librean Sistema Orokorrarekin osatuz, *AOP-N6 "El Torco"* barruan.
- *AOP-SG4*: Bideko Sistema Orokor bati buruz ari gara, Trespondeko kontzejuaren sarbide arazoa konpontzen du, bereziki tamaina handiko garraioari dagokiona: autobusak, zaborreko kamioiak,...., Trespondeko hiri kudeaketaren zerbitzuak eta garraioak erraztuz. Ez dago jarduketa batean ere ez.
- *AOS-SG5*: Oinezko eta bizikletentzako Sistema Orokor bat da, Arabako lurralde historikoaren bizikleta bideak eta ibilbide berdeen Lurralde Plan Sektorialetik proposatua, Zadorra Ibilbide Berdearen IVC4 ibilbide berde osagarria bezala.

Jarduketetan dauden Sistema Orokorren ezarpenerako beharrezkoak diren lurzoruak beraien arteko lagapenaren bidez lortzen dira. *Espazio Librean Sistema Orokorrak* hurrengo eran garatuak daude:

- *AOP-N3* Errota, ur baltsa parke batez osatua, Errota eta Karegilearen inguruan. Espazioa okupatu eta urbanizatu da jarduketa garatu aurretik, eta mugari nagusienetarikoa osatzen du Langraiz Okako hiri nukleoaren espazio librean birkalifikazioan.
- *AOP-N4* Kare-Labe, plaza barne, Martxoak hiruko sistema orokorraren alboan, zentro zibikoaren alboan espazio publikoa eskaintzen du.
- *AOP-N6 "Torko"*, Gune Libreko Sistema Orokorren Eremua zabaltzen du, Torkako erreka alboan planteatzen dena, ingurunea babesteko neurri bezala. Trantsizio espazioa osatuko du bere artean eta aldatutako lurraldearen artean.
- *AOP-V2* Tertiarioa, gune berdeak Espazio Libreko Sistema Orokorrera lagatzen dizkio, aisialdi eremu bezala ekipamenduzko erabiletara lotua eta eremu baten barruan garatu ahal diren tertziarioak.
- *AOP-T1* Tresponde, Lanerreka erreka inguruko verde gunea lagatzen du, puntu horretan paisaia babesteko eta kontserbatzeko neurri gisa, jarduketa ingurunera hobeto egokitu eta errespetatzen da.


*Batasuneko Ekipamenduaren Sistema Orokorre* dagokionez, ondorengoak Antolamendu Xehatuaren Eremuen barnean daude:

- *AOP-N3* Errota, Karegilearen eraikuntza lagatu egin da aurretik garatu ondoren, eta Iruña Oka Udalak ekipamenduzko eraikuntza bihurtu du.
- *AOP-N7* Eskolak, Badaiaiko Bigarren Hezkuntzako Eskolaren ezarpenarekin. Jarduketak institutu berri bat eraikitzeko beharrezko lurzoruak lagatu ditu, hirigintza hitzarmenaren bidez.
- *AOP-V2* Tertiarioa, erabilera tertziarioa eta bizitegi erabileraz gain, Batasuneko Ekipamendu Publikoko Sistema Orokorrera bideratutako lurzoruak dauzka. Loturagatik



eremu pribilegiatua da, Arabako hiriburutik gertu dagoelako, Iruña Veleiako aztarnategitik eta bestelako paisai natural eta kulturaletatik hurbil. Bertan garatu ahal diren erabilera tertziarioko zuzkidura jardueretarako kokapen estretariko bezala planteatzen da.

Antolamendu Xehatuko Eremuak Planaren 22. Zk.an agertzen dira. Halaber, ondorengo irudian eta taulan irudikatua eta azalduta agertzen da:



*HAPOaren antolamendu xehatuko eremuen mugapenak (Iturria: Egileak moldatua)*



EREMUA	IZENA	SAILKAPENA	MOTA	SAILKAPEN OROKORRA	Azalera (m <sup>2</sup> )	Etxebi. Kop.
AOP-N1	Razuela	Hiri-Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	7.537	43
AOP-N2	Milagros-González	Hiri-Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	2.767	21
AOP-N3	Errota	Hiri-Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	9.490	50
AOP-N4	Kare-Labea	Hiri-Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	4.358	40
AOP-N5	Iparraldeko Langraiz	Hiri-Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	33.536	181
AOP-N6	Torko	Lurzoru Urbanizagarria	Sektorizatua	Bizitegia	33.915	79
AOP-N7	Eskolak	Lurzoru Urbanizagarria	Sektorizatua	Bizitegia	43.456	261
AOP-N8	Bolen	Hiri-Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	1.128	2
AOP-M1	Mandaita	Hiri-Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	2.867	3
AOP-O1 (SAU-02 AASS-etan)	Olabarri	Lurzoru Urbanizagarria	Sektorizatua	Bizitegia	25.096	24
AOP-T1 (SAU-T1 AASS-etan)	Tresponde	Lurzoru Urbanizagarria	Sektorizatua	Bizitegia	16.724	27
AOP-V1	Mendebaldeko Billoda	Hiri-Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	8.734	7
AOP-V2	Tertziarioa	Hiri-Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	32.365	16
AOP-V3	Tertziarioa	Hiri-Lurzorua	Finkatugabea	Tertziarioa	32.560	15
AOP-G1	Garabo	Hiri-Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	6.167	--
AOP-I1	Lehergaiak	Hiri-Lurzorua	Finkatugabea	Industriala	838.288	
AOP-I2	Los Llanos II	Lurzoru Urbanizagarria	Sektorizatua	Industriala	437.255	
AOP-I3	Subillabide II	Lurzoru Urbanizagarria	Sektorizatua	Industriala	530.399	
AOS-SG1	Terminal Intermodal	Udalerriaz gaindiko antolaketa		Trenbide komunikazioen SO	307.300	
AOS-SG2	AHT-aren trazadura	Udalerriaz gaindiko antolaketa		Trenbide komunikazioen SO	5.484	
AOP-SG3	Ibaiko Parkea	Lurzoru Urbanizaezina		Gune Libreko SO	554	
		Hiri-Lurzorua	Finkatua		2.247	
AOP-SG4	Trespondeko Sarbidea	Hiri-Lurzorua	Finkatua	Komunikazio, Kale eta errepideen SO	2.442	
AOP-SG5	Zadorraren bide berdea	Lurzoru Urbanizaezina		SG Komunikazio, oinezko eta bizikleten SO	---	



### 2.6.3 LURZORU URBANIZAEZINERAKO KATEGORIZAZIO ETA ZEHAZTAPENAK

Lurzoru Urbanizaezineko (LEU) kategorien terminologiari dagokionez, Planak Arabako udalerrian dauden beste plan orokorreki dagokionez terminologia bateratzea erabaki du, ahal den neurrian, Arabako Foru Aldundiak erraztutako izenekin. Modu honetan taldekatu egin dira kategoria ezberdinak bi taldetan:

- **Babes bereziko landa eremuak**, balio naturalengatik barnean elementu azpimarragarrienak dauzka, hau da, ekosistema, landaredia edo paisaia, bere balio historiko kulturala eta nekazaritza eta abeltzaintza nahiz basozaintzako lurzoruak.
- **Babestutako landa eremuak**, aurrekoen balioa izan gabe plangintzak hiri garapena mantentzea egokia iruditzen zaio.

Hala ere, Udalerriko eremu ezberdinen behin betiko sailkapen bat proposatzerako orduan, hiri alderdi izan dira kontuan bereziki: landaredia, lurzoruaren gaitasun agrologikoa eta interes naturaleko kokalekuen ageria; salbuespenak egon dira.

Ingurumen hobekuntza kategorია bat izatera pasa da (Norplanen baldintzatzaile gainjarria).

Norplanak proposatutako *balio historiko kultureko elementuen kategoriak* gainjarritako baldintzatzaileak dira ustezko arkeologia-hedapenei dagokienez, eta, kasu horietan, lurzoru urbanizaezinen berezko kategoriak gainjartzen dira.

Jarraian LUEaren kategoría ezberdinak definitzen dira:

#### **BABES BEREZIKO EREMUAK**

##### **J10. Balio naturaleko babes bereziko landa eremua**

Balio ekologiko eta naturalistiko altuko zonetan aplikatzen da, bai ondo zaindutak dauden tokiko basoengatik, sistema geomorfologiakoa, egoera onean dauden ur-ibilguak, barneko hezeguneak, landaredi bereziko eremuak edo intereseko beste ekosistema natural.

Kasu honetan, babes legala duten lurraldez integratuak daudenak edo balio bereziko ingurumen merituak dituztenak, adibidez: babestutako espazio naturalak (ES2110010 “Zadorra Ibaia” Natura 2000 Sareko kontserbazio Bereziko Eremua). Udalerrian ez daude izendatuak babestutako beste espaziorik, ez Natura 2000 Sarekoak ezta interes naturalistikoaren beste espazioak, Lurraldearen Antolamenduko Gidalerroetan.

Landaredi bereziko eremuak, tokiko landaredia daukaten zonaldeak edo kokaguneak dira, naturaltasun maila garrantzitsu bat kontserbatzen dute eta Udalerraren ondare natural nagusia osatzen dute. Kategoría honetan beraz daude: Badaia Mendilerroa, Tuyoko Mendilerroa eta Gasteizko Mendiak. Udalerraren masa nagusienak daude: garrigak, erkameztiak, pagadiak, gorostiak eta harkaitzak. Zadorra ibaia, Lizardi eta Zumardi eskasekin ibaiertzetan eta hainbat errekek babes bereziko kategorian daude.





Gasteizko Mendiak, “Euskal Autonomia Erkidegoko garrantzizko espazio naturalen katalogo irekian” daude, eta “Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen sarean”.

Zadorra, aldi berean, “Natura 2000 Sarea” europar espazioen barruan dago eta “Arriskuan dauden espezieen kontserbazio interes eremuan” dago, “Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan Euskal Herriko flora baskularreko zenbait taxon eta populazio katalogoan dago”.

Eremu hauetarako helburua parte-hartze antropikoaren muga izango da, aurreko egoera mantenduz. Ekosistemaren kontserbazio eta ingurumen jarduerak erakarriko dute. Landaredi naturalaren zaharberritzea sustatuko da, bere bilakaera propioa eta sasien eta heskaien garapena, eta aldi berean gainazalaren drainatze sarearen hobekuntza.

#### **J11. Balio historiko kulturalako babes bereziko landa eremua**

Kultura Ondarearen babesa bezala eta bere inguruan ondorengoak daudela ulertzen du: arkeologia guneak (aztarnategiak) eta eraikuntzak, eraikinak eta sailkatutako eta inbentariatutako elementuak. Nahiz eta kategoria bat bezala agertu, ez da lurzoru urbanizaezinaren kategoria bat, hortaz bere tratamendua diferentziatua da. Gainontzeko lurzoru urbanizaezinen kategoriak gainjartzen dira, hortaz, praktikan baldintza gainjarria bezala funtzionatzen dute.

Kategorian dauden zonalde eta elementu bakoitzeko erabileren erregulazioa, eta afekzioen zehaztapenak, erantsitako *kultura babestuaren ondare katalogoen* fitxetan agertzen den araberakoa da.

Kasu gehienetan, Eusko Jaurlaritzak proposatutako babesera bideratzen da, kasu bakoitzerako txosten mesedegarri bat egin behar du kontzesio lizentziak jaso aurretik. Babes hau erregulatua dator aldizkariak kaleratutakoaren arabera eta Ondarearen Legeak ezarritakoaren arabera.

Kategoria honen barruan paisai Berezi eta Bikain kontsideratzen direnak daude, bai Eusko Jaurlaritzaz, Arabako Foru Aldundiaz, zein Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoko Mapen Aurreproiektuan, Ingurune Sailak eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa egina.

#### **J12. Mendi Larreko babes bereziko landa eremua**

Babes guneetan azienda mantentzeko helburuarekin eta harkaitzekin zerikusia daukan flora eta fauna balio ekologiko bereziekin muga mantentzen da. Kalitate handiko zelai leun eta dentsuak, kota altuetan kokatzen diren babes bereziko eremuak, abeltzaintza aprobetxamendu intentsuarekin, baina urtarokoa, eta ohiko artzain kultura batean, balio natural babes bereziko J10 eremutik kanpo. Mendi guneak non hobekuntzak egin diren barne daude, larreen zaborra kentzen edo beste sistemen bidez, edo orain dela gutxi ezarritako larreekin. Nekazaritza eta Basozaintzako LPSeko Mendi Larreak-Harkaitzak eta kota altuerako Mendi Larreak kategoriak, kategoria hauen barruan daudela kontsideratu da.



Kategoria hau bereziki mendien lerro altuenetara mugatzen da, non baso erabilpen argi bat ikustea ezinezkoa da. Bagaiaiko Mendilerroaren eremu karstikoko harrien azalera bereziki kokatzen da.

### **J13. Baso balioko babes bereziko landa eremua**

LPPak babestutako baso espazioak daude eta J10 zonaldean sartu ez diren tokiko zuhaixken eremuak. Nekazaritza eta Basozaintza LPSaren Baso kategoriari dagokio, baso berritzeko zonaldeak izaera ekoizlearekin eta bokazio erabileraz (malda, arriskua, arroen babes, etab...) baso erabilera zuzenduak daudenak.

Helburua modu antolatu eta arrazional batean baso erabilera bermatzea da, zuhaitzen masen produkzio iraunkorra ziurtatuz, irizpide hau ziurtatuko duten jarduerak onartuko ditu betiere arrisku naturalen murrizketatik ondorioztatzen diren mugei erantsiak.

Zonalde hauek bereziki Gasteizko Mendien, Tuyoko Mendilerroen eta Badaiaiko Mendilerroen hegoaldean kokatzen dira, tokiko landarediarekin espazioa elkarbanatuz.

Baso naturalen hedapena sustatzen da, baso eremuen inguruetan alde batera utzitako nekazaritza lurraldeak edo kalitate baxukoak kategoria honen barruan egongo dira. Zaharkitze egoeran dauden baso naturalak edo gazte fase batean daudenak, zaharberritzea eta berreskurapena baso heldu batean bihurtzeko.

### **J14. Nekazaritza eta abeltzaintzako balio estrategiko altuko babes bereziko landa eremua**

Gainontzeko babes bereziko eremuetan sartu ez diren laborantza lurraldeak, lurralde planengatik babestuak izan dira lurraldearen barruan erabilitako nekazaritza gaitasun handiagatik, bereziki balio estrategiko altuko eremuan, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan agertzen dena.

Orokorrean laborantza lurraldeak edo udalerritik bananduta dauden laborantza gaitasun altuko lurraldeak barne hartzen ditu. Kategoria honi Zadorra ibaiko haranaren lurzoruetara eta malda gutxiagoko zonaldeetara atxikitzen dira.

Azalera nagusienak udalerraren hegoalde eta ekialdean gertatzen dira, Lehergai industrialdearen eta "Los Llanos" industrialdearen artean, Langraiz Okaren hegoaldean meandroa "Los Llanos" eta "Subillabide" industrialdeen artean, iparraldean Subillabidetik Billodaraino, beste tarte bat Subillabidearen hegoaldean eta bereziki Billoda eta Tresponde bitartean.

Azken urteotan, gaitasun agrologikoko eremuak beraien gainazala murriztu dute, aurretik existitzen diren zonalde batzuk poliki-poliki sektore industrialera eta Bizitegi sektorera aldatuz joan dira edo bestela azpiegiturengatik okupatu dira.

Hortaz, lehentasuna lurzoruen gaitasun agrologikoa mantentzea da, gaur egunera bilgarri den nekazaritza gainazala mantenduz eta ekoizpen handiena duten eremuak babestuz. Baimendutako erabileren artean nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak egongo dira, eta hauekin bateragarriak direnak eta ekosistemen eta paisaien babes ziurtatzen dutenak.



Ahal den neurrian nekazaritzako eremuak zatitzea eta isolatzea saihestuko da. Uztailak 8ko 168/1997 Dekretuak, EAEko Lehentasunezko Nekazaritza Ustiapenak erregulatzen ditu eta Lurralde Historikoaren eta Eskualdearen landatze unitate minimoak mugatzen ditu.

Hortaz, zuhaitzien kontserbazio eta sorrera, landare pantaila, heskai, landaredia eta erreken ibaiertzak eta landa eremuetako mugak.

#### **J15. Lur-gaineko uren babes bereziko landa eremuak**

Erreken ertzeko LPSan definitutako lurraldea okupatzen dute, EAE-ko Ibai eta Erreken Ertzetan azaltzen den bezala, jabari publiko hidrauliko eta lerro orokorraren arteko distantziaren arabera. Lurralde Plan Sektorialaren araudiko F.1 atalean ezartzen da. Zadorrako BGL (Batasunaren garrantziko lekuak) kategoriatik atera da, J10 kategorian egon behar delako, hau da, balio naturaleko babes bereziko landa eremua.

Zonalde hauetan ur kalitatea eta emaria ekologikoa kontserbatzea errazten da, ibilgu eta ur-bazterren aldaketa edo okupazioa saihestuz. Ur-bazterretan dagoen landaredia kontserbatzea bultzatzen da eta aldi berean ertz horietan ondo kontserbatuta mantendu ez den landarediaren birsorkuntza, gehienak lurralde eremuan daudenak.

Bai zortasun-zonan, bai 10 urteko errepika-denborako uholde-eremuetan, besteak beste nekazaritza-, abeltzaintza- eta basozaintza-erabilerak izan ahal izango dira, erriberako korridoreko ekosistemari eragiten ez bazaio, eta degradatzen ez bada. Haiei lotutako nekazaritza edo abeltzaintzako edozein eraikin, azpiegitura edo instalazio baztertu behar da. 10 eta 100 urte arteko errepika-denborako uholde-eremuak oztopo fisiko artifizialik gabeko zona moduan mantendu beharko dira.

Uholdeetatik sortutako ondorio desatseginak eta gatzak saihesteko helburuarekin, lurzoru urbanizaezineko kategoria hau aldi beran hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriari gainjartzen zaio berain gainean uholdegarriak diren eremuak mugatuz, hortaz, antropizatutako lurzoruaren gainean kategoria bezala funtzionatzen utziko du baldintzatzaile gainjarri batean bihurtzeko.

### **BABESTUTAKO EREMUAK**

#### **J20. Interes naturalerako gorde den landa eremua**

J10 kategorian egon ezean, dagokion udalerriaz gaindiko administrazioak onartu ez duelako, goi mailako edo pareko balio naturalak dauzka eta udalak mugatu nahi ditu etorkizunean udalerriaz gaindiko onarpena lortzeko helburuarekin.

#### **J21. Interes historiko-kulturaleko landa eremu babestua**

Balitzko arkeologi guneak, asentamendu historikoak edo ohikoak, eraikinak, eraikuntzak edo elementuak eta bere alboko ingurunea. Planak zaintzen dituen balio analogoak J11 kategorian sartzen ditu nahiz eta maila txikiago batean izan, baina zonalde berean sartu barik katalogatu gabeko eta inbentariatu gabeko elementuak izateagatik. Sistemari ohiko landa asentamenduen interesezko elementuak dauzka, ondasun katalogatuengatik edo bere paisaian daukan integrazioagatik.



Kategoria honetan agertzen diren elementuak erantsitako Kultura Ondareko Katalogoan erregulatzen dira. Elementu hauek eskualdeko babesak daukate eta ez autonomikoa.

#### **J22. Mendi larreko interesezko landa eremu babestua**

Planaren arabera J12 zonaldean sartu ez diren mendi larreak, babestutako zonalde batean ez egoteagatik, baina ez babes bereziarekin, eta kota baxuetan egoteagatik edo kalitate gutxiagoko lurzorua izateagatik.

#### **J23. Baso eta mendi larreko interesezko landa eremu babestua**

Baso eta mendi larreko espazioak eta orokorrean %20ko malda baino gehiago daukatenak eta babes bereziko kategorietan ez daudenak, baina bere babes udalerriko plangintzarako interesezkoak direnak. Nekazaritza eta Abeltzaintza LPsetik ateratako Basoa-Mendi Barbana kategoriari dagokionak.

#### **J24. Zaindutako zona: nekazaritzako eta abeltzaintzako interesa, landa paisaia**

Bere nekazaritza erabilpen gaitasun garrantzitsuagatik, baina lurralde plan partzialetatik babestuak dauden espazioak baino baxuagoak eta udalerriri mailara babestea derrigorrezkoak diren lurzorua. Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPsetik Trantsizioko Landa Paisaia kategoriari dagokio.

#### **J25. Ingurumen hobekuntza**

Kategoria hau Nekazaritza eta Basosaintzako LPSari dagokio. Bere izena mantenduz alde batetik eremu naturalak (tokiko basoak), gaur egun zaharkituak edo nerabe fasean baina bere egoera naturalaren berreskurapen handia daukatenak, gaur egungo egoera mantenduz eta bere estalduraren landarendiaren zaharberritzearekin. Eta beste alde batetik, sastraka eremuak eta alde batera utzitako lurzorua, bere ezaugarri topografikoengatik edo bere kokapenagatik barnean edo balio handiagoko eremuetan, garatzeko zain dauden higadura prozesuak, aisialdirako zonaldeak izateagatik edo zaharkitze egoeran edo alde batera utzita, bere bilakaera mesedegarria bilakatzen da kalitate handiagoko maila altuago batera.


Kategoria honetan daude zonaldeetan, Badaiako Mendilerroen hegaletan bereziki banatzen dira, Langraiz eta Olabarri nukleotik gertu eta Jundiz mendien mendebaldeko hegaletan. Tokiko landarendiaren kokaguneei buruz ari gara, gaur egun sastrakaz okupatuak, ipurudi eta txilardi motakoak.

Kategoria honen barruan "Pequeña Navarra" harrobia Langraiz Okaren iparraldean eta "Azkorrigana" Trespondeko mendebaldean daude. Kokagune hauek higadura handia daukate gaur egin lanean jarraitzen duten erauzketa jarduerengatik. Zehatz mehatz eta egoki mugatzeko lehentasunezko jardura industrial hau, harrobiaren ustiapen eremuak sartzeaz gain ustiatuak izan direnak ere sartzen dira, bere jardura bukatua egon arren, eta Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak erraztu dituenak. Alabaina, harrobien hedapenak mugatutako azalera guztia okupatu arte, Plan Berezi baten idazketa beharrezkoa egingo du, inpaktu murriztuena bermatzeko, Ingurune Inpaktu Ikerketa txosten baten bidez.



Oinarrizko irizpidea zonalde hauentzako, hortaz, bilakaera bat bilatu egoera ekologikoetarantz, interes handieneko elementuak kontserbatuz eta arrisku naturalen (irristatzeak, higadura) murrizketa mesedetuz, baso babestzaileen eta ingurumen hobekuntzen bidez.

LUEn kategorien mugak Planaren P1 Planoan daude eta erantsitako irudian sintetizatzen da:



Suelo Urbano y Urbanizable	Límite Término Municipal
E1-E2-E3 Sistema General de Comunicaciones	Delimitación Canteras
Equipamiento Comunitario Público	
<b>CATEGORIZACIÓN SNU</b>	
J10 EP Valor Natural	J20-J21 ZP Interés Natural - Interés Histórico Cultural
J11 EP Valor Natural	J22 ZP Interés Pastos Montanos
J12 EP Valor de pastos montanos	J23 ZP Interés Montano y Forestal
J13 EP Valor Forestal	J24 ZP Interés Agroganadero Paisaje Rural
J14 EP Agroganadero Alto Valor Estratégico	J25 ZP Mejora Ambiental
J15 EP Protección de Aguas Superficiales	J31 ZP Otros asentamientos en SNU.

*LUE kategorizazioa (Iturria: Egileak moldatua)*



Kategorizazio honetaz gain, Planaren memoriak Lurzoru Urbanizaezinaren zehaztapen batzuk ezartzen ditu:

- Kategoria bakoitzean babestutako erabilerak, baimendutakoak eta debekatuak daudenak, Planaren *Hirigintza Araueko* (III Liburukia) agirian agertzen dira.
- Artzaintza instalazioak
- Abeltzaintza intentsiboko instalazioak
- Nekazaritza instalazioak
- Baso Ustiapena
- Eraikinak LEU, itxierak eta hesiak, bide naturalak eta ingurumen integrazioa, paisaia eta babesa bultzatzen duten beste gai.

Lehen aipatutako eta ingurune naturalean zentratutako kategoriak laburtuz, Lurralde Ereduak interpretatzen du, bokazio desberdinak dituzten eremu batzuk ezarriz. Bokazio horiek, oro har, honela zehazten dira:

- **INGURUMEN HOBEKUNTZARAKO EREMUA**K. Alderdi naturaletan gainontzekoengan gailentzen dute eta landa ingurunera lotuak dauden ohiko jarduerak. Zonalde hauetan babes, kontserbazio eta ekosistemaren ingurune hobekuntza prozesuak ireki beharko dira.
- **BASO EREMUA**K. Lurzoruak sortzen dituen baliabideei lotutako ekonomiaren euskarri bezala dena. Zonalde hauetan arrisku naturalak murriztu behar dira, ingurunearen kontserbazioa eta birsorkuntza bilatuz.
- **PRODUKZIO EREMUA**K (Nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta Landazabalekoa). Urbanizatu gabeko zonaldeak baina nekazaritza eta abeltzaintza jarduerari lotuak daudenak, ingurunearen erabilera antolatu bat lortu behar dute baina gainontzeko baliabideetarako arrisku bat suposatzen ez duena.

Zonalde hauetan LAG eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPSen gidalerroak jarritzen dituzte, eta udalerraren Lurzoru Urbanizaezina egituratuko dute.

Jarraian, banan-banan LEUko azalerak kuantifikatzen dituen konparazio taula bat daukagu, bai Iruña Okan araututako Arau Subsidiarioak zein Hiri Antolamendurako proposatzen den eredu berria.



LEU KONPARAZIO-TAULA HAPO/AASS98			
KATEGORIA	m2 (HAPO)	m2 (AASS98)	m2 DIFERENTZIA
UDALERRIAREN EREMU OSOA	53.085.206		
J12/ Mendi larreak +mendi larreak-harkaitzak	1.547.812	1.552.278	-4.466
J23/ Mendi barbana	4.251.933	4.480.868	-228.935
J24 /Trantsizioko Landa Paisaia	6.418.997	7.333.705	-914.708
J25/ Ingurumenaren hobekuntza	2.735.679	2.732.047	3.632
J14/Balio Estrategiko Handia	4.258.833	4.703.737	-444.904
J13/Basoa	23.836.503	23.897.523	-61.020
J15/ Gainazaleko Uren Babesa	1.685.351	1.684.473	878
J15/ Gainazaleko Uren Babesa	179.733	179.733	0
J10 / Balio Naturala	1.082.008	1.082.008	0
J11 / Balio historiko kulturala	0	0	0
J21 / Interes historiko kulturala	1.834	1.834	0
J20 / Interes Naturala	2.800	2.800	0
J31 / Beste asentamenduak LEU	40.319	40.319	0
<b>GUZTIRA LEU</b>	<b>46.041.802</b>	<b>47.691.325</b>	<b>-1.649.523</b>

HAPOak proposatutako eredia LEUaren 4.604 ha definitzen ditu (udalerraren %86,7), LEU 165ha-etara murrizten du (%3,1), aurreikusitak AASSak planteatutako egoerari dagokionez. Murrizketa hori, planteatzen diren bizitegi- eta industria-garapen berriek ez ezik, Arau Subsidiarioetan kontuan hartzen ez ziren lurzoru urbanizaezineko sistema orokor batzuk kalifikatzeak ere eragin du:

SISTEMA OROKORRAK LEUean		
	m2 (HAPO)	m2 (AASS98)
IRUÑA VELEIAko SO	243.669	0
SO SANTA KATALINAko Lorategi botanikoa	38.283	0
SO Ibai parkeko Espazio Librea Langraizen	856	0
EDAR Langraiz Okako hegoaldean	5.654	0
SO Tresnpondeseko Espazio Librea	2.532	0
<b>GUZTIRA, SO berriak LEUean</b>	<b>288.462</b>	





Lurzoru hauek (EDARren kasuan izan ezik) ez dute bere bokazio naturalistikoa galdu, beraz, LEUeko kategoriei esleitutako azalera murrizten dira, eredutik ez da LEU galera kontsideratzen. Sistema Orokorreko sarean sartzeak espazio hauen kudeaketa errazten du, Iruña Veleiako Sistema Orokorren kasuan, San Katalinako lorategia eta Langraiz Okako ur-parkearen kasuan bere antolamendua Plan Berezi batera bideratzen da.

Azkenik, konparazio eta proposatutako ereduaren analisi hobeko bat egiteko, LEU banatzen da lurzoruan eragina duten eremuen arabera:

LEUko AZALERAN ERAGINA DUTEN BIZITEGI EREMUAK					
KATEGORIA (HAPO/LPS)	AOP N5	AOP N6	AOP N7	AOP N8	AOP V2
EREMUAREN AZALERA m2	33.438	33.936	43.455	990	8.734
<b>J12/</b> Mendi larreak +mendi larreak-harkaitzak	653	277	-	-	-
<b>J23/</b> Mendi barbana	10.808	379	5.444	456	
<b>J24 /</b> Trantsizioko Landa Paisaia	-	-	29.050	-	-
<b>J25/</b> Ingurumenaren hobekuntza	-	1.598	-	-	-
<b>J14/</b> Balio Estrategiko Handia	-	-	-	-	-
<b>J13/</b> Basoa	-	200	-	-	-
<b>J15/</b> Gainazaleko Uren Babesa	-	-	-	-	-
<b>J22/</b> Mendi larreen interesa	-	-	-	-	5.105
<b>GUZTIRA SNU</b>	-11.461	-2.454	-34.494	-456	-5.105

LEU AZALERA, EREMU INDUSTRIALEZ ETA SISTEMA OROKORREZ HUNKITUA					
KATEGORIA (HAPO/LPS)	AOP I3	AOP I2	AOS- SG1	AOS- SG2	AOP- SG3
EREMUAREN AZALERA m <sup>2</sup>	530.399	437.397	301.589	185.100	3.356
<b>J12/</b> mendi larreak+mendi larreak-harkaitzak	2.087	11.172	-	-	-
<b>J23/</b> Mendi barbana	39.689	64.300	17.386	30.037	-
<b>J24 /</b> Trantsizioko Landa Paisaia	302.341	348.621	-	77.077	-
<b>J25/</b> Ingurumenaren hobekuntza	204	-	-	-	-
<b>J14/</b> Balio Estrategiko Handia	179.669	-	254.117	5.464	-
<b>J13/</b> Basoa	-	2.717	-	30.651	-
<b>J15/</b> Gainazaleko Uren Babesa	-	-	-	-	2.825
<b>J22/</b> Mendi larreen interesa	-	-	-	-	-
<b>GUZTIRA LEU</b>	-524.324	-426.810	-271.503	-143.229	-2.825





Guztira 142,2 ha-ko azalera da, nahiz eta zati handi bat, bereziki 41,5 ha (guztizkoaren %29), udalaz gaidiko antolamendu-eremuekin bat datorren, hala nola AOS-SG1 (Jundizko geltoki intermodala) eta SG-2 (AHTaren trazadura), horien mugaketa eta hedadura autonomia-izaerako eta estatu-izaerako garraio-sistemen lurralde-plangintza estrategikoaren bidez lehenetsita baitago.



### 3 Beste Plan eta Programen interakzio analisiak, eta aplikagarria den ingurumen araudia

Beste Plan eta programen interakzioen analisia eta ingurumen araudiaren aplikazioa.

Udalerriko plangintzaz gain, Iruña Oka gainera, goi mailako egitura administratiboan sartuta dago, gai zehatzetan benetako erantzukizunarekin eta hauetariko askok eremuan eragina zuzena daukate (hainbat afekzio legal eta beste kasu batzuetan gomendioak), gidalerroak kontuan izan behar dira HAPOaren idazketan.

Hortaz, udalerriz gaindiko mailara, ondorengo planak existitzen dira eta beraien gidalerroak kontuan izan dira Iruña Okako HAPOaren idazketarako:

#### 3.1.1 LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK

Gobernuko Kontseiluko 28/1997 Dekretuak onetsiak, otsailaren 11ko bilkura, hortaz, onetsi direnetik ia 20 urte igaro dira, hori dela eta agiri hau zaharkituta geratu delako seinaleak ematen hasi da.

LAGak antolamendurako helburu espezifikoak erantzuna eman behar zieten baliabidea izan behar ziren, eta gainera, garapenerako aro berriranzko aldaketa prozedura sustatzeko lurralde ekimen egokiak eta konfigurazioa gehitu behar zituzten.

LAGetako lurralde ereduak lurraldea 15 Eremu Funtzionaletan egituratzen du, hau "Erdi-mailako Lurralde Eskala" egokia sortzen du. Honela, Eremu Funtzionalek eta hauen hiri-burutzek lurralde orekarako estrategia posibleak aplikatzeko "pieza gakoak" osatzen dituzte, lurraldea barne egituratzeko mekanismoak proposatuz, hauek beren burutzezko beharrezko polarizazioa lor dezaten, baita nukleo eta lurralde ezberdinen arteko bokazioak ere. Iruña Oka **Araba Erdialdeko** Eremu Funtzionalaren barne dago.

##### 3.1.1.1 Lurralde Antolamendurako gidalerroen berrikuspena (LAG)

2015eko uztailaren 27an, Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) berrikusteko prozedura hasteko erabakia hartu zuen, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari zuzendaritza eta prestakuntza gomendatuz. Beharretarako hiru urteko iraupena aurreikusi zen, hortaz, gaur egun Berrikuntza prozesuan aurkitzen da.

Oinarrizko Agiria eta Parte-Hartze agiria idatzi ondoren, 2017. urtean Aurrerapen Agiria aurkeztu zen eta 2018. urte hasieran Hasierako Onarpen Agiria.

Alderdi nabarmenen artean azpimarragarrienak, LAGen Aurrerapenak "Lurralde Antolamenduko Gidalerroen Aplikazio Arauak" izendatzen dena ezartzen du, hasierako LAGek



baina izaera Arautzaile zorrotza eta zehatzagoa dauka. Indarreko LAGek ezartzen dutenez, "Arabako Lurralde Historikoa espazio makrozefaliko eta desorekatua da, bai tamaina ertaineko hiri-kopuruari dagokionez, bai horien banaketari dagokionez (...) eta horrek arazo handiak ekartzen ditu gaur egun demografia galtzeko prozesu eten-gabea gelditzeko gai izango diren programak aplikatzeko". Errealitate horren aurrean, LAGek iradokitzen dute konponbidea izan daitekeela jarduerak gehiago zabaltzea lurraldearen gainerako zatirantz, berrorekatzeko ahalmen handiagoa duten nukleoak indartuz, hala nola, Iruña Oka, Vitoria-Gasteizko gehiegizkoa zurgatuko luke eta bigarren mailako nukleo bat sortuko zen.

### Araba Erdialdeko eremu funtzionalaren transformazio ardatza

Lurralde Antolamenduko Gidalerroen (LAG) Aurrerapen Agiriak eta Hasierako Onespenak Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalean Transformazio Ardatz bat planteatzen dute A1-ean oinarrituz, Iruña Okatik Agurain-Salvatierrara, Arabako Lautadan kokatuz. Ardatz honek espazio ekoizleak eta eskualde izaerako zona logistikoak baimenduko ditu, Jundizko Terminal Intermodalaren kasua bezala, guztia eremuan dauden espazio naturalen ekologia jarraipena baldintzatu gabe.

Transformazio ardatz honen Gidalerroen artean Vitoria-Gasteizko mendebalde eta ekialdean garatu beharreko ardatz lineala dago, Langraiz-Iruña Oka mendebaldetik eta Agurain ekialdetik aurkitzen dira, ADIF trenbide ardatza jarraituz eta Burgelu eta Alegria-Dulantzi nukleoak barne, ardatz honen influentzia eremua zabaltzeko aukera ikertuz Armiñonetik Araiaino, bereziki mugikortasunari eta ibilbide bigunei dagokionez.

Aldaketa ardatz hau, EAEari planteatutako eredu logistiko bezala ulertzen da, bere egoera geografikoa lurralde azpiegitura transeuropearren barruko beharrezko pausuan bihurtzen da. Euskal Herria, gainontzeko autonomia erkidego eta Portugalerako sarbide bat bihurtzen da Europar batasuneko bidean.

LAGek Jarduera Industrialen Eremuak sortzea proposatzen dute, eremu bateragarrietan eta Araba-Jundizko ardatzean, oinarritzko hainbat industriak batzeko. Eremu hauek hirigunearekin ez dira lotuko eta udalerrriaren hiri irudian ez dituzte inpaktu negatiborik edukiko, Subillabide eta Jundiz-Foronda proposatuz bere Kokapenagatik, abiadura handiko trenbidea eta zabalera iberikoa egiteko errepide zein aireportukoa.

### Trenbide mugikortasuna.

**Abiadura Handiko Trena (AHT)** funtsezko azpiegitura da EAEren eta kanpoaldearen arteko konektibitatea bermatzeko, baita Euskadiko hiri nagusiak elkarri lotzeko eta Euskadi Sareko Gune anitzeko Lurralde gisa artikulatzeko ere, ABTaren geltokien eta garraio publikoko sistemen arteko konexioa bermatuta egonik.

**Aldiriko Trenen kasuan**, Euskal Herriak baldintza hobezinak dauzka iraunkor mugikortasun sistemen garapenerako eta trenbide sistemetan oinarrituta, biztanleri dentsitate handiagatik,



hirigune ezberdinetan kontzentratua eta ardatz linealen zehar. Gainera, garraio kolektiboko sistema handi bat konfiguratu da trenbide sistemen laguntzaz.

Aldiriko zerbitzuek ekarpen handia egiten diote mugikortasun jasangarriari, hiri ertainak garapen metropolitarrako dinamikak erakartzeko esparru gisa dinamizatzeari eta gure lurraldearen jasangarritasunari.

LAGek sareen zabalera suposatzen duten jarduketa posibleen ikerketa planteatzen dute, Iruña Oka-Vitoria-Gasteiz-Agurain tarterako zerbitzu berriak jadanik dauden trenbide egiten gainetik.

#### **3.1.1.2 4/2016 dekretuak LAG-en bizitegi kuantifikazioari buruz egindako aldaketaren kalkularen justifikazioa**

Maiatzaren 31ko Euskal Herriko Lurralde Plangintzako 4/1990 Legearen 6. artikulua ezartzen du Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek lurraldearen gune edo zonalde desberdinetan dagoen etxebizitzaren behararen kuantifikazioa ezarriko dutela. Aipatutako irizpideekin LAGetan ezarritako udalerrri bakoitzaren etxebizitza kopuruaren kuantifikazio osoak gehieneko muga izaera izango du. Udal-plangintzak murriztaileagoak izan daitezke, baina ezin izango dute LAGek ezartzen dituzten irizpideekin kalkulatu behar den gehieneko lur eskaintza gainditu.

Proposatutako kalkulu-metodoa behin-behinean erabiliko da Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialak (LPP) idatzi arte; zeren eta LPP horiek xedatuko baitituzte beste kuantifikazio batzuk udalerrri bakoitzaren hazkunde-ahalmenaren azterketa zehatzago baten arabera, baina betiere LAGetan azaldutako Lurralde Eredurako aukerak errespetatuz. Hain zuzen ere, LPPek doituko dute bizitegi-kuantifikazioa lurraldearen hartze-ahalmenaren eta udalerrri bakoitzaren hiri-egituraren ondorioen arabera. Kasu honetan, eta Araba Erdialdeko LPPa 2016/4 Dekretuaren behin betiko onarpenaren aurretikoa dela aintzat hartuta, LAGek finkatu duten kalkulu-metodoa erabiliko da.

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren Lurralde Antolamenduko Gidalerroaren Hasierako Onespenaren Agiria, etxebizitza kopuru maximoaren kalkuluan aldaketak ditu, udalerrri bakoitzerako programatu ahal izango dena. Hala ere, agiria oraindik ezin da aplikatu eta ahal izatekotan, Iruña Okan aurreikusitako etxebizitza kopuru maximoa mantentzen da.

Bizitegi kuantifikaziorako kalkularen banaketa 4/2016 Dekretuan finkatutako metodologia aplikatuz, VIII liburukiaren atalean zehazten da, hirigintza eraikuntzaren estandarrak betetzen diren justifikazioan eta LAGek aipatutako bizitegi hazkundekoa.

### **3.1.2 ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDE PLAN PARTZIALA**

Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partzialak (LPP), behin betiko onartu zen 2004.urteko abenduaren 28an, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalen LAGetan garapen instrumentua da.

Ondorengo udalerrriak: Alegria- Dulantzi, Armiñón, Arraia- Maeztu, Arratzua- Ubarrundia, Asparrena; Barrundia, Berantevilla; Bernedo, Campezo, Zigoitia, Kuartango, Burgelu, Iruña Oka,



Iruñaz-Gauna, Lagrán, Lantarón, Legutio, Otxandio, Peñacerrada-Urizaharra, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Añana, Agurain, San Millan, Ubide, Urkabustaiz, Valdegovía, Harana, Vitoria-Gasteiz, Zalduondo, Zambrana eta Zuia.

Lurralde Plan Partzial honetan, Iruña Okan eta Vitoria-Gasteizen eragin zuzena daukan Estrategia planteatzen da besteak beste. Zehazki, OE-3 Estrategia bat da: “Hegoaldeko Berrikuntzaren Arkua”, zehaztapen lotesle bat da.

Berrikuntzaren Arkua jarduketa konplexuko oinarrizko bi objektu dira: alde batetik, existitzen diren lurraldeko piezak, martxan dagoen prozesu baten susmoak, deigarria den operazio batean lan egiteko eta beste alde batetik, jarduera “traktora” berriak sartzea, Araba Erdialdeko hazkundeak aprobetxatuz, garapen etapa berri honetan erakargarriak izateko.

Izaera mistoko esku-hartze enblematikoa da, N-I autobiko A-2622 errepidearen oraingo hartunearen (aldatzeko aurreikuspenekin Langraiz Okako saihebidet berriaren arabera) eta Vitoria-Gasteizko saihebidetaren eta N-102 autobidetaren bidegurutzetik gertu dagoen ingurunearen artean mugatua.

“Arabarako sarbide berriaren” eraikuntza bultzatu nahi du, eduki sinboliko handiko jarduera izanik, lurraldean adierazgarritasun handia lortu nahi duena Haranen eta hegoaldeko Lautadaren egitura-konexioak, Vitoria-Gasteizko hirirako sarbidea eta “Berrikuntzaren Arkuaren” hegoaldeko gune nagusia elkartzen diren gune gisa eratzean.

Esku-hartzeak Jundiz mendiaren balio arkeologikoa bultzatu eta ezagutzera eman nahi du, mendiaren inguruetan Jundiz eta Añiz herriei eta Jundizko San Joan basilizari dagokien aztarnategiak baitaude.

Estrategia eragiketa honetan derrigorrezko izaera eta ondorengo gomendioak planteatzen dira:

Nahitaez kontuan hartu beharrekoak:

- Iruña Oka eta Vitoria-Gasteizko udalerrien arteko plangintza bateragarri egingo da, Subillabide eta Jundizen artean dauden hutsuneetan, esparru horretan dauden aztarnategi arkeologikoen aktiboari balioa emanez.
- AHT eta trenbide sarearen arteko eremuan, “Zabalera iberikoa”, garraio eta jarduera logistikoetarako erabiliko dira, eta Merkantzien lekualdaketa egiteko Terminal Intermodala izango du.
- Ipar-mendebaldeko saihebidetaren produkzio-jardueretarako izango da, orain dauden ezarpenen eta plangintzaren aurreikuspenen arabera.
- Jundiz mendiari balioa emango zaio, balio arkeologiko handiko esparrua den aldetik. Hezkuntza eta kultur ibilbideak sortuko dira, ingurunearen ezaugarri arkeologikoak ezagutzera emango dituzten mugari txikiekin, Billoda eta Trasponte artean kokatuta dagoen balio handiko aztarnategia barne dela.
- Errepide arloko organo eskudunak, Etxebarri-Ibiña–Armiñon lotura Berrikuntzaren Arkuan zeharreko igarobidean ebazteaz gain, haren eta Arkuko piezen eta Vitoria-Gasteizen arteko konexioaren eta erlazioaren arazoei konponbidea eman beharko die.



- N-I eta N-102 errepideen arteko topagunea arretaz ebaztea, bi bideen trazaduraren norabideek baldintzatua.
- Trenbideko ezponden tratamenduak trena jarduerara ahalik eta ondoen integratzea bermatu beharko du, berdeguneetara lotzea ahalbidetuko duen paisaiaren tratamendua ziurtatuz.
- Esparruan zehar igarotzen den Donejakue bidearen tartea jardunean barne hartzea (Monumentu Multzo deklaratu).
- Zenbait eremuetan uholdegarritasuna kontuan hartu akuiferoen existentziagatik, lurralde antolamendua planteatzerakoan.

#### Gomendioak:

- Ipar-mendebaldeko produkzio guneak zerbitzuen eta erakusleiho gisa jardungo duen industriaren ezarpena aztertu beharko luke, N-I autobiarren fatxada eratu.
- Erabilera tertziarioen ezarpena baloratzea N-I eta N-102 errepideen arteko elkargunearen parean.
- Antolamenduan orain dagoen landaredia autoktonoa mantendu eta integratzen saiatzea.
- Aparkatzeko eremuak ingurunean integratuta geratu beharko lirateke, horietarako tamaina mugatu bat mantenduz, eta hala badagokio zatikatuz xede horretarako azalera handiak ager ez daitezten (besteak beste).

Azkenik, hiri sistemari dagokionez, LPPak Iruña Oka eta Salvatierra-Agurain udalerriak kontuan hartzen ditu, “hiri espazio nagusien nukleo” barruan. Araba Erdialdeko hiri sistemaren barruan **bigarren mailako hazkunde handiko hiri nukleoak bultzatu** behar dira.


#### 3.1.2.1 Araba Erdialdeko Lurraldearen Zatiko Planaren Aldaketa Jundiz-Billodako Terminal Intermodala

Hamar urte beranduago, 2014.urtean, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala aldatu zen apirilak 10ko aginduaren bidez, hasiera batean Araba Erdialdeko LPP Aldatzen da Jundiz-Billodako intermodal logistikoaren eraikuntza posible izateko (EHAA 2014.urteko apirilak 30).


Helburua da Araba Erdialdeko Lurraldearen Zatiko Planaren artean Jundiz-Billodako Merkantzien Transferentziarako Terminal Intermodalaren kokapena sartzeko helburua duen Funtzik gabeko Aldaketa Puntuala da, Iruña Oka eta Vitoria-Gasteiz udalerrietan.



Vitoria-Gasteizko hiriaren Abiadura Handiko sarearen behin betiko Integrazio Informazio Ikerketaren ondorioz, hasierako AHT tartearen aurreikuspenak espero baino gehiago aldatu dira. **Tarte berria Terminal Intermodal Merkantzien lekualdaketa egiteko eremu egoki bat mugatu du.** Egokitzapen honekin parte-hartzeraren garrantzi handia eta oinarritzko elementuak suposatzen dute.



*Indarrean dagoen LPParen arabeko  
egiturazko akzioak*



*Aldatutako LPParen Egiturazko Akzioak*

Azkenik, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Balio Altuko lurzoruen murrizketa konpentsatzeko aldaketa, hurrengo zehaztapenak ezartzen ditu:

*“Vitoria-Gasteizko eta Iruña Oka Hiri Antolamenduko Plan Orokorren berrikusketetan, idazketa prozesuan daudenak, bakarrik edo taldeka 50 hektareako lurzoru urbanizagarria baino gutxiagoko azalera desklasifikatzea, lurzoru urbanizaezina Nekazaritza nahiz Abeltzaintzako eta Landazabaleko Balio estrategiko handia kategoria bezala sailkatze modua izatera pasatuz”.*

### 3.1.3 LURRALDE PLAN SEKTORIALAK

Plan Sektorialak (LPS), Euskal administrazioak edo, hala badagokio, Lurralde Historikoen Foru Organoek, lurralde eraginaren eskumenak garatzen dituzten planak dira, eta LAGak garatzen dituzte.

Gainera, LAGek Eusko Jaurlaritzaren Herrilan eta Garraio Sailak Errepideen Plan Orokorrari buruz idatziko dituen aurrerantzeko bertsioak Lurralde Plan Sektorial gisa hartuko dituzte, baita Foru Aldundiek dagokien Lurralde Historikoetarako egingo dituzten Errepideen Planak ere (13. kapituluko 5.2. atala). Estatu zein eskualde-mailako ekipamenduen antolamendua LPStzat



hartzen dituzte Eusko Jaurlaritzaren eta Lurralde Historikoen Sailek (18. kapituluko 2.1. atala: Ekipamenduak lurraldearen ikuspuntuan).

Gaur egun arte ondorengo Lurralde Plan Sektorialak dira Iruña Okan eragina daukatenak:

### 3.1.3.1 Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala

Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak behin betiko onartua, Uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bitartez. Bere onarpenak hezeguneak, bai kostaldekoak baita barrualdekoak ere, babesteko antolamendu agiri oso baliotsua edukitzea suposatu zuen - hauek biosferako ekosistema aberats, berezi eta hauskorrenetariko bat osatzen dutenak.

LPS-ak LAG-etako zehaztapenak garatzen ditu, EAE-ko hezeguneetako inbentariazioa eta klasifikazioaren bitartez eta ekimen eta erabileren arauketa, bere harrera gaitasunaren arabera hezeguneetan berariazko antolamenduaren gai direnak. LPS-ak hiru mailatako klasifikazioa ezartzen du:

- **I Taldea:** Babespeko Naturguneen Adierazpenak eragindako hezeguneak barne hartzen ditu, LPS onartzeko unean.
- **II Taldea:** Bai hirigintzako plangintza bereziak babestuak bai LPS berak antolaketa xehatuak barne hartzen ditu.
- **III Taldea:** Inbentariaturiko gainontzeko hezeguneak osatzen dute

Ondoren, 2011.urteko maiatzak 3ko Ingurumen, Lurralde antolamendu, landa eta arrantza aginduaren bidez (EHAA 102zk, 2011.urteko maiatzak 31), EAE-ko Hezegune zonaldearen inbentarioa aldatzen da, I eta III taldeak berrikusiz, 160/2004 Dekretuan agertzen direnak.

Ondorioz, Iruña Okako udalerraren inbentarioan hauek dira agertzen diren hezeguneak:

- DA9: Balsa de la cantera de Nanclares/ Langraizko harrobiko urmaela
- FA62: Balsa de riego en Montevite/ Mandaitako ureztaketarako urmaela
- GA7: Balsas de ganado de Sierra Badaia/ Badaiaiko ganaduarentzako urmaelak (guztira 6)
- GA29: Balsa de Bardaran/Bardaraneko urmaela
- GA42: Charcas de la Sierra de Tuyó/ Tuyó mendizerrako putzuak (guztira 2)
- GA48: Charca de La Barrera/ Barrerako putzua (Mandaita)
- GA63: Pozo Kostuia/ Kostuia putzua





### 3.1.3.2 Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LPS

Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bitartez onartu zuen behin betiko. Horretarako LAG-etako 8. atalburuan jarritakoari jarraitu zitzaion eta bertan finkatzen ziren zehaztapenak xedatu ziren.

LPS-a indarrean sartu eta hamarkada bat geroago, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolakuntza Sailak planaren aldaketa bat beharrezkotzat hartu zuen. Aldaketa honek, LPS-aren agiriari lurzorua irizpide berriak txertatzen dizkio, bere uholde-arrisku eta Ur-Zuzentarauak egindako uholde-arriskuko mapa berrien arabera. Hala nola 2000 Natura Sarearen barneko Ibai LIC deritzon espazioen erregulazio berezia, eta espazio horien identifikazio eta kokapen planimetrikoa, Ingurumen Bioaniztasun eta Partaidetza Zuzentarauaren zehaztapenen arabera. Baita ere LPS-aren edukierak homologatzea, Europar Batasunaren 2000/60/CE Ur-Markoaren Zuzentarauaren zehaztapenekin erlazionatuz, eta LPS-a indarrean sartu baino lehenago izapidetutako, Eusko Jaurlaritzako Urari buruzko 1/2006 Legearenak.

LPS-aren aldaketa azaroaren 19ko 449/2013 Dekreturen bitartez behin betiko onartu zen (EHAA 2013ko abenduaren 12ko) eta akats-zuzenketerako (EHAA 2013ko urtarrilaren 27ko).

Agiri hau ezinbesteko ekarpen bezala planteatzen ditu ondorengo hiru aldagai ingurumena, hidraulikoa eta hirigintza- ibai ertzeko lurralde antolamendua azpimarratzen dute.

Iruña Okako udalerrian eman daitezkeen erasanak Zadorra ibaia bertatik pasatzerakoan sortutakoak izango dira, beraz, udalerritik pasatzerakoan LPSak aipatzen dituen eraginak kontuan hartu beharko dira.

#### INGURUMEN OSAGAIAREN ARABERA

Ingurumen osagaiaren arabera Planak lau eremu bereizten ditu:

- Ondo kontserbatutako landaredia duten ertzak.
- Leheneratu beharreko ertzak.
- Higadura, irristatze edota akuiferoen urrakortasun arloko arriskua duten zonetako ertzak (Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako baldintzatzaile gainjarriak)
- Lehentasuneko interes naturalistikoko zonetako ertzak: Zadorra Ibaia kontuan hartuz.

#### HIRIGINTZA OSAGAIAREN ARABERA

Lurraldearen Arloko Planean aintzat hartzen diren ibilguen multzoen kasuan, hirigintza-garapen orokorraren arabera bereizten dira ibilguen ertzak:

- Landa-esparruko ertzak.
- Hiri arteko komunikazio-azpiegiturek okupatutako ertzak.
- Esparru garatuetako ertzak.
- Hirigintza-garapen berriak hartzeko ahalmena duten ertzak.



## OSAGAI HIDRAULIKOAREN ARABERA

Egin diren arau-aldaketarik gehienak uholdeak prebenitzeko araudiari, eta arro-buruen ibilguetan egon daitezkeen aldaketen tratamenduaren sistematizaziori buruzkoak dira.

LAPean aplikatu beharreko lurralde antolaketaren irizpide orokorrak –osagai hidrologiko eta hidraulikoaren arabera– helburu bikoitza du: batetik, urak har ditzakeen eremuetan, batez ere hiriguneetako eremuetan, uholde arriskuen aurrean babes neurriak hartzea; eta bestetik, lurzorua erabilerak erregulatzea ibai bazterretan eta ur ibilguen inguruan urak har ditzakeen eremu guztietan.

Lurraldearen Arloko Planean aintzat hartzen diren ur-ibilguen kasuan, 8 ibai-tarte bereiztea ezarri da, betiere puntu bakoitzeko arro isurleak duen azaleraren arabera:

Tarteak	Ibaiadarraren arroko azalera km <sup>2</sup>
VI	$600 \text{ km}^2 < C$
V	$400 \text{ km}^2 < C < 600 \text{ km}^2$
IV	$200 \text{ km}^2 < C < 400 \text{ km}^2$
III	$100 \text{ km}^2 < C < 200 \text{ km}^2$
II	$50 \text{ km}^2 < C < 100 \text{ km}^2$
I	$10 \text{ km}^2 < C < 50 \text{ km}^2$
0	$1 \text{ km}^2 < C < 10 \text{ km}^2$
00	$C < 1 \text{ km}^2$

Orokorrean, Zadorra ibaia Iruña Okatik pasatzerakoan VI. Mailakoa da, udalerrri barruan dauden ibaiadarrak izan ezik, horiek I, 0 edo 00 mailekin klasifikatzen baitira.

LAParen Aldaketa honen lurralde antolaketako erregulazio hidrauliko eta hidrologikoaren oinarria, ibai ibilguk uholdeak eragiteko izan lezaketen arriskuaren inguruko azterketak egitea edo eguneratzea da. Azterketa horietan, ibilgu publikoen, hauen zorpen eta kontrol guneen, eta urak har ditzakeen eremuen mugaketaren kartografia egitea aurreikusi beharko da; eta, funtsezko xedapen gisa, lehentasunezko fluxu-eremuaren definizioa (9/2008 ED) jasoko da bertan.

Azterketa horiek osatzeko, halaber, Uholde Arriskuei buruzko Aurretiazko Ebaluaketa egingo da, baita arrisku mapak eta uholde arriskua kudeatzeko planak ere, betiere 2007/60/CD Arteztarauari jarraituz eta 903/2010 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera. Eta lan horiek, kasuan kasuko Uren Agintaritzak (URA-Ur Konfederazioak) burutuko ditu.



### 3.1.3.3 Ebroko demarkazio hidrografikoaren plana eta erabilgarritasun hidrografikoaren erabileraren arriskua kudeatzeko plana

Iruña Okako udalerrria zeharkatzen duen ibaian (Zadorra ibaian) eragin zuzena du, udalerririk dituen urperatzeko arazoak direla eta.

Garrantzitsua da kontuan hartzea horren inguruan EAren Uholdeen Arretik Neurriak Hartzeko Plan Osoak (2001-2005) eta 2016ko urtarrilaren 19an 16. BOEan argitaratutako 1/2016 Errege-Dekretuak, urtarrilaren 8koa, Ebroko Plan Hidrologikoak 2015-2021 zehazten dutena.

Azkenengo honi dagokionez, garrantzitsua da zehaztea Uholde Arriskuen Ebaluazioa eta Kudeaketarako 2007/60/CE Europako Uholde Zuzentaraua betez Ebroko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana onartu dela (ostirala, 2016ko urtarrilaren 22ko 19. BOEan argitaratutako 18/2016 Errege-Dekretua).

Horrela, Ebroko Konfederazioaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak Uholde Arriskuaren Atariko Ebaluazioa zehazten du (Uholde Arriskuaren Atariko Ebaluazioa –UAAE-, Uholde Arrisku Handiko Eremuak –UAHEak- eta Uholdeak jasan ditzaketen Zonaldeen Kartografiaren Sistema Nazionala –SNCZI-).

Kasu honetan, agiriak Zadorra ibaiaren ES091\_ARPS\_ZAD-13 UAHEa aipatzen du, Zadorra ibaiak Tresponde entitatetik igarotzerakoan kartografiatua, baita aipatutako ibaian uholde arriskua duten kartografiatutako zonaldeak ere.

Ibaian eta Erreken Ertzak antolatzeko LAPak ezartzen duen kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk Kultura-Interesa duten Zubiak dira, Iruña Okako udalerrriaren barnean daudenak.

Antzinako zubi zahar batzuek zalantzan jarri ezin den balio kulturala dute, bide-funtzionaltasunaz gain. Hala ere, beste askotan oztopo hidrauliko nabarmena dira uholdeen prebentzioari begira. Gauzak horrela, eta batez ere hiri-zonen urpean gelditzeko arriskuaren barruan dauden kultura-intereseko zubiei dagokienez, udal-plangintzak kasu zehatz bakoitza aztertu beharko du.

Lurraldearen Arloko Plan honetan, honako zubiak babesteko ahalik eta ahaleginik handiena egitea eta zubi hauen kontserbazioarekin bateragarriak diren aukera edo irtenbide hidraulikoak garatzea proposatu da Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren balorazioaren arabera hautatu dira zubiak—:

IZENA	IBAIA	BALORAZIOA
Langraiz de la Oca / Langraiz Oka	Zadorra	A-7
Villodas/ Billoda	Zadorra	A-10
Iruña- Trespentes/ Tresponde	Zadorra	B-10
Momario	Zadorra	B-13



Garaboko zonaldea Hasierako Onarpen Agirian landu beharreko beste gai interesgarri bat da. Legez kanpo eraikitako bederatzi etxebizitza dira, zabor-zerbitzua eta beharrezko urkanalizazioa eta saneamendua ez dutenak. Eraikinak, gainera, uholde-orban batean daude. Horregatik, gai hau Administrazioarekin eta kaltetuekin batera zehazki landu behar da alde guztiei on egingo dien irtenbidea lortzeko. Ondorioz, konponbideak bilatzeko HAPOa ez dela hirigintza irudi hoberena kontsideratu da. Horregatik antolamendu xehatuko Hiri Berrikuntza Plan Berezi (HBPB) batera bideratzen da.

### 3.1.3.4 Nekazaritza eta Basozaintzako LPS

177/2014 Dekretuaren bitartez onartu zuen behin betiko (EHAA 2014ko urriaren 17ko), luraren defentsa eta babesa; nekazaritza sektorea eta bere baliabideak orokorki; egungo landa panorama zehaztea eta plangintza landa irizpideen arabera proposatzen duen lurralde antolaketa dira bera helburu nagusiak.

Sektoreei dagokienez, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak nekazaritzako eta basozaintzako erabilerak arautzen ditu, eta honen antolamendu-eremua EAE osora iristen da, alde zuzenak zeuden hiri-eremuetara izan ezik. Alde zuzenak zeuden hiri-eremuak hauek dira: dokumentu hau behin betiko onetsi zen egunerako udal-planeamendu orokorraren arabera lurzoru urbano edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta zeudenak. Era berean, Babespeko Naturguneetako esparrua (Parke Naturalak eta Babespeko Biotopoak); Hezeguneen LPS-ak zehazki definituriko hezeguneak eta Itsasertza LPS-ak definitutako Itsasertzeko Babes Bereziaren eremuak alde batera utzi ditu.

HAPO-aren Aurrerakin-Agiriak 2009 indarrean zegoen Lurzoru Urbanizaezinaren kategorizazioa jasotzen du, behin-betiko onartu dena izan arte aldatu dena. Beraz, HAPO-aren agiriak Lurzoru Urbanizaezinaren antolaketa egokitu beharko du, onartutako Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LPSaren kategorizazioan oinarrituz.

Lurzoru Urbanizaezina arautzeko oinarri gisa, LPS-k ingurune fisikoaren elementu arauemaile eta alderdiren arteko definizioa eta egiaztatzea burutzen du, horrela egitaratuta:

- 1. Erabilera eta jardueren definizioa:** LAG-etan proposatutako eskematik aurrera, eremu ezberdinetan kontuan hartzeko erabilera eta jardueren definizioa egin da, honek ñabardura batzuk egin ditu, esaterako Kontserbazio Erabilera kontuan ez hartzea (berez ez da erabilera, helburua baizik), Nekazaritza Erabileraren barruan Berotegi Erabilera barne hartzea eta Landa-bideak eta mendi-bideak Erabilera desberdin gisa sartzea.
- 2. Antolamendurako kategoriak:** Lurzoru Urbanizaezina banatzen denetan, Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroetatik datozenak.

LPS-k lurzoru guztia, neurri batean, nekazaritzarako bokazioa izan dezakeelako iritzia du, hori dela eta LAG-etako Erabilera-bokazio definitu gabea Kategoriari ez zaio eremurik esleitu.



LAGen **Nekazaritza nahiz Abeltzaintzako eta Landazabaleko** kategorია bi azpikategorietan banatu da:

- **Balio estrategiko handiko nekazaritza- eta abeltzaintza- kategoria:** estrategikotzat jotzen da nekazaritza-sektorearentzat. Beraz, hura mantentzea eta gordetzea lehenetsuna da, bestelako erabileren aurrean. Gaitasun agrologiko handiagoko lurzorua eta modernotasunagatik, errentagarritasunagatik edo jasagarritasunagatik sektorearentzat estrategikotzat jotzen diren nekazaritza-ustia guneetako lurak hemen sartzen dira.
- **Trantsizioko Landa Paisaia:** azpikategorian, aurreko azpikategoriakoek baino gaitasun produktibo txikiagoa duten eremu landuak daude (malda handiagoak), edo landazabal-eremuak, belardiz eta haiekin mosaiko eran antolatuta dauden baso-unada txikiz estalita. Balio estrategiko handiko nekazaritza eta abeltzaintzako eremuekin edo baso-eremu zabalekin kontaktuan daude. Bokazioz, haien erabilera bi horietako bat izaten da.

LAG-etako **Basoa eta Mendiko larreak** kategoriak Mendia izeneko goi kategorian bildu dira, eta hau berriz lau kategorietan banandu da:

- **Basozaintza kategoria:** Beren egungo erabileragatik eta, batzuetan, erabilera-bokazioaren arrazoiengatik (arriskuak, arroen babes, eta abar) zuhaitz-estaldura izateko bokazio argia daukaten lurak sartzen dira hemen. Baso autoktonoak (natura-interes handia izateagatik) eta espezie aloktonoen landaketak (hemen, radiata pinua aipatu behar dugu, daukan hedaduragatik) sartzen dira hemen.
- **Basoa – Mendi Barbana kategoria:** zuhaitzik gabeko zonak dira, edo zuhaitz barban edo degradatuak dituztenak. Landare-eboluzioaren ondoriozko sastraka-eremuak hartzen ditu, antzina izaten zuten abere-zama arindu ondoren. Batzuetan, zona hauek lurzoru urria dute (eremu karstikoak), edo malda handiak izaten dituzte.
- **Mendi Larreak kategoria:** kota altuetan dauden soropil leunak eta lodiak nabarmendu behar dira, abeltzaintzarako aprobetxamendu intentsua baina urtaroren arabera dutenak, eta artzaintza tradizionalari lotuta daudenak. Sasiak garbituz edo beste metodo batzuen bidez larreak hobetu diren mendialdeak eta ezarri berri diren larreak ere hemen sartzen dira.
- **Mendi Larreak - Harkaitzak kategoria:** arrokozko horma handiak, irtengune ia bertikalekin, euskal mendietako karezko formazioen ezaugarri direnak, sartuko dira. Zona hauetan, nekazaritzako eta basozaintzako aprobetxamendua ia ezinezkoa da, haietara iristea oso zaila baita. Eremu hauen beste ezaugarri bat da landareak oso bereziak eta bitxiak direla. Gainera, mehatxatutako faunak honelako lekuetan egiten ditu habiak eta bilatzen du babes. *Kategoria hau ez da Iruña Okan aurkitu.*
- **Ingurumen hobekuntza kategoria:** Degradatutako eremuak, lurzoru urrikoak edo gaur egun higadura handia dutenak dira. Haietan, ekosistema hobetzeko eta leheneratzeko lanak egin behar dira lehenbailehen, baliabidea galtzen ez jarraitzeko. EAEn dauden harrobiak ere



sartzen dira (ustiatzen direnak nahiz bertan behera utzita daudenak). Harrobien antolaketa gaian indarrean dagoen legeriak arautu behar du.

- **Lurrazaleko Urak Babestea kategoria:** Kategoría hau EAeko ibai eta errekek eta haien babes-eremuek osatzen dute, EAeko Ibai eta Erreken Bazterrak Antolatzen dituen LPSan ezarrita.
- 3. **Gainjarritako baldintzak:** Zenbait jarduerak antolamendurako kategorien azalean nola garatu ahal diren mugatzen du, kasu bakoitzeko arrisku motaren arabera eta LAG-ek finkatzen dituen eremu ezberdinetako ingurune fisikoaren elementuen tratamendua eta jardueren arauketa. Artezpideek finkatzen dituenak mantendu dira:
  - **Akuiferoak kutsatzeko arriskua dagoen eremuak:** Lurpeko akuiferoen birkarga-eremuak dira; eremu horietan erraz edo oso erraz kutsa daitezke baliabide horiek, EAeko «Akuiferoen kutsadurarekiko urratze-arriskuaren mapa» (Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak egin) delakoan jasotako irizpideen arabera.
  - **Eremu higigarriak:** beren ezaugarri litologikoen eta erliebearen ondorioz, higadura-fenomenoak agertzeko erraztasun handia dago, LPS honetako higadura-eredua aplikatzearen emaitzen arabera. Zona horietan jarduteko, ura eta basoak kudeatzeko planak egin beharko dira.

Baldintza hauez gain, LPS-k honako hauek erakusten ditu:

- **Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak:** Onura Publikoko Mendiak eta Mendi Babesleak Mendiei buruzko 43/2003 Legean definitzen dira.
- **Natura-intereseko eremuak:** EAeko natura-balio bereziko eremuak hurrenez hurrengo azterlan eta plangintza-dokumentuetan inbentariatu eta ebaluatu dira, Ramsako Hitzarmenaren esparruan katalogatutako Nazioarteko Garrantziko Hezeguneak gehituz eta izendatutako edo BNAPean (Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana) idatzeko eskariarekin dauden Naturgune Babestuak kenduz, aparteko baldintzatzaile batean integratzen direnak.
- **Korridore Ekologikoak:** Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzentarauak egindako kartografian markatua, honek landaretza naturalaren sail ezberdinen artean loturarako eta komunikaziorako balio du, horrela hartu-eman genetikoa ahalbidetzen du.
- **Paisaia gutxi eraldatuta duten zonak:** Eremuok EAeko landa- edo natura-paisaia adierazgarriak dituzte, eta paisaia itxuraldatzen duten elementuetatik urruti daude. Hona hemen elementu horietako batzuk: hiri- eta industria-aldeak, errepideak, eta abar Halere, faktore hori erlatiboa da, paisaiaren pertzepzioa oso subjektiboa delako, eta kontuan hartzen den eskala-faktoreak eragin handia duelako haren kalitatean. Egun, euskal ingurumen-organoa EAeko Paisaia Bikainen eta Berezien Katalogoa egiten ari da. Oraingoan, lan horien garapen-mailak ez du gomendatzen haiek Nekazaritza eta



Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean ezartzea, baina, aipatu katalogoa onartzen denean, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak automatikoki hartuko du bere gain haren kartografia, aldaketarik egin behar gabe.

Plana ingurumen-araudiarekin edo natura-inguruneari buruzko araudiarekin koordinatzeari dagokionez, azpimarratu behar da Ingurumen-Araudiari edo Inguru Naturalaren Araudiari hurrengo eremuen antolamendua igortzen zaiola:

- a) Natura Parkeak eta Biotopo Babestuak, bai deklaratuak bai deklaratzeko bidean daudenak, natura babesten duen 16/1994 Legearen arabera. (Iruña Okan ez aurkituta).
- b) Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren esparrua; hura antolatzeke, Urdaibai Biosfera Erreserba babestu eta antolatzeari buruzko 1989ko uztailaren 6ko 5/1989 Legeari eta haren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planari lotzen zaie. (Iruña Okan ez aurkituta)
- c) Europako Natura 2000 ekologia-sarea osatzen duten eremuak (Zadorra Ibaia barne)

Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak jasotzen duen beste alderdi bat eta kontuan hartu behar dena hasierako Onarpen Agiria idazterakoan, lurzoruaren erabilera eta erabilera eraikigarriekin lotutako jarduketa dira. Zehazki, eta Aurrerakin-Agirian planteatutako hazkuntza proposamenei lotuta, aurretik zeuden guneetan oinarritzen diren hirigintza-hazkuntzetan finkatu behar da (40. Artikulua):

- 1.– Lehendik zeuden hiri- edo landa-guneen handitze gisa asmatutako hirigintzako garapenak dira, edozein izaera dutela ere, are Euskal Autonomia Erkidegoko ohiko populatze-moduak ere, landa-izaerako eraikuntza gutxi batzuek osatuak. Nolanahi ere, handitze horiek bat etorri behar dute oinarrian duten guneen egiturearekin eta tipologiarekin.
- 2.– Hiri-hazkundearen kasuan, hazkundearen muntaren ondoriozko aprobetxamendua aurretiko gunearena baino handiagoa bada, garapean hori hurrengo artikuluan aipatzen den kategoriari dagokion luraren erabilera gisa hartuko da.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 29.5 artikuluzatiaren arabera, plangintzak ezingo du eraikitako azalerarekiko hazkunderik eragin landa-guneko lurzoru urbanizaezinean, eta etxebizitza-kopurua ezingo da izan lehendik zegoenaren % 50etik gorakoa.

Planak, halaber, LAGetako Ingurune Fisikoaren Antolaketarako Matrizea ere zehazten du, erabilerak egokiak, onargarriak edo debekatuak diren kontuan hartuta zenbait kategoriaren arabera arautuz. Zehazki, merezi du berezitasun hauek azpimarratzea:

- a) Erabilera onargarrien (2a) eta debekatuen (3a) arteko desberdintasunak argitzea. Erabilera onargarriaren kasuan (2a), nekazaritza eta basozaintzako jardueran duen eragina aztertutako egingo da, eta neurri zuzentzaileak hartuko dira. Erabilera debekatuen kasuan (3a), erabilera ez da nahi izatekoa, baina, salbuespen moduan, onargarria izango da bermatuta badago nekazaritza-arloan eskumena duen foru-organoaren txosten



baten bidez eta nekazaritza- nahiz basozaintza-jardueraren gaineko eragina berariaz kontuan hartzen duen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura baten bidez.

- b) Kontuan hartzea bestelako ezaugarri batzuek bereizten dituztela Arabako Erdialdeko eta Guardiako eremu funtzionalak EAEko gainerako eremutik; eta lurraldearen gainerakoa ez bezala arautzea aurreneko biak, balio estrategiko handiko lur asko dagoelako eremu funtzional horietan. Arautze desberdin hori, erabilera jakin batzuei dagokienez, Nekazaritza eta Abeltzaintza nahiz Landazabala - Balio Estrategiko Handia kategoriarako ezartzen da.
- c) Udal-plangintzak aurreikus ditzakeen baldintzak ezartzea aurretik zeuden guneak oinarri dituzten hazkundeetarako, eta erabilera hori onargarria den kategorietan adieraztea ingurumen-inpaktuaren ebaluazioko azterlanak nekazaritza-inguruneke inpaktuaren balioztatzeko espezifikoak izan beharko duela. Hala ere, onartutako lurralde-plangintzako irizpideari jarraituta, aurretik zeuden guneak oinarri ez dituzten hazkundeak debekatu egiten dira.

USOS	CATEGORIAS DE ORDENACION							
	AGROGANADERO Y CAMPINA		MONTE				MEJORA AMBIENTAL	PROTECCIÓN DE AGUAS SUPERFICIALES
	Estratégico	Paisaje Transición	Forestal-Monte Ralo	Forestal	Pastos Montanos	Pastos montanos-Roquedos		
<b>USOS EDIFICATORIOS</b>								
Crecim. apoyados en núcleos preexistentes	2b	2b	2b	2b	3	3	2b	-
Crecim. no apoyados en núcleos preexistentes	3	3	3	3	3	3	3	-
Edificios de Utilidad Pública e Interés S.	2a**	3a**	2a	2a	3a	3a	3	2a
Resid. aislado vinculado a explotación	2a*	2a*	3a	3a	3a	3	3	3
Resid. aislado no vinculado a explotación	3	3	3	3	3	3	3	-
Instalaciones peligrosas	2a**	3a**	2a	2a	2a	3	3	2a

\* : Usos agroforestales con matizaciones en este PTS o a concretar por el ordenamiento foral  
 \*\* : Usos agroforestales con diferente regulación en la categoría Alto Valor Estratégico para las Áreas Funcionales de Álava Central y Laguardia (2a) que para el resto de la CAPV (3a).  
 - : Usos a regular desde otros documentos de planeamiento

### 3.1.3.5 EAEko Ekonomia-jardueretarako lurzorua sortzeko lurraldearen arloko plana

Behin betiko onartu zena abenduak 21eko 262/2004 Dekretuaren bidez, LAGetan ezarritakoa betetzeko.

Agiriak EAE-ko udalerrien kategorizazioari dagokionez eta antolamendu eta lurzoru garapenerako, ekonomia-jardueraren erabilera, besteak beste Iruña Oka izendatzen da lehentasunezko udalerrri bezala, hau da, *“Gasteizko azpi-eskualdean lurzoru berrien garapenari eusteko politika finkatuko da, ezarpenak Agurain-Araia eta Langraiz-Erribabellosa kanpoko ardatzetarantz deszentraliza daitezzen, potentzialtasun estrategiko bikaina baitute jarduera instalazio berriak eta garraioaren zerbitzurako plataforma logistikoak hartzeko.*

Iruña Okako proposamen zehatzei dagokionez, Langraizko eskualde eskalako industrialde berria dago, garapenean dagoen Subillabide industrialdea eta 100ha aurreikusten direnak, eta Jundiz-Billodako Plataforma Logistikoa eta Intermodala.





Proposamen hauek lotesleak dira eta udalerriko plangintzaren berrikuspenerako erreferentzia jarraibideak planteatzen dira.

Beste alde batetik, **Eusko Jaurlaritzak LPSaren berrikusketa berri bat hasi duela argitu behar da, Auzitegi Gorenaren Epaiketagatik**, hortaz, LPS mugatzen da merkataritza ekipamendu handien erregulazioa (14 artikulua bigarren ataleko c eta d letrak, merkataritza ekipamendu handien lurralde erregulazioari buruzkoak).

### 3.1.3.6 Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzoruaren LPS (Idazten eta tramitatzen)

Plan honek, LPS honen helburu orokorrak ezartzeko erreferentzia gisa erabili ziren jarduketa gidalerroak eta helburu kuantitatiboen 2000-2003 Zuzendari Plana ordezkatzera dator, zeinaren Aurrerakina 2002ko Azaroak 5eko Gobernu Kontseiluak onetsi zuen. LPS hau zaharkitua dagoela aipatu beharra dago, bere aurreikuspenak 2000-2015 denboraldian kokatzen baitziren, izapidetze prozesua jarraitu ez duelarik, hala ere, Araba Erdialdeen eremuko aurreikuspen eta eraginak laburki biltzen dira.

Egun idazketa eta tramitazio prozesuan dagoen Lurralde Plan Sektorial bat da eta, beraz, ez dago behin-betiko onartuta. Hala ere, kontuan hartu behar da, izan ere, etxebizitza libreen kontuetan politika sektorialaren lurralde-erreferentzia gisa balio duelako eta A-2622 ipar eta hegoaldean etxebizitza libreko garapena proposatzen duelako Iruña Okako udalerraren kasuan.

LPS-ak, babes-etxebizitzari eta jarduketa-programa batzuei zuzendutako lurzoruaren erregulaziorako erreferentziarako Lurralde Eredu bat definitzen du, ekintza publikoen banaketa orekatu baten eta interbentzio politika egokiaren hartze baten bitartez.

LAG-ek proposaturiko eta LZP-ek garatutako Ereduak eta azkeneko Etxebizitzaren Plan Zuzendariak, LPS-a burutzeko abiapuntuko oinarriak osatu dituzte. Oinarrizko interbentzio-estrategiak lurraldeari dagokionez berronka prozesuan ardazten dira, eta etxebizitza politikari dagokionez, salneurri mugatuzko etxebizitza eskaintza handitzean eta babes-etxebizitzaren salneurriarekin bateragarria den lurzoruaren eskaintza nahikoa bermatuz. Horretarako hurrengo estrategia orokorrak proposatzen dira:

- Dagoen parkearen eraginkortasuna optimizatzea.
- Alokatzera zuzendutako parke publiko bat indartzea eta garatzea.
- Lurzoruaren ondare publiko bat indartzea eta garatzea.

Akzio publikoak etxebizitza babestuaren arazoaren inguruan aztertu behar dituen oinarrizko alderdiak hurrengo alderdietan ardazkatzen dira:

- Etxebizitza hutsen errentamendu-politika
- Lurzoru-politika
- Eraikitze-politika



## ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALA

### **Etxebizitza hutsen errentamendu programa:**

Dagoen bizitegi-parkearen gaineko esku-hartzea, hutsik dauden etxebizitzaren parte bat alokairu-merkatuan sartzearen bidez etxe berrien sorreratik eratorritako beharren zati bat asetzeko asmoz, LPSaren helburuetako bat da. Horrela, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalean proposamena etxebizitza hauek merkatuan pixkanaka-pixkanaka jartzean zentratzen da, Planaren epe amaieran 1.000 etxebizitza lortu arte.

### **Lurzoru-Programa:**

Inventarioaren datuetatik ondorioztatzen denez, 2000. urte hasieran babestutako etxebizitzaren eraikitze-erako lurzoru kalifikatua zegoen, baina Iruña Okako udalerrirako ez zegoen aurreikusita. Hau horrela izanda, Administrazioaren lehengo lanetariko bat kalifikatutako lurzoruen garapen prozesuaren burutzearen alde egitea eta horiek merkatura ateratzea bermatzea izango da.

Horrela, LPSaren proposamena hurrengo ekintzetan zentratzen da:

- Iruña Oka: Planaren proposamena bi garapen berri sortzean datza, A-2622aren hego eta iparraldean, 240 eta 190 etxebizitzekin.

### **Eraikitze-programa:**

Honako Plan honetan jasotako eraikitze-helburuak zenbait babestutako etxebizitzaren eraikuntzan zentratzen dira, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren eta horri lotutako Sozietateen aldetik. Horrez gain, eta Planari ez lotutako balioztapen gisa, aurreikusten da babestutako beste etxebizitza kopuru bat eraikitzea, beste operadoreen eskutik (Udaletxeak eta sustatzaile pribatuak, batez ere).

Iruña Okako kasuan 375 BEO proposatu dira, guztiak kalifikatzeko zain.

### **Lehentasunezko jarduketak:**

- Iruña Oka: A-2622 errepidearen ipar eta hegoaldean dauden eskolak eta geltokia hurrenez hurren.

### **3.1.3.7 Garraio eta sare intermodal eta logistikaren LPS**

Aurrerapen fasean, helburu nagusia bidaiarien modu aldaketaren sareen nodoen tipologia definitzea da eta helburu horretarako egituratutako lurrian jarduera logistikoak egitea; nodo horien kokapen idealak identifikatzea; azalaren balioztapena eta beren ezaugarri funtzionalak; eta, azkenik, nodoen kokapen aukerak zehaztea, abian dauden proiektuen edo EAEko beharrei eta helburuei erantzun dieten plangintzen arabera.

EAEaren kokapen estrategikoa da penintsularako merkatu ibilbide bezala erabiliz eta gainontzeko Europarekin, honek suposatzen du EAE logistikoki aukera zentro bat dela. Ebro/



Meseta interkonexioko plataforma intermodala garatzeko beharra aurreikusten da, Arabako Lautadan kokatutako gune logistiko handia, eskualde banaketako gunea, Gasteizko ekoizpen eta kontsumo areari zerbitzua eskainiko diona eta aireportua sostengatzeko ZAL bat, Arabako Lurralde Historikoan.

Egitura logistiko handi bat eta garraio intermodal sortzeri begira, proposamen zerrenda bat planteatzen da, haien artean existitzen diren plataformen optimizazioa eta Jundiz-Billoda bitarteko plataforma intermodalaren garapena.

LPSak A-1 erreferentzia modura hartzen du garapen berriko eta Vitoria-Gasteiz bitarteko elementu artikulatua bezala. Metro sare bat proposatzen da, Vitoria-Gasteiz, Agurain eta Langraiz Oka lotzeko, azken hauek “zabalera iberikoa” trenbide plataforma ere erabiltzen dute.

Autonomia Erkidegoaren LAP-k Sustapen Ministerioaren abiadura handiko proposamena biltzen du. Abiadura handiko trenbidearen sareari buruz bertan agertzen diren xedapenak lotesleak dira.

### 3.1.3.8 Energia Eolikoa Antolatzeko LPS

Maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuaren bitartez behin betiko onespena jaso zuen, Euskadin parke eolikoetako kokapenatarako hautaketan orientatzeko irizpideak eta jarraibideak finkatzeko baliabide baliagarria izateko helburuarekin; bai energia-ekonomia konbinatuaren ikuspuntutik bai ingurugiroarenetik, horrela azpiegitura hauei lurralde egokitzapenik hoberena lortu dezan.

Lurralde Planaren esparrua zortzi aerosorgailu baino gehiago daukaten parke eolikoak, sorturiko energia sare orokorrera isurtzen dutenak eta era berean 10MW baino gehiagoko potentzia dutenak, bakarrik osatuko dute.


Planak, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeko antolamenduan natura eta bertako baliabide hau aprobetxatzeko kokapen eolikorik egokienak identifikatu, hautatu eta integratzen ditu. Plangintza hau lurraldea antolatzeko politika orokorraren barruan kokatzeko helburuarekin mahaigaineratu da, garapen eolikoan interes sektoriala duten beharrezko koordinazioarekin. Kokapenak bi taldetan banatuta daude: I Taldea lehentasunezko kokapenek osatzen dute (Ordunte, Ganekogorta, Oiz, Mandoegi, Elgea-Urkill eta Badaia), II Taldea aldiz (Gazume, Kolometa, Arkamo, Iturrietako Mendiak Alda-Arlabako Gurutzea) bakarrik I Taldeko helburu energetikoen betetzeko benetazko zailtasuna dagoenean baimenduko dituzten instalazioak osatuko dute.

LPS, parke eolikoei dagokionez ezartzen du: “bere ezarpena, LPS honetan aukeratutako kokaguneetan, onartu beharreko erabilera edo jarduera, garapen plangintza gehiagoren beharra gabe proiektuaren instalazioen baimenaz aparte, lurzoruaren edozein klasifikazio edo instalazioa delarik eta Gidallerro horretan aurreikusitako antolamendu kategoria guztien



barruan”. Onargarritasun erabilpen losteslea da eta “udalerriko plangintzan zuzenean sartuko da”.

Ikus daitekeenez, LPSak Badaiaiko parke eolikoaren lehentasunezko kokapen bat aurreikusten du, eta bere lurraldearen muga Iruña Okari hunkitzen dio. Ondorioz, Iruña Okaren Plan Orokorren idazketa LPSaren zehaztapenei lotua geratzen da eta LPS honetaz hunkitua agertuko da, Azpiegitura Zerbitzuen Sistema Orokor bezala, dagokion erabilera erregimenarekin.



### 3.1.3.9 Badaiaiko Parke Eoliko. Afekzioak.

Udalerrriaren iparraldean Badaiaiko parke eolika dago. Eolicas de Euskadi S.A. enpresaz sustatua eta 2005.urteetik zerbitzuan, 30 turbina elektrikoak dauzka (50.100KW potentzia sortuz), gehiena Badaiaiko Mendilerroaren alboko Erkidegoarena dagokio.

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Industria Sailak, 2004.urtean Badaiaiko Parke Eolikoaren instalazioa baimendu zuen. Baimena baldintzatuta zegoen bere ustiapena irauten zuen bitartean, Ingurumen Inpaktua bete beharko zen, dagokion Ingurumen organoa izendatua eta dagokion neurri zuzentzaileak, Ingurumen Zaintza Planaren aurkezpena barne.

Ingurumen Zaintza plan hauek parke eolikoaren inpaktuan kontrol bat gauzatzen dute, hegazti populazioari buruzkoak, bai bere ingurukoak zein kanpotik datozenak. Gainera, sentikortasun



bereziagatik arrano beltzen (*Aquila chrysaetos*) eta sai zurien (*Neophron percnopterus*) kontrol osagarriak ezartzen dira, jarrera aldaketak zaintzeko eta parke inguruan habia egiten duten espezie hauen ugalketaren arrakasta neurtzeko.

Instalazioari dagokionez hurrengo afekzioei erantsita dago:

#### 1.- Aerosorgailuen energia:

Aerosorgailuen afektazio-eremuaren zabalera 80 metrokoa izango da gehienez, alegia, aerosorgailuen palek duten luzeraren –40m– bikoitza, eta aerosorgailuen lerrokadura izango da eremu horren ardatza. Afektazio-eremuaren barruan honakoak daude sartuta: aerosorgailuak (22,77 m<sup>2</sup>-ko azalera hartzen dutenak) eta instalazio lagungarriak (interkonexio-zirkuituak eta aerosorgailuetara heltzeko bideak). Aerosorgailuen afektazio-eremuak ezartzen dituen mugak honakoak dira:

Debekatuta daude energia elektriko eolikoa sortzeko prozesu arruntarekin eta parkeko instalazioen ezaugarriekin batera ezinak diren erabilerak eta jarduerak, bai eta instalazio horiek bete behar dituzten segurtasuneko baldintzak aldatzen edo betetzen ez dituzten erabilerak eta jarduerak ere. Bereziki, lehen aipatutako afektazio-eremuan debekatuta dago honako jarduera hauek egitea:

- a) Larreak, uztondoak edo beste landare batzuk erretzea.
- b) Parkearen barruko bideetatik motordun ibilgailuen zirkulazioa, salbu eta baimendutakoak.
- c) Airean ibiltzea oztopatzen duten trabak jartzea.
- d) Airean nabigatzea delta hegal, parapente edo antzekoekin 80 metroko altueran baino beheragotik.
- e) Lurpeko kanalizazioetan eragina izan dezaketen landaketak edo lanak egitea.
- f) Jarduera zinegetikoak egitea.
- g) Jarritako aerosorgailuen ekoizteko ahalmena mugatu dezakeen bestelako jardueraren bat egitea. Era berean, galarazita dago mandotegiak eta hegaztientzako jantoki osagarriak jartzea gertuen dagoen aerosorgailutik 5 km-ra baino hurbilago.

#### 2.- Energia elektriko lurpeko bide-zortasuna

Energia elektriko lurpetik pasatzeko zortasuna eskatzen da exekuzio-proiektuan adierazten den sakoneran kanalizazio-bideetatik kable-eroaleekin zorupea okupatzeko eta horretarako kontrola eta mantenua egiteko behar diren azalera-erregistroak egiteko; honako eragin hau izango du:

- a) Linea pasatzeko etengabeko zortasuna lur-zati batean, hain zuzen, azalera zehazten dena eta finka bakoitzerako proiektuko lur-zatien planoetan eta honekin batera doan zerrendan jasotzen dena, lau metroko zabalera -bi metro kanalizazio-ardatzaren albo bakoitzean. Hortik pasako dira eroaleak eta instalazioa egiteko beharrezko diren gainerakoak. Zortasun hori eratzearen ondorioz, aipatu lur-zerrendaren azalera ondoko jabari-mugak izango ditu: -Goldatzeko, lur higitzeko eta antzekoak egiteko debekua 0,80 metroko sakoneran, -Zuhaitzak edo zuhaixkak edo sustrai sakoneko besterik landatzeko



debekua, -Inolako lanik egiteko debekua, aldi baterako bada ere, Eolikoak de Euskadi enpresaren berariazko baimena izan eta instalazio elektrikoen arloan aginpidea duen erakundeak kasuan-kasuan finkatzen dituen baldintzak bete ezean. Era berean, debekatuta dago linea elektrikoa eta berari erantsitako elementuak behar bezala funtzionatzeko kalte eta eraginik sor ditzakeen edozein jardura burutzea.

- b) Instalazio elektrikoa egin, zaindu, konpondu edo berritzeko beharrezko diren langile eta elementuak mendeko finkara sartzeko sarrera librea. Lan hauek direla-eta kalterik sortuko balitz, kalte-ordaina eman beharko litzaiokie titularrari.
- c) Instalazioak eraikitze beharrezko diren lurrak edo beste ondasun batzuen aldi baterako okupazioa ere hartuko du zortasun horrek.

3.- Instalazioak kentzea eta lurrak jatorrian zeuden egoeran utzi:

Maiatzaren 28ko 115/2002 dekretuko 11.artikuluan ezarritakoarekin bat etorriaz, baimen horrek berekin dakar, batetik, instalazioak kendu beharra, eta, bestetik, okupatzen duten terrenoa itzultzea, betiere energia elektrikoa sortzeko jardura bukatuz gero; guztiarekin ere, itzuliko diren terrenoak lehengoratu egin beharko dira. Baimenean ezarritako baldintza eta betekizunak betetzen ez badira, orduan ere aipatu obligazioa bete egin beharko da.

#### **3.1.3.10 Arabako Errepideen Plan Integrala (AEPI)**

Arabako Errepideen Plan Integrala, 2003 eta 2005 bitartean idatzi zen jarduketa programa bat ezarri, 2004tik 2015rako iraunaldiarekin. Hortaz, "Planaren Aurreproiektu Agirian 2016-2027" bere berrikusketa egin da eta Araba Lurralde Historikoaren Errepide Sareetan egin beharreko jarduketa guztiak agertzen dira, 2016-2018, 2017-2017 tarteetan zehar.

Analisisa errepide sare guztira banatzen da: Lehentasuneko Sarea, Oinarrizko Sarea, Eskualde Sarea, Tokiko Sarea eta Auzo-Sarea.


Bai Lehentasuneko Sarea eta bai Oinarrizko Sarearen zati nagusia, Euskal Herriko Errepide Plan Orokorraren Helburu Sarearen parte dira, gaur egun berrikusketan dagoena.

AEPI n egiten den analisisa udalerrriak zehartzen dituen errepide sareetan aurkitutako urritasunei buruzkoak, larriune handiena iparraldean dago, A-3302 Tresponde-Mendeza errepidean, eta A-3302 eta A-4358 loturan, Billodan.

"Los Llanos" industrialdearen hego-ekialdean ere trazaduran urritasuna antzematen da, A-1, N-102 eta A-3302 errepideen elkargune loturan.

Irudian ikusten denez Iruña Okako istripu tarterik handiena A-3308 errepidean dago Langraiz Oka zeharkatzerakoan, eta errepide berean autobiderra lotzen duen tartean, Subillabide eta Billodatik pasatzerakoan, A-4302 Jundiz poligonoko elkargunera heldu arte.





Tarte hauek ez daude arrisku gehien kontzentratzen direnen artean beraz ez daukate jarduketa handiko beharra, baina badaude jarraipen baten beharra daukatenen artean.

Jarduketa proposamenak diagnostikoarekin eta istripu gehien kontzentratzen diren tartean daude. Aurreikusi ahal denez, A-4358 auzo-sarean hobekuntza bat espero da A-3302 errepide bitartean Billodara heltzean, bertan industrialdeko sarbideak daude eta jarduketa integratuaren sailkapen tertziario bat planteatzen da. Aldi berean, A-3302 saretik A-1 eta N-102 heldu arte Billoda zeharkatzen dutenak eta udalerrria igaro ondoren, egokitzapen bat posible izango da trazadura hobetzeko edota plataforma handitzeko.

Oraindik ez dira existitzen errepideentzako idatzitako informazio azterketak, ezta eraikuntza proiekturik, eta berrikuspen lehentasuna 2022-2024 urteetarako aurreikusia dago.



### 3.1.3.11 Arabako foru errepideetako zarataren aurkako ekintza. 2016-2020 Aldia.

AFAk 213/2012 Dekretua urriaren 16koa, EAEko kutsadura akustikoa eta 1513/2005 Errege Dekretuaren V Eranskina, abenduaren 16koa, azaroak 17ko 37/2003 Zarataren Legea garatzen


*delarik, ingurumen zarata eta ebaluaketaren kudeaketa dagokiona, 2015eko abenduan idatzi zen Arabako Foru Errepideetako Zarataren Aurkako Ekintza Plana. Aldia 2016-2020.*

Plan honek bide ardatz handiko zarata estrategiko maparen egiteari jarraitasuna ematen dio, 2002/49/CE Zuzentarauan definituak (IMD>8000 veh/egun) eta 6.000 veh/egun baino gehiagoko zarata mapen, 2013/2012 Dekretuak eskatzen duenaren arabera EAEko zarata kutsadurari buruz.

Azpiegitura bideko jabe erakundeak zarata mapak egiteko beharra daukatenak dira, alboko lurraldeei zarata mailaren ebaluaketa orokorra baimentzen dutenak. Aldi berean, Foru Aldundiei dagokie mapen onarpena eta berrikusketa.


Zarata mapen antolaketa: Estrategiko Mapa Unitatea (MEU) eta Autonomia Mapa Unitateak (AMU). Bietan foru ardatzen trazaduraren parte bat dira, trafikorako baldintza homogeneouskin eta beraz, zarata emisiokoak.

Arabako Lurralde Historikoaren kasuan, normalean AMU/MEU bat egiten du aztertu beharreko errepide oso batekin.



*Egunean zehar dauden zarata mailak ZMEetan lortuak.*





*Gauean zehar dauden zarata mailak ZMEetan lortuak.*

Zarataren kontrako Akzio Plana Trafikoaren zaratagatik sortzen diren eragozpenaren programan oinarritzen da, lehentasuneko orden bat jarraituz eragozpenak murrizteko zonaldeak ebaluatzen ditu. Bereziki trafiko altuko indizeak dauzkaten bizitegi zonaldeak kontuan hartzen dira, bizitegi eremuak eta gaitasun handiko bidearen inguruko ekipamenduak.

Akzio Planak xehetasun ikerketa bat egiten du eta lehentasuneko jarduketa daukaten zonaldeetan neurri zuzentzaileak proposatzen ditu, eraikuntza proposameneko konponbideak barne, orokorrean errepide ertzetan egin beharreko pantaila akustikoak. Ondoren bere eraginkortasunaren ebaluaketa bat egin behar da.

**Azpimarratu behar da Kalitate helburuetako zonaldeetan Iruña Okako hiri nukleotik hurbileko ardatzarik ez dela aurkitzen.**

Helburu hau existitzen den neurri zuzentzailean zentratua eta 213/2012 Dekretuan sortutako arau marko berriari, inpaktuak antzemateko dagoenarekin lotzen da, bai foruaren esku dauden etorkizuneko azpiegituren garapeneko neurri zuzentzaileen definizioan eta bai **Zortasun Akustiko Zonaldearen** definizioan.

**Zortasun akustiko hauek babeserako ezinbesteko tresnak dira etorkizuneko hirigintza garapenak sortuko duten inpaktuarekin eskualdeko bideetan, eta plangintzarako izaera loteslea izango du.**

Zortasun akustikoetatik eratorritako baldintza gainjarriak ere kontutan hartu behar dira, **zortasun akustiko** aireportuariaren kasuan adibidez. AFAen errepidea, Madrid-Irun trenbide lerroa edo Abiadura handiko proiektuari lotutako lineen zortasunak onartuko balira, haietatik eratorritako baldintzak sartuko ziren.



### 3.1.3.12 Arabako Lurralde Historikoaren bizikleta eta ibilbide berdeen arloko Lurralde Plan Sektoriala

2015.urteko abenduan Plan honen Aurrerapena aurkeztu zen. Arabako Lurralde Historikoko bizikleta bideen eta bide berdeen arloko lurralde planaren helburua da, dokumentu bakarrean iraunkortasun mugikortasun modu biak (oinez eta bizikletaz). Azpiegituren hiriarteko garraioa, motorrik gabeko mugikortasuna garatzeko; balioan jartzen ditu hurrengoak: ondare naturala, paisajistikoa eta historiko-kulturala eta lotura ekologikoa eta paisajistikoa ingurumen naturalean. Oraindik ez dago indarrean, behin behineko Onarpenaren 4.fasean aurkitzen delako.

#### Txirringularitzako bide sareak

Aurrerapenarekin bat etorritik eta maparen lineak egokituz benetako korridoretara, lehenengo fase batean 13 bizikleta bideak definitu dira, eguneroko desplazamenduen fluxua xurgatuko luke, besteak beste, VC4\_Vitoria-Gasteiz-Langraiz Oka bidea (6,35km/4,96Km).

4\_Vitoria-Gasteiz- Langraiz Oka bizikleta bidea



VC4 bizikleta bidea Vitoria-Gasteizko trazadurari eta Langraiz Okaren herriari dagokio. Bizikleta bidearen zati bat Jundiz mendebaldeko eremu industrialaren hedapenean existitzen da eta Langraiz Okaren nukleoan bukatzen da.



Trazadurari bi aukera planteatzen zaio:

Lehenengo aukerak 4,96km-ko zabalera dauka eta Industrialdea eta Subillabidera sartzeko errepidea erabiliko luke, hemendik aurrera trazaduraren hedapena proposatzen da A-3308 errepidearekiko paralelo edota bananduta Langraiz Okaraino.

Bigarren aukerak 6,35 km-ko luzera dauka eta trazaduraren hedapena proposatzen da paraleloki edota A-4302 eta A-3302 errepidetatik bananduta, A-3308 errepidera heldu arte, bertan lehenengo aukeraren trazadurarekin bat egiten dute.

Helburua Vitoria-Gasteiz, Subillabide lan eremua eta Langraiz Okako nukleoaren arteko mugikortasuna konpontzea da.

### Ibilbide berdeen sarea


Arabako ibilbide berdeen Sarea Ondare Naturala, Paisajistikoa eta Biodibertsitatearen kontserbazioa egiteko diseinatu da.

Sarea oinezkoentzako eta bizikletentzako berreskuratu diren 1.000km-ko bideez osatuta dago. Sare honen bidez ingurunearekin eta landarekin harreman zuzena baimentzen dute, eta aldi berean, paisaiaren, balio natural eta kulturalen gozamenaz.







Gaur egun sareak 21 ibilbide dauzka, antzinako merkataritza ibilbide historikoak edo artzaintzakoak. Gaur egun ingurune naturalerako sarbide bezala erabiltzen dira.

Iruña Okako udalerriak zeharkatzen dituzten ibilbideak hurrengoak dira:

- *IV8-GR 282-Artzaintza naturbidea*: Artzaintza naturbidea, jakintza eta Artzaintzaren antzinako kultura balioesteko gonbidapena da. Ez da ahaztekoa belaunaldietan zehar pilatutako esperientzia eta jakintza, ingurunea zainduz eta errespetatuz bizitako pertsonak, gaur egun ezagutzen dugun paisaia modelatu dutenak.
- *IV4-RP- Donejakue bidea*, erromesaldi ibilbide garrantzitsuenetariko bat da, Arabako lurraldea zeharkatzen du eta Ignaciano bidearen alboan dago.
- *GR 25 Lautadako bira*: mendi magalean da eta funtsean hori bera da: altuera handirik gabe Arabar lautada inguratzen duen ibilbidea. Hau landaketak eta mendiko harizti eta pagadiak banatzen dituzten antzinako bideetatik doa.



#### RED DE ITINERARIOS VERDES

- |   |   |
|---|---|
|  IV4.- GR-1 Sendero Histórico    |  IV14.- Camino Santiago          |
|  IV8.- GR-282 Senda del Pastoreo |  IV7.- GR-99 Río Ebro            |
|  IV17.- Colada Berantevilla      |  IV5.- GR-25 Vuelta a la Llanada |





Azkenik, Lurralde Plan Sektorial honen Aurrerapenean 19 ibilbide berde proposatzen dira, gaur egungo sarearekin bateragarriak direnak, IVC4- Zadorrako ibilbide berdea aurkitzen direnak (Vitoria-Gasteiz- Santa katalina).



*Proposatutako ibilbideari bateragarria den ibilbide berdea IVC-4-Zadorraren bide berdea*


Osagarrizko Ibilbide Berdea OIB4 hau Vitoria-Gasteiz eta Santa Katalina Monasterioaren arteko tartea da, gaur egun lorategi botanikoa, Trespondetik 500metrotara.

Helburua Vitoria-Gasteiz eta Jundizko Muinoa lotzea da altxor botaniko honetatik gertu, eta aldi berean, IL 25 Oppidum de Iruña-Veleia zehar. Zadorrako Ur parkea luzatuko da Billodara heldu arte, bertan Langraiz Okako nukleoaren adar bat aurkituz.

2017ko otsailean Zadorra Ibilbide berdearen lehenengo tartearen egokitzapen obrak hasi ziren, Vitoria-Gasteiz Langraiz Okarekin lotzeko. Udaltatzak ibilbide hau luzatzea bilatzen du, ur-ibilbide bat sortuz "La puebla de Arganzonera" heldu arte.

### **Proposatutako Ibilbide Luzeak**

LPSetik lurraldea egituratzeko Lurralde Ibilbide Luzeen definizioa proposatzen da, bereziki txirrindularientzako eta lurraldearen sarbidea osatzen dutenak. Ibilbide Luze hauen parte bat ibilbide berdez eta bizikletentzako bideez osatuak daude.



Proposatutako ibilbide hauetan, GI-4 Egin-Labastida eta GI-7-Vitoria-Gasteiz-Valderejo daude, Iruña Okako udalerrira zeharkatzen dutenak.

Ibilbide Luzea GI4, Egin Arabako Lautadaren Ekialdetik eta Mendebaldetik Arabako Errioxa, lurraldearen egiturazko ibilbidea definitzea suposatzen du Ekialdetik Mendebaldera.

Ibilbide Luzea (IB7), Vitoria-Gasteiz eta Añanako Valderejo Parke Naturalaren arteko trazadurari dagokio. Vitoria-Gasteizko Eratzun Berdearen IB20an hasten da, Krispiñeko Zadorra Parkean era Lalastrako Interpretazio Zentroan bukatzen da. Bere helburua Mendebalde zentroaren Arabako Lurralde Historikoa Egituratztea da, hiriburua Valderejoko Parke Naturalarekin lotuz eta Añanako Kuadrilla zeharkatuz, ingurumen, kultura eta paisaia balioan jarriz.

### 3.2 AZPIEGITUREN ZORTASUN LEGALAK

Zortasun legalak edo lurralde eta instalazioen gaien sortzen dituzten mugak, azpiegiturak eta baliabide publikoak eta etorkizuneko eraikinerako aurreikusiak daudenak, plangintza orokorrerako baldintza gainjarri garrantzitsuak osatzen dituzte.

Iruña Okari dagokionez, zortasunak sortzen dituzten azpiegiturak ondorengoak dira:

- Errepide sarea
- Trenbidea
- Forondako aireportua, Vitoria-Gasteizen, udalerrira daukan gertutasunagatik.



Araudia, zortasun hauen baldintzak eta lurraldearen gaineko afekzio eremuak, eta ondorioz plangintzan agertzen diren definizioak eta jarduketak, Memoriaren 2.3.4 atalean zehaztasunez landuko dira.

### 3.3 LEGEDI ETA ARAUDI XEDAPENAK

Atal honetan, Iruña Oka udalerrirako – bai Europarra, estatuko eta autonomiako eremuan-proposaturiko hirigintza plangintzaren definizioaren lehenengo faseetatik kontsideratu diren ingurumenaren eta lurralde antolakuntzaren inguruko araudi erreferentzia garrantzitsuenak sailkatzen dira; biak elkartzen dituen legedi materiak, hau da, lurraldearen antolakuntza eta inguruaren babesa eta lurralde antolakuntzarekin zer ikusia duen ingurumenaren inguruko legedia, azpimarratuz batezere.

#### **A. Lurraldearen antolakuntza eta hirigintza**

##### Estatala

- *Lurzoruaren Lege eta Hiri-Birgaitzearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua.*

##### Autonomikoa

- *Hirigintza eta Lurzoruaren 2/2006 Legea*
- *2/2014 Legea, urriaren 2koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aldatzekoa.*
- *Euskal Herriko Lurraldearen Antolakuntzaren 4/1990 Legea.*

#### **B. Ingurumen inpaktua**

##### Europarra

- *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/52/UE Zuzentaraua, 2014ko apirilaren 16koa, zenbait proiektu publikok eta pribatuk ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruz emandako 2011/92/UE Zuzentaraua aldatzen duena.*
- *Ingurumenari buruzko proiektu publiko eta pribatu determinatuen ondorioen ebaluazioari buruzko 2011ko abenduaren 13ko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/92/UE Zuzendaritza.*

##### Estatala

- *Ingurumen Azterketako, abenduaren 9ko, 21 Legea.*

##### Autonomikoa

- *Euskal herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 Lege Orokorra.*
- *Planen eta programen ingurumenaren eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua.*



### **C. Urak**

#### Europarra

- *Uholde arriskuen kudeaketa eta azterketaren inguruko 2007/60/CE Zuzendaritza.*
- *Zahartze eta kutsaduraren aurkako lurrazpiko uren babesaren inguruko 2006/118/CE Zuzendaritza*
- *Arrainen bizitzarako gai izateko hobekuntza edo babes behar duten ur kontinentalen kalitatearen inguruko 2006/44/CE Zuzendaritza.*
- *Uren politiken eremuko ekintza marko komunitarioaren 2000/60 CE Zuzendaritza*
- *Uren kutsaduraren aurkako borrokari dagokion EEE Kontseiluaren Erabakia.*
- *2000/60/CE Zuzendaritza aldatu eta uren politiken markoan lehentasunezko sustantzien zerrenda onartzen duen 2455/2001/CE Erabakia.*
- *Hondakinen isurketei buruzko Europako Kontseiluaren Apirilaren 26ko 1999/31/CE Zuzendaritza*

#### Estatala

- *Azaleko uren egoeraren segimendu irizpidea eta ebaluazioa eta ingurune kalitatearen arauak arautzen dituen irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretua.*
- *Planifikazio Hidrologikoaren Araudia arautzen duen uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretua aldatzen duen irailaren 17ko 1161/2010 Errege Dekretua.*
- *1/2001 Errege Dekretu Legegileak onartutako Uren Legeak aldatzen dituen 4/2007 Errege lege-dekretua.*
- *Arroko Organismoen lurralde esparru eta plan hidrologikoak definitzen dituen maiatzaren 8ko 650/1987 Errege Dekretua eta mugaketa hidrografikoaren lurralde esparrua zehazten dituen otsailaren 2ko 125/2007 Errege Dekretua aldatzen dituen abuztuaren 28ko 775/2015 Errege Dekretua.*
- *Uren Legea 1/2001 Errege dekretu legegilea.*
- *Uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uren Legeen testu bategina modifikatzen duen apirilaren 13ko 4/2007 Errege Dekretu-Legea.*
- *10/2001 Plan Hidrologiko Nazionala Legea eta aldatzen duen 11/2005 Legea.*
- *Arroen Plan Hidrologikoak onartzen dituen 1664/1998 Errege dekretua.*
- *Hiriko hondakin uren tratu Arraroako arauak ezartzen dituen 11/1995 Errege lege-dekretua eta berdina egiten duen 509/1996 Errege Dekretua.*
- *Jabetza publiko Hidarulikaren Araudia den 849/1986 Errege dekretua eta hau aldatzen duen 1315/1992 Errege Dekretua.*
- *Uholde arriskuak ebaluatu eta kudeatzeko uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretua.*
- *Kantauri Ekialdeko mugape Hidrografikoaren Espainiako aldeko Plan Hidrologikoa onartzen duen Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua.*





- *Mendebaldeko Kantauri Itsaso, Guadalquivir, Ceuta, Melilla, Segura eta Jucarreko mugaketa hidrografikoen eta Ekialdeko Kantauri Itsaso, Miño-Sil, Duero, Tajo, Guadiana eta Ebroko mugaketa hidrografikoen alde espainiarraren berrikuspena onartzen duen urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretua.*

#### Autonomikoa

- *Uren 1/2006 Legea.*
- *Euskal Herriko Ingurumenaren Babes Orokorra den 3/1998 Legea*

#### **D. Atmosfera eta zarata**

##### Europarra

- *Kutsaketaren (IPPC) integratutako prebentzio eta kontrolari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/1/CE Zuzendaritzaren aplikazioari buruzko informeetan erabiliko den galdeketa ezartzen duen 2011ko irailaren 21eko Komisioaren Gauzatze Erabakia.*
- *Ingurumen zarataren azterketa eta kudeaketaren inguruko 2002/49/CE Zuzendaritza*
- *Kaleko erabilera duten makinek eragiten duten zarataren inguruko parte diren Estatuen legediekiko hurbiltasunari dagokion 2000/14/CE Zuzendaritza.*
- *Ingurumen airearen kalitatearen inguruko kudeaketa eta azterketaren inguruko 96/62/CE Zuzendaritza*
- *79/113/CEE Zuzendaritzaren aurrerapen teknikoarekiko aldatzen den 85/405/CEE Zuzendaritza.*
- *Eraikuntza lanetan erabiltzen diren material eta makinek eragiten duten zarataren inguruko parte diren Estatuen legediekiko hurbiltasunari dagokion 79/113/CEE Zuzendaritza.*

##### Estatala

- *34/2007 Legea, airearen kalitatea eta atmosfera babesten.*
- *Kutsaketaren integratutako prebentzio eta kontrolari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen igorpen industrialen eta garapenaren Araudia onartzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua.*
- *Kutsaduraren aurreikusmen eta azterketa bateratuaren 16/2002 Legea.*
- *Atmosferan potentzialki kutsagarriak diren aktibitateen katalogoa berritzen duen eta bere aplikaziorako oinarrizko disposizioak ezartzen dituen urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretua.*
- *Zarataren 37/2003 Legea.*
- *Ingurumen zarataren azterketa eta kudeaketari dagokion Zarataren 37/2003 Legea garatzen duen 1513/2005 Errege dekretua.*



- *Soinu jario, kalitate helburu, Soinu zonifikazioari dagokion, Zarataren 37/2003 Legea garatzen duen 1367/2007 Errege dekretua.*
- *1367/2007 Errege Dekretua modifikatzen duen uztailaren 6ko 1038/2012 Errege Dekretua.*
- *Kaleko erabilera duten makinek eragiten duten zarataren inguruko 212/2002 Errege Dekretua.*
- *Kaleko erabilera duten makinek eragiten duten zarataren inguruko 212/2002 Errege dekretua aldatzen duen 524/2006 Errege dekretua.*

#### Autonomikoa

- *Euskal Herriko Ingurumenaren Babes Orokorraren 3/1998 Legea.*
- *213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.*

#### **E. Hondakinak**

##### Europarra

- *Zenbait Zuzendaritza atzera bidaltzen dituen hondakinen inguruko 2008/98/CE Zuzendaritza.*
- *Ontzi eta ontzi-hondakinen inguruko 94/62/CE Zuzendaritza.*
- *Hondakin arriskutsuei buruzko 91/689/CEE Zuzendaritza aldatzen duen 1994ko ekainaren 27ko Kontseiluaren 94/31/CE Zuzendaritza.*
- *Hondakinen errausketari buruzko 2000ko abenduaren 4ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/76/CE Zuzendaritza.*

##### Estatala

- *Eraipen eta eraikuntzen hondakinen kudeaketa eta ekoizpena arautzen duen 105/2008 Errege dekretua.*
- *Lurzoruekiko kutsakorrak izan daitezkeen ekintzak eta lurzoru kutsatuak definitzeko irizpide eta estandarrak ezartzen dituen 9/2005 Errege dekretua.*
- *Hondakinen errausketari buruzko 653/2003 Errege dekretua.*
- *Hondakinen deusezta eta balioztatze operazioak eta hondakinen Europar zerrenda argitaratzen dituen MAM/304/2002 Agindua.*
- *Zaborte gietan uztearen bitarteko hondakinen deusezta arautzen duen 1481/2001 Errege dekretua.*
- *Ontzien eta ontzien hondakinen 11/1997 Legearen Araudia, 782/1998 Errege dekretua.*
- *Lurzoru kutsatuak eta hondakinen 22/2011 Legea.*
- *Kutsatzearen integratutako prebentzio eta kontrolari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea eta hondakinen eta lurzoru kutsatuen uztailaren 28ko 22/2011 Legea aldatzen dituen ekainaren 11ko 5/2013 Legea.*



- *Ontzien eta ontzien hondakinen 11/1997 Legea.*
- *Hondakin toxiko eta arriskutsuen oinarritzko 20/1986 Legea aurrera eramateko araudia den 833/1988 Errege dekretua.*

#### Autonomika

- *4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.*
- *Eraikuntzan eta eraispén hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua.*
- *Euskal Herriko Ingurumenaren Babes Orokorren 3/1998 Legea.*
- *49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.*
- *259/1998 Dekretua, irailaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioén kudeaketari buruzkoa.*
- *453/2013 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzalurretan lohiak erabiltzeari buruzkoa.*

#### **F. Fauna eta Flora**

##### Europarra

- *Basa- hegaztien kontserbazioari buruzko europako parlamentuaren eta 2009ko azaroaren 30eko Kontseiluaren 2009/147/CE Directiba.*
- *Mediterraneoko eskualde biogeografikoan komunitate-garrantzia duten lekuen lehenengo zerrenda, 92/43/CEE Zuzendaritzarekin bat egiten duen Komisioaren erabakia.*
- *Habita naturalen, fauna eta flora basatiaren kontserbazioaren 92/43/CEE Zuzendaritza.*

##### Estatala

- *Tentsio altuko liniekiko istripuekiko Hegazti faunaren babeserako neurriak ezartzen dituen 1432/2008 Errege dekretua.*
- *Bioaniztasun eta natura ondasunaren 42/2007 Legea.*
- *Natura-Ondare eta biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legea aldatzen duen irailaren 21eko 33/2015 Legea.*
- *Ingurumen ardurako 26/2007 Legea.*
- *Mendietako 43/2003 Legea eta aldatzen duen 10/2006 Legea.*
- *Basa fauna eta floraren eta natura habitaten kontserbazioaren bitartez bioaniztasuna ziurtatzeko neurriak jasotzen dituen 1997/1995 Errege dekretua.*
- *Mehatxatutako Espezien Espainiar Katalogotik eta Babes Bereziko Erregimenean dauden Basa espezien Zerrendaren garapenerako 139/2011 Errege dekretua.*



- *Mendien Arautegia onesten den otsailak 22.-eko 485/1962 Dekretua.*
- *Flora exotikoaren inbasoren espainiar katalogoa arautzen duen, abuztuak 2.eko, 630/2013 Errege Dekretua.*

#### Autonomikoa

- *Euskal Herriko Naturaren Kontserbazio Legearen testu bategina onesten duen, apirilak 15.eko, 1/2014 Legegintzako Dekretua.*
- *Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda Aldatzen eta testu bakarra onartzen duen Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako Sailburuaren Urtarrilaren 10ko Agindu.*
- *Basa eta itsaso fauna eta florako arriskupean dauden espezieen Euskal katalogoa arautzen duen 167/1996 Dekretua.*
- *Ekainaren 2ko 3/1994 Arau Forala aldatzen duen Martxoaren 20ko 3/2007ko Arau Forala (B.B.O. 07/03/28).*
- *Baso- espezie autoktono desberdinen erregimen berezien Urriaren 14ko 11/97 Arau Forala.*
- *Finka mugakide eta baso-landaketen arteko distantziak ezartzen dituen, abenduak 20.eko, 101/1994 BFA-ko Foru Dekretua, eta aurrekoa aldatzen duen 94/2000 Foru Dekretua.*
- *515/2009 Dekretua, irailaren 22koa, abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena.*

#### **G. Babestutako gune naturalak**

##### Europarra

- *Basa- hegaztien kontserbazioari buruzko Europako parlamentuaren eta 2009ko azaroaren 30eko Kontseilaturen 2009/147/CE Zuzendaritza.*
- *Mediterraneoko eskualde biogeografikoan komunitate- garrantzia duten lekuen lehenengo zerrenda, 92/43/CEE Zuzendaritzarekin bat egiten duen Komisioaren erabakia..*
- *Habita naturalen, fauna eta flora basatiaren kontserbazioaren 92/43/CEE Zuzendaritza.*

##### Estatala

- *Bioaniztasun eta natura ondasunaren 42/2007 Legea.*
- *Natura-Ondare eta biodibersitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legea aldatzen duen irailaren 21eko 33/2015 Legea.*
- *Mendietako 43/2003 Legea eta aldatzen duen 10/2006 Legea.*
- *Basa fauna eta floraren habitat naturalen kontserbazioaren bitartez bioaniztasunaren mantentzearen ziurtatzea bultzatzeko Gune Naturalen 1997/1995 Errege dekretua.*



### Autonomikoa

- *Euskal Herriko Naturaren Kontserbazio Legearen testu bategina onesten duen, apirilak 15.-eko, 1/2014 Legegintzako Dekretua.*
- *42/1996 Dekretua, 1996ko otsailaren 27koa, Euskal Autonomi Elkarteko Babestutako Naturaguneen Sarearen Erroldaren antolaketa eta jardupideari buruzkoa.*
- *34/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituena.*
- *35/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Arabako Lurralde Historikoko bost ibai Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen dituena.*
- *Diputatuen Kontseiluaren 122/2015 Erabakia, martxoaren 10ekoa, behin betiko onarpena ematen diona "Kudeaketa zuzentarau eta neurriak" dokumentuari, Arabako Lurralde Historikoko ibaietan kontserbazio bereziko bost eremu (KBE) onik zaintzeko eta bertako espezieen habitaten narriadura eta eraldaketak ekiditeko*

### **H. Lurzoruak**

#### Europarra

- *2004/35/CE Zuzendaritza eraldatu eta lurzoruaren babeserako marko bat ezartzen duen Kontseiluaren eta Europar Parlamentuko Zuzendaritza Proposamena.*

#### Estatala

- *Lurzoru kutsatu eta hondakinen 22/2011 Legea.*
- *Lurzoruekiko kutsakorrak izan daitezkeen ekintzak eta lurzoru kutsatuak definitzeko irizpide eta estandarrak ezartzen dituen 9/2005 Errege dekretua.*

#### Autonomika

- *4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.*
- *Lurzoruekiko kutsakorrak izan daitezkeen ekintzak eta lurzoru kutsatuak definitzeko irizpide eta estandarrak ezartzen dituen 9/2005 Errege dekretua.*
- *Ikerketa entitateen sineste sistema eta lurzoruaren kalitatearen berreskurapena eta aipatutako erakundeentzako lurzoruaren kalitatearen ikerketaren norainokoak eta edukiak ezartzen dira 199/2006 Dekretua.*

### **I. Paisaia**

#### Autonomika

- *90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.*



### **J. Mendiak**

#### Estatala

- *43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Mendiena.*

#### Forukoa

- *Mendiei buruzko 11/2007 Foru Araua, martxoaren 26koa.*

### **K. Kultura Ondarea**

#### Estatala

- *Espainiar ondare historikoaren 16/1985 Legearen garapena den 111/1986 Errege dekretua.*
- *Espainiar ondare historikoaren 16/1985 Legea.*

#### Autonomikoa

- *7/1990 Legea, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa.*
- *6/2019 Legea, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa.*
- *234/1996 Dekretua, urriaren 8ko, Balizko Arkeologia Guneak finkatzeko araudia ezartzen duena.*
- *341/1999 Dekretua, urriaren 5eko, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan aurkitutako interes arkeologikoa edo paleontologikoa duten ondasunak garraiatu, entregatu eta gordailuan uzteko baldintzei buruzkoa.*
- *342/1999 Dekretua, 1999ko urriaren 5ekoa, Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldari eta Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusiari buruzkoa.*



## 4 HAPOn berrikusketan hunkitutako eremuaren analisisa, diagnostikoa eta ingurumen ebaluaketa

### 4.1 LURRALDE ENKOADRAKETA

Iruña Okako udalerriak geografikoki Arabako probintziaren erdialdeko zonaldean dago, Araba Mendebaldeko Haranen eta Arabako Lautadaren mendebalde artean, Badaiaiko Mendilerroak mugan daude, Ipar-ekialdean Gasteizko Mendiak eta Ipar-mendebaldean Tuñoko Mendilerroa. Tresponde, Billoda eta Langraiz kontzejuak Lautadan daude; Olabarri eta Mandaita berriz, Badaia eta Tuyoko Mendilerroan artean sortutako korridorean.

Udal-mugartea 53,3 km<sup>2</sup>-ko azalera dauka, administratiboki Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaldean dago eta Añanako Kuadrillan.

Bere mendebaldean Erriberagoitia dauka, ipar-mendebaldean Parzoneria Badaia elkarrekikoa eta iparraldetik eta ekialdetik Vitoria-Gasteiz, guztiak Arabako Lurralde Historikoan daudenak, eta hegoaldean La Puebla de Arganzón (Burgos).

Morfologikoki, Iruña Oka aipatutako mendilerro birekin osatzen dituen haran batean garatzen da: ipar-ekialdean Badaiaiko Mendilerroa eta hego-ekialdean Tuyoko Mendilerroa, Gasteizko Mendien lehenengo mailako trenbide azpiegituraz bananduta, N-1 errepidea eta Madril-Irun trenbide trazadura hartzen dutenak.

Kota maximoak eta malda handienak medilerroez definituak daude, Badaiaiko Mendilerroan zehatz mehatz, bertan 1.012 m. daude. Altuera maximoa 484 metrokoa da, Langraiz Oka nukleoan dago, udalerriak zeharkatzen duen Zadorra ibaiko haranaren hondoa dagoena, ipar-ekialdetik hegoalderako ibilbidean.

Biztanle nukleo nagusienak dira: Langraiz Oka – biztanle kopuru gehien dauden herrialdean-, Mandaita, Olabarri, Tresponde eta Billoda malda eta garaiera gutxienerako eremuetan, hau da, aldaketa antropiko garaiera altuerarekin.

Udalerraren kokapena eta mugak *IIEO1-Kokapen Planoan* irudikatuta dago, ikerketa honen amaieran erantsi direnak.

### 4.2 INGURUNE FISIKOA

#### 4.2.1 KLIMA

Iruña Oka udal-mugartea trantsizio klimatikoa dagoen zonaldean kokatua dago, atlantiko eta mediterraneo klimaren artean, eta eskualde biogeografika Eurosiberiana eta Mediterranea, hortaz, klima biak jasaten ditu eta tarteko ezaugarri klimatikoak dauzka.

Baldintza bietako trantsizio izaera aldagai klimatikoetan agertzen da. Urteko batez besteko prezipitazioak 750mm-koak dira, onbromota azpi-hezea-hezea. Urtaro euritsuena udazkena da, urteko %33ko prezipitazioekin, lehortek berriz gehienez hilabete bakarrekoak dira, urteko



batez besteko prezipitazio gutxien dauden hilabeteetan ekaina eta iraila bitartean dira, hilero 40mm-ekin.

Negua hotzak dira eta udak berriz beroak. Urteko batez besteko temperatura 12°C-koa da, urtarrilean minimoekin (5°C) eta uztailean zein abuztuaren (19°C) haranean, mendian berriz hotzagoak izaten dira, bertan faktore orografikoa nabarmena da.

Neguan haranaren hondoa izozte handiak sortzen dira, batez besteko 50 egun izoztuekin. Lainoak ere ohikoak dira, haranean zein hegaletan eta mendien gailurretan. Honen arrazoia da: haraneko aire termikoa iparraldean dagoen airearekin nahastean sortzen dira eta gaueko temperatura beheraldiekin sortzen dena ere bai, inguruneke hezeguneari mesede bat eginez, normalean egun hotzetan %80ko hezetasunarekin.

Zehaztasun handiagoko analisia eginez eta ikerketaren oinarri bezala Foronda-Txokizako behatokia hartuz, hurbiltasunagatik eta behatokia “erabateko” bat izateagatik.

Hurrengo taulan hilero eta urtero dauden oinarrizko aldagai klimatikoaren batez besteko balioak daude:

*Behaketa: Foronda-Txokiza*

*Tartea: 1981-2010*

*Garaiera: 513*

*Koordenatu geografikoak: 42° 52' 55" N - 2° 44' 6" O*





<b>Foronda-Txokiza behatokiaren datu meteorologikoak</b>											
<b>Hilabetea</b>	<b>T</b>	<b>TM</b>	<b>Tm</b>	<b>P</b>	<b>H</b>	<b>DR</b>	<b>DN</b>	<b>DF</b>	<b>DH</b>	<b>DD</b>	<b>I</b>
<i>Urtarrila</i>	4,9	8,7	1,2	75	83	10,4	2,8	5,4	12,1	1,6	83
<i>Otsaila</i>	5,7	10,3	1,1	63	79	9,5	3,4	4,7	11,5	1,7	108
<i>Martxoa</i>	8,2	13,7	2,7	63	72	8,4	1,6	3,5	7,3	2,5	148
<i>Apirila</i>	9,8	15,4	4,1	73	72	11,2	0,9	3,0	2,9	2,0	163
<i>Maiatza</i>	13,3	19,3	7,2	70	71	9,2	0,1	2,9	0,4	1,4	196
<i>Ekaina</i>	16,6	23,0	10,2	43	70	6,0	0,0	3,4	0,0	2,7	218
<i>Uztaila</i>	19,0	25,7	12,3	38	70	4,1	0,0	3,3	0,0	3,9	244
<i>Abuztua</i>	19,2	25,9	12,5	39	70	4,6	0,0	4,7	0,0	2,7	226
<i>Iraila</i>	16,6	23,1	10,1	41	72	6,3	0,0	6,1	0,0	3,0	178
<i>Urria</i>	12,9	18,3	7,5	71	77	9,3	0,0	6,2	0,7	1,7	144
<i>Azaroa</i>	8,2	12,4	4,0	91	82	10,5	0,9	5,3	4,8	1,5	92
<i>Abendua</i>	5,5	9,1	1,9	82	84	10,5	1,7	5,0	9,8	1,5	75
<b>Urtea</b>	<b>11,7</b>	<b>17,1</b>	<b>6,2</b>	<b>742</b>	<b>75</b>	<b>99,3</b>	<b>11,4</b>	<b>53,6</b>	<b>49,4</b>	<b>25,8</b>	<b>1.886</b>
<i>Iturria: Aemet</i>											

**Irakurbidea**

- T Urtearen batez besteko tenperatura (°C)
- TM Eguneroko tenperatura maximoen urteko/hileko batez bestekoa (°C)
- Tm Eguneroko tenperatura minimoen urteko/hileko batez bestekoa (°C)
- P Urteko/hileko batez besteko prezipitazioak (mm)
- H Batez besteko hezetasun erlatiboa (%)
- DR 1 mm-ko prezipitazioen batez besteko urteko/hileko kopurua
- DN Urteko/hileko batez besteko elur egunen kopurua
- DF Urteko/hileko batez besteko laino egunen kopurua
- DH Urteko/hileko batez besteko izozte egunen kopurua
- DD Urteko/hileko batez besteko egun argien kopurua
- I Urteko/hileko batez besteko eguzki egunen kopurua

**4.2.2 GEOLOGIA Y LITOLOGIA**

Iruña Okako udalerrriaren eremu geologikoa Eusko-kantauriar harrobiaren eskualdean kokatzen da, Arabako Plataformaren aldaketa zonaldean, bertan material litologikoak Tertziarioari dagokio, Bilboko Antiklinorioa, Goiko Kretazeoaren materialez osatua dagoena.



*EAE02 Planoan* irudikatua geratu denez, udalerrian litologikoko kareharriak eta kalkarenitak azpimarragarrienak dira eta neurri txikiago batean dolomiak, Badaiaiko Mendilerroetan agertzen direnak eta bere adarrak Goiko kretazeoan daudenak. Mendilerroaren goiko partean Subillanako kareharriak daude, Coniaciar Ertainekoa.

Fenomeno exokarstiko eta endokarstikotik ondorioztatutako materialak dira, Lapiazeko Mendilerroa, dolinak, trokak, leizeak eta torkak. Material hauek Tuyoko Mendilerroen eta Mendebaldeko Gasteizko Mendien gailurretan ere agertu daitezke.

Zadorra alboan, lohiaz, areaz eta buztin-areako legarraz osatu diren kuaternarioko depositu alubialak daude.

Oka ibaiaren inguruan alubio-kolubial deposituak daude, hareaz eta lohiaz osatua.

Kareharria eta material alubialen arteko harremanarekin margokareharriak, tupak, kareharriak eta kalkarenitak agertzen dira, Goiko Kretazeoan (Santoniense). Material hauek bereziki udalerraren hegoaldea okupatzen dute eta Tuyoko Mendien Substratua eta Mendebaldean dauden Gasteizko Mendiak.

Badaia Mendilerroan dauden kare baliabide batzuk, harrobi bietan industrialki ustiatu dira: Trespondesen Azkorrigana eta Langraiz Okan "Navarra Pequeña". Beste batzuk alde batera utzi dira.

Balio geologi eta geocientifikoak *EAE03 Planoan* agertzen dira, Interes Geologikoko hainbat puntu agertuz *EAEko Interes geologikoko puntu mapan* agertzen direnak bezala, 1:25.000 eskalan eta Aldundi Foruek eta Eusko Jaurlaritzak egindako Análisi Geomorfologikotik datozenak, 1984 eta 1994 urteen artean eta *EAEko Interes Geologikoko Lekuen (GIL) inbentarioa*, 1:25.000 eskalan ere bai, 2012-2013 urteetan eginak, eta Euskal Herriko kontserbaziorako Estrategiaren idazketarako. Udalerrian ondorengo lekuak eta puntuak aurkitzen ditugu:

- GIL0990: Badaia Mendilerroaren tolestura metrikoak
- GIL0991. Kareharrizko harrobiaTresponden (Azkorrigana).
- GIL 1057: Zadorra ibaiaren meandroak.
- GIL 29: Zubillanako kareharriak
- GIL 58: Badaiaiko dolina-zelaia
- "San Vitores" (Katalogatutako gailurra)



### 4.2.3 GEOMORFOLOGIA

Udalerriaren geomorfologia erliebeari buruz da, jatorria bertan dauka sortutako egiturazko faktoreengatik: tektonika, litologia, erlazioa daukaten prozesuak eta klima faktoreak. Geomorfologia bereziki kokapena, erabileren garapena eta giza jarduerak zehazten dute.

EAEko 1:25.000 eskalako kartografiatik hasita, *EAE03 Planoa* egin da, bertan ondorengo unitate geomorfologiakoak daude:

- *Alubiala*, Zadorra ibaiaren haran ondoan eta bere ibaiadar nagusien zehar dago.
- *Sakanak eta hondo lauko ibilguak*, ur dinamikarekin harremana daukaten beste gordailuak.
- *Terraza*, gainazaleko formazioekin Billodako hego-ekialdean, hau da, haranaren gunea meandriformeena.
- Badaia eta Arratoko mendilerroen izaera kasrtiko zabalari lotuta dauden unitate ezberdinak, *dolina*, *dolinen zelaiak eta lapiazen kasuetan bezala (estaliak edo erdi estaliak)*.
- Hegalen *Isurialdeak (1, 2 eta 3)* eta Mendebaldean dauden Gasteizko Mendietako piedemonteak.
- Morfologia bereziko azalera ezberdinak (*lerradura errotazionala*), eta erliebearen gainetik ondorioztatzen diren akzio antropikoak, adibidez: harrobiak, indusketak, obra-hondakindegia eta material betegarria.

EAE04 Planoan islatzen den bezala, udalerriaren batez besteko malda %13koa da, malda esanguratsuenak %12-20 (lurraldearen %28), %20-30 (%24) eta %30-50 (azalaren %19) bitartean daude, bereziki nagusiak lurraldearen erdi-ipar-mendebaldean etahegoaldeko mendilerroen hegaletan.

Malda leunenak, %7 baino baxuagoak, haran hondoan daude Zadorra ibaiaren (%10) alboan, batez ere, ur-ibilguen meandro inguruan. %7-20 artean (Lurraldearen %20) Zadorra ibaiaren gainotzeko harana okupatzen dute.

Malda altuenak, %50 baino altuagoak, meatzaritza guneeetan kokatzen da (hau da lurraldearen %1 baino gutxiago), Tuyoko Mendilerroen eta mendebaldean dauden Gasteizko Mendien hegal gainetik, portzentaje altuenak Olabarriko iparraldean gertatzen dira, Marremediano kokapenean eta La Pueblako haitzarteko mendietan, normalean azaleratze harritsueta.

Udalerriaren goraguneengatik lortutako altitude maximoak neurridunak dira, haran hondo erregular batekin eta ondulatu eta bitarteko orografia eremuak. Altitude gutxieneko kota, 484m, Langraiz Okan dago, Zadorra ibaiaren haran hondoan. Gainontzeko harana zonalde batzuetan 600 metrotara igotzen da. Altitudearen kota maximenak Badaia Mendilerroaren ipar-ekialdean dago, bertan hegalak 1.012 metrotara igotzen dira, igoera sakonagoa da Mendebaldean



dauden Gasteizko Mendietan 887 metrokin eta maila berean Tuyoko Mendilerroa, San Vitores (892 m) eta Lendiz (850 m) muga altuekin.

#### 4.2.4 EDAFOLOGIA

Edafologiaren ikuspuntutik, Iruña Okan udalerraren mendi zonaldean eta haran hondeetan garatutako lurzoruen diferentzia existitzen da.

Lurzoru nagusienak (IIE05 Edafologia Planoa) kanbiosolak eta redzinak dira. Haranean kanbiosol kaltzikoak nagusitzen dira, buztin kareharri eta margen substratu litologikoari lagunduz. Zonalde batzuetan bertiko motako kanbiosolez lagunduak. Gainera, haranaren ipar-mendebaldean bertisola kaltzikoak dauden kanbiosol bertikoekin batera, eta aldi berean kanbiosol kaltzikoak kareharriko regsolei lotuak, bertan hainbat aldagao fisiografikoak faboragarriak dira.

Tuyoko Mendilerroan gailurreko eremuetan rendzina ochrikak daude, Mendebaldean dauden Gasteizko Mendietan bezala, baina hemen kanbiosol kaltzikoekin eta kanbiosol eutrikoekin goiko zonaldean. Badaia Mendilerroaren lurzoruetan berriz, rendzina óchrikak nagusitzen dira, litosolekin batera arroka nagusiaren barruan.

Redzinak eta regosolak lurzoru sakonak, garatuak eta materia organiko eskasekoak dira. Bitartean, kanbiosol kaltzikoak garatuagoak dira eta lurzoru sakonagoak dituzte A horizontearekin eta materia organikoan lodiago eta aberatsagoa.

Udalerriko lurzoruen gaitasun agrologikoa, osatzen dituen edafologiko motarekin harreman handia daukate. Hortaz nabarmenagoa da, herriaren nukleo inguruetan, Zadorra ibaiaren ur ibilgutik gertu, malda gutxiko eremuetan eta bereziki azpimarragarria vertisol kaltziko motako lurzoruetan.

Lurzoruen gaitasun agrologiko baxu edo oso baxu litosolen eremuei dagokie, kareharri arrokatsu azaleratzeen gainean agertzen direnak, altitude handiko eremuetan eta malda handiko lurraldeen gainean.

#### 4.2.5 HIDROLOGIA

Atal honen barruan ibai – bide garrantzitsuenak eta iraunkorrak edo erdi – iraunkorrak diren ur laminak, ala nola udal barrutiko lurpeko ur baliabideak deskribatzen dira.

Gainazaleko eta gainazal azpiko hidrologiari buruzko alderdiak *EAE06 eta EAE07* planoetan islatu dira.



#### 4.2.5.1 Gainazaleko hidrologia

Udalerrriaren sare hidrografikoa Zadorra eta Baia ibaien harrobiez osatua dago, biak Ebroren harroni hidrografikorenak. Hala ere, udalerrriaren ur ibilgu nagusia Zadorra ibaia da, autonomasiaren elementu naturala bezala bereizten dena eta azpimarragarria Arabako sare hidrikoan. Ibaiak udalerrira heltzen da ipar-ekialdeko ertzetik, eta hegoaldeko norabidean zeharkatzen du, eta meandro ugariko trazadura bihurriak jarraituz. La Puebla de Arganzon haitzartez alde batera uzten du.

Zadorra ibaiaren garrantzi handia udalerrian, garrantzitsua bihurtzen da ibai ibilguaren inguruko biztanle nukleo batzuetan, Tresponde eta Billoda adibidez.

Ibaiak laguntza hidrikoa jasotzen du Oka ibaitik, Zadorrara heltzen dena bere eskumako ertzetik, Tresponde baino lehen eta Badaiaiko Mendilerrotik datorrena. Behin-behineko izaerarekin, beste mendi sistemen hegalen jariatzea jasotzen dute. Badaia Mendilerroaren mendebaldetik hainbat erreka daude, baina udalerrriaren barruan aurkitzen dira, Baia ibaietan bukatzen direnak eta Ebro ibaiaren harroen menpekoak.

Baldintza hidroekologikoekin batera, Zadorra ibaia “Mendi Mediterranearren” ekotipora dagokio. Ibaiak zeharkatzen dituen substratuak ondorengo osatuak daude: kareharriaz, kalkareo motako tuparri hareharriak eta alubial motako lurraldeak.

Ibai-ibilguen garrantzia arau eremuan ondoregoetan ikusten da: *2000ko Urriaren 23ko Europar Parlamentu eta Kontseiluko 2000/60/CE Direktibak Erkidegorako jarduera esparrua ezartzen du ur politika arloan, Uretako Zuzendaritza Esparru moduan ezagutzen dena, Euskal Herriko Uren urriak 23ko 1/2006 Legea, eta EAE-ko Erreka eta Ibaien Lurralde Plana.*

Ibaiertzaren landaredia zurzuridi-haltzadiak aurkeztua dago, garapen murriztua dauka ibilgu osoan zehar, nahiz eta hainbat tarteetan agertu. Landarediari dagokionez esan beharra dago Zadorra ibaiaren harana Euskal Herriko bide nagusiak osatzeaz gain Mediterranearen eskualdearen espezien sarbidea da Eurosiberiar Eskualderantz.

Ibai eta bere ibaiertzetan dagoen fauna, oraindik kalitate ona daukaten uretan eta galeria basoetan kontserbatzen dira. Tokiko arrainen artean ondorengoak aurkitzen ditugu: Amuarraina Arrunta (*Salmo trutta*), Ezkailua (*Phoxinus phoxinus*), Mazkarra, Ibai-Aingira (*Anguilla anguilla*) eta Hegoaldeko Loina Txiki (*Chondrostoma nasus*). Ur-ibilgu osoan zehar beren populazioa aldatzen doa osaketa eta harrapaketa kuotaren arabera.

Ur ingurunearekin erlazionatutako hegaztifauna era askotarikoa da, baina banaketa irregular batekin, bai espaziozkoa zein denborazkoa. Interes gehien daukaten espezieak ondorengoak dira: Amiltxori Arrunt (*Nycticorax nycticorax*), Amiltxori Txiki (*Ixobrychus minutus*), Koartzatxo Txiki (*Egretta garzetta*), Uhalde-Enara (*Riparia riparia*) eta Martin Arrantzale (*Alcedo atthis*), eta ohikoenak dira: buztanikara hori (*Motacilla cinerea*), Larre-Buztanikara (*Motacilla flava*), Kuliska Txiki (*Actitis hypoleucos*), Basahate (*Anas platyrhynchos*), Sakoneko Krabarroka (*Gallinula chloropus*), eta Urretxindor (*Luscinia megarhynchos*). Negutarrak bezala agertzen dira: Ubarroi



Handiak (*Phalacrocorax carbo*), Txikinporta (*Tachybaptusru ficollis*), eta Koartza Hauskara (*Ardea cinerea*).

Interesezko hegaztun ohikoenak BisoiEuroparra (*Mustela lutreola*) eta Igaraba Arrunta (*Lutra lutra*) dira, biak mehatxatutako espeziak kontsideratzen dira, eta “desagertzeko arriskuan daudenak”. Espezie biak Arabako Lurralde Historikoan plana daukate, ibaia Interes Bereziko Eremua kudeaketa plan bezala, BisoiEuroparra *Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761), Arabako Lurralde Historikoan 180/2003 Foru Arauaren bidez, eta Igaraba arruntaren kudeaketa Plana *Lutra lutra* (Linnaeus 1758) Arabako Lurralde Historikoan- 880/2004 Foru Arauaren bidez, urriaren 27an.

Narrastien kasuan ibaia habitat bikaina da mehatxatuta dagoen Apoarmatu Korrontezale (*Mauremys leprosa*) espeziearentzat.

Intereseko ornogabeei dagokionez, azpimarratzen da hegazti akuikolen kuskuriko espezieak: *Unio mancus*, *Potomida littoralis* y *Anodonta sp...* Biztanleriak asko murriztu dira Zadorra ibaiaren baldintza natural egokien aldetengatik.

Beste alde batetik, espezie inbaditzailearen presentzia sumatu da, Karramarro gorria (*Procambarus clarkii*), Zarboa, Perka-eguzkia (*Lepomis gibbosus*), Tenka (*Tinca tinca*), Ganbusia (*Gambusia affinis*), Lutxo (*Esox luciosus*), zamo txikia eta Bisoi Amerikarra (*Neovisonvison*) bezala.

Hala ere, IIEaren 4.3.2. Kapituluari buruzkoa, analisi zehatzago bat egiten da.

Lurgaineko uren beste ezaugarria bat udalerrian dauden **hezeguneak** dira, *Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialean* agertzen direnak (Uztailaren 27ko, 160/2004 Dekretua) eta EAEko hezeguneen inbentarioan. IIEaren 4.4.6. kapituluari zehaztasun handiagorekin lantzen da.

#### 4.2.5.2 Lurpeko hidrologia

Udallerriaren hidrogeologiari dagokionez, Subijanako Unitate Hidrogeologikoaren gainean dago, Langraizko azpi-unitateetan eta Oto-Apodakan. Unitate azpiko kareharrizko substratua arroaren barruko iragazkortasuna eta ur infiltrazioari laguntzen dio. Baia ibaiko harrobi batzuetaraino ere heltzen da.

Lurpeko ur hauek unitatearen hegoaldeko mugarantz doaz, urmael eta iturburuen bidez. Urmael garrantzitsuen bere ibilguaren tamainagatik Laingraizen dagoena da, udalerrriaren biztanle gehienek hornitzeko erabiltzen dutena, nahiz eta beste ur bilketa erabili beste zundaketen bidez udalerrriaren beste zonaldeetan bere kontsumorako eta ekonomia-jarduerentzako. Lurpeko uren kudeaketa Iruña Okako Ur-Patzuergotik egiten da.

Formazio litologikoari dagokion iragazkortasunari dagokionez, udalerrriaren erdia baino gehiago (%56,5), “tarteko” iragazkortasuna dauka, bereziki kareharriari lotutako pitzaduragatik eta %39 iragazkortasun “baxua”. Azaleraren %4,5 bakarrik dauka iragazkortasun “altua”, kasu honetan porositatea.



Egindako kartografian, udalerrian mugatutako ur-masak eta ur-sekotoarez gain, babestutako ur bilketak eta udalerrriaren ur puntuak hauek dira.

- *Hiriaren horniketarako ur-bilketak* EAEan eragina duten babes eremuen erregistroa, uztailak 6ko Plangintza Hidrologikoari Erreglamendua onartzen duen 907/207 Errege Dekretuaren 24.artikuluan agertzen direnak. Ebroko demarkazioaren lurpeko sei ur-bilketa agertzen dira:
  - 0122 kod. "Errota" parajea
  - 0708 kod. "Erroten" iturburua
  - 1003 kod. Hiriaren erdialdea
  - 6067 kod. Gazteluaren bidea
  - 7356 kod. Langraiz (harrobiaren alboan)
  - 7525 kod. Hesia-Matamala
- Ur-Agentziako inbentarioaren ur-puntuak udalerrian 91 puntu guztira batzen ditu (baimendutako, legalizatutako edo tramitean dauden kategoria ezberdinak), eta hurrengo motei dagokionak:
  - Ureztapen-putzua: Puntu 1
  - Gainazaleko ur-bilketa: 23 puntu
  - Iturburuak: 18 puntu
  - Piezometro: 8 puntu
  - Putzu zakonak: 23 puntu
  - Ustiapen zundaketak: 18 puntu

## 4.3 INGURUNE BIOTIKOA

Azkenik, udalerrian **leheneratze ekologikorako eremuak** agertzen dira beraien balio naturalak aldatuak aurkitzeagatik, baina azpimarratuz oraindik berreskuratzeko gaitasun handia daukatela.

Kasu honetan **ibai ertzak berreskuratzeko** beharrezkin bat egiten dute, EAEko Ibaiertzak eta Erreka-ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Planean aipatzen den bezala, hau da, Zadorra Ibaiari buruzko ertzei buruzkoak eta Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialeko Aurrerapenetik ondorioztatutako **ingurumen hobekuntza eremuekin**.

Udalerrriaren atal gehiena EAEko Korridore Ekologikoko Sarearen parte osatzen dutenez, Sarearen elementuen helburuak aipatu behar dira, espazio bakoitzeko araudi espezifikoaren aplikazioa kaltetu barik:



- Lotura korridoreen eta moteltze eremuen helburuak, laburtzen dira:
  - Inpaktu prebentzioa.
  - Kontserbazioa, eta bere lekuan, landaredi naturalen elementuen zaharberritzea.
  - Nekazaritza eta abeltzaintza aprobetxamenduen, basoen, abeltzaintzaren eta zinegetikoen iraunkortasun ustiapena.
- Lotura berezia daukaten ur-ibilgu berezietan, helburua da: kontserbatzea, ibilguak hobetzea eta bereziki itsasertzak.
- Berreskurapen ekologikoaren eremuan helburuak dira: inpaktuen zuzenketa, berreskurapen ekologikoa eta integrazio paisajistikoa.
- Lotura guneeetan helburua da: eskala tokiak bezala lan egitea espazio-nukleoan espeziertzako.

#### 4.3.3 PAISAIA

Udalerriaren ingurune fisikoen eta giza jardueren arteko interakzioak, lurraldearen itxura sortzen du, paisaia bezala definitu daitekeena.

Udalerriak daukan paisaiagatik, honek arto bisual bakarrean sartu daiteke. Paisaiaren oinarritzko unitateak faktore diferentziagarriak dauzka: altitude, maldak, eta landaredi nagusia.

Gutxi gorabehera eremuaren ekialdea eta udalerriaren hegoaldean paisaia laua da eta laborantzarako lurzoruekin, ibaiak udalerriak zeharkatzen du ipar-ekialdetik hegoaldera. Haranaren hegoaldeko hondoa udalerriaren altuera nagusiez itxita dago, eta mendebaldea eta ipar-ekialdea Badaiko Mendilerroaz okupatua dago, udalerrian anfiteatro itxura sortuz eta ekialdeko aldea irekita mantenduz Arabakako Lautadara.

Haran eremu hauetan paisaien osagaiak jatorri antropikoa daukate: biztanleria nukleoak, bide azpiegiturak eta azken urteotan industrialdeak.

Iparralderantz eta ekialderantz haranaren lautadaren altitudeak poliki-poliki igoz doa, Badaiko Mendilerroa osatuz eta baso itxurako paisaia lortuz, baina kareharrizko paisaian egitura malkartsua erakutsiz.

Hegoaldeko itxierak haranatik Tuyoko Mendiak eta Mendebaldean dauden Gasteizko Mendiak igoz ematen da, eta ibaiaren haranatik zabalera galtzen duela dirudi. Mendilerro bi hauek beraien baso paisaia aurkezten dute baina etenekin beraien substratu arrokatua erakusteko.

Alderdi hauen barruko elementu bereziak, EAE13 Planoan kartografiatu direnak, udalerriaren ondorengo balio paisajistikoak azpimarratu behar dira:



- EAEko Paisaia Berezien eta Bikainen katalogoa
- Araba Lurralde Historikoaren Ibilbide Berdeak (1/2012 Foru Araua).

#### 4.3.3.1 EAEko Paisaia Berezien eta Bikainen Katalogoa

Biodibertsitatea eta Ingurumen Partaidetzarako zuzendaritza eginda, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Antolamendu Saila. Garapen iraunkorreko Euskal ingurumeneko estrategiaren 3.helmugari dagozkion helburuak burutzearekin sortzen da (2002-2020).

Katalogoa lagungarri izango da hurrengo helburu eta funtzio orokor hauek lortzeko:

- EAE paisaia ondareari buruzko informazio jakinaraztea
- Paisaien balioari buruzko sentsibilizazioa, eta paisaiek daukaten garrantzi sozio-kulturala, ekologikoa, estrukturala eta ekonomikoa.
- Paisaien kalitatea ebaluatzea.
- Paisaien aldaketen eta bilakaeren jarraipena egitea.
- Paisaiak babestea eta zaintzea.

Araba Lurralde Historikoaren Paisaia Berezi eta Bikainen katalogoan, (829/2005 Hitzarmena, irailak 27ko Diputatuen kontseilukoa) Iruña Oka udalerrian hunkitzen dituen paisaia bikainak agertzen dira:

#### **12. Paisaia bikaina: Badaiaiko mendilerroa eta Arrato**

Ez dago Babes figura baten barruan, 7ha-ko zonalde txiki bat izan ezik, Baias ibaiaren kontserbazio bereziko eremuaren barruan sartuta. Mendilerroa, 900m-ko batez besteko altuerako goi-ordokia osatzen du, egitura karkastika batekin. San Torkariz artederreta nabarmena da, ehun urteko ereduakin.

#### **21. Paisaia bikaina: Gasteizko Mendi Garaiak**

Mendiko paisaia, hegoaldetik lautada ixten du, Vitoria-Gasteiz aurkitzen dugun tokia, eta Trebiñoko konderriarekin mugatu egiten da. Gailurretatik mendien panoramikak eta Arabaren lautadak ikusten dira. Bere balio paisajistikoa nabarmentzen da Vitoria-Gasteizko atzeko-oihala izateagatik, komunikazio bide nagusietatik begiratuta eta hiriburuan zehar garraiatzen dutenak iparraldetik.

Gasteizko Mendien azaleraren laurdena KBEaren barruan (Kontserbazio Bereziko Eremua).

#### **37. Paisaia bikaina:Tuyoko Mendilerroa**

Mendiaren paisai bikaina, altitude eskasarena erliebe azpimarratuekin eta itsaslabar konglomeratu batzuekin.



#### 45. Paisaia bikaina: Zadorra. Erdiko ur-ibilgua.

Paisaia bikaina Zadorra ibaiaren erdiko tarte barkeratzen du eta zonaldean isurtzen diren ibaiak (Zaia eta Oka ibaiak) inguruko zonalde batzuekin: Zadorra meandroen arteko lurralde zabalak, Billoda eta Tresponden eta Okaren beheko arroa Badaia mendilerroaren mendebaldeko isurialdean.

Zadorrak meandro handiak sortzen ditu nekazaritza eta abeltzaintza nahiz basozaintzako paisaietan, habitatutako hurbileko nukleo batzuekin. Unitateak interesa dauka bere balio ekologiko eta paisajistikoagatik. Badaia mendilerroko eremutik, Trespondetik gertu, kontserbazio balio altuko artederreta aurkitzen dugu. %97a Zadorra ibaiko KBE unitatearen barruan dago.

##### 4.3.3.2 Ibilbide berdeak


Arabako Ibilbide Berdeen Sareko eremuak urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Arauan ezartzen den antolamendu eta araudiari erantsita daude, Natura Ondarearen, Paisaiaren eta Biodibertsitatearen kontserbazioari lotuta dagoen aktiboa da.

Sarea oinezkoentzako eta bizikletentzako berreskuratu diren 1.000km-ko bideez osatuta dago. Sare honen bidez ingurunearekin eta landarekin harreman zuzena baimentzen dute, eta aldi berean, paisaiaren, balio natural eta kulturalen gozamenaz.







Gaur egun sareak 21 ibilbide dauzka, antzinako merkataritza ibilbide historikoak edo artzaintzakoak. Gaur egun ingurune naturalerako sarbide bezala erabiltzen dira.

Iruña Okako udalerriak zeharkatzen dituzten ibilbideak hurrengoak dira:

- *Subillana-San Miguel bide zaharra (Donejakue bidea)*: Arabako lurraldea zeharkatzen duen erromes-bide garrantzitsuenetakoa, Ignaciano Bidearen alboan. Izendatutako Ondasun higiezin bezala izendatutako EAEko kultura Ondarearen Onasuna. HAPOaren (VI Liburukian) kultur ondare katalogoan islatzen den bezala.
- *GR 25 Lautadako bira*: mendi magalean da eta funtsean hori bera da: altuera handirik gabe Arabar lautada inguratzen duen ibilbidea. Hau landaketak eta mendiko harizti eta pagadiak banatzen dituzten antzinako bideetatik doa.
- *GR-282-Artzaintza naturbidea*: Artzaintza naturbidea, jakintza eta Artzaintzaren antzinako kultura balioesteko gonbidapena da. Ez da ahaztekoa belaunaldietan zehar pilatutako esperientzia eta jakintza, ingurunea zainduz eta errespetatuz bizitako pertsonak, gaur egun ezagutzen dugun paisaia modelatu dutenak.



**RED DE ITINERARIOS VERDES**

- |   |   |
|---|---|
|  IV4.- GR-1 Sendero Histórico    |  IV14.- Camino Santiago          |
|  IV8.- GR-282 Senda del Pastoreo |  IV7.- GR-99 Río Ebro            |
|  IV17.- Colada Berantevilla      |  IV5.- GR-25 Vuelta a la Llanada |



#### 4.3.3.3 Interesezko beste alderdiak

Planaren Kultura Ondare Katalogoak azaltzen dituen alderdiak, *Ondare Paisajistikoko C.* atalean ondorengoak dira:

- Ibilbide berdeak, IGH kategoriaren barruan: *Ibilbideak eta Galtzada historikoak*
- *Zuhaitz bereziak (ZB)*, La Morera (AS-1) izendatutako, babesa integralarekin, Olabarriko nukleoan dagoena (EAE14 Planoa ikusi).
- *Landa eszenak (LE)*: Landa paisaiak nukleoko paisaietatik bereizi egiten dira hiri kanpo eremuak barne hartzeagatik. Ingurune osoa uler daiteke “paisaia” bezala, lurralde bakoitzean azpimarragarria, eta ohiko jarduerak babesteko helburuarekin edo lurraldeari forma bat emanez.

LE-1. Arkizko Conjuraderoa -Badaiako mendilerroa

LE-2 Gasteizko mendiak eta Tuyoko mendilerroa

LE-3 Zadorrako meandroa

- *Ohiko herri eszenak (OHE)*: Aurreko kontzeptuarekin zerikusia daukate, eta eraikitako ingurune batean paisai eremuak bere barnean hartzeagatik azpimarragarria da. Eremu hauetan identifikatu eta aztertu nahi dituzten balio intrintseko eta nukleo bakoitzeko ezaugarriekin edo biztanleen asentamenduekin, egiturak, bilbeak eta ohiko tipologiak, erabilerak eta posible egin dituzten jarduerekin.

OHE-M Mandaitako nukleoa

OHE-N Langraiz Okako nukleoa

OHE-O Olabarri Nukleoa

OHE-T1 Trespondeko Nukleoa: Santa Katalina auzoa

OHE-T2 Trespondeko Nukleoa: Santiagoko auzoa

OHE-V Billodako Nukleoa

## 4.4 **BABESTUTAKO ESPAZIO NATURALAK ETA INGURUMEN BALIOKO BESTE EREMUAK**

### 4.4.1 **BABESTUTAKO ESPAZIO NATURALAK ETA NATURA 2000 SAREA**

Udalerrian Espazio Natural Babestua bezala izendatutako bakarra. Indarrean dagoen araudiaren arabera ezarritako kategoria, Iruña Okako udalerrian dago eta Zadorra Ibaiaren (ES2110010) Kontserbazio Eremukoa (KBE) da, bere muga eta inguruko zonaldea *EAE11 Planoan agertzen* da.





Espazio hau Natura 2000 Sarearen parte da, espezie edo mehatxatutako habitatez osatutako sare ekologiko europarra da, bere helburua egoera on batean kontserbatzea da *1992ko maiatzaren 21eko habitat naturalak eta basoko fauna eta flora zaintzeari buruzko 92/43/CEE zuzentarauan azaltzen den bezala*, eta *abenduaren 13ko Ondare Natural eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen* arabera antolamendu juridikoari aldatu zen.

Halaber, aipatutako abenduak 13ko 42/2007 Legeak, Natura 2000 Sarearen parte diren espazioak, Natura 2000 Sarean babestutako espazioak bezala izendatzen ditu (41.artikuluaren).

Zadorra Ibaia (ES2110010) EAEan Batasunaren Garrantzizko Lekua (BAG) bezala proposatu zen, 2003.urteko ekainaren 10ean Europa Batzordean egokitutako Gobernu Hitzarmenaren bidez.

Espazio hau mediterraneo eskualdearen barruan sartu zen bai eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoko BAG zerrenda onartzeko 2006ko uztailaren 19ko Erabakiaren babespean ere (2006-09-21eko EBAO). Ondoren, 2014ko ekainaren 20ko Administrazio eta Lurralde Plangintzaren Sailburuordean, Arabako Lurralde Historikoan ondorengo bost ibaien Batasun Intereseko Guneak izendatzea (BAG) kontserbazio Bereziko Guneak (KBE) bezala erabakitzen da: Baia Ibaia, Ihuda (Laguntza), Ebro, Omecillo-Tumecillo eta Zadorra. Azkenik, Natura 2000 Sareko espazio hau *Araba Lurralde Historikoko bost ibai kontserbazio izendatzen dituen 35/2015 Dekretuaren* bidez izendatu zen.

Halaber, espazio honi buruz azpimarratu behar da; *Diputatuen Kontseiluaren 122/2015 Erabakia, martxoaren 10ekoa, behin betiko onarpena ematen diona "Kudeaketa zuzentzarau eta neurriak" dokumentuari, Arabako Lurralde Historikoko ibaietan kontserbazio bereziko bost eremu (KBE) onik zaintzeko eta bertako espezieen habitaten narriadura eta eraldaketak ekiditeko eta 34/2015 dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko ibai, estuario eta hezeguneei aplikagarriak zaizkien kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) babesteko arauei buruzkoa.*

Espazio honek Zadorra ur-ibilgu osoa hartzen du, Uribarri-Ganboako Urtegitik Ebro Ibaiaren bokaleraino. KBE hau ibaiaz eta bere ertzez osatua, Tresponderen sarreratik La Puebla de Arganzon haitzarteraino.

Nekazaritzarako erabilerez eta gaur egun industria erabilerez gain, azpiegituren okupazioa bihurtzeaz gain KBE batean bihurtzen da. Habitaten kontserbazioari dagokionez ez ditu balio natural hoberenak eta batasun intereseko espezierik.

Jarraian Zadorra Ibaiaren KBEko batasunaren intereseko habitat mota nagusienak zerrendatzen dira:

- 3150 *Magnopotamion* edo *Hydrocharition* landaredia duten laku eutrofiko naturalak.
- 3240 Alpetar ibaiak, ibaiertzean *Salix elaeagnos* espeziearen landaretza zurrakara dutenak
- 5210 Ipar-Orreen landaredia.
- 6210 kare substratu gainean (*Festuco Brometalia*) (\*orkideadun parajeak).





- 6220 Urteko gramineen alde subestepikoak (*Thero-Brachypodietea*).
- 8210 Kare-haitzak.
- 91EO Haltzadiak eta lizardiak (*Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen baso alubialak (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*))
- 9230 *Quercus robur* eta *Quercus pyrenaicadun* harizti galaiko portugesak.
- 9240 *Quercus faginea*-ko hariztiak (Iberiar penintsula).
- 92A0 *Salix alba* eta *Populus alba*-ko Galeria basoak
- 9340 *Quercus ilex*-ko Basoak

Eremu honetan erdi-uretako bi ugaztunen presentzia azpimarragarria da, Zuzendaritza Habitaten II eta IV. Eranskinaren barruan (Ondare Natural eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legeko II eta V Eranskinean): Bisoi Europarra (*Mustela lutreola*) eta Igaraba Arrunta (*Lutra lutra*), biek Euskal Herrian Mehatxatutako Espezie katalogoaren barruan daude, hau da, “desagertzeko arriskuan”. Bisoi Europarra ere, “desagertzeko arriskuan” dagoen espezie bezala katalogatua dago Mehatxatutako Espezie Nazionalaren katalogoan.

Intereseko arrain multzoa mantentzen du, Zuzendaritza Habitaten II. eranskineko espezieekin eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen arabera. Adibidez: Errutilo hegaltzaria (*Achondrostoma arcasii*) eta Loina (*Parachondrostoma miegii*), eta EAEan mehatxatuak dauden ondorengo espezieak: Fraidea edo Ibai-kabuxa (*Salaria fluviatilis*).

Azpimarratzea ur gezatako ornogabeen presentzi anaiadeen taldean mehatxatutako espezieekin batera hauek direla: *Potomida littoralis*, *Unio elongatulus* eta *Anodonta anatina*.

Zadorra ur-ibilguan agertzen diren hegaztuneei dagokionez, Martin arrantzalearen (*Alcedo atthis*), presentzia azpimarragarria da, Hegaztun zuzentarauaren I. eranskinaren barruan eta Urzozoa (*Cinclus cinclus*), espezie biak “Interes Berezikokoak” bezala katalogatuak Euskal Herriko Espezi Mehatxuen katalogoan. Espazioa gainera azpimarragarria da Interes Berezikoko Eremua izateagatik Uhalde-Enararako (*Riparia riparia*), “kaltebera” bezala katalogatua dagoena Euskal Herriko Espezie Mehatxatuen Katalogoan. Hirurek, otsailaren 4ko 139/2011 Errege Dekretuko Babes erregimen bereziko Basa Espezieen Zerrendan daude.

#### 4.4.2 EUROPAR BATASUNEKO INTERESDUN HABITATAK

Eusko Jaurlaritzatik (2012) datorren informazioa eta EAE09 Planoan irudikatua agertzen dena. Jarraian Iruña Okan dauden batasun intereseko habitat natural guztien zerrenda agertzen da eta 92/43/CEE zuzentarauaren I. eranskinean agertzen direnak:

- Lehentasunezkoak:



- *Alnus glutinosa* y *Fraxinus excelsior* harizti kandudunak (*Alno- Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*). (91E0\*).
- *Thero-Brachypodietearen* urteko gramineen alde subestepikoak. (6220\*).
- *Nardus* formazio belarkarak, espezie ugarikoak, zonalde menditarreko substratu silizeoen gainean (6230\*).
- Ez lehentasunezkoak:
  - (6210) Belardi erdi-natural lehorrak eta kare-substratuetako sastraka-faziesak (*Festuco-Brometalia*) (\*orkidea bikainak dituzten lekuak)
  - *Magnopotamion* edo *Hydrocharition* landareak dituzten laku eutrofiko naturalak (3150).
  - Estai muinotar eta menditarreko ibaiak, *Ranunculion fluitantis* eta *Callitricho-Batrachion* landaredia dutenak (3260).
  - Artadiak (*Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia*). (9340).
  - Elorri-triska duten txilardi oromediterraneo endemikoak. (4090).
  - Harizti iberiarrak (*Quercus faginea* eta *Quercus canariensis*) (9240).
  - *Salix alba* y *Populus alba* galería basoak (92A0)
  - Kare-belardi alpetar eta subalpetarrak (6170)
  - Landaredi kasmofitikoa duten kareharrizko malkar arroksuak (8210)

Kartografia honen arabera, batasun intereseko habitat naturalen udalerraren azalera 3.065 ha-koa da, hau da, azalera osoaren %57a. Dena den, lehentasuneko BIHetan, azaleraren 16ha bakarrik da udalerrri osoaren %2a, eta bereziki Zadorra ibaian dauden haltzadietan (azpimarragarriak diren gainontzeko ingurumen merituak), eta baita bereziki baliotsuak diren larre baxuko mantxetan.

#### 4.4.3 ONURA PUBLIKOKO MENDIAK ETA BESTE BASO EREMUAK

Mendien sailkapena bere partaidetzaren arabera publiko edo pribatuetan sailkatzen dira. Publikoak entitate publikoenak dira, aldi berean sailkatuz izaera publikoko mendiak edo ondare mendiak bezala. Bai publikoak eta bai pribatuak, babes mendi gisa deklaratu ahal dira ezaugarri nabarmenak dituztenean ikuspuntu orokorretik (higaduraren kontrako babes lurzorua; arro hidrografikoen kokapen iturriak...).

EPM-ren funtsa, martxoaren 26ko mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauen bidez erregulatua, mendien zaintza bermatzea eta bere berreskurapena, hobekuntza, jasangarritasuna eta



ustiapen arrazionala sustatzea da. EPM hauei, bere baso ezaugarri eta ustiapenei dagokienez eta bere nekazaritza eta abelazkuntza ezaugarriengatik dagozkion araudiaren esleitzearen kalterik gabe, Mendien legeri bereizia esleituko zaie.

Arabako Mendien katalogoan dauden Iruña Okako Onura Publikoko Mendiak ondorengoak dira: Onura Publikoko Mendiak 502.zk Billodasen, (Larcueta eta Inchaurte izendatua); 503 Trespondesen (Lorricho eta Pozobarri); Mandaitan 566-1 (Sopeña), Mandaitan 571-1 eta 571-3 (Goiko Mendi); Olabarrin 571-2 (Goiko mendia); Olabarrin 566-2 (Sopeña); Langraiz Okan 567, 568, 569 eta 570 (Berozal, Bojal, Corterinejo eta Encinal, hurrenez hurren). Guztiak 2.900ha-ko azalerarekin (*Plano EAE12*) ikusten den bezala.

OPM bezala katalogatu gabeko lurraldeak ere existitzen dira eta lursailak patzuergo araudian.

Espazio hauek Arabako Lurralde Historikoaren Mendiei buruzko 11/2007ko Foru arauaren eta apirilak 28ko 10/2006 Legearen menpe daude, azken arau honen bidez Mendien azaroak 21eko 43/2003 Legea aldatu zen. OPM zabalenak Badaiaiko Mendilerroan aurkitzen ditugu.

#### 4.4.4 MEHATXATUTAKO ESPEZIEEN KONTSERBAZIORAKO INTERES BEREZIKO EREMUAK

167/1996 Dekretua, uztailaren 9koa, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzeko dena, *ekainak 30eko Euskal Herriko Izadiaren Kontserbazioari buruzko 16/1994 Legearen 47.artitulan ezarritakoaren arabera.*

Katalogoa “*Espezie, azpi-espezie edo populazio bat zerrendan sartzeko edo zerrendatik ezabatzeko prozedura*” arautzea da. 16/1994 Legea, bere 50.1 artikuluan azpimarratzen ditu kudeaketa planen idazketarako gidalerroan eta babes espezifikoen neurriak, mehatxatuak dauden espezien arabeko estatusa eta katalogazioa. Planen xedea espezien gaineko mehatxuak kentzea eta biztanleria eta habitatak babestea izango litzateke.

Bere arduren artean Arabako Foru Aldundiak hainbat kudeaketa plan onartu ditu arriskuan dauden espeziei buruzkoak eta udalerrian aurkitu ahal direnak.

Kasu honetan, agirian aipatu den bezala, Bisoï Europarra eta Igaraba Arrunta, ugaztunen espezie bi, arrain espezie bat, Zaparda eta hegazti-fauna espezie bakarra, Uhalde-Enara. Udalerrian Interes Bereziko Eremuak daude, beharrezkoak espezieak bizirauteko (*EAE10 Planoan*).

Halaber, udalerrian beste espeziertzako Interes Bereziko beste Guneak badaude, gaur egun kudeaketa plana daukatenak. Amiltxori txikia (*Ixobrychus minutus*) eta Schreibers saguzarra (*Miniopterus schreibersii*) adibidez.

#### Igaraba arrunta

Igaraba Arrunta EAEan bide den espeziea kontsideratzen da, habitat riparioetan. Araban nahiko ugariak dira, besteak beste, Zadorra Ibaiaren ibilgua, baina espero baino dentsitate murriztuarekin.



Dentsitate baxu honen arrazoia ingurumen baldintzak izango ziren: kutsadura akuatikoa, baso-galeriaren desagerpena, ibaiaren hidrologia naturalaren aldaketa, etab.

Euskal Herriko katalogoan Igaraba arrunta agertzen da “arriskuan dagoen espezie” bezala. Espainia Mehatxatutako Espezie katalogoan “arriskuan dagoen espeziea” bezala sailkatu zuen eta 92/43/CE Zuzentarauak, bere II (batasun intereseko espezieak, bere kontserbaziorako kontserbazio bereziko guneak behar dira) eta IV eranskinetan (landaredi eta animalia espezieak, batasun interesarekin eta babes zorrotza behar dutenak) sartzen du. Beste alde batetik, Bernako Hitzarmenak espezie arriskutsuen zerrendan sartu zuen.

880/2004 Foru Agindua, urriaren 27koa. Honen bidez Lutra lutra Igarabaren (*Lutra lutra*) Kudeaketa Plana onartzen da, Arabako Lurralde Historikoan (2004.urteko azaroaren 24ko ALHAO).

Planaren 4.artikuluaren arabera: eremuak (uztailaren 20ko 17/2001 Legegintzako Errege Dekretuak) zehazten duen jabari publiko hidraulikoa eta zortasun esparrua hartzen ditu, hau da, Arabako sare hidrografikoarena.

Interes bereziko eremu baten barruan, Zadorra ibaiaren KBEaren ur bidea dago, partzialki Iruña Okako udalerrriaren barruan dago.

Mehatxuak kentzeko neurri zehatzaz gain espezieari buruz planaren 11.artikulan ondorengoa zehazten da: *“Lurralde- eta hirigintza-plangintzarako bitartekoek, zerrendatuta dauden espezieen habitatak zaindu, mantendu edo berreskuratzea ziurtatuko dute. Habitatak mugatzea beharrezkoa den kasuetan, horretarako arrazoiak eman beharko dira.”*

### **Bisoi Europarra**

Bisoi Europarra EAEan bizi den espezie kontsideratzen da eta Zadorra ibaiaren ur-ibilguak okupatzen ditu. Hala ere, gertakizunak gero eta azkarrago indartzen dute bere desagerpena habitat riparioen hondaketagatik, Amerikar Bisoiagatik eta kutsaduragatik, Arabako ibai hau eta beste batzuk.

Euskal Katalogoak bisoi europarra “desagertzeko arriskuan” maila barruan sailkatzen du eta Mehatxupeko Espezien Espainiar Katalogoak “desagertzeko arriskuan” bezala izendatzen du. 92/43/CEE Direktibaren II eranskinean, arreta komunitariodun espezie bezala agertzen da, honek, bere kontserbaziorako Kontserbazioko Gune Bereziak definitu behar direla suposatzen du.

2003ko apirilaren 1ean, 180/2003 Foru Aginduaren bitartez, Arabako Lurralde Historikoan *Mustela lutreola* Bisoi Europarra Kudeatzeko Plana onartu zen (ALHAO, 2003ko maiatzaren 5ean).

Iruña Okako udalerrriak zeharkatzen duen ibai tartean, Zadorra ibaiaren KBE planaren jarduketa eremu bat da eta kontserbaziorako interes bereziko eremu bezala sartzen da.

Mehatxuak kentzeko neurri zehatzaz gain espezieari buruz planaren 11.artikulan ondorengoa zehazten da: *“Lurralde- eta hirigintza-plangintzarako bitartekoek, zerrendatuta dauden espezieen habitatak zaindu, mantendu edo berreskuratzea ziurtatuko dute. Habitatak mugatzea beharrezkoa den kasuetan, horretarako arrazoiak eman beharko dira.”*



## Uholde Enara

Uholde Enara herrialde holarktikoetan erabat hedaturik dagoen kolonia-espezia, Euskal Herrian tokiko espezia da, beste espazioen artean: Zadorra ibaian eta bere ibaiadarretan.

Arriskuan dauden espezien Euskal Herriko Katalogoan Uholde-Enara dago, “Kaltebera” kategorian, eta Arriskuan dauden Espainiako katalogoan “Interes Bereziko” sailkapena dauka.

Bere tamaina edo populazioaren dentsitatea ez da guztiz ezaguna. Behaketen arabera, biztanleriaren espezie ugaltzaileek ezin dute ehunka bikote batzuei.

Populazioaren joera ere ezezaguna da, nahiz eta, Baia ibaiaren erdiko tartean koloniaren bat desagertu denez gero, pentsa dezakegun populazioa beharbada jaisten ari dela.

Gure lurraldean gehien bat hurrengo eragin negatibo nabarmendu behar da: ibaien gainean egiten diren kontrolik gabeko jarduerak, hala nola, zuzentzea eta ubidetzea. Hauek ez dute aberetza behar bezala kontuan hartzen, bereziki kolonien lekuak eta ugalketa garaiak. Beste eragin larri bat legardietatik aleak ateratzea da, gehien bat ibai handietan, uhalde-enaren populazioak dituzten ezpondak edo koloniza daitezkeen eremuak kentzen dituztelako.

Arriskuan dagoen espeziearen egoera desagertzeko 22/2000 Foru Dekretua ezarri da, martxoaren 7ko Diputatuen kontseiluarena, hegazia Kudeatzeko Plana onesten duena, arriskuan dagoen espezia delako eta bere babesak berariazko neurriak eskatzen dituelako.

Planak azpimarratzen dituen espezieak kontserbatzeko neurri ezberdinekin, Foru Arauaren 7.artikuluak esaten du: *“Lurralde- eta hirigintza-plangintzarako bitartekoek, zerrendatuta dauden espezieen habitatak zaindu, mantendu edo berreskuratzea ziurtatuko dute. Habitatak mugatzea beharrezkoa den kasuetan, horretarako arrazoiak eman beharko dira.”*

## Zaparda

Zaparda Iberiar Penintsularen espezie endemiko bat da, EAEan Arabako mediterraneora harrobiaren ibaietan kokatu dena, besteak beste Zadorra.

Hala ere, espezie honen presentzia Zadorra ibaian azkenengo hamarkadetan asko gutxitu da, ibilguan sortu diren ingurumen aldaketa negatiboengatik: espezie inbaditzaileak, kutsadura, ibaiaren erregimen hidrológicoan aldaketak, habitaten hondamendi zuzena, etab.

Baso eta Itsas Fauna eta Landareen Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan Zaparda desagertzeko arrisku kategorian agertzen. Hala ere, Atlas eta Espainiako kontinente Arrainen liburu gorriak “kaltebera” kategoria sartzen du eta Berna hitzarmenaren III eranskinean ere agertzen da.

Espezieak daukan arrisku egoera murrizteko, apirilak 18ko 339/07 Foru Araua ezarri da, hortaz, bere Kudeaketa Plana onartzen da.

Planak Zadorra ibaiaren KBE guztiaren kontserbazioan eragina dauka, hau da, Iruña Okako udalerritik igarotzen den ibaiaren eremuari.



Mehatxuak kentzeko neurri zehatzaz gain espezieari buruz planaren 11.artikuluan ondorengo zehazten da: *“Lurralde- eta hirigintza-plangintzarako bitartekoek, zerrendatuta dauden espezieen habitatak zaindu, mantendu edo berreskuratzea ziurtatuko dute. Habitatak mugatzea beharrezkoa den kasuetan, horretarako arrazoiak eman beharko dira.”*

#### 4.4.5 EAEko ESPEZIE NATURAL AZPIMARRAGARRIEN KATALOGO IREKIA

*Euskal Autonomia Erkidegoko Espazio eta Enklabe Naturaleko katalogoa* 1992.urtean egin zen eta ondoren 1996.urtean, kaleratu egin zen, *Euskal Autonomia Erkidegoko Espazio Natural Ireki Azpimarragarrien katalogo* izenarekin.

Agiri honetan aurkitzen dugu lurraldean dauden espazio naturalak. Agiriak garrantzi handi izan zuen espazio batzuentzako babes espezifikoa jartzeko, naturaren kontserbazio autonomikoaren arauaren menpe. Gaur egun ondorengo irudiak osatzen dute: babes autonomikoak, erkidegoak eta internazionalak.

Hauetariko espazio batzuk, hala ere, ez daude araudiaren babesari erantsiak, eta haietariko hiruk Iruña Okako udalerrriaren parte dira. Ondorengo espazio naturalak dira: Mendebaldean dauden Gasteizko Mendiak, Tuyoko Mendilerroa eta Badaia-Arratoko Mendilerroa (*EAE12 Planoa*).

#### Mendebaldean dauden Gasteizko mendiak

Mendebaldean dauden Gasteizko Mendiak Trantsiziozko Mendien izenarekin ezagunak diren aparte osatzen dute, eta Gasteizko portua eta La Puebla de Arganzon haitzarteren artean daude, Arabako Lautadaren hegoaldea banatuz, Iruña Okako eta Gasteizko udalerrriak bananduz Trebiñuko kondadutik, Mirando-Trebiñuko sakonunean. Araba iparraldeko hegalean dago, eta mendebaldeko ertzauren aurpegiak ipar-ekialderantz begiratzen du eta mendebaldekoa ipar-ekialdera.

Udalerrian dagoen eremua Zadorra ibaiaren mendebaldeko aldeari dagokio, bertan bere gailur altuena 887 metro dauzka. Bere hegalek ibaiaren sakanean drainatzen dute. Gailurrek ez dituzte erliebe azpimarragarriak baina hainbat eremu arrokatu agertzen dira. Lerrokadurak, Arabako mendi hesiak osatzen dituzte eta Kantauritik datorren hodei lainotsuak oztopatzen dute.

Bere substratu arrokatua bereziki material margosoz osatuak daude, goiko kretazeoan dauden tupa grisekin. Material hauen gainean garatutako lurzoruak bereziki rendzinak eta kanbiosolak dira.

Azaleraren zati handi bat baso-masez osatuta daude eta baso-sartzeaz, bertan tokiko espezieak zein espezie aloktonoak dira.

Erkamezti subkantauriarra eremuaren zati handiena okupatzen du, 850 metrotara heldu arte, eta beheko kotetatik desagertu egin da, malda baxuenak kenduz laborantzen eta azpiegituren lurraldeak lortzeko errazagoa izan da. Sakontasun gutxiagoko lurzoruetan mendiko garriga azpi-hezea agertzen da, aurreko espazioko landarediaz borrokatuz, hau da, haien arten nahastuz. Erkameztiz eta Garrigaz okupatutako eremuak gaur egun baso landaketez okupatuak daude, bereziki koniferoak, adibidez basa pinua.



Basoa desagertu den lurzoruetan eta landatzeko egokiak ez direnak, larreez okupatuak izan dira, hau da, txilardia eta ipurudia. Azpimarratu beharreko beste formazio bat, abariztia da izaera azpi-mediterraneokoa, Gasteizko Mendien zonalde termikoetan agertzen dira, hau da, Zadorra gainean dagoen La Puebla de Arganzon haitzartea eta Burgos zein Tuyoko Mendilerrora heltzen dena.

Gailur eta mendi-zintzurran batzuetan Kareharrizko harkaitzen eremu txikiak agertzen dira, bertan harkaiztar flora espezieak garatzen dira, pitzaduretan eta erlaitzetan.

Espazio honetan ohikoena den fauna baso eta larre izaera daukate, hegaztiena talde ugariena da. Interes handiena daukaten hegaztiak eta hazteko eremuak daukaten harrapariak hurrengoak dira: Mirotz zuria, Zapelatza, Zapelatz buztangorria, Miru beltza, Gabiraia, Belatz gorria, Apo-hotza, urubi arrunt eta hontz ertaina. Aurkitu ditzakegu beste hegaztiak: Antzandobi arrunta, Antzandobi kaskagorria, Antzandobi handia, Zata arrunta, Hegatxabal arrunta, Buztangorri argia, Txinbo papargorritzta, etab. Ugaztunen artean: Lepahoria, Lepazuria eta Erbinudea. Narrastien taldean Aspis sugedorria aurkitzen dugu.

### **Badaia eta Arratoko Mendilerroak**

Udallerriaren parte bat Badaia eta Arratoko Mendilerroen espazioan daude, katalogoan esaten den bezala. Mendilerro hauen Trantsizio Mendiak izendatutako mendilerroak osatzen dute, uren banaketa eta EAetik igarotzen den Mediterranear eskualdearen banaketa adierazten dute.

Udallerrian mendilerroen hego-ekialdeko zonaldea dago, Badaiaiko hego-mendebaldea (Badaiaiko Mendilerroa), Arabako Lautadarantz jaisten dena. Hau da, ipar-mendebalde osoa okupatzen du eta udallerriaren erdiko zonaldea, udallerriaren zonalde adierazgarrenetarikoa izanik.

Mendilerroak bereziki kareharriz eta Goi Kretazeoko kalkarenitaz osatua dago, karstiko fenomenoko morfologiarekin: lapiazeak, dolinak eta pitzadurak. Lurzoruen garapena oso mugatua da, lito-lurzoruak nagusienak dira.

Izaera xeriko substratu honen gainean karraska izeneko landaredia hazten da. Baso masa honek sute jarraituen eta zura eta egurraren erauzketak sortutako eraginak erakusten ditu, hortaz, landaredi gehiena gaztea da nahiz eta mantxa batzuk garatutako zurbeltzena izan, adibidez Vallegranden eta Santorcarizen, azken kasu honetan abeltzaintza baltsak errazteko eta elikatzeke hesi batzuk jartzen dira.

Garriga desagertu den eremuetan edo dentsitate murriztuagoa daukan eremuetan, sastraka espezieak eta belarkiak agertzen dira, pre-txilardi formazioak nagusiki, larre

Mendilerroan talde faunistikorik esanguratsuen hegaztiena da. Haietariko batzuk bizi-eremu eta jaitziera bezala okupatzen dute eta beste askok habiagile izaera daukate: Sai harrea, Harris zapelatz, Zapelatza, Miru beltza, Miru gorria, Aztore arrunta, Zapelatz, gabiraia, Belatz, Zuhaitz-Belatza, Belatz gorria, Hontz handia, Apo-hontza, Hontz ertaina, Urubi arrunta, belatxinga mokohori, belatxinga mokogorri, Antzandobi arrunta, Antzandobi handia, Hegatxabal arrunta, Zata arrunta, Mendi-tuntuna, Buztangorri argia, Txinbo papargorritzta, Mendi-txirta, Pitxartxar nabarra eta Katturlio arrunta, interes handien arteko espezieak bezala. Ugaztunen artean nabarmenak dira. Lepahoria,





Lepazuria, Erbinude, Erbi iberiarra eta larsagu piriniotarra. Mendilerroan dauden abeltzaintza baltsekin zerikusia daukaten urlehortarrek: Uhandre palmatu, Uhandre marmolaire eta ur-igel arrunta.

Mendilerroak abeltzaintza erabilera estentsiboa jasotzen dute eta zurbeltzak ateratzen dira egurra izateko. Azken urteotan erabilera berri bat jasan du: energia elektrikoa, zentral eoliko batean eta udalerrian lurraldearen parte bat okupatzen duena.

### Tuyoko Mendilerroa

Tuyoko Mendilerroak Trantsiziozko Mendien parte dira ekialderantz dagoen jarraitasunarekin batera, hau da, Mendebaldean dauden Gasteizko Mendiekin batera. La pueblako haitzartetik zehar dago, Zadorra ibaiaren gainetik Pobeseke haitzarteraino, Baia ibaiaren gainean. Espazioak osatzen duen udalerraren zonaldea hazten da gutxi gorabehera 650 metrotatik gailurren lerroraino, Cellermin Mendiko zonaldeetik kanpo, Erriberagoitiako udalerraren parte dena.

Udalerrian mendilerroak hego-ekialdea okupatzen du, bere tontor eta goi-lautadako muga dago, hegalak bertatik jaisten dira, ipar-ekialdeko norabidearekin. Bere gailur nagusienak dira, handitik txikira: San Vitores (892 m), Léndiz (850 m), Eskibel (814 m) eta Tuyo (806 m). Bertan udalerraren malda handieneko lurraldeak aurkitzen ditugu.

Mendilerroak, litologikoki ondorengo materialez osatua dago: kareharria, kalkarenita, tuparri karehatsuak eta tupa kareharriak. Gainean dituzten lurzoruak bereziki dira: redzina ochrikak eta kanbiosol kaltzikoak.

Bertako landaredia mediterraneo eta eurosiberiano optimoaz aurkeztuak daude, kokapena udalerraren interes botaniko handiena izanik. Mendebaldeko hegalaren malda handiak suposatzen dituzten hesi efektuak, Atlantikoaren hezegunea mantentzea errazten du, pagadi kaltzikolen baso desagerpena murriztuz, pagadi mota ugariekin.

Pagadiaren hedapena gerriko moduan eta era irregularrean, gutxi gorabehera 700 metroko altuerarekin, Gazteluaren eremutik mendebalderantz hedatzen da. Formazio honen ondoan hedapen murriztuagoa daukaten beste batzuk agertzen dira, adibidez erkameztiak. Interes handiko baso mistoa da, Sopeñako eremuan agertzen dena lerro elektrikoan (220 Kv) eta zonalde honen mendilerroa zeharkatuz.

Pagadiaren beheko partean, tamaina txikiagoko erkameztiak eta garriga gazteak daude. Azken hauek gailurretatik bananduak agertzen dira Gaztelutik ekialderantz, La Puebla haitzarteraino. Erkameztiarekin harremanean sartzen dira, eremu mediterraneoko formazioekin agertuz, abariztia bezala, baina hemen izaera submediterraneoarekin eta bere alboan ezelarekin.

Mendilerroen eremu garbienean sasi ipurudiak eta pre-txilardi margosoak zein pre-txilardi azpi-kantauriarrak daude. Goiko partean berriz, pagadiak, erkameztiak eta garrigak, azaleratutako harriak espezie batzuen haziera mugatzen dute, landarediaren garapena kareharrizko harkaitzetan ematen da.



Pinu gorria landaketen azalera garrantzitsuak existitzen dira, mendilerroan zehar ere noizean behin agertzen da erkamezti eta garrigen barruan, ingurumen baldintzak mesedegarriak direnean. Aldi berean, pinudiak artadiak jasotzen dituzte, eta hainbat zonaldeetan interes handiko espezieak agertzen dira: hagina eta gorostia, hauek ere mendilerroan zehar sakabanatuak agertzen dira. Zabalera murriztuarekin larizio pinuak landatu dira.

Tuyoko Mendilerroan garrantzi handiagoa daukaten espezieak ondorengo hegaztiak dira: sai zuria, Zapelatza, mirotz zuria, zapelatza, miru beltza, europar zapelatza, aztore arrunta, aztore beltza, belatz handia, zuhaitz-belatza, belatz gorria, apo-hontza, urubi arrunta, belatxinga mokohoria, belatxinga mokogorria, Antzandobi arrunta, Antzandobi handia, Hegatxabal arrunta, Zata arrunta, Mendi-tuntuna, Buztangorri argia.

Ugaztunen artean Schreibers Saguzarra Euskal Herrian aurkitzen du bere babesgunea, Marta, Lepazuria eta Erbinudeak ere bai.

#### 4.4.6 HEZEGUNEKO LPSAREN HEZEGUNEEN INBENTARIOA

Hezeguneen Lurraldearen Plan Sektoriala Eusko Jaurlaritzak onartu zuen kontzejuaz eta 160/2004 Dekretuaren bidez uztailaren 27an. EAEko Hezeguneen inbentario bat da hiru Multzotan sailkatutik, antolakuntza proposamenaren arabera eta aplikagarria den araudiaren arabera:

- I Multzoa: Babes Espazio Naturalaz edo Urdaibaiko Biosfera Erreserbaz hunkitutako hezeguneak.
- II Multzoa: hirigintza plangintza bereziaz babestutako hezeguneak, edo xehetasunez antolatutako hezeguneko LPSak.
- III Multzoa: inbentariatutako gainontzeko hezeguneak eta aurreko multzoetan sartu ez direnak, eta antolakuntza tresnak zein araudia ez daukatenak.

Hasiera batean inbentario honetan udalerraren espazio bakarra sartu zen Mandaitako Arrisku Baltza (FA62), III.Multzoaren barruan. 7,246 m<sup>2</sup>-ko azalerarekin eta 318,52 m-ko perimetroarekin.

Hala ere, beranduago egindako berrikuspen batean hezegune berriak dituen inbentarioa egin da, III.Multzokoak direnak. Jarraian, beraien tipologiaren barruan Planaren I.eranskinean erreferentzia egiten dutenak eta EAE12 planoan irudikatuak daudenak.

#### Artifizialak

#### D.- PUTZUAK ETA URMAELAK

*“Tamaina eta entitate aldakorreko hezeguneak, lurzoru istiltze prozesu natural batez eginak, meatzea ateratzeko (zeru irekiko meatzeak) edo arroka (harrobiak) indusketa bat egin ondoren”.*



#### DA9 Langraizko harrobiaren baltsa

Baltsaren jatorria Langraiz Okaren harrobiaren (Navarra pequeña) meatzean dago, bertan kareharrizko kubeta bat induskatu zen. Ingurunearen baldintzak naturalizazio prozesu bat erraztu du. Uraren ibilbidea artifiziala da.

Baltsa 557 metroko altueran dago, laukizuzen formako eta bere gutxi gorabeherako dimentsioak: 0,341 ha eta perimetroa 263,52 m.

Inguruko landarediari buruz ondorengo aurkitu dezakegu: zingirako landaredia, adibidez: lezka hostozabal, eta azpi hezeguneko garriga menditarren gertutasunagatik ingurunean agertzen dira: zurbeltzak, ipurudiak, pre-txilardiak eta larre kaltzikola herritarrak.

Inbentarioak balio ekologiko baxua ematen du, meatzearen jarduerak sortzen duen inpaktua baltsaren gainean.

#### **G.- MENDI EREMUKO URMAELAK EDO GANADURAKO BALTSAK**

*“Urtegi txikiak, batzuetan artifizialak eta beste batzuetan jatorri naturalarekin, abereentzako edanleku bezala erabiltzen dena. Artifizialak orokorrean inguruko urez edo lurzoruan sortutako istiltzez hornitzen dira (jariatze-ura, akuiferoen azaleratze, iturburuak), birmoldatuz pala hondeatzailerekin, normalean forma biribileko egituretan. Antzinako baltsen jatorria bereiztea zaila da, mendi-paisaia daukaten integrazio bikainagatik”.*

Udalerrriaren barruan mota hauetako hainbat espazio inbentariatuak izan dira, bereziki Badaiaiko Mendilerroan eta Tuyoko Mendilerroan kokatutakoak, nahiz eta udalerrriaren beste tokietan beste espezie ezberdinak agertu.

Hormigoizko egiturak ezponda perimetraletan, beste batzuk lurrezkoak edo lurraldearen sakonune naturalak aprobetxatuz egindakoak. Beste batzuk abereen ondoan edanleku espezifikoak daukate. Ur-laminaren izaera gutxi gorabehera aldi baterako da, urak daukan jatorriaren arabera. Kasu batzuetan urmaeletatik dator eta beste batzuetan euritik eta isurketetatik.

#### GA29 Bardaraneko urmaela

Jatorri artifizialeko urmaela, aldi baterako izaera duena eta 770 metrotara aurkitzen dena. Forma biribildua dauka eta bere dimentsioak dira: azalera 0,344 ha eta perimetroa 68,25 m-koa. Kareharrizko eta margo-kareharrien substratuetan ezarriak.

Bere inguruneke landaredia: garrigak, larre harritarra eta parameroak.

#### GA48 Barrerako putzua (Mandaita)

Jatorri artifizialeko urmaela, 660 metroko altuerarekin eta kareharrizko substratu baten gainean dago. Bere dimentsioak: 0,03 ha eta hormigoiez egindako 65,66 metroko perimetroa. Ur-laminak izaera iraunkorra dauka.



Urmaelean dagoen landaredia urperatuta dago eta zumeak ere aurkitu ditzakegu. Ingurunean garrigak, larreak eta xerofiloak, pinnatumak eta beste larre mesofiloak daude.

Espezie autoktonoak: uhandre marmolaire, palmatu eta igela arrunta. Apoarmatu korrontezalea (*Mauremys leprosa*) ere ikusi da, bere jatorria barnekoa izango litzateke. Jatorri aloktonoko jatorria duten beste espezieak ere aurkitu dira: zamo txikia eta Floridako dordoka. Inbentarioan eman den balorazio ekologikoa baxua da.

#### GA63 Kostuia putzua

Gertuen daukan landaredia zumeak dira eta garrigez ere inguratuta dago. Ur-igel arruntaren (*Rana perezi*) presentzia normala da. Balorazio ekologikoa ertaina da.

**Tuyoko Mendilerro** urmaelen barruan udalerraren barruan aurkitu ditzakegu:

#### GA42\_01 "El Canto" Iturria

Urmael txiki bat da, jatorri naturalekoa, tuparri eta kareharri substratuaren gainean kokatzen da, eta 710 metroko altuerarekin. Sakontasun gutxiagorekin eta 0,0042ha eta 24,58 metroko dimentsioekin. Gertu dagoen iturburu batetik ura jasotzen du, honek ur lamina konstante izatea errazten du.

Inguruko landaredia osatuta dago: basa-pinuez, erkametzaz, garrigez, hagin eta gorostiak. Urmaelak hondoan landaredia dauka. Anfibioak agertu daitezke, uhandre palmatua adibidez. Inbentarioan ekologikoki balorazio ertaina ematen zaio.

#### GA42\_02 "Los Cerezos" iturria

Jatorri naturaleko urmael txiki bat da, 630 metrotara dagoena. Ura iturri naturaletik jasotzen du. Dimentsioa 0,0036 ha-koa da eta 22,146 m-ko perimetroa eta bere forma borobila tuparri eta kareharria substratuz ezarrita dago.

Urmaelaren landaredia juncaceak eta zumak dira, ur landaredia uretan murgilduta dago. Elordi eta lahardi motako sasiak inguratuta, txilardiez ere bai, basa pinua eta garriga motakoak. Laborantza agrikoleko zonaldeetatik gertu dago.

Ondorengo urlehortarrak aurkitu dira: ur-igel arrunta eta uhandre palmatua. Inbentarioaren arabera balorazioa ekologikoa ertaina da.

**Badaia Mendilerroko baltsen** konplexuaren barruan daude:

#### GA7\_10 Lorritxoko putzuak

Karratu forma duen urmael txikia, jatorri artifizialarekin eta kareharrizko materialen gainean dago. Laminak izaera erdiraunkorra dauka, forma biribilduarekin, 0,0327 ha-ko azalerarekin eta 76,535 m-ko perimetro maximoarekin. Inguruko landaredia garrigaz eta txilardiz osatua.



#### GA7\_11 La Kutxeta putzua

Karratu formako urmaela, 915 metroko altuerarekin eta udalerraren ipar-ekialdean. Kareharrizko materialaren gainean eraikita. Jatorri artifiziala dauka eta ur-lamina konstantea da. Bere azalera 0,1562 ha-koa da eta perimetroa 155,76 m-koa.

Ingurunean dagoen landaredia elordiz edo lahardiz zein larre herritarrez eta garrigez osatua dago. Ondorengo urlehortarrek osatzen dituzte: ur-igel arrunta (*Rana perezi*), uhandre palmatu (*Triturus helveticus*) eta uhandre marmolaire (*Triturus marmoratus*). Inbentarioak balorazio ertain ekologikoa eman dio.

#### GA7\_12 Santorcariz I aintzira, GA7\_13 Santorcariz II aintzira, GA7\_14 Santorcariz III aintzira eta GA7\_15 Santorcariz IV aintzira

Badaia Mendilerroaren 800 eta 900 metro artean kokatuak daude, izaera erdi-iraunkorra edo kasu batzuetan iraunkorra. Jatorria naturala izan litzateke, GA2\_12 izan ezik, eta gertu iturburu batentzako ur iturri bat da. Kareharrizko materialen gainean ezartzen dira.

Guztiak borobil forma daukate. Dimentsioak aldakorrak dira: GA7\_12 0,0222 ha eta perimetroa 54,4 metrokoa da. GA7\_13, 0,0372ha eta 69,619 m. GA7\_14, 0,0195 ha eta perimetroa 55,085 m. GA7\_15, 0,0104 ha eta perimetroa 40,138 metro.

Inguruan dagoen landaredi gehiena garrigez eta larre harritarrez osatua dago. Batzuk ur landaretza daukate, zenbait algen agerpenarekin; eta ertzetan arantzadun zuhaixkak hazten dira, laharrak bezala. Aurkitu ahal ditugun espezie batzuk: Naxak, Potamogeton, Ranunculus eta Salix. Ondorengo espezieak ere aurkitu ditzakegu: ur-igel arrunt, uhandre palmatu eta uhandre marmolaire. Noizean behin ur hegatziren bat agertu da: Ahate urdina. Multzoaren balorazio ekologikoa altua da.



## 4.5 LURRALDE ETA INGURUNE SOZIO-EKONOMIKOA

### 4.5.1 DEMOGRAFIA

Azken urteotan Iruña Okako biztanleria haziz joan da, ondorengo taulan adierazten den bezala. Arabako Lurralde Historiko guztiaren biztanle konparaketa bat egiten da.

URTEA	IRUÑA OKA	Aurreko tartearerikiko bariazioa	ARABA	Aurreko tartearerikiko bariazioa
1975	1.714	-	237.742	-
1981	1.763	2,9%	257.850	8,45%
1986	1.577	-10.6%	267.728	3,83%
1991	1.502	-4.8%	272.447	1,76%
1996	1.616	7.6%	281.821	3,44%
2001	1.953	20.9%	286.387	1,62%
2006	2.568	31.5%	305.822	6,78%
2011	3.046	18.6%	318.730	4,22%
2016	3.334	9.5%	322.335	1,13%

1975 oinarri-urte gisa hartzen badugu, aztertutako lehen bost urteetan (1975-1981) hautematen da biztanleriak gora egin zuela eta, 1981ean, Udalerriak 1.763 biztanle inguru zituela. Urte horretatik aurrera, 80ko hamarkadan biztanleriak behera egin zuen Iruña Okan, baina ez hainbeste Araban, Vitoria-Gasteizek duen traxzio-efektua dela-eta.

90eko hamarkadatik aurrera, Iruña Oka udalerriak konstante demografiko positiboak berreskuratu zituen: etengabe hazi eta, 2000 urtea baino lehen, 20 urte lehenago artxiboetan jasotzen zen biztanle kopuru bera izatera iritsi zen.

Hurrengo 10 urteetan, hazkundera are handiagoa izan zen eta, 2001 eta 2006 bitartean, %31,49ko hazkundera iritsi zen aurreko 5 urteekin alderatuta eta, horrez gain, Arabako lautada osoko biztanleriaren hazkunde mailak gainditu zituen. Izan ere, Udalerriak 5 urtetan soil-soilik biztanleria bikoiztu zuen: 1991n 1.500 biztanle zituen eta 2009an 2.957ra iritsi zen.

Iruña Okako biztanleriaren hazkundera azken 7 urteetan ez da Aurrerapen Dokumentuan aurreikusten zen bezain baikorra izan; hala eta guztiz ere, nabarmendu behar da hazkunde aipagarria izan duela. Hots, azken denboraldi honetan, ia 500 biztanle gehiago daude eta, gainera, Udalerriak Arabako batez besteko hazkundera gainditzen du.


Banaketa espazialari dagokiolarik, aipatu beharra dago ez dela aldaketa handirik egon Aurrerapen Dokumentuan jasotzen ziren datuekiko: biztanleria lau herri txikiren eta udalerriko biztanleriaren hiru laurdenak biltzen dituen herrigune baten (Langraiz) artean banatzen da.

Nolanahi ere, Mandaita herriaren kasuan izan ezik (2008an 55 biztanle izatetik 2016an 52 biztanle izatera pasa da), gainerako herriek hazten jarraitu dute. Aurreko hamarkadan Tresponde herriak izan zuen batez beste biztanleria-hazkunde handiena, Vitoria-Gasteizetik geografikoki gertu egoteagatik. Azken denboraldi honetan, berriz, Langraizek izan du igoera nabarmenena.

Udalerriko biztanleriaren egitura ikusteko, behean, 2008. eta 2016. urteetan bildutako datuekin egindako biztanleria-piramideak aurkezten dira. Jarraian aztertuko ditugu.

2008. urtean, talde handiena 30-34 urte bitartekoena zen. 8 urte beranduago, 40-44 urte bitartekoen taldea zen handiena. Iruña Oka udalerrian, 0-4 urte bitartekoen taldea 2008an biztanleriaren %5,22 izatetik 2016an %4,67 izatera pasa da. Araban, alabaina, 0-4 urte bitartekoen taldea 2008an biztanleriaren %3,83 izatetik 2016an %4,02 izatera pasa da. 2008an, biztanle gazteak (hots, 0 eta 19 urte bitarteko biztanle-taldea) Iruña Okako biztanleriaren %19,1 ziren, gaur egun ordea %24,12ra iritsi dira eta Arabako biztanle gazteen batezbestekoa (%19,07) gainditu dute.


### 2008ko Biztanleria








## 2016ko Biztanleria




Denboraldi horretan izan den biztanleriaren hazkundera kontuan hartzeko beste datu garrantzitsu bat biztanleriaren dinamika da, non Udalerriaren etorkizuneko biztanlerian eragiten duten bi alderdi aintzat hartzen baitira: berezko hazkundera edo hazkunde begetatiboa eta migrazio-mugimendua.



Berezko hazkundera dagokionez, azpimarratu behar da jaiotza-tasak garrantzi handiko egitekoa duela: azken hamabost urteetan, batez beste, 37 jaiotza erregistratu dira. Zehazki, 2011ra arte, jaiotza-tasak gora egin zuen, 2013 urtera arte beherakada etorri zen eta, hortik aurrera, jaiotza-tasak gora jo zuen berriro ere. Bestetik, heriotza-tasa urteko 15 ingurukoa da, jaiotze kopuruaren gainetik.



Migratzaile mugimenduei dagokionez, Iruña Oka populazio erakartzen duen udalerrria da, eta azken urteotan Arabako beste herrietatik datozen jenderako erreferentea da, bereziki Vitoria-Gasteizko hiriburuan. Eskuragarri dauden datuak azertu ondoren, 2010 eta 2012 urteak izan ezik, non migrazio saldoa negatiboa den, orokorrean, immigrazio tasa denboran zehar. Zehatz mehatz, 2013. urtetik aurrera, immigrazio tasaren hazkundera asko hazi zen.



Hortaz, biztanleriaren dinamika bere osotasunean aztertzerakoan, ikus daiteke Iruña Oka udalerriraren ezaugarri bereizgarriak, hain zuzen, bi fenomeno horien batura direla: Hazkundera begetatibo positiboa eta kanpotik datozen pertsonen nagusitasuna. Horrek eragin du aztertutako epean erregistratu den biztanleriaren hazkundera.

#### 4.5.2 HAZKUNDEAREN AURREIKUSPENA

Iruña Okako azken urteotako datu demografikoak azertu ostean, hurrengo urteetarako biztanleriaren hazkunderaren aurreikuspena egiten da, bizitegi- kuantifikazioari dagokionez, 2016ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) aldatzen dituen dekretuan ezartzen den metodoa erabilita. Horretarako, aldeztetik kalkulatzen da familiaren tamainen urteko bariazio-tasa. Honako hauek dira lortutako emaitzak:

- Zortzi urteko epean (HAPOaren indarraldian zehar), 1.200 biztanle gehiago egongo direla aurreikusten da: guztira, 4.650 biztanle.
- Hamabost urteko epean, azterketak ia 1.300 biztanleko hazkundera aurreikusten du: guztira, 6.000 biztanle.

Ondorengo taulan hurrengo urteotarako egongo diren biztanle hazkunderaren aurreikuspenak agertzen dira.



Urtea	Aurreikusitako biztanleria	Urtea	Aurreikusitako biztanleria
2017	3.382	2026	4.672
2018	3.506	2027	4.843
2019	3.634	2028	5.020
2020	3.767	2029	5.204
2021	3.905	2030	5.394
2022	4.047	2031	5.591
2023	4.195	2032	5.795
2024	4.349	2033	6.007
2025	4.508		

### 4.5.3 EKONOMIA

Iruña Okaren ekonomiaren iturburua neurri handi batean nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapenetatik eta espexetik dator. Azken denboraldian industriak garapen faktore garrantzitsu bat da eta lehenengo sektorea alde batera utzi du, nahiz eta gaur egun, udalerraren azaleraren %28a laborantza jardueri zuzentzen da, 60 nekazaritza eta abeltzaintza ustiapen existituz.

Beraz, Iruña Okak bere ekonomia industria eta merkataritzan oinarritzen du, eta industrializazioaren aurretik zegoen landa zonaldearen irudiarekin kontrastatu egiten du; gaur egun industria harrobiekin batera udalerraren jarduera nagusiak dira. Harrobiak, Langraiz eta Trespanden kokatuak, bereziki XX.mendean lan asko sortu zuten biztanleriarako.

XX.mendeko bigarren erdian udalerraren industrializazioagatik, Iruña Okako biztanleak nekazariak eta abeltzaintzak izatetik ekonomikoki sektore industrialaren menpe egotera pasa ziren. San Jose de los Llanos eta Subillabide industrialdeak estrategikoki kokatuak, mota ezberdineko enpresa asko daukate eta populazioaren beste zati bati lana eskaintzen dizkiote.

Horretarako, inbentariatutako edozein kokalekuaren gaineko edozein parte-hartze egin aurretik beharrezkoa da: hasteko, lurzoru kalitateari buruzko azterketa bat egitea, ziurtatzeko lurzoruaren kutsadurari esleitutako arriskuak existitzen ez direla jakiteko, bai langileentzat zein erabilerara berriko lurzoruaren erabilzailentzat, eta bigarrenik, baztertutako hondakinen kudeaketa egokia, eraikuntzak eta hondakinei buruzko araudiarekin bat etorritik induskatuko diren lurralde posibleak.



*Lurzoru kutsatuen banaketa Iruña Okan  
Iturria: GeoEuskadi. Eusko Jaurlaritza (2018).*

#### 4.7.6 ARRISKU TEKNOLOGIKOAK

Arrisku teknologikoak dira: gizakiak industria motako jarduerak egiteko erabili eta aplikatu dituen teknikiei. Arrisku handiena suposatzen dituzten jardueri eta Iruña Okako udalerrian eragina gehien daukaten jardueri Seveso Zuzentarauari erantsita dago.

Iruña Okako udalerriak Maxam Outdoors, S.A. izeneko saltokia dauka, giza osasunerako larriak diren produktuak biltegitatuak ditu eta istripu larriak sortu ahal dituzten produktuak dituena. Horregatik ondorengo Europar Zuzentarauan ezaguna da: “Seveso II” (96/82/CE Zuzentaraua betetzeari dagozkionak, hau da, substantzia arriskutsuak tarteko dituzten istripu larriek eragiten dituzten arriskuen kontrolaren ingurukoak (2012ko uztailaren 4an 2012/18/UE Zuzentarauak indargabetua).



Araudi honek nukleoen biztanleriarekiko gertutasean mugak egotea suposatzen du, bereziki hazkunde berriei buruz ari garenean, larrialdi planak eta arrisku kimikoa komunikatzeko planak burutu behar dira.

Administrazio publikoak, Eusko Jaurlaritza zehatz mehatz, zaintzeko eta kontrolatzeko sistema bat dauka biztanleriak arriskuan jartzen duten egoeren gainean egon ahal izateko, instalazio hau suposatu dezake eta beharrezkoa izatekotan larrialdi planak. Enpresak 2006.urteetik Eusko Jaurlaritzak eta Gobernu Orokorrak onartu duten larrialdi plan bat dauka.

Arrisku analisiarekin harreman zeukan Santa María de Garoña zentral nuklearra ez da kontsideratzen, Nuclenor enpresearen menpe zegoena eta Burguseko probintzian, Tobalina haranean kokatua dagoena, Mandaita eta Olabarri, nukleotan eta instalaziotik 30 km-tara. 1970.urtean baimena lortu zuen, eta 2017.urteko abuztuaren 1ean, Energiaren Ministeriotik, jarraitzeko baimena debekatu zen, horregatik gaur egun “gelditze baldintzetan” dago, Segurtasun Nuklearraren Batzardearen arabera (CSN). Instalazioen desegiteak, 2019.urteko bigarren seilabetean hastea espero da eta hamar urte iraungo du.

#### 4.7.7 KUTSADURA AKUSTIKOA

Bide azpiegitura garrantzitsu baten existentziarekin, bai industrialdeetan zein meatzari ustiapenetan, guztiak haranaren hondoa kokatuak, kutsadura akustiko garrantzitsu bat sortzen dute eta nukleo batzuen bizi kalitate murrizten dute.

Zentsu honetan, udalerrian identifikatzen diren zarata foku nagusienak, ondorengoak dira:

#### ***Komunikazio azpiegiturak***

##### Errepideak

- *A-1 autobidea*, udalerria hego-mendebaldetik ipar-ekialdera zeharkatzen du. IMD da Arabako Foru Aldundiko MER-ak eta errepideen Ekintza Plana egitean sartutako bide-ardatz handi bakarra, nahiz eta azterlan horietan ez zen identifikatu udalerrian kalitate akustikoaren helburuak gainditzeko zituen eremurik, A-1etik hurbil dauden erabilera gehienak industriakoak eta hirugarren sektorekoak baitira.  
Eguneko 40.000-45.000 V inguruko IMD, ibilgailu astunen ehunekoa oso handia izanik, %21 eta %23 artekoa-
- *A-2622 errepidea*, A-1 errepidetik abiatzen dena, P.I. los Llanosen parean, mendebalderantz. UKE 4.500-5.000 V/d-tik behera jaitsi da A-1 errepidearen inguruan, 3.000 V/d-tik behera urrunagoko eremuetan, astunen ehunekoekin, %3tik-%6ra.
- *A-3308 errepidea*, udalerria mendebaldetik ekialdera zeharkatzen du, aurrekoa A-3302 errepidearekin lotuz. Langraiz/Langraiz zeharbidea barne hartzen du, 2.750 V/d-ko GMI eta %5-eko astunarekin.



- *A-3302 errepidea*, udalerraren ipar-ekialdea zeharkatzen du, Estarronatik eta Astegietatik A-1etik (N-120) Gasteizerako sarbideraino. UKE oso aldakorra da: 7.000 V/d inguru eta %10 pisutsuak A-1 errepidearen amaieran, 2.000 V/d baino gutxiago eta %5 pisatuak Billoda eta Trespondetatik iparralderago dauden landa-eremuetan.
- Eskualdeko eta tokiko beste errepide batzuk (A-4314, A-4359, A-4302, A-4358), intentsitate askoz txikiagoak dituztenak, 700-1000 V/d ingurukoak oro har, nahiz eta askoz txikiagoak izan tokiko landa-ibilbideetan (200-300 V/d).

#### Trenbide-azpiegiturak:

- *Madrid-Irún-Hendaia*, Miranda de Ebro eta Gasteiz arteko zatian. ADIFek kudeatzen duen ohiko sare orokorraren 100. linea. Gaur egun, batez beste, 35 zirkulazio daude egunean (bi noranzkoak), distantzia luzeko trenekin (%38), distantzia ertainekoekin (%47) eta salgaiekin (%15). Trafikoaren %10 baino gutxiago gauez egiten da, baina trafikoaren %40 inguru salgaiena da.
- *Burgos-Gasteiz-Bilbo-Irún etorkizuneko abiadura handiko lerroa*, haien administrazio-egoera aldakorra da Iruña Oka udalerria zeharkatzen duten zatietan: jendaurreko informazio-prozesuan dago Burgos-Gasteiz tartearen informazio-azterlana, eta eraikuntza-proiektua idaztean, aurrekoa Gasteizko Trenbidearen Integrazioarekin lotzeko tartea.

Linea horrek nazioarteko bidearen zabalera izango du, eta bidaiarien trafiko gehiena bilduko du. Era berean, Jundizko geraleku intermodaletik iparralderantz doazen merkantziak, udalerrian bertan aurreikusita (AOS-SG1, udalez gairikoa). Epe ertaineko horizonteetarako ADIF AVren azken aurreikuspenak eguneko 52 trenekoak dira (bi noranzkoak), eta gaur egungo distantzia luze eta ertainean abiadura handiko zirkulazioak gehituko dira, printzipioz denak eguneko ordutegian. Eremu horretan, salgai-trenak ohiko linetik ibiliko dira.

#### Aireportuko azpiegiturak

- Iruña Okako udalerria aireontzien maniobra-ibilbidearen azpian dago, Gasteizko aireporturako hegoaldeko hurbilketan. Hala ere, zortasun akustikoa,  $L_d/Le = 60$  dBA eta  $L_n = 50$  dBA isofonoetatik zenbatetsia, Iruña Okako udal-mugartearen mugatik kanpo geratzen da.

#### ***Industria eta erauzketa jarduera***

Udalerriko industria-jarduerako eremuak A-1 autobaien mendebaldean zehaztutako lurralde-bandan garatzen dira; autobiak Zadorra ibaiaren ibilgua eta Madril-Hendaia FFCC linea garatzen ditu. Batez ere, Los Llanos eta Subillabide industrialdeak dira.

Beste zarata-gune garrantzitsu bat Trespondeko "Azkorrigana" eta Langraiz Okako "Navarra Pequeña" meatze-ustiategiak dira. Horiek zarata sortzen dute, bai harria ateratzeagatik eta harrobietan birrintzeagatik, bai garraiorako kamioien joan-etorriengatik.





### **Zonakatze akustikoa**

Atal honetan kontuan hartu beharreko beste alderdi bat **zonakatze akustikoarekin** lotutakoa da. Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 6. artikulua *arabera*:

*"Eskumen hauek udalerriei dagozkie:*

*a) Udalaren lurralde-eremuaren barruko area akustikoa edota area akustikoak zedarriztatzea eta onartzea, betiere, udalaren planeamenduan aurreikusitako egungo erabilerak oinarri harturik.*

*[...]"*

Gaur egun, Iruña Okako udal plangintzak ez du onartu Zonifikazio akustikorik, hortaz, behin-behineko onarpenerako agiri hau izan behar da eta HAPOan sartu behar du.

Horretarako, II. tituluko zehaztapenei erreparatu behar zaie. ZONAKATZE AKUSTIKOA ETA ZORTASUN AKUSTIKOA, I. kapitulua, Dekretu horren zonakatze akustikoa. Honela dio 20. artikulua:

*" 20. artikulua– Hots-eremuen tipologia.*

*Dekretu honen ondorioetarako, eremu akustikoak lurzoruaren erabilera nagusia kontuan hartuta sailkatuko dira, modu honetan:*

- a) bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak,*
- b) industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak,*
- c) jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak,*
- d) aurreko paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak,*
- e) osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak, hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar dutenak,*
- f) garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo haiek behar dituzten beste ekipamendu publiko batzuek eragindako lurralde-esparru edo -sektoreak*
- g) gaia arautzen duten legeetan babespekotzat jotako eremu natural diren lurralde-esparru edo -sektoreak eta hots-kutsaduraren kontra modu berezian babestu behar diren eremu naturalak “.*

21.artikuluko zona akustikoak banatzeko irizpideak:

*"1. Eremu akustikoak zedarriztatzeko eta sailkatzeko lurzoruaren egungo edo etorkizuneko erabilerak hartuko dira oinarritzat. Horrenbestez, udalerrri bateko*



zonakatze akustikoak eremu urbanizatuei eta etorkizuneko hirigintza-garapenei bakarrik eragingo die, f) eta g) motako eremu akustikoak albo batera utzita.

2. Dekretu honen III. eranskinean jasotako irizpide eta jarraibideak hartuko dira kontuan lurralde-esparru bat eremu akustikotzat jotzeko eta zedarriztatzeko.

3. Lurralde-esparru bat ezin izango da aldi berean izan bi eremu akustiko mota ezberdinen parte.

[...]"

213/2012 Dekretuaren III. eranskinak *zehatz-mehatz garatzen ditu lurraldeko sektore bat eremu akustiko mota batean sartzeko irizpideak.*

22. artikuluan eta hurrengoetan, Dekretuak kontuan hartu beharreko zenbait alderdi garatzen ditu, hala nola zonakatzearen bateragarritasuna, landa-guneetako zonakatze akustikoa, g tipologiako eremu akustikoen sailkapena eta mugaketa, zortasun akustikoko eremuak, eremu lasaiak, trantsizio-eremuak eta jatorri naturaleko soinu-erreserbak, besteak beste.

Irizpide horiek kontuan hartuta, proposatutako zonakatze akustikoa HAPOn dokumentazio kartografikoaren dagokion planoan jasotzen da.

Eremu akustiko bakoitzeko kalitate akustikoaren helburuak zehazteko, 213/2012 Dekretuaren 31. eta 32. artikuluetan xedatutakoa bete da, eta urbanizatutako eremuen eta etorkizuneko hirigintza-garapenen arteko balio objektiboak bereiztea ahalbidetu da:

*"31. Artikulua. Hiritartutako eremuetarako nahiz etorkizuneko garapenarako kalitateko helburu-balioak.*

*1. Dekretu honen I. eranskineko 1. atalean zehaztu dira (A taulan) alde zehatzetik existitzen diren urbanizatutako eremuetan atari zabalean bete beharreko kalitateko helburu-balioak.*

*2. Etorkizunean, dauden eremu urbanizatuak baino 5 dBA gutxiagoko helburu-balioak izango dituzte hirigintza-garapena izango dutela aurreikusten den eremu akustikoen, erabilera urbanistikoen kalifikazio berriak barne.*

*Etxebizitzetara edo bizitegi-, osasun-, hezkuntza- edo kultura-erabileretara bideratutako eraikuntzen barneko kalitateko helburu-balioak dekretu honen I. eranskineko 1. atalean xehatuta daude, B eta C tauletan.*

*32. artikulua. G motako eremuetarako kalitateko helburu-balioak.*

*g) motako eremuetan aplika daitezkeen kalitate akustikoko helburuak bat etorriko dira e) motako eremuetarako finkatutakoekin, hots, osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzorua nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurralde-esparru edo -sektoreetarako zehaztutakoekin".*

Aipatutako I. eranskinean jasotako kalitate akustikoko helburuetarako erreferentzia-balioak, definitu beharreko eremu akustikoen arabera, taula honetan ageri dira:



<b>ZARATARAKO KALITATE AKUSTIKOKO HELBURUAK, KANPOKO INGURUNEAN DAUDEN EREMU URBANIZATUETAN APLIKATZEKOAK</b> (A taula, 213/2012 Dekretoaren I.eranskina)				
Hots-eremuen tipologia		Zarata indizeak		
		Ld	Le	Ln
E	osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak, hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar dutenak.	60	60	50
A	bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	65	65	55
D	aurreko paragrafoan (c) jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	70	70	65
C	jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	73	73	63
B	industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde Beren arearen mugan, mugakide duten arearen zonakatze-tipologiari dagozkionak izango dira esparru edo -sektoreak	75	75	65
F	garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo haiek behar dituzten beste ekipamendu publiko batzuek eragindako lurralde-esparru edo -sektoreak.	(1)	(1)	(1)

(1): Beren arearen mugan, mugakide duten arearen zonakatze-tipologiari dagozkionak izango dira  
Oharra: Kanpoaldean aplikatzeakoak diren kalitate akustikoko helburuak lurzoruaren mailatik 2 metroko altuerari eta leihoa duten fatxaden kanpoaldeko eraikuntzaren altuera guztiei dagozkie

<b>ETXEBIZITZARAKO, BIZITEGIETARAKO, OSPITALEETARAKO, HEZKUNTZARAKO EDO KULTURARAKO ERAIKINEN BARNE-ESPazio BIZIGARRIAN APLIKATU BEHARREKO ZARATARAKO KALITATE AKUSTIKOKO HELBURUAK (1)</b> (B taula, 213/2012 Dekretoaren I.eranskina)				
Eraikinaren erabilera (2)	Barruti mota	Zarata indizeak		
		Ld	Le	Ln
Etxebizitza edo bizitegi-erabilera	Egonaldiak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Ospitalekoa	Egonlekuak	45	45	35
	Logela	40	40	30
Hezkuntza edo kultura	Ikasgelak	40	40	40
	Irakurketa gelak	35	35	35

(1) B taulako balioak esparruaren barruan eragina duten igorle akustikoen multzoaren ondoriozko immisio-indizearen balioei dagozkie (eraikinaren beraren instalazioak edo mugakideak, barrura transmititutako ingurumen-zarata).  
(2) Eraikinaren benetako erabilera gisa ulertuta, hau da, aipatutako ordu-tarteren batean erabiltzen ez bada, ez da aplikatzen eraikinari lotutako kalitate akustikoaren helburua.  
Oharra: Barrualdean aplika daitezkeen kalitate akustikoko helburuak 1,2m eta 1,5m bitarteko altueran daude erreferentziatuta.




Eremu akustiko baten barruan babes akustikoaren eskakizun handiagoa duten erabilerak badaude, adibidez a) bizitegi-motako eremu akustiko batean kokatutako ikastetxeak, erabilera sentikorrago horietan kokatutako hartzaileek erabilera sentikorrenari dagokion KAH bete beharko dute.

Azpiegitura autonomikoen zortasun akustikoaren eremuaren ondorioei buruz, 30. aipatzekoa da Arabako Foru Aldundiak orain arte ez duela onartu bere titulartasuneko errepideen zortasun akustikoaren eremua.

Estatuaren eskumeneko azpiegituren zortasun akustikoei dagokienez, ADIFen eskumeneko trenbide-ardatz handiek ere ez dute onartutako zortasun akustikoko eremurik, eta Gasteizko Aireportuari dagokiona Iruña Okako udal-mugartetik kanpo geratzen da.

Hurrengo irudian, HAPOn berrikuspen udalerrientzat proposatutako zonakatze akustikoa adierazten da:



*Iruña Okako udal-mugarteko zonakatze akustikoa. Iturria: Egileak moldatua*



## Irakubidea:

### ÁREAS ACÚSTICAS / EREMU AKUSTIKOAK

- |   |   |
|---|---|
| a) Ámbitos/sectores del territorio con predominio de suelo de uso residencial                                       | a) Bizitegi-erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak   |
| b) Ámbitos/sectores del territorio con predominio de suelo de uso industrial  | b) Industria-erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak  |
| c) Ámbitos/sectores del territorio con predominio de suelo de uso recreativo y de espectáculos                      | c) Jolasarako eta ikuskizunetarako lurzorua nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak  |
| d) Ámbitos/sectores del territorio con predominio de suelo de uso terciario distinto del contemplado en el anterior | d) Aurreko paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak            |
| e) Ámbitos/sectores del territorio con predominio de suelo de uso sanitario, docente y cultural                     | e) Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak  |
| f) Ámbitos/sectores del territorio afectados a sistemas generales de infraestructuras de transporte                 | f) Garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo haiek behar dituzten beste ekipamendu publiko batzuek eragindako lurralde-esparru edo -sektoreak |

### OBJETIVOS DE CALIDAD ACÚSTICA / KALITATE AKUSTIKOKO HELBURUAK

ÁREAS URBANIZADAS EXISTENTES / LEHENDIK DAUDEN URBANIZATUTAKO EREMUAK

	Ld	Le	Ln		Ld	Le	Ln
e	60	60	50	e'	55	55	45
a	65	65	55	a'	60	60	50
d	70	70	65	d'	65	65	60
c	73	73	63	c'	68	68	58
b	75	75	65	b'	70	70	60
f	(1)	(1)	(1)	f	(1)	(1)	(1)

(1): Serán en su límite de área los correspondientes a la tipología de zonificación del área con la que colinden / Beren eremuaren mugan, mugakide dituen eremuen zonakatzetara dagozkionak izango dira

Nota: Los objetivos de calidad acústica aplicables en el exterior están referenciados a una altura de 2 m sobre el nivel del suelo y a todas las alturas de la edificación en el exterior de las fachadas con ventana.

Oharra: Kanpoaldean aplikatu daitezkeen kalitate akustikoko helburuak lurretik 2 metroko garaiera neurtuko dira; leihodun fatxadetan kanpoko aldean, berriz, eraikinaren altuera guztietan neurtuko dira.



## 5 Identifikazioa, karakterizazio eta inpaktuen balorazioa

### 5.1 PLANAREN HELBURUEN INGURUMEN-ONDORIO POSIBLEEN ANALISIA

Iruña Oka Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Berrikuspenaren ingurumen-ebaluazioaren fase honetan, HAPOaren idazketarako Planaren funtsezko helburuen eta planifikazio-agirien eta indarreko arautegiaren azterketa dela eta ezarritako ingurumen-babesaren helburuen arteko adostasuna baieztatu nahi da (agiri honen 3 atala ikusi).

Era berean, Plan Orokorrak proposatutako ereduaren aplikazioak lurraldearen ingurumen- eta estrategia-elementuen gainean dituen ondorioak aztertzea beste helburu bat da.

Hau guztia ez da oztopoa Iruña Okako HAPOaren garapenetik eratorritako Plan Bereziek edo Plan Partzialek proposamen zehatzen ebaluazioa zehatzagoa izateko (horiek egungoa baino definizio maila handiagoarekin ezarritakoak).

Halaber, etorkizunean, Plan Okorrratik eratorritako jarduketak gauzatuko direnean, hauek Ingurumen-Eragin Ebaluazio prozedura arautu baten pean jarriko dira, ingurumen-organo eskudunak horrela ezartzen badu edo indarreko arautegiak horrela ezartzen badu (bai estatala *abenduak 5eko 9/2018 Legegintzako Errege Dekretua, Proiektuen Ingurumen Inpaktua Ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzekoa, eta abenduak 9ko 21/2013 Legea, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean eragiten dituzten ondorioen ebaluazioari buruzkoa*, bai autonomikoa *ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua (211/2012 Dekretuak indargabetu zuena)*, eta *Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legea*).

Atal honetan ingurumenean eragina duten Hiriko Plan Orokorraren helburuen aurretiazko ebaluazioa egiten da. Horretarako, lehenik eta behin ingurumenean eragin nabarmena duten definitutako helburu horien selekzioa egiten da. Horretarako, Planaren helburuen arteko eta hurrengo aspektuen arteko lotura egiten da:

- Lurzoruaren erabilerak;
- Ingurumen-kudeaketa;
- Ingurumen-formakuntza eta -dibulgazioa;
- Natura- eta kultura-ondarea: habitatak, espezieak, paisaiak, arkeologia-hondakinak.

Hiri-planteamendu berriaren helburuen identifikazio prozesu honek geroko ebaluazio faseetan aurrera egitea ahalbidetzen du, Planak dituen helburu desberdinen artean ingurumen-eragin nabarmena sortu ahal duten horiek aukeratuz, HAPOak batzen dituen jarduketa zehatzak garatzen dituen jarduketak kontsideratuz. Guzti horrek geroko ebaluazio faseetan hurrengoa ahalbidetuko du:



- Planaren proposamen zehatzen ingurumen-eragin potentziala ebaluatzea.
- Helburu eta ingurumen-ahalmen eta mugaketen arteko koherentzia ezartzea
- Planaren jarraipenerako adierazle egokiak ezartzea.

Horrela, Planaren helburuen identifikazio-matrizea sortu da ingurumen-eragin nabarmen potentziala duten helburu horiek aukeratzeko. Era berean, esan behar da ingurumen-eragin nabarmena duten Planaren helburuen identifikaziorako hurrengo matrizean ondorengo nomenklatura erabiltzen dela:

- Helburuak edo eratorritako egintzak ingurumen-kostuak sortzen dituzten jarduketak barne izan ahal ditu (**K**).
- Helburuak edo eratorritako egintzak ingurumen-onurak sortzen dituzten jarduketak barne izan ahal ditu (**I**).
- Helburuak edo eratorritako egintzak ingurumen-kostuak eta onurak sortu ahal ditu (**K/I**).
- Helburuaren edo eratorritako egintzaren ingurumen-kostua edo onura neutroa edo oso baxua da (**0**).
- Identifikatutako ingurumen-kostu edo onura nabarmena da (**Nabarmena**).





Helburu eta akzio aurretiko identifikazioaren eragin nabarmenarekin ingurumenean					
UDALEKO PLAN OROKORRAREN HELBURUAK	INGURUMEN ALDEAK				
	Lurzoru erabilera eta lurralde antolamenduari erlazioa	Ingurumen kudeaketarekin erlazioa	Ingurumen formakuntzarekin erlazioa	Ondare natural edota kulturalarekiko harremana	Ingurumen koste/irabaziak
<b>1. Helburu orokorrak</b>					
Bigarren mailako udalerrri baten konbertsioa, izaera erakargarriarekin, Araba Erdialdeko lurralde eskemaren barruan.	C/B	C	0	C/B	SIG
Zuzkidura eta zerbitzu publikoen estandarren hobekuntza, azpimarratuz udalerriaz gaindiko izaera duten ekipamendu publikoak.	C/B	C/B	B	C/B	SIG
Espazial eta motaren arabera dibertsifikatutako bizitegi eskaintza.	C/B	C/B	0	C/B	SIG
Lurzoruen aurreikuspena Ekonomia-jarduerentzat. Lurzoru Urbanizagarri berriaren sailkapena Ekonomia-jarduerentzat.	C/B	C/B	0	C/B	SIG
Hiri kokapena positiboki kualifikatzen duten prozesu guztien sustapena.	C/B	B	0	C/B	0
Hiri nukleotan dauden industrien lekualdaketa errepide nazionalako Hegoaldean dauden Industrialde berrietara, irisgarritasuna hobetuz, jarduera hauek	B	C/B	B	B	SIG



Helburu eta akzio aurretiko identifikazioaren eragin nabarmenarekin ingurumenean					
UDALEKO PLAN OROKORRAREN HELBURUAK	INGURUMEN ALDEAK				
	Lurzoru erabilera eta lurralde antolamendurekin erlazioa	Ingurumen kudeaketarekin erlazioa	Ingurumen formakuntzarekin erlazioa	Ondare natural edota kulturalarekiko harremana	Ingurumen koste/irabaziak
administrazio batzarretan sortutako eragozpenak saihestuz					
Batzuetan eraikinen birgaitzea eta beste batzuetan zaharberritzeak.	B	C/B	B	B	SIG
Merkataritza bultzatu Langraiz Oka erdialde zonaldeko birgaitzean.	C/B	0	0	0	0
Hiriaren bide bilbea aberastu hiri erabileren integrazioan.	B	0	0	0	SIG
Bilbean garatzen diren jardueren eta gune libreen garapena.	B	B	B	C/B	SIG
<p><i>Irakurbidea: Helburuak edo eratorritako egintzak ingurumen-kostuak sortzen dituzten jarduketak barne izan ahal ditu (K). Helburuak edo eratorritako egintzak ingurumen-onurak sortzen dituzten jarduketak barne izan ahal ditu (I). Helburuak edo eratorritako egintzak ingurumen-kostuak eta onurak sortu ahal ditu (K/I). Helburuaren edo eratorritako egintzaren ingurumen-kostua edo onura neutroa edo oso baxua da (0). Identifikatutako ingurumen-kostu edo onura nabarmena da (Nabarmena).</i></p>					



Ondoren, aurreko atalean ingurumen-kostu/onura nabarmen gisa identifikatutako Planaren helburuek integrazio ingurumen-printzipioak era egokian aurreikusten duten egiaztatuko da, integrazio ingurumen-printzipio gisa indarreko arautegitik eta beste plangintza-tresnetatik eratorritako ingurumen-helburu eta lehentasunak ulertuz.

Horretarako ingurumenean eragina duten helburuen aurretiazko ebaluazio-matrizea sortzen da. Horretan ingurumen-jasangarritasun hastapenak eta lehen aukeratutako helburu eta egintza estrategikoak aurre ematen dira, inguruan izan ahal duten eragina kontuan izanik.

Ebaluazio hau era sistematikoan egiteko, Ingurumen-Agintaritzen Sareak gomendatutako prozedurak matrizearen aurreko hurrengo taulan jasotzen den erreferentzia-kontu zerrenda bat proposatzen du: Plan Orokorraren Proposamenean Ingurumen-Ebaluaziorako Kontuak.

Matrize baten erabilerak identifikatutako ingurumen-eragin nabariak ebaluatzea ahalbidetuko du:

- Helburuak edo horren lorpenagatik eratorritako egintzek eragin nabarmen onuragarria / positiboa izan ahal dute (+).
- Helburuak edo horren lorpenagatik eratorritako egintzek eragin nabarmen kaltegarria / negatiboa izan ahal dute (-).
- Helburuak edo horren lorpenagatik eratorritako egintzek ez dute loturarik edo ez dute eragin nabarmenik (**0**).
- Helburutik edo horren lorpenagatik eratorritako egintzetatik eratorritako eragina ezin da aurretik sumatu (**?**).



### Ingurumen iraunkortasunaren oinarriak. HAPOaren ingurumen ebaluaketa egiteko gaiak

#### 1. Energia berriztagarrien murrizketa

Baliabide berriztagarrien kontsumo txikiagoa  
Baliabide berriztagarrien lehentasunezko erabilera  
Material birziklatu eta berrerabiliren lehentasunezko erabilera  
Garraio publikoen lehentasunezko aukera  
Eraginkortasun energetikoa diseinu eta teknologietan sustatu

#### 2. Baliabide berriztagarrien erabilera eta birsorkuntza gaitasunaren barruan

Baliabide naturalak ez ustiatu  
Baliabide natural degradatuen baliabideak birsortu

#### 3. Substantzia arriskutsuen eta hondakinen erabilera eta kudeaketa

Material toxikoen erabilera txikiagotu  
Hondakin ekoizpena txikiagotu  
Funtsezko baliabideen kontsumo baxuko teknologien bultzadura  
Hondakinen kudeaketa arduratsua

#### 4. Baliabide naturalen mantentze eta hobekuntza: habitatak, espezieak, paisaiak

Habitat eta espezie babestuen kaltea saihestu  
Habitaten hobekuntza sustatu  
Ondare kulturalaren ezagutza eta gozamina sustatu  
Paisaia mantendu, paisai kulturala barne (horma, hesi, ubide...).



Ingurumen iraunkortasunaren oinarriak. HAPOaren ingurumen ebaluaketa egiteko gaiak
<b>5. Ur eta edafiko erabilera kantitatea mantendu eta hobetu</b>
Lurzoruen isurketak txikitu Higadura sortzen dituzten jarduerak saihestu Espazio kutsatuen birsorkuntza jarduerak sustatu Ur isurketak txikitu Nekazaritza-lurra babestea, ekoizpen-ahalmen txikiena duten eremuak eta balio estrategiko handia dutenak bereiziz.
<b>6. Ondare historiko eta kulturalaren errekurtsioak mantendu eta hobetu</b>
Ondare historiko eta kulturalaren afekzioak saihestu Ondare elementuak proiektuetan sartu
<b>7. Tokiko ingurunearen kalitatea mantendu eta hobetu</b>
Emisio atmosferikoak txikitu Antolamenduari zarata faktorea sartu
<b>8. Atmosferaren babesa</b>
Erregai fosilen kontsumoa txikiagotu Efizientzia energetikoaren hobekuntza CO <sub>2</sub> estoldak sortu Aukerako energiak bultzatu
<b>9. Ingurumen hezkuntza eta formazioa</b>
Ingurumen-jardunbideei buruzko konpromisoak bultzatu Proiektuen garapenetan ingurumen formazioa sartu
<b>10. Parte-hartze publikoaren bultzada, garapen iraunkorraren erabakiei dagokionez</b>
Publikoaren parte-hartzea sustatu erabaketan



Helburuen eta akzioen ebaluaketa taula, ingurumen eraginagatik sortutakoak										
PLANAREN HELBURUAK	INGURUMEN IRAUNKORTASUNAREN OINARRIAK									
	1. Energia berriztagarri en murrizketa	2. Balio berriztagarrien erabil.eta birsorkuntza- gaitasunaren barruan	3. Substantzia arriskutsuen eta hondakinen erabilera eta kudeaketa	4. Baliab. Naturalen hobekuntza	5. Baliabide hobekuntza: u ra eta lurzorua	6. Ondare historikoaren baliabideen hobekuntza	7. Tokiko ingurumenar en hobekuntza	8. Atmosferaren babesa	9. Ingurumen hezkuntza eta formazioa	10. Parte-hartze publikoaren bultzada
Bigarren mailako udalerrri baten konbertsioa, izaera erakargarriarekin, Araba Erdialdeko lurralde eskemaren barruan.	+/-	+/-	+/-	+/-	+/-	0	+/-	+/-	+	+
Zuzkidura eta zerbitzu publikoen estandarren hobekuntza, azpimarratuz udalerriaz gaindiko izaera duten ekipamendu publikoak.	+	+	+	+	+	0	+	+	0	0
Espazial eta motaren arabera dibertsifikatutako bizitegi eskaintza.	+/-	+/-	+/-	+/-	+/-	+/-	+/-	+/-	0	0
Lurzoruen aurreikuspena Ekonomia-jarduerentzat. Lurzoru Urbanizagarri berriaren sailkapena Ekonomia-jarduerentzat.	-	-	-	-	-	0	+/-	+/-	0	0
Hiri nukleotik gertuko industrien lekualdaketa errepide nacional hegoaldeko lurzoru industrial berri eremu batzuetara eta administrazio batzarretan sortzen dituzten eragozpenak saihestuz.	+/-	+/-	+/-	+/-	+/-	0	+/-	+/-	0	0



Helburuen eta akzioen ebaluaketa taula, ingurumen eraginagatik sortutakoak										
PLANAREN HELBURUAK	INGURUMEN IRAUNKORTASUNAREN OINARRIAK									
	1. Energia berriztagarrien murrizketa	2. Balio berriztagarrien erabil. eta birsorkuntza-gaitasunaren barruan	3. Substantzia arriskutsuen eta hondakinen erabilera eta kudeaketa	4. Baliab. Naturalen hobekuntza	5. Baliabide hobekuntza eta lurzorua	6. Ondare historikoaren baliabideen hobekuntza	7. Tokiko ingurumenaren hobekuntza	8. Atmosferaren babesa	9. Ingurumen hezkuntza eta formazioa	10. Parte-hartze publikoaren bultzada
Batzuetan eraikinen birgaitzea eta beste batzuetan zaharberritzeak.	+/-	+/-	+/-	+/-	+/-	+	+/-	+/-	0	0
Hiriaren bide bilbea aberastu hiri erabileren integrazioan.	+/-	+/-	+/-	+/-	+/-	0	+/-	+/-	0	0
Bilbean garatzen diren jardueren eta gune librearen garapena.	0	0	0	+	+	0	+	0	+	0
Plan Orokorrak ingurumen eta kalitatezko ingurunearen alde egindako apostua, ingurune baten bidezko babesarekin.	+	+	+	+	+	0	+	+	+	0
Abiadura handiko trenbide trazadura berriaren inpaktu berria kontuan hartuz.	-	-	-	-	-	0	-	-	0	0
Parke eolikoaren erabilera zehatzen araudia Badaian, zerbitzuen azpiegitura Zerbitzu Orokorra bezala.	+	+	+	+/-	+	0	+	+	+	0
Hiru aldagaien integrazioa –ingurumena, hidraulikoa eta hirigintzako- ibai ertzeen lurralde antolamenduan eragina dutenak, eraginak Ibai eta erreken Lurralde Plan Sektorialean azpimarratzen dira.	+/-	+/-	+/-	+	+	0	+	+	0	0





Helburuen eta akzioen ebaluaketa taula, ingurumen eraginagatik sortutakoak										
PLANAREN HELBURUAK	INGURUMEN IRAUNKORTASUNAREN OINARRIAK									
	1. Energia berriztagarrien murrizketa	2. Balio berriztagarrien erabilera eta birsorkuntza-gaitasunaren barruan	3. Substantzia arriskutsuen eta hondakinen erabilera eta kudeaketa	4. Baliab. Naturalen hobekuntza	5. Baliabide hobekuntzura eta lurzorua	6. Ondare historikoaren baliabideen hobekuntza	7. Tokiko ingurumenaren hobekuntza	8. Atmosferaren babesa	9. Ingurumen hezkuntza eta formazioa	10. Parte-hartze publikoaren bultzada
Nekazaritza-lurzorua babestea, ekoizpen-ahalmen txikiak duten eremuak eta balio estrategiko handia dutenak bereiziz, horietan nekazaritza-ustategien finkapena indartzen baita eta hegaltia mantentzen eta lehengoratzeko laguntzen duten nekazaritza-jardunbideak lehenesten baitira.	+	+	0	0	+	0	0	0	0	0
Existitzen diren kontraesan egoera batzuen zuzenketak, eraikin batzuen kokapena edo irisgarritasuna bezala, edo beraien gehiegizko erabilpena.	+	+	+	0	0	0	+	0	0	0
Langraiz Etorbidearen hegoaldean sortutako hiri parkea, harrotze bezala erabiltzeko eta Langraizko lehenengo asentamenduaren nortasuna azaltzeko, eta aldi berean antzinako errotaren birtgaitze posiblea.	+	+	+	+	+/-	+	+	+	+	+
Hazkunde batzuen beharra edo egituren zein azpiegiturenak.	+/-	+/-	+/-	+/-	+/-	0	+/-	+/-	0	0
<p><i>Hitzak:</i> 0, ez dauka harremanik edo inpaktu esanguratsua/ +, ahalerazko inpaktu adierazgarria (ikurra positiboa) /-, aurkako inpaktua (ikurra negatiboa) /+/-, ahalerazko inpaktu positiboa eta negatiboa/ (?) ezin sumatu ahal dena</p>										



Ayuntamiento de  
IRUÑA DE OCA

IRUÑA OKAKO  
Udala

**IRUÑA OKAKO HAPO**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPEN AGIRIA



Eraitza hauek ikusiz egiaztatzen da nola orokorrean Iruña Okako HAPOaren idazketarako Berrikuspena horiekin abiatzen den helburuek eragin positibo argia duten ingurumen jasangarritasun hastapenengan. Hala ere, Berrikuspenaren helburuetako baten bat edo horren lorpenagatik eratorritako egintzenetako bat era potentzialean eragin negatibo batzuk sortu ahal izango dituzte jasangarritasun hastapenengan.

Batez ere kaltetuak izango dira mota desberdineko natura-baliabideak (ura, lurzorua, flora edo fauna espezie interesgarriak, etab.), hirigintza-plangintzaren garapenetik eratorritako lurzuro-erabileraren ondorioz, bai bizitegi-erabilerako garapenerako definitutako lurzoru berriengatik, dotazio eta zerbitzuen ezarpenentzat, etab.

Halaber, horien jarduketaren garapenagatik bere inguruan narriadura eta lehengaien kontsumoa eragiten duten ekintzen mantentzetik dauden industria-jarduketak bezala, eragin negatibo potentzial bat eratorriko da. Hala ere, Iruña Okako HAPOaren idazketarako Berrikuspenetik jarduketa hauen mantenimendua proposatzen da, baina eragin-neurri zuzentzaile egokiak aplikatuz.

Eragin negatiboa ere izango dute sustantzia arriskutsuen erabilera suposatzen duten edo hondakinen sorreraren areagotzea inplikatzeko duten helburuek edo horietatik eratorritako egintzek.

Dena den, eta ondorio moduan, esan daiteke Iruña Okako HAPOaren idazketarako Berrikusketak dituen helburuak, ia guztiak, aipatutako jasangarritasun-hastapenekin integratzen direla.

## 5.2 PLANEAN AGERTZEN DIREN EFEKTU NAGUSIEN IDENTIFIKAZIOA, KARAKTERIZAZIOA ETA BALORAZIOA

### 5.2.1 EBALUAZIO OROKORRA

Abenduak 9ko ingurumen ebaluaketari buruzko 21/2013 Legearen IV.eranskinean ezarritakoarekin bat etorritik, ingurumen estrategikoaren ikerketaren edukian ezartzen diren legean, agiriak ingurumenaren efektu posibleak sartu behar ditu. Atalean Planetik ondorioztatutako efektuak ondorioztatzen dira, Iruña Okako udalerraren ingurumen elementuetan eragin adierazgarriekin.

Balorazio hau egin ahal izateko araudian ezarritako erabilerak kontuan hartzen dira (21/2013 Legea; VI Eranskina):

- a) Ondorio adierazgarria: Ingurumenaren, natura-baliabideen edo haien funtsezko funtzionamendu-prozesuen aldaketa da, etorkizunean haietan eragin hautemangarriak eragingo dituen edo eragin ditzakeena.



- b) Ondorio positiboa: Bai komunitate tekniko eta zientifikoak, bai herritarrek, oro har, onuragarritzat jotzen dutena, kostuen eta onura orokorren azterketa osoaren eta ekintzaren ondorioen testuinguruan.
- c) Ondorio negatiboa: Balio naturala eta estetiko-kulturala, paisaia-balioa edo produktibitate ekologikoa galtzea dakarrena, edota kutsaduraren zein higaduraren kalteak eta gainerako ingurumen-arriskuak areagotzen dituena, toki jakin baten egitura ekologiko geografikoarekin eta izaerarekin bat ez datozela.
- d) Ondorio zuzena: Ingurumen-alderdiren batean berehalako eragina duena.
- e) Zeharkako ondorioa: Interdependentzian, edo, oro har, ingurumen-sektore batek beste batekin duen erlazioan, berehalako eragina duena.
- f) Ondorio bakuna: Ingurumeneko osagai bakarrean eragina duena, edo banakako ekintza-modua duena, bestelako eraginik sortu gabe, ez metaketan, ez sinergian.
- g) Metatze-ondorioa: Eragilearen ekintza denboran luzatzearen ondorioz, larritasuna pixkanaka areagotzen duena, deuseztatzeko mekanismoek ez baitute kaltea eragiten duen eragilearen hazkundearen pareko eraginkortasunik.
- h) Ondorio sinergikoa: Hainbat eragileren ekintzek batera gertakari banakakoek baino ingurumen-eragin handiagoa dakartenean sortzen dena. Halaber, efektu baten ekintza-modua dela-eta, denborarekin beste ondorio batzuk agertzea eragiten badu, mota honen barruan sartzen da.
- i) Ondorio iraunkorra: Tokiko erlazio ekologikoen edo ingurumen-erlazioen sistemaren egituran edo funtzioan eragina duten ezaugarrien alterazioa, denbora-tarte zehaztugabearen irauten duena.
- j) Aldi baterako ondorioa: Denboran irauten ez duen alterazioa, zehaztu edo aurreikus daitekeen denbora-tartean gertatzen dena.
- k) Ondorio itzulgarria: Inguruak, segida ekologikoaren prozesu naturalen funtzionamenduaren ondorioz eta inguruaren autoarazketa-mekanismoei esker, epe ertainean eta modu neurgarrian asimilatzeko moduko alterazioa dakarrena.
- l) Ondorio itzulezina: Ekintza eragilearen aurreko egoerara itzultzeko ezintasuna dakarrena, edo lehengoratzeko arazo oso larriak dituena.
- m) Ondorio barreskuragarria: Ekintza naturalaren bidez edo gizakien ekintzaren bitartez ezaba daitekeen alterazioa, eta, halaber, ordeztu daitekeen alterazioa dakarrena.



- n) Ondorio barreskuraezina: Lehengoratu edo konpondu ezin den alterazioa; naturaren ekintzaren bidez edota gizakien ekintzaren bitartez.
- o) Aldizkako ondorioa: Etenka azaltzen den ekintza-moduaren bidez ageri den eragina, denboran jarraipena duena.
- p) Ohiz kanpoko ondorioa: Denboran zehar aurreikusi ezin den moduan ageri den eragina, gertatzeko probabilitateen arabera ebaluatu beharreko alterazioak dakartzana, batez ere aldizkakoak ez direnean, ez eta etengabeak ere, baina ohiz kanpoko larritasuna eragiten dutenean.
- q) Ondorio jarraitua: Denboran etenik gabe ageri den alterazioa, metatua edo metatu gabea.
- r) Ondorio etena: Alterazio gorabeheratsuen bidez edo iraupenaren aldetik noizbehinkakoak direnen bidez ageri den eragina.
- s) Ingurumen-inpaktu bateragarria: ardura amaitu eta berehala berreskuratzen dena; ez du prebentzio-neurririk edo neurri zuzentzailerik behar.
- t) Ingurumen-inpaktu arina: Prebentzio-neurri edo neurri zuzentzaile trinkorik behar ez duten lehengoratzeko-prozesuak, hasierako ingurumen-baldintzak berreskuratzeko denbora apur bat behar izaten dutenak.
- u) Ingurumen-inpaktu larria: Ingurumen-baldintzak berreskuratzeko prebentzio neurriak edo neurri zuzentzaileak egokitzea ezinbesteko duten egoerak, eta, neurri horiek hartuta ere, berreskuratze-denbora luzea behar dutenak.
- v) Ingurumen-inpaktu kritikoa: Atalase onargarria baino magnitude handiagoa duena. Ingurumen-baldintzen kalitatea galtzen doa etengabe, eta ez dago lehengoratzeko aukerarik, ez eta babesteko edo lehengoratzeko neurriak hartuta ere.
- w) Hondar-inpaktua: natura-balioen galerak eta alterazioak, dagokien kopuru, azalera, kalitate, egitura eta funtzioak kuantifikatuta, har daitezkeen prebentzio-neurri eta neurri zuzentzaile guztiak in situ aplikatu ondoren, saihestezinak eta konponezinak direnak.
- x) Arrisku sismikoa: Lurzoruaren mugimendua (intentsitatea, azelerazioa, eta abar) neurtzen duen parametro jakin baten balioa denboraldi zehatz batean gainditzeko arriskua.



#### **5.2.1.1 Airearen kalitateari buruz aurreikusten diren ingurumen-efektuak**

Epe laburrera edo epe ertainera, Iruña Okako etxebizitza beharrak betetzeko aurreikusten diren bizitegi garapen berriak, jarduera industrial, birgaitzek eta hiri nukleoan finkapenekin batera, zein udalerrian aurreikusten diren zuzkidura berriak – haietariko askok eskualde erabilpenerako-, udalerrri inguruan kalitate airearen hondatzea suposatuko dute.

Honen arrazoa alde batetik, etxebizitza kopuruaren hazkundera kontsumo energetikoaren handitzea suposatuko du etxebizitzak ur beroaz eta berokuntzaz hornitzeko, atmosferaren gaineko kontsumoaren ondorioekin.

Halaber, garapen berri hauetan ezartzen den biztanleri berria beraien desplazamenduetan bereziki ibilgailu pribatua erabiliko du. Hauei inguruko udalerrien biztanleen ibilgailuak gehituko zaie Iruña Okako eskualdeko zuzkidurak erabiltzeko. Ondorioz, errepide ezberdinetatik ibiliko diren ibilgailu kopuruan eragina izango du, harremana daukan kalitate atmosferikoa hondatuz, ibilgailuen errekuntza gasengatik zein trafiko hazkundeagatik sortu den zarata mailaren hazkundeagatik.

Beste alde batetik, Iruña Okan garatzen diren jarduera industrial berriak, hirigintza plangintzaren berrikusketa proposameneren ondorioz, kalitate atmosferikoa hondatuko du industriaren emisioengatik.

Hala eta guztiz ere, hobekuntza konstantea eta ur beroa zein berogailuen etxeko instalazioen eta ibilgailuen efizientzia energetikoa, ezin dira alde batera utzi. Industria prozeduretan erabilgarri dauden teknologi hobekuntzak ere ezin dira ahaztu, atmosferarentzat kutsagarriak diren emisioak murrizten dituztelako.

Halaber, aukerako energien erabilera gero eta gehiago orokortzen ari da, bereziki etxeetan erabiltzeko. Kasu honetan ezin dugu alde batera utzi Badaiaiko parke eolikoaren kokapena, bere mugaketak Iruña Okako udalerrian eragina du, EAEko Energia Eolikoaren LPSak azpimarratzen duen bezala.

Gainera, hirigintza plangintza berriak definitzen duen hirigintza arauditik, bizitegi, industria eta zuzkidura garapenak ezarritako baldintzek betebeharrak ditu, bere efizientzia energetikoa bermatzeko eta airearen kutsadura murrizteko.

Azkenik, jarduera industrial berriei dagokionez, agirian egiten diren azaleko ebaluaketak ez dira oztopo ondorengo faseetan: instalazio bakoitza ezartzerakoan Ingurumen Ebaluaketa Estrategikoaren edota Baimendutako Ingurumen Integratua prozedura bat beharrezkoa bilatzeko, eta indarrean dagoen araudiak honela zehaztekoan, ekintzailea prozedura bakoitzean dagokion ingurumen sailak igorritako erabakian.

Honela, eta azpimarratutakoan oinarrituz, inpaktua nabarmengarria izan daitekeela esan ahal dela, prebentzio neurrien aplikazioa eta energi garbiak orokortuz eta



hirigintza araudiak ezarritako baldintzen betebeharrekin batera, inpaktua bateragarria bezala definitu daiteke.

### 5.2.1.2 Lurzoruaren gainean aurreikusten diren ingurumen efektuak

Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren zehaztapenen arabera, nekazaritza-sektorearen eraginaren ebaluazioak kontuan hartu behar du nekazaritza-lurzoruaren okupazioa, bereziki balio agrologiko handiko lurzoruen, hala nola balio estrategiko handiko lurzoruen (BEH) eta trantsizioko landa-paisaiarena (TLP).

2.6.3 atalean, indarreko arau subsidiarioetan araututako lurzoru urbanizaezinaren azalera HAPOk proposatutako eredu berriarekin konparatuta kuantifikatu zen. Kasu honetan, nekazaritza-balioa duten lurzoru zentratuta, honako balio hauek lortzen dira:

<b>HAPO-ko LEU-aren KONPARAKETA TAULA/AASS98 – NEKAZARITZA ERABILERA</b>			
<i>Kategoria</i>	<i>m2 (HAPO)</i>	<i>m2 (AASS98)</i>	<i>m2 DIFERENTZIA</i>
<b>UDALERRIAREN EREMUA GUZTIRA</b>	53.085.206		
<b>J24 / Trantsizioko Landa Paisaia</b>	6.418.997	7.333.705	-914.708
<b>J14/ Balio Estrategiko Handia</b>	4.258.833	4.703.737	-444.904
<b>NEKAZARITZA GUZTIRA</b>	<b>10.677.830</b>	<b>12.037.442</b>	<b>-1.359.612</b>

Horren arabera, horrelako lurzoru HAPOak mantentzea proposatzen duen azalera Hiri Antolaketako Arauetan aurreikusitakoa baino 136 ha txikiagoa da; aldaketaren %67 TLP-ri dagokio, eta gainerako %33 BEH-lurzoruei.

Halaber, bi eredu artean dagoen Erabilera Publikoko Mendien azaleraren aldaketa kuantifikatzen da, eta HAPOk proposatutako ereduak lurzoru urbanizaezinerako onura publikoko 2ha berreskura ditzakeela egiaztatzen da, batez ere SAU-N1 sektore zaharraren desklasifikazioaren ondorioz.

<b>BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK</b>			
	<b>m2 (HAPO)</b>	<b>m2 (AASS98)</b>	<b>m2 DIFERENTZIA</b>
<b>OPM / Onura Publikoko Mendiak</b>	28.931.483	28.911.046	20.437

Bestalde, proposatutako garapen berriek gaur egungo lurzoru urbanizaezinaren okupazio-tauletan azaldu bezala (ikusi 2.6.3 atala), eta balio agrologikoa duten lurzoru zentratuta, honako hauek dira okupatutako azalera, eremuka banakatuta:

AZALERAN ERAGINA DUTEN BIZITEGI EREMUAK					
KATEGORIA (HAPO/LPS)	AOP N5	AOP N6	AOP N7	AOP N8	AOP V2
<i>EREMUAREN AZALERA m2</i>	33.438	33.936	43.455	990	8.734
<b>J24</b> / Trantsizioko Landa Paisaia (TLP)	-	-	29.050	-	-
<b>J14</b> / Balio Estrategiko Handia (BEH)	-	-	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>	-	-	-29.050	-	-

LEU AZALERA, EREMU INDUSTRIALEZ ETA SISTEMA OROKORREZ HUNKITUA					
KATEGORIA (HAPO/LPS)	AOP I3	AOP I2	AOS- SG1	AOS- SG2	AOP- SG3
<i>EREMUAREN AZALERA m2</i>	530.399	437.397	301.589	185.100	3.356
<b>J24</b> / Trantsizioko Landa Paisaia (TLP)	302.341	348.621	-	77.077	-
<b>J14</b> / Balio Estrategiko Handia (BEH)	179.669	-	254.117	5.464	-
<b>GUZTIRA</b>	-482.010	-348.621	-254.117	-82.541	-

Ondoren afekzioen balorazio zehatzagoa egiten bada ere, kuantitatiboki honako hau ondoriozta daiteke

- Nekazaritza lurzoruen okupazioa 119,6 ha -koa da, 75,7 ha (%63,3) TLS-koak dira eta 43,9ha (%36.7) BEH lurzorukoak.
- Okupazio ia osoa industria-eremuetan eta sistema orokorretan gertatzen da, nahiz eta zati handi bat udalaz gaindiko antolamendu-eremuei dagokien, estatuko eta autonomia-erkidegoko lurralde-plangintzatik eratorriak, kasu honetan garraio-estrategiei lotuta. Bereziki:
  - Bizitegi eremuen okupazioa (2,9ha-%2,4): Bakarrik AOP N7 Eskolak, guztira TPL.
  - Industria-eremuetako okupazioa (83,1 ha -%69,5): AOP I2 eta AOP I3, 65,1ha TLP eta 18 ha hegazti-lurzor, azken horiek AOP I3 Subillabide eremuan soilik kontzentratuta
  - Sistema orokorretako okupazioa (33,7 ha-%28.2): AOS SG1 (Jundizko geltoki intermodala) eta AOS SG2 (AHT trazadura) dira, biak udalaz gaindikoak, eta horietan kontzentratzen da hegazti-lurren okupazio handiena (25,9ha) eta TLP 7,8ha soilik.

Plangintza berriaren ondoriozko sektore-eragina ebaluatzeko hiru aldagaiak ondorengoak dira:





1. *Lurzoruaren antolamendu-kategoriaren arabeko eragina, zehazki balio estrategiko handiko azalerak eta onura publikoko mendiak adierazita.*

Aurreko tauletan Planagatik eragina izan duten Antolamendu Xehatuko eremu ezbedinez hunkitutako LEUko azalera azpimarratzen da, kategoria ezberdinen arabera.

Taulan ikusten den bezala Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza eta Abeltzaintzako lurzoruen hiru eremuetan eragina daukate, haietariko bik, AOS-SG1 Terminal Intermodala eta AOS-SG2 AHT trazadura, administrazio sektorialen menpe daude.

Geltoki intermodalaren kasuan, Vitoria-Gasteiz zeharkatzen duen AHT trazadura berrira egokitzen da, Iruña Oka eta Vitoria-Gasteizko udalerrietan eta Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren arabera. LPP hau bere aldaketaren bidez, geltokiaren kokapen zehatza definitzen du eta AVEko nekazaritza lurzoria baliokidea den azalaren desklasifikazioarekin orekatuko da, bai bakarrik zein taldea bezala eta udalerrri bien artean.

Zentsu honetan Vitoria-Gasteizko HAPOaren Aurrerapena idatzi aurreko proposamenetan, hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriko birdentsifikazioa eskatzen da, beraz aurreikusi daiteke AVEKO birsailkapen hauek inguruneke udalerriren batean gerta litekeela.

Beste alde batetik, AOP-13 Subillabide Nekazaritza eta Abeltzaintza lurzoruari bere osotasunean eragina dauka, azalera honen erdia baino zertxobait gutxiago Balio Estrategiko handiko lurzoria izanik.

Gasteizko Jundiz industrialdearen, egungo Subillabide poligonoaren eta trenbidearen ipar-mendebaldeko mugaren artean industrialde hau dago, AHTaren etorrerarekin herrian zabaltzen den garapen aukera aprobetxatu da eta salgaien terminal intermodalaren inguruko jarduera ekonomikoekin, beraz, justifikatutzat jotzen da aldeko inguruabar horiek aprobetxatzea eta Subillabide IIIn pisu logistiko handia duten jarduera ekonomikoetarako lurzoru bat planteatzea. Ipar-ekialdean trenbide lerroek osatzen dituzten mugek, eta ipar-hegoaldean Jundizko muinoa, industrialdearentzat hedapen euskarria suposatzen dute.

Hunkitutako gainontzeko nekazaritza eta abeltzaintza lurzoria AOP I2-Los Llanosen eta AOP-N7an kokatua dago, zati handi bat landa paisaia eta nekazaritza eta abeltzaintzako intereserako, Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPSaren trantsiziozko landa paisaia eta nekazaritza eta abeltzaintzarako gordeta dagoen eremuan eragina dauka, baina ezinbestekoa da kontuan hartzea.

AOP-I2 eta AOP-I3 kasuetan, Los Llanoseko industrialdeak udalerrian daukan puntu estrategikoa bere garapen ekonomikorako aprobetxatzen du, eta etorkizuneko AHTaren trazaduraz zein N-1 autobideaz mugatua geratzen da. Sektorearen hegoalde eta iparraldeko mugak osatzen dute, etorkizuneko Lurzoru Urbanizaezineko hazkundera saihestuz.



AOP-N7 Iparraldeko Langraiz hiri nukleotik gertu kokatzen da, baso – mendi barbana lurzoruetan eta bereziki nekazaritza- landa paisaiako intereseko lurzoruetan eragina izanda, oin dela hile batzuk Crosseko pistak bezala erabili zirenak eta gaur egin gaur egun erabilerarik gabe eta antropizatuak daudenak.

Onura Publikoko Mendien kasuan, AOP-N1 mendebaldeko Billoda, lurzoru hauetan afekzio txiki bat dauka; eremuan San Kristobal, Itxaroetan eta Mayor kaleak elkar bizitzeko bide berria sortu da, hauek mendebaldeko ertzean ingurune naturalean bukatzen dute, Onura Publikoko Mendiengatik hunkitua, beraz, ibilgailuek gurpilen markak usten dituzte, lurraldea higituz. Beraz, eremuak bat-bateko egoera konpontzea nahi du. Beste alde batetik, Billodasen galdutako OPMen azalera argi eta garbi SAU-N1 ez desklasifikatua dago, hau da, administrazio batzarreko lurzoru publikoak OPMak bezala sartzan dituenak.

2. *Planak eragindako ustiategien bideragarritasun ekonomikoan duen eragina.*

AOP I2 AVE-lurzoruak eragindako eremu bakarra da, non hura mugatzeko eskumenak udalarenak diren. Lurzoru horretan erregistratutako lursailak lehorreko laborantzarako erabiltzen dira, eta sektorea mugatzeko orduan, partzelarioa hartu da kontuan, horrenbestez, partzela osoak sartzeko irizpidea aplikatu da, zatitzearen ondorioz lursailaren hondar txiki bat kanpoan utzi behar zen kasuetan, eta partzelaren "hondarrak" nekazaritza-ustiategi gisa bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko behar adinakoak direnean bakarrik baztertu dira.

3. *Ustiategiei lotutako eraikinen eta azpiegituren gaineko eragina.*

Ustiapenarekin harremana daukaten eraikuntza bakarrak AOP-I3an kokatuak daudenak dira; sektorearen ekialdean nekazaritza-ustiategi bati lotutako etxebizitza bat dago, nekazaritza-turismoko erabilera bateragarriekin, eta nekazaritza-pabiloi bat. Eraikin horiek industria-eremuaren barruko erabilera bateragarri gisa mantentzen dira, eta Planean dagokion atalean zehazten da eutsi egin behar zaiela eta sektorearen antolamendu xehatua aurre-existentzia horretara egokitu behar dela. Aldi berean, ustiapen agrikolarekin harremana daukaten lurzoruko 20ha sartzendira, gutxi gorabehera hunkitutako ustiapen osoaren %25a suposatuz.

Jarduketa honek jabeen oniritzia du; izan ere, eraikinak eta azpiegiturak finkatzeak eta ustiapenari lotutako nekazaritza-lurzoru gehienak kontserbatzeak jarduera horren bideragarritasun ekonomikoa bermatzen dute.

Azkenik, San Juan Larras, Trespondesen, HAPOak Balio Estrategiko Handiko nekazaritza lurzoruetatik gertu dauden lurzoru industrialen berriztapena planteatzen du, lehenengo sektoreko lurzoru industrialean bihurtuz, aldaketa jarduerak sustatuz eta gertuko erabilera agrologikoen kokapena hobetuz.



### **5.2.1.3 Aurreikus daitezkeen ingurumen-eraginak inguru hidrikoari dagokionez**

Iruña Okako HAPOaren idazketarako AASSen Berrikuspenaren garapenaren ondorioz udalerrian aztergai diren etxebizitzentzako garapen berriek, baita udalerrian ezarriko diren industria-jarduketa berriek ere, kalitatezko eta behar beste ur-horniketa eskatuko dute.

Honela, ur kontsumoaren areagotzeak inguru hidrikoan afekzio bat suposatuko du, baliabide honen kudeaketa beharrezkoa izanik, horniketa bermatu ahal izateko lurralde honen baliabideak zalantzan jarri gabe.

Modu honetan, ur-kontsumoaren hazkundeak ingurune hidrikoaren gainean afekzio bat suposatuko du, baliabide honen kudeaketa efizientea beharrezkoa izanik hornidura bermatuz, lurraldearen baliabideak zalantzan jarri barik.

Beste alde batetik, erabilera berri hauek hondakin-urak sortzen dituzte, araztu behar dira ahalik eta azkarren Iruña Okako udalerrriaren ibilguak ez kutsatzeko, eta bereziki, Zadorra ibaia eta bere hurbileko ingurunea.

Aipatutakoa kontuan izanda, inguru honen baliabide hidrikoen afekzio posible bat ikusten da, bai horniketarako beharrezkoa den emari-galeragatik, bai hondakin-uren garbiketa desegokiaren ondoriozko baliabide hidrikoen kutsadura potentzialagatik. Hala ere, udalerrriak horniketa eta garbiketa instalazio egokiak izango ditu eta, beraz, inguru hidrikoaren gaineko eraginak ez dira nabarmenak izango.

Hala ere, hondakinezko eran ager litezkeen arazo edo gatazkak konpontzeko, horniketarako uren eta saneamendu- eta garbiketa-sareen erakunde kudeatzaileek egoera hauetarako jokabide-protokolo egokiak izango dituzte, eta beraz, eragin hori bateragarritzat hartzen da.

### **5.2.1.4 Landareen eta animalien gainean aurreikusten diren ingurumen efektuak**

Iruña Okako udalerrriaren egungo landaredi analisisian, Iruña Okako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren hirigintza informazioagatik egin dena, ondorioztatu da udalerrian dauden landaredi nagusienak eta kontserbatzeko interes handiena dutenak ondorengoak direla: pagadiak, artadiak, garrigek, zurzuridiek, haltzadiak, erkameztiek, pinuek eta baso alubialek, besteak beste. Azpimarragarriak dira ondo kontserbatu diren tokiko basoek, bereziki Badaiaiko Mendilerroetan garrigek eta Gasteizko Mendietan erkameztiek (haritz karraskaria edo erkametz, *Quercus faginea*).

Zurbeltzen formakuntzan garrantzi berezia daukate (*Quercus ilex* subsp. *rotundifolia*), garangorriarekin (*Arbutus unedo*), gartxu hostozabal (*Phillyrea latifolia*), kotoneaster (*Amelanchier ovalis*), ipar-orrea (*Juniperus communis*; *Junniperus oxycedrus*), sabina feniziar (*Juniperus phoenicea*), erromero (*Rosmarinus officinalis*), izpiliku (*Lavandula latifolia*), ezkai (*Thymus vulgaris*), etb.



Interes handiko landarediak babesteko asmoz, Iruña Okako Hiria Antolatzeko Plan Orokorrak aipatutako Lurzoru Urbanizaezin kategoriaren barruan sartzen ditu, aurreko kapitulietan aipatu diren bezala.

Beste alde batetik, landarediaren gaineko afekzioak eman daitezke, lurzoru urbanizaezin berrien garapenerako eta bideen sistema orokorrak proposatzen duten beharrezko urruntze eta zaborra kentze lanen ondorioz. Hala ere, aldaketa hau sortuko den lurraldeetan ez dira baliozko formakuntzarik identifikatu, hortaz inpaktua deigarria kontsideratuko da.

Animaliei dagokionez, babestutako espazio naturalean edo “Zadorra Ibaiko” KBEan (ES2110010) dauden espezieak ondorengoak dira: ibai-kabuxa (arraina; *Saltria fluviatilis*); zaparda (arraina; *Squalius pyrenaicus*); Bisoi Europarra (ugaztuna; *Mustela lutreola*) edo igarabat arrunta (ugaztuna; *Lutra lutra*), bere babesarako kudeaketa plan bereziak daukatenak, Planean erabilera eta garapen murrizketak sartu dira bere kontserbazioa bermatzeko.

Babes ingurune honetaz aparte, Iruña Okan ondorengo fauna aurkitu dezakegu interes eremuetan: Lehentasunezko Banaketa Guneak ondorengo espezieekin: *Ciconia ciconia*, amiamoko zuria; *Falco peregrinus*, belatz handia; *Felis silvestris*, basakatu; *Lacerta lepida*, gardatxo, *Mustela lutreola*, *Rana dalmatina*, baso-igel jauzkaria; Interes bereziko Eremuak ondoregon espezieentzat: *Ixobrychus minutus*, amiltxori txikia, *Lutra lutra*; *Miniopterus schreibersii*, saguzarra; *Mustela lutreola*: *Riparia riparia*, uholde-enara, *Squalius pyrenaicus*; Desitxiratutako puntu ahulak, ondorengo espezieentzat: *Miniopterus schreibersii*, *Aquila chrysaetos*, arrano beltz; *Bubo bubo*, hontz handia, *Ciconiaciconia*; *Circus cyaneus*, mirotz zuria, *Circus pygargus*, mirotz urdin; *Falco peregrinus*, *Gyps fulvus*, sai arrea; *Neophron percnopterus*, sai zuria.

Zehatz mehatz Iruña Okako udal-mugaratean, interes bereziko eremuak daude Mehatxatutako Espezien Euskal Herriko Katalogoan aurkitzen ditugunak: amiltxori txikia (arraroa bezala katalogatua) eta saguzar (kaltebera bezala katalogatua).

Aurretik aipatu den bezala, lurraldearen gain eragin handiena dauzkaten proposamenetan –lurzoru berrien definizioa edo bidearen sistema orokor berriak-, espazioen afekzioak saihestu dira.

Edozein kasuan, lurzoru urbanizagarri berri hauen garapenaren ondorioz, hiri ingurunean bizi den fauna, zaratagatik edo gizakien presentziagatik hunkitua sentitu daiteke.

Hala ere, lurralde bakoitzeko interes handiena daukaten espezie faunatik ugalketa eta hazteko unean operazio zaratatsuak egitea saihestuko da.

Edozein kasuan, faunaren gainean espero den eragina Iruña Okako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren proposamenen ondorioz, negatibo, txikia, tenporala, itzulgarria eta berreskuragarri bezala sailkatuko da, inpaktuaren sailkapen osoarekin bateragarria izanik.



#### 5.2.1.5 Intereseko espazio naturaletan aurreikusitako ingurumen efektuak

Iruña Okako udalerria intereseko hainbat espazio natural dauzka, bai batasun intereseko habitat naturalak zein Natura 2000 sareko espazioak (Zadorra ibaia; KBE ES2110010) eta Onura Publikoko Mendiak, agiriaren laugarren kapituluaren agertu den bezala.

Halaber, babes helburuak, espazio natural babestuak eta arauditik datorren basa espezieak, indarrean dagoen arauditik atera dira, Iruña Okako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren definizioaren proposamenen irizpideen artean udalerriarren balio natural babestu behar direla daude, aurreikusitako erabilerak araudiz eta plangintza on batekin, ahal den neurrian jarduketak dakarten ondorio negatiboak saihestuz.

Hirigintza plangintzaren berrikusketak udal lurzorua bere osotasunean definitzen du lurzoru urbanizazina bezala, babestuta egoteko (bere ingurumen balioarekin –ibilgua-; bere balio naturalagatik ekosistema bezala –KBE, Onura Publikoko Mendiak, habitatak eta intereseko landaredia; bere balio natural, paisajistiko edo bere ingurukoa Arkeologia erreserba-; bere egitura balioagatik –laborantza babesagatik-, azpiegitura eta ekipamenduak babesteko –errepideak, trenbide komunikazioak, azpiegiturak-), lurzoru urbanizagarria izatekotan intereseko espazio naturalen babesari lagunduko dio.

Kasu honetan, garatzen diren Plan Berezi edo Partzial bakoitzerako, afekzioei buruzko Ingurumen Ebaluaketa zehatza egiten da, espazio naturalei buruz eta beraien balioengatik. Halaber, lurzoru urbanizagarri berri hauetan garatzen diren jarduketak Ingurumen Ebaluaketa arautu edota Ingurumen Integratu baten prozedura jasan behar dute, indarrean dagoen araudiak honela zehazten badu, eta aldi berean Natura 200 Sarearen afekzio ikerketa bat, abenduaren 13koa Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legean ezartzen diren terminoetan eta Natura 2000 Sareko espazioen batean eragina duten proiektuentzat.

Lurzoru urbanizagarri berriak garatuko dira Babestutako Espazio Natural bakarraren gain eragin barik, Iruña Okako udalerrian agertzen dena, adibidez Zadorra ibaiaren (ES2110010) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) bezala.

Edozein kasuan, lurzoru urbanizagarri berriak egungo hiri nukleoen inguruan definitu dira, bide bezala egin diren sistema orokorretan gertatzen den bezala, balio natural falta daukaten zonaldeak eta indarrean dagoen araudiko babes kategorietan agertzen ez direnak. Modu honetan ez dauka eraginik hurrengoetan:

- Inolako interesa ez daukaten landarediak, udalerrian identifikatu direnak, artadiak edo ibaiertzeko landaredia.
- Babestuta ez dagoen Espazio naturala, Legean oinarrituak daudenak.

Hala ere, ondorengo nukleoen inguruan lurzoru urbanizagarri berriak definitu dira: Langraiz Oka, Olabarri eta Tresponte (Billoda izan ezik, bere garapena ez dauka eraginik



habitatean). Batasun intereseko habitat naturalen barnean eta habitat naturalak eta basoko fauna eta flora zaintzeari buruzko kontseiluaren 92/43/CEE Zuzentarauko 1992ko maiatzak 21ean definituak.

Ondorengo kapituluan egindako afekzioen balorazioan, ondorioztatzen da: habitat hauetako garapen berriko okupazioaren portzentajea oso txikia dela Iruña Okako udalerraren gainontzeko habitaten garapenarekin alderatuz.

Gainera, afekzio puntualak oso zehatzak dira eta gaur egun Iparraldearen eta Hegoaldearen artean dagoen hesiaren efektuan ez daukate hazkunde handirik, ezta espezieen fluxu eta migrazioei dagokionez, zonaldearen iragazkortasunaren hazkunderik ere.

Egoera ikusita, lurzoru urbanizagarriak eta bideen sistema orokorrak definitzerakoan, ahal izan den neurrian interes naturaleko espazioetan sartu diren lurzoruen afekzioa saihestu da, ondorioz, naturagatik baliagarriak diren lurzoruak puntu zehatzetan bihurtuz. Neurridun inpaktu da, prebentziozko neurriak, zuzentzaileak eta orekatsuak definituz.

Onura Publiko Mendien azalereko okupazioei dagokionez, udalerrian hiru bakarrik hunkituak dira: (502 zk. "Larcueta", 570 zk. "El Encinal", eta zk. 571 "Monte Arriba"), neurridun inpaktua daukate Onura Publikoko katalogoan dauden mendietan, baina eragina daukate: prebentziozko neurrietan, zuzentzaileetan eta orekatsuetan, zein dagokion sailak ezartzen duen eta ahal den neurrian lurraldeen afekzioak murriztuko dituzte.

Martxoaren 26ko Araba Lurralde Historikoaren Mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauak ezartzen duen bezala, Udalak Onura Publikoko Mendien afekzio tramitei hasiera emango die, eta indarrean dagoen araudian azaldutako zehaztapen guztiak beteko dira:

*"14.artikulua Herri jabariko mendien araubidea*

*3.- "Herri jabariari lotzea, mendi osoa edo zati bat Herri erabilerako katalogoan sartzea, landa finka berriak gehitzea edo erakunde beraren mendiak taldekatzea Arabako Foru Aldundiaren erabakiaren bidez gertatuko da, titularra den herri erakundeak eskatuta edo ofizioz. Kasu horretan, bidezkoa izango da erakunde titularrak 4.2 artikuluan aipatzen den txostena egitea. Prozedura berdinari jarraituko zaio, lotura ezerezteko edo katalogotik osorik edo zati batean ateratzeko."*

#### **5.2.1.6 Kultura Ondarean aurreikusi daitezkeen efektuak**

Iruña Okako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren garapenak eragin positiboa izango du Iruña Okako Kultura Ondare elementuen gainean, hala ere, bere hirigintza plangintza definizioaren lehenengo faseetatik bere helburuan artean hurrengoak daude:



- Ondare arkitektonikoan zein arkeologikoan sailkapena egiterako orduan irizpide multzo bat ezartzen da: definitzeko irizpideak, ondasunak mugatu, kultura balorazioaren irizpideak eta jarduketa eta erabilerei buruzko irizpideak.
- Langraiz Etorbidearen hegoaldean hiri parke baten sorrera, harrotze bezala funtzionatzeko eta Langraizko lehenengo asentamenduaren hondakin arkeologikoen aztarnekin nortasuna lortuz.
- Ondare arkitektoniko zein ondare arkeologikorako, Kultura Ondarearen Lurralde Plan Sektorialerako (LPS), araudi orokorra ezarriko da eta bakoitzerako bat. Gainera, eraikitako monumento multzoetan, ondaren arkitektonikoko ondasun higiezinak kontsideratzen dira, unitate kulturala eratuko da eta beraien berezitasunak babestuko dituzte.

Beste alde batetik, eta udalerrriak inbentariatutako aztarna arkeologikoak babesteko helburuarekin, Iruña Okako Hiri Antolamenduko Plan Orokorretik proposatu da: Izendatutako Arkeologia Gunearen kategoria, Kultura Ondarearen Ondasunak bezala. Kategorian Iruñako Oppiduma eta San Juan Nekropolis eta Tenpluan bakarrik daude, azken hau kultura ondasuna bezala izendatua, uztailak 17ko 265/1984 Dekretuaren bidez, (EHAA 144zk, 1984ko abuztuaren 31n) eta Kultura Ondarearen 7/90 Legeagatik, Monumentu Multzoaren kategorian. Azpimarratu behar da Arkeologia Gunea hunkitzen duen jarduketa edo edozein lan mota araudiak ezarritakoari egokitu behar dela, 7/1990 Kultura Ondare Legearen arabera.

Iraunaldian dagoen plangintzaren berrikuspenak Kultura Ondarearen Zentroak proposatutako babes mailak eta aurretik aipatutako araudia errespetatu behar ditu, Iruña Okako Hiri Antolatzeko Plan Orokorrean inbentariatutako elementuengan kalteak saihesteko.

Honi dagokionez, plan orokorrean fitzez osotutako inbentario bat egin da, bertan elementua ahal den neurrian mugatu da, Lurralde Plan Sektorialean ezarritako kategoriak kategorizatuz.

#### **5.2.1.7 Biztanlerian aurreikusi ahal diren eraginak**

Iruña Okako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen helburu nagusia, Iruña Oka bigarren mailako udalerria bihurtzea da, izaera erakargarriarekin, kalitatezko bizitegi egitura eskainiz, zuzkidura azpiegitura egokiarekin, ekipamenduekin eta zerbitzu publikoekin, eta Turismo aktiboa zein kulturala sustatuz; guztia iraunkortasunaren eta ingurumenaren oreka bilatuz.

Modu honetan, plangintza berriaren helburu “soziala” agerian geratzen da, udalerrriaren biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko; oinarritzko turismo azpiegituz hornitzeko eta Iruña Okako bisitariarentzat diren elementuak balioan jartzeko; baita ere lurraldean inbertitu nahi duten pertsonentzako aukera bikainak eskaintzeko.



Honela, Iruña Okako Hirigintza Plangintzatik ondorioztatutako akzioen eragina laburbildu daiteke, izaera orokorrekoa eta positiboa dela.

Ostera, urbanizazio eta planen proposamenak ondorioztatzen diren gainontzeko lanen fasetan azpimarratu behar da: biztanlerian eragin negatiboko afekzioak sortuko direla, epe laburrera eta behin behinekoak, zarata eta partikulen emisioengatik. Gainera, zerbitzuen mozketak edo ibilgailuen desbideratzeak, kalte puntualak sortuko dituzte biztanleetan. Edozein kasuan, afekzioen denborazkotasuna eta itzulgarritasuna gehi beraiengan dagoen eragin baxua, inpaktua bateragarri bezala sailkatzeak baimentzen du.

Azkenik, hainbat industrien abiaraztea lurzoruen ekonomia-jardueren aurreikuspenengatik giza osasunean eragin negatiboa izan ditzake. Hala ere, indarrean dagoen araudiaren betetze zorrotzak atmosferaren emisioengatik instalazio berrien eraginez sortu direnak, inpaktua bateragarria bezala sailkatzeak baimenduko dute.

Garapen berriek eragin ditzaketen eragin akustikoei dagokienez, eta *Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua* betez, EAE honen eranskinean garatutako inpaktu akustikoari buruzko azterlana jasotzen da, dekretu horren 36. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutako irismenaren eta edukiaren arabera.

Antolamendu-eremu bakoitzean lortutako ondorio partikularrak hurrengo 5.2.2 atalean aurkezten dira, eta ondorio hau atera daiteke: egoitzako AOP gehienek plana garatzean aurreikus daitezkeen inpaktua hautemanezina edo bateragarria da, edo moderatua, baina hori minimizatzeko neurri nahikoak dira hiriko ibilgailuen trafikoaren zarata-emisioak murrizteko. Bakarrik AOP industrialen kasuan, sumatu diren afekzioekin neurri zehatzak behar dira, pantaila akustikoak adibidez, ez bakarrik gertuko zonalde sentikorrek sortutako maila altuak, baizik eta erabilera industrialak eta tertziarioak bateragarriak izateagatik, eta gertuko komunikazio bideak sortutako zaratagatik: A-1 autobidea, Madril-Hendaia eta etorkizuneko Madril-Gasteiz-Bilbo Irun abiadura handiko lerroa.

#### **5.2.1.8 Lurraldearen elementu estrategikoetan aurreikusten diren efektuak**

Iruña Oka Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren helburua, Iruña Okako udalerrriaren hirigintza antolamendua ezarri nahi da, horretarako udalerrriaren hirigintza egitura orokorra definitzen da: hirigintza egituratzaileez definituak, zuzkidurez eta azpiegitura orokorren espazio publiko azpimarragarriak, lurzoruaren erabilera orokorren sailkapena eta bere erabileren intentsitatea eta kantitateak. Guztia udalerrriaren hirigintza irudia aurreikusteko eta beharrezko lurzoru gordetzeko antolamendua burutu ahal izateko, bere artikulazioa bermatuz eta hirigintza elementuen mugimendu koherenteekin.





Ayuntamiento de  
IRUÑA DE OCA

IRUÑA OKAKO  
Udala

**IRUÑA OKAKO HAPO**

BEHIN-BEHINEKO ONESPEN AGIRIA

Iruña Okako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra zehazten dituen helburu espezifikoak betetzeko efektu zehatzak bezala ezartzen dira: ondorengo taulan agertzen diren lurraldearen elementu estrategikoak.



Lurraldearen elementu estrategikoen gaineko Iruña Okako HAPOaren berrikuspenean aurreikusitako efektuak		
Lurraldearen elementu estrategikoak	Aurreikusitako efektuak	Oharrak
Hiri bilbea	Hiri bilbea hobetzeko	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bide hobekuntzak, “ingurabideen” itxierak, oinezkoentzako edota bizikletentzako bideak sortu, etb....</li> <li>- Bide berrien sorrera, aurreikusitako garapen berriak herriaren nukleoarekin lotzeko.</li> <li>- Hirian garraioa bultzatu nahi da, ibilgailu pribatua garraio sistema egoki batekin bateragarria egiten.</li> </ul>
	Oinezkoen ibilbideen Finkapena eta Sorrera	<ul style="list-style-type: none"> <li>- “La Torca” errekaaren ibilgua jarraituz oinezkoentzako bide bat sortu nahi da, Langraiz zeharkatuz, hirigunea eta Iparraldeko Torkaren Parkearekin zein hegoaldean Zadorra ibaiarekin lotura bat sortuz eta aldi berean lurraldeko sarbideak eta bertan aurkitzen diren bide berdeak.</li> <li>- Langraiz Oka inguratzen duen eratzun bat sortu nahi da, eta bere bigarren mailako loturekin, egungo zein etorkizuneko ekipamenduzko zuzkidureei heltzeko, gaur egun espazio libreak eta etorkizunekoak ahaztu barik. Gainera, aurreko eratzunaz gain, hego-ekialdeko hedatze espazio berriei zeharkako lotua sartu, espazio bakoitzaren barruan bi eratzun osatzeko.</li> </ul>
Bide sarea	Mugikortasun eta irisgarritasunaren hobekuntza	<p>Ibilgailuen hiriko eta kanpo ingurunekeko ibilbideen hobekuntzarako ondorengo proposatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udal Administrazioen loturak hobetuko dira (A-2622 errepidea), eta haien sarbideak.</li> <li>- Aparkaleku publikoen sorrera, bakarrik Bigarren Hezkuntzako zentro berrian eta Arrate kiroldegiaren aparkalekua handitzeko.</li> <li>- Nukleoaren barne trafikoahurrantzeko aukerako ibilbideen sorrera (bide berri baten agerpena bihurtune bezala iparraldean, Langraizko Administrazio Batzar osoa inguratuz).</li> </ul>
Trenbide sarea	Trenbide sistema eta ingurunearen tratamendua	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Abiadura handiko trenbide tarte berria sortuko da, Planaren Irismen Agirian agertzen den bezala.</li> <li>- Madril-Irun bidea sustatu nahi da, Iruña Oka-Vitoria-Gasteiz-Agurain egungo trenbide lerrotik igaroz. Gaur egungo, bidea aldatu nahi da, abiadura handiko trenbideagatik, aldiriko trenbidea bihurtuz.</li> </ul>
Gune libre eta Gune Berdeen sistema orokorra	Gune libreen eta Gune Berdeen sistema orokorreko hobekuntza	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gune berde berrien sorrerak (parkeak, etb.), hirigintza garapen berrien oinarrizko ekipamenduak bateratzen dituzte.</li> <li>- Gune berdeen gabeziak, beraien kalitatea eta mantentzea konpondu nahi dira.</li> </ul>



Lurraldearen elementu estrategikoen gaineko Iruña Okako HAPOaren berrikuspenean aurreikusitako efektuak		
Lurraldearen elementu estrategikoak	Aurreikusitako efektuak	Oharrak
Batasun ekipamenduen sistema orokorra	Ekipamendu komunitarioen sistema orokorreko hobekuntza	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekipamendu komunitario berrien sorrera egin nahi da: Bigarren Hezkuntzarako Ikastetxe berria, Osasun Zentro berria.</li> <li>- Zentro zibikoaren espazioa libre utzi nahi da, Zentro sozialaren Liburutegiarekin elkartzeko.</li> <li>- Ospakizun Aretoa jartzea espero da (txikia geratu delako), mendebaldean sortzen diren zabalera berrien lagapenen barruan.</li> <li>- Interpretazio Museo-zentro bat jarri nahi da.</li> <li>- Arrate Kirol kompleksuen instalazioak eraikitzen ari dira.</li> <li>- Olabarri, Billoda, eta Trespondeko kirol ekipamenduen hobekuntzak eta aldaketak egin nahi dira.</li> <li>- Aurreikusitako hazkunde berrien saneamendu sarearen hobekuntza egin nahi da, gainera araztaile berria eraiki nahi da, garbitu nahi diren uren gaitasuna mugan dago.</li> </ul>
Etxebizitza	Etxebizitza politika baten garapena, udalerrian dauden desberdintasunak eta aurreikuspenak konpontzeko	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hirigune historikoen bizitegi erabilerak sustatu nahi dira, finkatutako eremuen birmoldaketan eta zaharberritzean.</li> <li>- Etxebizitza eskaintza egokia diseinatu nahi da, faktore anitzen eskariaren ebaluaketa haztatuarekin.</li> </ul>



Lurraldearen elementu estrategikoen gaineko Iruña Okako HAPOaren berrikuspenean aurreikusitako efektuak		
Lurraldearen elementu estrategikoak	Aurreikusitako efektuak	Oharrak
Ekonomia-jarduera	Ekonomia-jardueren kokapen egokia, ohiko industria erabilpenetik harago.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Industrien birkolokatzea bilatzen da, zaharkitutako nabeak edo gaur egun txarto kokatuak dauden jarduerak, hurbil edo finkatutako hiri bilbearen barruan, eta trenbide lerroen hegoaldeko lurzoru berrietarantz.</li> <li>- Lurzoru Urbanizaezinaren kalifikazioa itzuli nahi da, udalerrian dauden harrobi biak eta emandako lagapenen bukaera.</li> <li>- Ekonomia-Jarduerentzat eremu urbanizagarri berri bi egitea nahi da, gutxi gora behera 250.000 m<sup>2</sup> eta 50 hektarea.</li> <li>- Lurzoru Urbanizaezin berriaren barruko zona tertziario berria antolatu nahi da, erabileren bateragarritasuna estrategia bezala kontsideratua, enpresa egitura heterogeneoago bat sortuz eta modu honetan finkotasun handiagorekin.</li> <li>- Iruña Okan kalitatezko saltokiak sustatu nahi dira.</li> <li>- Jarduera gabeko kartutxotegi zonaldean tiro zelaia sortzea aztertu nahi da, edota hiri lurzoria desklasifikatzea lurzoru industrialean.</li> <li>- Interpretazio zentro bat eraiki nahi da, turismoa erakartzeko eta ibilbide naturalen eta kulturalen abiapuntua izatea.</li> </ul>
Ondare arkitektonikoa eta hirigintzako ondarea	Iruña Okako ondare arkitektonikoaren eta hirigintzaren babesa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ondasun babestuen katalogoa eguneratzea eta berriztatzea aurreikusten da.</li> <li>- Debekatutako, mugatutako eta baimendutako erabileren definizioa aurreikusten da, indarrean dagoen araudiaren betetzea eta Euskal Herriko Ondare zentroan proposatutako mailak errespetatzea.</li> </ul>



Lurraldearen elementu estrategikoen gaineko Iruña Okako HAPOaren berrikuspenean aurreikusitako efektuak		
Lurraldearen elementu estrategikoak	Aurreikusitako efektuak	Oharrak
Landa Nukleoak	Indartze eta Iruña Okako landa nukleoak indarrean sartzea	<ul style="list-style-type: none"><li>- Hazkunde berriek lursailera egokitu nahi dira.</li><li>- Espazio publikoen formakuntza eta finkapena sustatu nahi da, espazio hauei nortasuna konfiguratzuz eta nukleoen egitura morfologikoa babestuz.</li><li>- Azpiegiturak hobetzea espero da, bereziki: saneamendua eta gas naturala.</li><li>- Gas naturalaren sarea Billodaraino heltzea nahi da, halaber, Trespondera eta Mandaitara.</li><li>- Baimendutako erabilera ezberdinak normalizatu nahi dira, inguruetik kanpo dauden erabilerak sartu barik eta bateragarriak ez diren erabilerak sartu barik.</li><li>- Balio paisajistiko, ekologiko eta kulturalen elementuak babestea nahi da.</li><li>- Elementu estrategikoen berreskurapena proposatzen da, landa bideak, istripu topografikoak, etb. eta beraien izaera ludikoa garatu (mendi-ibiliak, zaldi-ibilbideak, mendizaletasuna, etb), baloratutako eremutik gertu kokatuak egoteagatik.</li></ul>
Iruña Okako sistema-Vitoria-Gasteiz	Iruña Oka - Vitoria-Gasteiz erlazioa sustatu	<ul style="list-style-type: none"><li>- Iruña Okak daukan funtzioa Hegoaldeko Berrikuntzaren arkuari sustatu nahi da, Vitoria-Gasteiztik hainbat jarduera igorritz.</li><li>- Iruña Okako udalerrak, Vitoria-Gasteizek daukan gainezka xurgatzea nahi da, bigarren mailako nukleoa sortuz, "bitarteko hiriaren" baldintza eskuratuz, eta bereziki bere nukleo nagusia, Langraiz Oka.</li><li>- Industria egituraren garapena, jarduera ardatz dinamikoa sortuz, nukleoen artean eta Jarduera Logistikoaren lehentasunezko eremu baten barruan, Ekonomia-Jarduerako LPSaren ustez.</li></ul>



### 5.2.2 PROPOSATUTAKO GARAPEN-EREMUEN EBALUAZIO PARTIKULARRA

2.6.2 atalean azaldu den bezala Iruña Okako Hiri Lurzorua eta Urbanizagarria Plan Orokorrean garatu diren proposamenak agertzen dira. Egituratzten dira alde batetik: Antolamendu Xehatuko Eremuak (AXE) bezala eta aldi berean, bi motakoak dira: bizitegikoak eta industrialak; beste alde batetik, antolamendu xehatuko eremuak (AOP-SO) eta udalerriaz gaindiko antolamendu eremuak (AOS-SO).

Azken hauen artan Jundizko Geltoki Intermodala (AOS-SG1) eta Abiadura Handiko Trenbidearen tarte berria (AOS-SG2) daude. IIEaren ebaluaketan ez dira lantzen, udalerriz gaindiko eremuak direlako eta ingurumen ebaluaketa propioa izateagatik.

Diferentziazio honi arreta jarritz, atal hau egituratzten dugu Planean proposatutako ingurumen efektuak aztertuz naturaren arabera eta agiriaren planean egindako proposamenen arabera.

Udalerrri garapenaren proposamenetatik ondorioztatutako inpaktuen ebaluaketa *afekzio eta arrisku* gaiei buruz lantzen direnean hurrenez hurren planteatzen dira.

Planean proposatzen diren afekzioen analisisa egiteko, Iruña Okan proposatutako hiri lurzoruetan eta urbanizagarrietan eragin handia daukaten inguru eta kultur alderdi azpimarragarrienak kontsideratzen dira. Horretarako, analisisian ez dira baloratzen udalerrian azpimarragarriak diren ingurumen alderdiak, baina bere agerpena bakarrik ikusten da Lurzoru urbanizaezin eremuetan, bere kategorizazioa lurzoruetan zuzenean bateragarria egin da. Ondorengo kasuetan adibidez: Korridore Ekologikoen Sarea, EAeko Espazio Naturalen Katalogo Irekia, Hezeguneen LPSen Hezegune inbentarioa, edo Interes Geologikoko Guneak edo Puntuak, egindako kartografian ikusten denez, garatutako eremuetan ez dituzte interakziorik irudikatzen.

Afekzio zuzena edo hurbileko afekzioagatik, analisisian kontsideratutako alderdi azpimarragarrienak Iruña Okako HAPOan proposatutako afekzioetatik hurrengoak dira:

- Natura 2000 sarea: KBE " Zadorra ibaia"
- Katalogatutako Landare eta Animalia espezie eremuen Kudeaketa Planak
- Batasun interesezko habitat naturalak, bereziki lehentasunezkoak.
- Intereseko landaredia, tokiko zuhaitz landaredia azpimarratuz (garriga, erkamezti, haritzak, pagadiak, baso mistoak, ibaiertzeko landaredia), eta balio bereziko sastrakak eta larreak.
- Kultura ondarea: balio arkeologiko eta arkitektoniko
- Hidrografia-sare



- Nekazaritza-balio handiko lurzoruak okupatzea, Nekazaritza eta Basogintzaren LPSean mugatutako balio estrategiko handiko lurzoruak (BEH) eta trantsizioko landa-paisaia (TLP) erreferentziatzat hartuta.

Era berean, eragin akustikoak sartu dira, *Inpaktu akustikoari buruzko ikerketaren* ondorioetan oinarrituta. Ikerketa hori IIE honen *eranskin* gisa sartu da.

Analisia ingurumen eta kulturaren gainean antolamendu proposamenen garapenak sortzen dituzten **afekzioak** identifikatzea errazten dute.

Bere aldetik, ingurumen **arriskuen** analisia ondorengo araberan egiten da:

- Babestutako hornikuntzen bilketa
- Uholdegarritasuna (T=500 urte)
- Akuiferoen kalteberatasuna
- Lurzoru kutsatuak
- %20ko malda baino gehiago daukaten lurraldeak.











Eremu bakoitzaren afekzio edota arriskuen analisitik, sumatutako inpaktuak ebaluatzen dira.

Fitxekin batera agertzen diren irudiak, ondorengo afekzioak eta arriskuak irudikatutako agertzen dira.





## ERAGIN ETA ARRISKU FITXEN IRAKURBIDEA






### ERAGINAK / AFECCIONES

-  Hidrografia Sarea / Red Hidrográfica
-  Natura 2000 Sarea / Red Natura 2000
-  Zadorra Ibaia-ko babserako eremu periferikoa / Zona peridérica de protección del Río Zadorra
- Interes batasunaren habitat naturalak / Hábitats naturales de interés comunitario
  -  Lehentasunik ez habitat / Hábitat no prioritario
  -  Lehentasuna habitat / Hábitat prioritario
-  Intereseke landaretza naturala / Vegetación natural de interés
-  Fauna espezie mehatxtuak / Especies de fauna amenazada
-  Ibilbide Berdeak Sarea / Red de Itinerarios verdes
- Kultura Ondarea / Patrimonio Cultural
  -  Arkeologia Ondarea / Patrimonio Arqueológico
  -  Eraikitako Ondarea / Patrimonio Arquitectónico

### Nekazaritza lurzoruaeren afekzioak

-  Balio Estrategiko Altua (BEA) / Alto Valor Estratégico (AVE)
-  Trantsiziozko Landa Paisaia (TLP) / Paisaje Rural de Transición (PRT)

### ARRISKUAK / RIESGOS

-  Hartze babestua / Captación protegida
-  Urpean geratzeko arriskua (500 urteko birgertatz aldia) / Riesgo de inundación (Período de retorno 500 años)
-  Inbentariaturiko luzoru kutsatuak / Suelos contaminados inventariados
-  Akuiferoak kutsatzeari uranotasuna handia eta oso andia / Vulnerabilidad a la contaminación de acuíferos alta o muy alta
-  >%20-ko maldak / Pendiente >20%






## AOP BIZITEGIAK


### Langraiz Oka





AOP-N1	Razuela
<p>Finkatugabeko Hiri Lurzorua. Bizitegikalifikazio orokorra Etxebizitza kop.: 43</p> <p>7.537 m<sup>2</sup>–ko eremua dauka eta Langraiz Okako erdiko gunean kokatua dago, Langraiz Etorbidearen hegoaldean. Mendebaldetik muga egiten du Casernarekin, ekialdetik Razuela kalearekin eta hegoaldean Fuente Redonda ibilbidearekin. Iparraldetik muga egiten du BS+3 bloke batekin eta BS+1 ilarako etxeekin, Langraiz Etorbidearen aurrealdean.</p> <p>Parke lineal bat planteatzen da oinezko eta bizikletentzako bide batekin, Fuente Redonda ibilbidearekiko paralelo, Kare-Labe parkea eta Errotarekin lotuak, non gunea libreen eta ekipamenduen lagapenak bilduko diren gunea.</p> <p>Bizitegi eraikigarritasuna hainbat familiako etxebizitza irekiko eraikuntzetan, erabilera tertziarioetan eta eraikinen barruan lagatzen diren tokiko ekipamenduen zuzkiduretan oinarrituko da, blokearen beheko solairuan kokatuko dira eta beraien aurrealdea parke linealaren mendebalderantz egongo da. Antolamenduan oinezkoentzako zubi bat sartzen da, parke lineal hau eta AOP-N2 lotzeko, bere eraikuntzak AOP-N1 jarduketa integratu osoa ordainduko du.</p>	
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p> 	
<p>Ingurumen edo kultura balioko afekzio zuzenak izan gabe. Bakarrik azpimarratzea GR282 Artzaintza Naturbideak Langraiz Etorbidearen iparraldetik doala. Ekialdetik berriz, Zadorra ibaiaren ibaiadar txiki bat.</p> <p>“Zadorra Ibaiaren” KBEen mugak hegoaldean daude 185 metrotara eta eremua babes zonaldekanpo dago.</p>	



AOP-N1	Razuela
<p>Eremuak Torka erreka-eremuaren eta zaintza-eremuaren eragina jasotzen du, beraz, bertan egiten den edozein jarduketak Ebroko konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko baimena izan beharko du, zeina URAREN bulegoetan izapidetu beharko baita).</p> <p>Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren arabera nekazaritza-balioa duten lurzoruei eragin gabe.</p> <p>Eragin akustiko txikia; izan ere, egungo eta etorkizuneko egoeren arteko soinu-mailen aldaketa aurreikus daiteke, eta aldi guztietan 1 dBA baino gutxiagoko igoerak aurreikusten dira. Etorkizunean, BKEak pixka bat gaitztea baino ez da aurreikusten Langraiz hiribidearekin (A-3308 errepidearen zeharbidea) mugakide den AOParen iparraldeko mugaren ondoko lehen metroetan, nahiz eta eraikin berriak aurreikusten diren eremuan ez diren gaitzitzen.</p>	
<p><b>ARRISKUAK:</b></p> 	
<p>Ebalazioan kontsideratu diren arrisku azpimarragarriak izan gabe.</p>	




AOP-N2	Milagros González
<p><b>EREMUA:</b></p> 	
<p><b>ANTOLAMENDUA:</b></p> 	







AOP-N2	Milagros González
<p>Finkatugabeko Hiri Lurzorua. Bizitegalifikazio orokorra Etxebizitza kop.: 21</p> <p>2.767m<sup>2</sup>-ko eremua, Langraiz erdiko zonaldean kokatua, Langraiz etorbidearen hegoaldean. “Errota” eta “Torkako” erreken artean kokatua dago, hegoaldeetik mugatuz zentro soziokulturalarekin eta udalerraren liburutegiarekin. Eremuak plaza bat edukiko du, ekipamenduko kulturalaren sarbide nagusira egokituko den gune publikoa. Merkataritza izaera eta enparantzaren aisialdia indartuko da, eraikin berriko beheko solairuaren azalera osoko erabilera tertziarioen bidez, BS+3ko altuerekin.</p> <p>Erreken alboan dauden gune berdeen zehar, oinezkoentzako eta bizikletentzako bidea joango da, AOP-N1 oinezko zubiaren eta Langraiz Oka iparraldeko gunearen artean lotura izango dena. Enparantzaren urbanizazioa zortasun publikoko espazio pribatuekin batera burutuko da, enparantza eta eraikuntza berrien artean dago, hortaz, Udalak erabakitako diseinu eraman behar dute.</p> <p>Beheko solairuak bere osotasunean erabilera tertziarioetara zuzenduko dira, bizitegi erabilera eraikinaren goiko solairuetara baimenduz.</p>	
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p> 	
<p>Eremu osoa “Langraiz Okako Asentamendu I”en Balizko Arkeologia Gunearen barruan dago, (Planaren Kultur Ondare katalogoaren BAG N-1ean).</p> <p>GR282 Artzaintza Naturbideak Langraiz Etorbidearen iparraldetik doala. Ekialdetik berriz, Zadorra ibaiaren ibaiadar txiki bat.</p> <p>“Zadorra Ibaiaren” KBEen mugak hegoaldean daude 235 metrotara eta eremua babes zonaldekanpo dago.</p>	




AOP-N2	Milagros González
<p><i>Torka</i> erreka-eremuak eta zaintza-eremuak eragiten diote eremuari, eta, beraz, eremu horretan egiten den edozein jarduketak Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko baimena izan beharko du. Baimen hori URAREN (Uraren Euskal Agentzia) bulegoetan izapidetu beharko da.</p> <p>Nekazaritza-balioa duten lurzoruei eragin gabe.</p> <p>Egungo egoerarekin alderatuta soinu-mailen igoera oso esanguratsua ez bada ere, espero daitezkeen etorkizuneko mailek pixka bat gainditzen dituzte lehendik dauden hiriguneei aplika dakizkiekeen KAHak, iparraldeko mugan zehar (Langraiz etorbidea) 10m-ko gehieneko zabalerako banda batean. Horrek eragin moderatua dakar.</p>	
<p><b>ARRISKUAK:</b></p> 	
<p>Ebaluazioan kontsideratu diren arrisku azpimarragarriak izan gabe.</p>	




AOP-N3	Errota
<p><b>EREMUA:</b></p> 	
<p><b>ANTOLAMENDUA:</b></p> 	





AOP-N3	Errota
<p>Finkatugabeko Hiri Lurzorua. Bizitegi kalifikazio orokorra Etxebizitza kop.: 50</p> <p>9.490 m<sup>2</sup> –ko eremua da. Gune Libreen Tokiko Sistemen zati handi bat eremu garapenaren aurretik burutu izan da, Errotako parkea eta Kare-labearekin osatzen da. Tokiko sistemen zuzkidurak Errotaren eraikuntzak eta Langraiz Etorbidearen iparraldean dagoen ponpaketa etxola dute.</p> <p>Eremu honen kokapena estrategikoa da, Kare-Labea parkea eta Errota bertan egoteagatik, hiri parkearen izaerak errespetatu behar du eta balioan jarri, gune libreen inguruko lagapenak gauzatu, eta bere “hedapena” baimenduz. Bizitegi eraikuntzak Kare-Labea ibilbideari paralelo kokatuko da, edozein kasuan AOP-N2 eremuari dagokionez zentzuzko konponbide bat aurkeztuko da.</p> <p>Bizitegi erabilerak 3+A gehieneko altuera motako blokeetan daude.</p>	
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p> 	
<p>Eremu osoa izendatutako Balizko Arkeologia Gunean dago, “Langraiz Oka I asentamenduan” (IBAG Planaren Ondare Kulturalaren katalogoa). Gainera, Ondare kultural bezala izendatutako Ondasun Higiezina (“kiskaltze labea” N-4 OI) dago eta toki mailara babesteko proposatu zen ondasun arkitektonikoa (IPTM N-36 “Urmaelaren Errota edo Goikoa”), biek parkearen barruan.</p> <p>(GR-282) Artzaintza Naturbidea, Langraiz Etorbidearen iparraldetik doa.</p> <p>“Zadorra Ibaiaren” KBE-ko mugak hegoaldera, 200 metrotara daude, eta eremua aldi berean, kanpoko babes eremutik kanpo dago.</p>	





AOP-N3	Errota
	<p>Eremuak Torka errekaen zortasun-eremuaren eta zaintza-eremuaren eragina jasotzen du, beraz, bertan egiten den edozein jarduketak Ebroko konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko baimena izan beharko du, zeina URAREN bulegoetan izapidetu beharko baita.</p> <p>Nekazaritza-balioa duten lurzoruei eragin gabe.</p> <p>Inpaktu akustikoari dagokionez, soinu-mailen aldaketa ez da oso esanguratsua gaur egungoekin alderatuta, eta KAH-ak 10m baino gutxiagoko zabalerako zerrenda batean gainditzea, egoteko berdeguneetan sartuz, baina isofonara ez iritsiz <math>L_n = 55\text{dBA}</math> aurreikusitako eraikin berrien fatxadetara. Zallortegi kalearen mugakidea den AOPren hegoaldeko mugan, gaur egungo eta etorkizuneko mailak KEBak baino txikiagoak dira, eta aurreikus daitezkeen igoerak 1-2dBAtik beherakoak dira. Eremu horretan eragin globala neurrizkoa dela balioesten da</p>
	<p><b>ARRISKUAK:</b></p>  <p>The map displays a street network with several areas highlighted in orange, representing noise risk zones. A dashed black line outlines the boundary of the AOP (Acoustic Protection Area). The orange areas are scattered across the map, with a notable concentration in the upper-left and lower-left quadrants.</p>
	<p>Ebaluazioan kontsideratu diren arrisku azpimarragarriak izan gabe.</p>




AOP-N4	Kare-Labea
<p><b>EREMUA:</b></p> 	
<p><b>ANTOLAMENDUA:</b></p> 	





AOP-N4	Kare-Labea
<p>Finkatugabeko Hiri Lurzorua. Bizitegi kalifikazio orokorra Etxebizitza kop.: 40</p> <p>4.358m<sup>2</sup>-ko eremua da eta Langraiz Okako erdigunean kokatua dago, Langraiz Etorbidearen hegoaldean eta AOP-N3 muga egiten du mendebaldetik, Kare-Labea bidea partekatzen dute. Ekialdean Martxoak 3ko Parkearen sistema orokorra daukagu, eta kale honen hegoaldean zentro zibikoa eta osasun zentroa.</p> <p>Jarduketa jarraitasuna emango dio Martxoak 3ko parkeari, sistema orokor hau Kare-Labea eta Errota parkearen sistema orokorrarekin lotuz, zentro zibikoaren lotura konponduz sistema orokor bi hauekin eta Langraiz Okako oinezkoekin eta bizikletekin. Egiturazko elementu bezala kontsideratuko da espazio publiko edo plaza baten sorrera, eta edozein kasuan AOP-N3 eremuan planteatutakoari koherentea konponbide bat eskainiko da.</p> <p>Bizitegi lurzorua hainbat familientzako etxebizitza motan gauzatzen den lau altuerako eraikuntza isolatua da.</p>	
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p> 	
<p>Azpimarragarriak diren afekziorik gabe, "Langraiz Okako I.ngo Asentamenduaren" agerpena izan ezik, mugaren mendebaldean eta Balizko Arkeologia Gunea Izendatua. (IBAG N-1 Planaren Kultura Ondare Katalogikoa).</p> <p>GR-282) Artzaintza Naturbidea, Langraiz Etorbidearen iparraldetik doa.</p> <p>"Zadorra Ibaiaren" KBE-ko mugak hegoaldean, 200 metrotara daude, eta eremua aldi berean, kanpoko babes eremutik kanpo dago.</p> <p>Torka errekarren zaintza eremuari eragiten dio eremuak; beraz, bertan egindako edozein jarduketak Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko baimena izan beharko du, (Uraren Euskal Agentzia) bulegoetan izapidetu beharko baita.</p>	



AOP-N4	Kare-Labea
<p>Nekazaritza-balioa duten lurzoruei eragin gabe.</p> <p>Inpaktu akustiko ertaina, Langraiz etorbidearekin iparraldetik ere mugakide den eremua baita, aurreko kasuen antzekoa: soinu-mailen igoera ez oso esanguratsuak, eta BKEak gaintitzea iparraldeko mugan zehar, 10 metroko gehieneko zabalerako lurralde-bandetan, 5 dBAko gehieneko gaintitzeekin. Gaintitze horiek eremuaren ipar-mendebaldeko muturrean aurreikusitako eraikin berriaren fatxadarik esposiziodunenari eragiten diote.</p>	
<p><b>ARRISKUAK:</b></p> 	
<p>Ebaluazioan kontsideratu diren arrisku azpimarragarriak izan gabe.</p>	






AOP-N5	Iparraldeko Langraiz
<p><b>EREMUA:</b></p> 	
<p><b>ANTOLAMENDUA:</b></p> 	





AOP-N5	Iparraldeko Langraiz
<p>Finkatugabeko Hiri Lurzorua. Bizitegi kalifikazio orokorra Etxebizitza kop.: 181</p> <p>33.537m<sup>2</sup>ko eremua, arau subsidiarioetan sailkapen ezberdina daukaten lurzoruen eremua da: alde batetik 6.567 metro karratu hiri lurzoruak bezala sailkatuak daude, bizitegi erabilera eta erabilera industrialarekin, azken erabilera honen desagerpena aurreikusten da, beste alde batetik, irla formako lurzoru urbanizaezinaren poltsa bat dago, 26.970 metro karratuekin, eremu honetan sartu da finkatugabeko lurzoru bezala, HAPOaren esanez.</p> <p>Langraiz Okako nukleoaren ipar-ekialdean kokatua, mendebaldetik AOP-N6 eta ekialdetik AOP-N7 lurzoru urbanizagarriez inguratua. Hegoaldean Langraiz etorbidea dago. Proposatutako etxebizitzaren garapen handienetarikoa da, hiri nukleo bat egiteko gakoa, Langraiz etorbidean zehar lotua, hortaz puntu horretan komuneko frontea izan behar du, existitzen den hiri hutsunea gailenduz. Etorbidea begira dauden blokeen beheko aldean erabilera tertziarioak (merkataritza gunek), zonaldeari dinamismoa eta merkataritza jarduera emateko. Bizitegi erabilera BS+3 eraikuntza irekiko motetan gauzatzen da, baina familia bakarreko etxeak edo bi familientzako etxeak ere onartuko dira, BS+2 altuerekoak.</p> <p>Langraiz etorbidearekiko paralelo parke lineal batean sorrera planteatzen da, Iparraldeko errondaren eta AOP-N7 eremuaren hegoaldean zeharkatzen duen bigarren mailako sarea, eta AOP-N5 eremutik biribilguneraino Errege bidea eta San Martin kaleekin bat egin arte.</p>	
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p> 	
<p>4090 lehentasunezkoa ez den kartografia (Otea duten txilardi mediterraneo endemikoak), zaharkitutako egoeran dagoena.</p> <p>GR-25 Araba Lautadako Bira eta GR-282 Artzaintza Naturbidea, Langraiz Etorbidearen hegoaldean daude.</p> <p>Ipar-ekialdeak Balizko Arkeologia Gunea izendatutako San Martin Elizarekin (IBAG N-15) muga egiten du.</p> <p>“Zadorra ibaiaren” KBE eremuak, hegoaldean 500 metrotara daude.</p>	




AOP-N5	Iparraldeko Langraiz
<p>Nekazaritza-balioa duten lurzoruei eragin gabe.</p> <p>Bai gaur egungo egoeran, bai etorkizunean, zenbatetsitako soinu-mailek Oka gaitutako lukete soilik Langraiz hiribideko (A-3308 errepidearen zeharbidea) hegoaldeko mugaren ondoan 10 metro inguruko bandan. Gauaren kasuan, 55 dBAko isofona aurreikusitako fatxadetara iristen da. Hala ere, AOP honen kalifikazio zehatuzko proposatutako gainerako bide berrietan, espero daitezkeen etorkizuneko mailek ez lituzkete 65/65/55 dBA-ko BKE aplikagarriak gaitutako. Inpaktu akustikoa hautemanazintzat jotzen da.</p>	
<p><b>ARRISKUAK:</b></p>  <p>The map displays a geographical area with various buildings and roads. Several regions are highlighted in orange, indicating noise risk areas. A network of black dashed lines is overlaid on the map, likely representing noise contours or specific risk zones. The map shows a mix of residential and commercial buildings, with some areas appearing more densely populated than others.</p>	
<p>Ebaluaketan kontsideratu diren arrisku azpimarragarriak gabe, %20 malda duten lurraldeak izan ezik.</p>	





AOP-N6	Torko
<p data-bbox="352 421 453 450"><b>EREMUA:</b></p> 	
<p data-bbox="352 1104 544 1133"><b>ANTOLAMENDUA:</b></p> 	







AOP-N6	Torko
<p>Sektorizatutako Lurzoru Urbanizagarria Bizitegi kalifikazio orokorra Etxebizitza kop.: 79</p> <p>33.915m<sup>2</sup>-ko eremua, Langraiz Okako ipar-ekialdean kokatua, Badaia Mendilerroen hegala eta kontzejuaren nukleoaren artean, sektorea mendebaldetik Torka errearen alboko zonaldearekin eta ekialdetik AOP-N5 eremuarekin muga egiten du.</p> <p>Espazio honen kokapen topografikoari dagokionez, hiri nukleoaren ertza osatzen du, malda handiekin eta ingurunearen inguruan, dentsitate baxuko mota planeatzen da, existitzen den hiri morfologia errespetatuz. Zonaldea familia bakarreko etxebizitzekin eta bi bizitzako etxeekin antolatzen da, BS+1 eta BS+2ko altuerekin.</p> <p>AOP-N6 jarduketak Sistema Orokorren Gune Librean eta mendebaldean Tokiko Sistemen Espazio Librean dagokien espazioak izango ditu, La Torka errearen alboan, babeserako neurri batekin.</p> <p>Halaber, AOP-N7 eremuan zehar planteatutako parke lineal berria eta AOP-N5 eremua zeharkatzen duena, eremu honetatik jarraituko du, mendebalderantz Barrera de la Cruz kalean bukatzeko.</p>	
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p> 	
<p><i>Brachypodium retusum</i> larre xerofitikoak erdiko zonaldean, 250metro kuadroko azalera okupatuz. BIHren afekzio txikiko lehentasunarekin: 9030 (Artadiak).</p> <p>Eremuaren zati handiena Izendatutako Balizko Arkeologia Gunean garatzen da, (San Martin eliza eta herrixka IBAG N-15)</p> <p>Arabako Ibilbide Berdearen GR-25 Lautadako Bira zeharkatzen du.</p> <p>“Zadorra Ibaiko” KBETik oso hurrun dago.</p> <p>Torka errearen zaintza eremuari eragiten dio eremuak; beraz, bertan egindako edozein jarduketak Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko baimena izan beharko du, (Uraren Euskal Agentzia) bulegoetan izapidetu beharko baita.</p>	



AOP-N6	Torko
 <p>Nahiz eta lurzoru urbanizagarri sektorizatua den (LUS), indarrean dauden arau subsidiarioetako lurzoru urbanizaezina okupatzen duena, aurreko irudian ikusten den bezala, ez du eraginik nekazaritza-balio handiko lurzoruetan.</p> <p>Ikuspuntu akustikotik, lurzoru urbanizagarri sektorizatua denez (LUS), nagusiki bizitegi-erabilerak dituzten hirigintza-garapen berriei dagozkien BKEak aplikatu daitezke (60/60/50 dBA). Aurreikusitako etxebizitza berrien eraikuntzak zirkulazio ertaina sortuko du bide berrietan, eta eremuaren barnealdean KAH-ak baino txikiagoak izango dira. Espero daiteke 2-3 dBAtik beherako soinu-mailak areagotzea eremutik kanpoko sarbideetan, hala nola San Martin, Barrera la Cruz edo Lapurdi kaleetan, nahiz eta etorkizuneko mailek ez lituzketen gaitutako egungo hiriguneetako BKEak (65/65/55 dBA). Beraz, inpaktu hautemanezina AOPren barruan eta bateragarria ingurune hurbilean.</p>	
<p><b>ARRISKUAK:</b></p> 	
<p>Ebaluaketan kontsideratu diren arrisku azpimarragarririk gabe, %20 malda duten lurraldeak izan ezik.</p>	





AOP-N7	Eskolak
<p><b>EREMUA:</b></p> 	
<p><b>ANTOLAMENDUA:</b></p> 	





AOP-N7	Eskolak
<p>Sektorizatutako Lurzoru Urbanizagarria Bizitegi sailkapen orokorra Etxebizitza kop.: 261</p> <p>Zabalera eta etxebizitza kopuru handiagoko bizitegi garapen berria, 43.456 m<sup>2</sup>-ko zabalera eta bere nukleoaren ipar-ekialdeko muga Langraiz Okako kontzejua dago. Iparraldean Badaia mendilerroa, mendebaldean AOP-N6 eta AOP-N5 eremuie jarraipena ematen die, ekialdean Escubillo bidearekin muga egiten du eta hegoaldean hezkuntzako ekipamenduekin (Badaia BHI).</p> <p>Bizitegi eraikuntza mota, BS+3+S altuerekin.</p> <p>Eremu hau parke lineala osatzen du, oinezkoen eta bizikleten ardatz zentrala izango da Hiri Antolamendurako Plan Orokor honetan, lerrokatutako bizitegi blokeekin alde bietan.</p> <p>Eremu honek tokiko sistemen zuzkidurak gorde beharko ditu HLHI José Miguel Barandiarán ikastetxea hezkuntza ekipamendutik gertu, ikastetxeko aparkalekua indartzeko edo etorkizuneko beste beharren bat indartzeko.</p>	
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p> 	
<p>Ejren kartografian lehenasunezko 6220* (Brachypodium retusum-eko larre xerofiloak) mugatua agertzen da, ipar-ekialdeko zonaldean. Hala ere, aurreko ortofotoan ikusten denez, eremuaren iparraldeko muga, habitataren azalera mugatzen duen errepidearekin bat egiten du, 110m<sup>2</sup>-ko afekzioa estimatuz.</p> <p>Langraiz Etorbidearen hegoaldeko mugatik, GR-25 Arabako Lautadako Bira eta GR-282 Artzaintza Naturbidea daude.</p> <p>“Zadorra Ibaiaren” KBE mugetatik 300 metrotara eta inguruko babes zonatik kanpo.</p>	



AOP-N7	Eskolak
 <p>Kasu honetan, nekazaritza-balioa duten lurzoruak okupatzen dira; zehazki, 2,91 hektareako azalera duten eta Trantsizioko Landa Paisaia (TLP) gisa kategorizatuta dauden lurzoruak. Hiri-lurzoruaren iparraldeko mugarekin muga egiten duten lurrak, zehazki Badaia BHIrekin. Garai batean zereala landatzeko erabiltzen ziren lurzoruak dira, nahiz eta 2000. urtearen erdialdetik ez den ikusten lurzoru horien nekazaritza-aprobetxamendurik, motokrosak praktikatzeko eremu gisa igaro baitzen etapa batetik, eta gaur egun, nekazaritzak baitira.</p> <p>Bizitegi-eremu urbanizagarria, baina Badaia BHIren irakaskuntzarako azalera zabalagoarekin, Langraiz etorbidearen ondoan. Horrela, bi eremu akustiko motei aplika dakizkiekeen KAH-ak (lehendik zegoen bizitegi- eta irakaskuntza-garapen berria) bat datoz (60/60/50 dBA).</p> <p>Eremuaren ipar-ekialdeko irakaskuntza-erabilerako eremuan, eguneko mailak (jardueradun aldia), egungoak zein etorkizunekoak, 60 dBAtik gorakoak dira lurzatiaren muga bakarrik, baina eraikinetara iritsi gabe. Gainerako eremuetan, bizitegi-eremu urbanizagarrian, KAH-ak baino maila handiagoak soilik bideetan, baina maila moderatuak dituzte, baita hurbileko fatxadetan ere. Beraz, inpaktu bateragarria da, baina arintze-neurriak gomendagarriak dira.</p>	
<p><b>ARRISKUAK:</b></p>  <p>Iparraldean dauden lurraldeetan akuiferoen kutsadurara sentikortasun altua daukatenak aurkitzen ditugu.</p>	




<b>AOP-N7</b>	<b>Eskolak</b>
<p>Zonalde berdinean baina eremutik kanpo, inbentariatutako lurraldeak aurkitzen ditugu, lurzoruan jarduera kutsagarriak jasan dituztelako.</p> <p>Azpimarratu beharreko beste arriskurik gabe, %20ko lurralde malden agerpena izan ezik.</p>	




AOP-N8	Bolen
<p><b>EREMUA:</b></p> 	
<p><b>ANTOLAMENDUA:</b></p> 	







AOP-N8	Bolen
<p>Finkatugabeko Hiri Lurzorua. Bizitegi kalifikazio Orokorra Etxebizitza kop.: 2</p> <p>1.128 m<sup>2</sup>-ko eremu txikia, AOP-N5 eremuaren hegoaldean eta Bolen kalearen artean, ekialdetik eta mendebaldetik dentsitate baxuko bizitegi lursailekin mugatuz.</p> <p>Jarduketa honen helburua bide egoki eta urbanizatu bat jartzea da, existitzen diren eraikuntzentzako sarbide bezala erabiltzeko, eta AOP-N5 eremuaren jarduketa integratuarekin lotzeko, esparruan eraikuntza handituz bi familientzako etxebizitzak eraikiz, BS+1+Sko altuerarekin. Gainera, guner berdeko eremu txiki bi daude, alde batetik, hirigintza estandarren 123/2012 Dekretua bete dadin, eta beste alde batetik, hiriaren pertzepzioa hobetzeko generoaren ikuspuntutik, kalearen zabalerarekin eta segurtasun falta sortzen duten zenbait puntu nabariak egiteko.</p>	
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p> 	
<p>Konsideratutako ingurumen aldagaien gaineko afekzio azpimarragarririk gabe. Nekazaritza-balioa duten lurzoruei eragin gabe. SUNC non, bai soinu-mailetan ia igoserarik ez dagoelako, bai etorkizunean KAHak gainditzen ditugulako, inpaktu akustikoa hautemanezintzat jotzen den.</p>	







## Mandaita

AOP-M1	Mandaita
<p>EREMUA:</p>	
<p>ANTOLAMENDUA:</p>	



AOP-M1	Mandaita
<p>Finkatugabeko Hiri Lurzorua. Bizitegi kalifikazio orokorra Etxebizita kop.: 3</p> <p>2.867m<sup>2</sup>-ko eremua, esparruak eremu eten bat sortzen du; osatzen dituen zonalde bietatik handiena kontzejuaren iparraldean dago, hegoaldetik La Poncela ibilbidearekin, Oteros kalearekin eta ekialdean bolatokiarekin muga eginez. Txikiena, Otero kalea eta Arcilleros kaleen hegoaldeko bidegurutzean dago.</p> <p>Bizitegi hazkunde eremu berria bezala, iparraldean kokatutako eremua proposatzen da, hainbat hiri lursail barne hartzen ditu, emaitza bezala bolatokiaren mendebaldean, Otera kalean dagoena, etxebizitza berriak egongo dira, familia bakarreko etxebizitzak eta bi familientzako etxebizitza mota izango dira, biak BS+1+S-ko altuerarekin.</p> <p>Bolatokiaren iparraldean dagoen umeentzako parkearen sarbidea konponduko da eta Tokiko Sistemaren Gune Libreak lagatuko dira hegoalderantz dagoen lursailean, Arcilleros kalean, bidearen hobekuntzak egitea zuzendua Oteros kalearekin batera, era eskailera bati esker oinezkoentzako aukerako ibilbide bat eskaintzen zaie.</p>	
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p> 	
<p>Informazio kartografikoak ez du afekzio azpimarragarriak jakinarazten. Dena den, iparraldeko zonaldean zurbeltz formako bost zuhaitz daude, Garapenaren Plan Berezian kontsideratuak izan behar direnak, kontserbazio edo birlanaketa kasuaren arabera aukeren kasua aztertuz.</p> <p>(GR-282) Artzaintza Naturbide ibilbideak, Otero kalea zeharkatzen du, eremuaren zonalde bien artean. Natura Sarearen espazioetatik oso urrun.</p> <p>Nekazaritza-balioa duten lurzoruei eragin gabe.</p> <p>Berriz ere bizitegi-eremua oso txikia da, KAH-ak baino txikiagoak izan daitezke eta ez dira handituko. Inpaktu hautemanezina.</p>	





AOP-M1	Mandaia
<p data-bbox="352 421 480 450"><b>ARRISKUAK:</b></p>  <p data-bbox="352 1151 1062 1180">Arrisku azpimarragarririk gabe, %20ko tokiko lurraldeen malda izan ezik.</p>	





## Olabarri

AOP-01	Olabarri
<p><b>EREMUA:</b></p> 	
<p><b>ANTOLAMENDUA:</b></p> 	





AOP-O1	Olabarri
<p><b>Indarrean dauden AASSetatik datorren Sektorizatutako Lurzoru Urbanizagarria</b></p> <p>Bizitegi sailkapen orokorra Etxebizitza kop.: 24</p> <p>25.078 m<sup>2</sup>-ko eremua Olabarri kontzejuaren iparraldean dago, Badaia mendilerroan hegalaren hiri muga sortuz.</p> <p>Eremu honen antolamendua, bai egiturazkoa zein xehatua antzinako SAU-O2 eremuan onartutako garapen plangintzari erantzuten dio. Eremua egikaritze unitate bitan banatzen da, osagarri bezala kudeatu da eta birpartzelazioa ere badauka. Lehenengo egikaritze unitatea urbanizatu eta eraiki da, eta bigarrena urbanizazioaren eta eraikitzearen zain dago. <b>SAU-O2 eremuaren antolakuntza xehatuaren Plan Partziala onartu da, behin betiko onartu zen 2007.urteko urtarrilaren 22an, 2009.urteko apirilaren 15ean behin betiko onartutako aldakuntzekin.</b> Eremuaren zati bat guztiz gauzatu ondoren, garatu beharreko zonaldea bakarrik mugatzen da.</p>	






## Tresponde

AOP-T1	Tresponde
<p>EREMUA:</p>	
<p>ANTOLAMENDUA:</p>	





AOP-T1	Tresponde
<p><b>Indarrean dauden AASSetatik datorren Sektorizatutako Lurzoru Urbanizagarria</b></p> <p>Bizitegi sailkapen orokorra</p> <p>Etxebizitza kop.: 14</p> <p>16.724,34 m<sup>2</sup>-ko eremua gaur egun kontzejuak dituen bi bizitegi-auzoen artean dago: Santa Katalina eta Santiago, eta Larras de San Juan bideak iparraldeko muga osatzen du. Gainera, eremuaren ekialdeko mugaren inguruan Lanerrea erreka igarotzen da, eta erreka eragina izango du.</p> <p>Eremu horren jatorrizko mugaketa SAU-T1 eremu zaharretik dator, eta haren plan partziala 2012ko urtarrilaren 27an onartu zen behin betiko. Hala ere, haren antolamendua eta hirigintza-parametroak aldatu egin dira URAK HAPO honi egindako txosten sektorialaren ondoren. Proposatutako eremuaren antolamendua egokitu egiten da Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, 449/2013 Dekretuaren bidez behin betiko onartua, zeinaren parametroak III. liburukiko Hirigintza-araudiaren 1. eranskinean zehazten baitira (Hirigintza-antolamendu xehatuko eremuetako arau bereziak).</p> <p>Lanerrea erreka inguruan eratzten da Gune Librean Sistema Orokorra, eta proposatutako antolamenduan gune librean tokiko sistemak ahal dela SGEL eta SLEQ artean kokatuko dira. Tokiko Sistemen sarea lagatzeko ekipamendua aire zabaleko jolas-parke eta futbol-zelai gisa planteatu da, eta eremua garatu ondoren gauzatu eta laga da. Bestalde, eremuak jarraipena emango dio Larras de San Juan kale osoari, Santiago kalearekiko bidegurutzeraino, fitxan zehazten den bezala.</p>	




AOP-T1	Tresponde
<p data-bbox="352 421 600 450"><b>AFECCIONES Y RIESGOS:</b></p> <div data-bbox="547 450 1114 1339"></div> <p data-bbox="352 1384 1359 1704">Eremu ia osoa Zadorra ibaiaren ES091_ARPS_ZAD-01 UAHEren uholde-arriskuko eremuan dago, Ebroko Konfederazioaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren barruan. Gainera, Lanerreak errekaen zortasun-eremuak eta polizia-eremuak ere eragiten diote. Dagokion fitxan zehazten denez, III. liburukiaren eranskinean, proposatutako antolamendu xehatuak kontuan hartzen ditu eragin horiek, eta Lanerreak errekaen eremua eta haren zortasun-eremua definitzen ditu Espazio Librean Sistema Orokor gisa. Gainera, GLko Zerrenda Orokorrean gutxienez 10 metroko sekzio-zerrenda bat sartzen da errekaen ibilguren mugatik. Bestalde, errekaen aurreko fluxu-eremua errespetatzen da, eta horrek eremuaren zati handi bati eragiten dio, eta eraikuntzarik gabe geratzen da. Gogoeta horiek guztiak eremuaren fitxan jasotzen dira, eta bertan Plan Partzialak bete beharreko parametroak zehazten dira. Irudian gorritz ageri da errespetatu beharreko lehentasunezko fluxu-eremuaren azalera, 2020ko urtarrilekoa, "Lanerreak errekaen azterketa hidraulikoa SAU-T1etik igarotzean".</p> <p data-bbox="352 1753 1359 1868">Akustikaren ikuspegitik, etxebizitza berriek aurreikus dezaketen maila-igoera moderatua izango da, 2-3 dBA baino txikiagoa izango baita eremuan bertan eta bertara sartzeko bideetan. Kalkulatutako etorkizuneko mailek, hala badagokio, eremuaren ekialdeko mugan baino ez lituzkete gaitutako KAH mailek, mugatzen duen bidearen ertzean bertan. Hartara, inpaktua bateragarritzat jotzen da.</p>	



## Billoda


AOP-V1	Mendebaldeko Billoda
<p><b>EREMUA:</b></p> 	
<p><b>ANTOLAMENDUA:</b></p> 	



AOP-V1	Mendebaldeko Billoda
<p>Finkatugabeko Hiri Lurzorua Bizitegi sailkapen orokorra Etxebizitza kop.:7</p> <p>8.734 m<sup>2</sup>-ko eremua, Billoda nukleoaren mendebaldeko ertzean kokatua dago, gehien bat hiri lurzorua osatuz, antropizatua dagoen lurzoru urbanizaezineko zati txiki bat izan ezik, bertan hainbat ur eta gas gordailu ugari daude, azpiegitura sareko osagai hauengan eragina izan gabe.</p> <p>Familia bakarreko eta familia bientzako zazpi etxebizitza garatuko dira, BS+1+T altuerarekin.</p> <p>Beste alde batetik, San Kristobal, Itxaroetan eta Mayor kaleak ingurunean bere mendebaldeko muturrean bukatzen dute, modu honetan ibilgailuak beraien markak alde berean uzten dituzte, lurraldea higituz, hiru kale hauek lotzeko elkarbizitzarako bide berri bat sortuko da, Billodako ibilbide nagusiaren egitura konponduz.</p>	
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p> 	
<p>Afekzio zuzenik gabe aldagai azpimarragarriengana, baina iparraldetik gertu okupatutako azalaren gainean, lehentasun gabekoa 9340 nukleoan (Quercus basoak eta Q. rotundifolia) eta kontserbazio egoera bikainean.</p> <p>Eremuan zurbeltz zuhaitz ugari aurkitzen ditugu, nahiz eta haietariko askok antolakuntzan gune berdearen erdiko zonaldean geratu. Gainontzekoari dagokionez, Garapen Plan Berezia, kontserbaziorako edo hunkitutako indibiduoak ordezkatzeko neurri egokiak hartu beharko ditu.</p> <p>GR-25 "Araba Lautadako Birako" Ibilbide Berdea, eremuaren hego-ekialdetik doa.</p> <p>"Zadorra ibairen" KBEen mugak (mehatxatutako animalia espezie onartutako kudeaketa Planaren multzoa) 140 metro baino gehiagora daude, 100 metro Uhalde-enararen P. O-an eremuaren Ipar-ekialderantz, hiri-nukleoaz bananduta, eta babestutako ingurune eremutik kanpo (KBE).</p>	






AOP-V1	Mendebaldeko Billoda
<p>Nekazaritza-balioa duten lurzoruei eragin gabe.</p> <p>SUNC-eko 7 etxebizitzako urbanizazio txikia, aurreikusitako birkalifikaziorik gabe, berriz ere zarata-maila oso baxuekin eremuan eta ingurunean, eta aurreikusitako igoera nabarmenik gabe. Inpaktu hautemanezina.</p>	
<p><b>ARRISKUAK:</b></p> 	
<p>Eremuaren barruan nuklearen hiri hornitzeko babes bilketa dago, 1003 kodearekin eta “hiriaren erdialdea”.</p> <p>Billodako gainontzeko hiri nukleoa bezala, kartografiatutako lurraldeen gainean ezartzen da, adibidez: akuifero kutsadura altuko ahulezi eremuak bezala.</p>	



AOP-V2	Tertziarioa
<p><b>EREMUA:</b></p> 	
<p><b>ANTOLAMENDUA:</b></p> 	






AOP-V2	Tertziarioa
<p>Finkatugabeko Hiri Lurzorua kalifikazio Orokorra Tertziarioa (bizitegi portzentaje handiarekin) Etxebizitza kop.: 16</p> <p>32.365 m<sup>2</sup>-ko eremua, Billoda nukleoaren iparraldean kokatua dago, kontzejuaren iparraldean, Zadorra ibaia eta erromatar zubi batez bananduak. Gaur egun hondamendi industrialez osatutako lurraldez osatuak eta Bizitegi lurzorutik gertu, Zadorra ur-bazterren zehar kokatuak.</p> <p>Planaren helburua: industria hondakinak birkalifikatzea erabilera tertziario bezala, bizitegi nukleotik gertuko zonaldeetan. Lortzeko erabilera tertziarioa eta bizigikoa eremu berdinean elkartu behar dira, honela bizitegi parkearen binakako etxebizitzak 16era helduko dira, atxikituak edota familia bakarrekoak BS+1+T bihurtuz. Erabilera tertziarioentzako 8.983 m<sup>2</sup>-ko azalera ezarriko da BS+1 altuerarekin.</p> <p>Halaber Zuzkidurako Sistema Orokor bat sortzen da, erabilera sortuko dituenak, erabilera tertziarioekin eta berriekin harremana daukatenak, ingurune naturala edo tokiko aberastasun historiko-arkitektoniko eta arkeologikoarekin (aurkitutako material arkeologikoko interpretazio zentroa, inguruko natura, ...).</p> <p>Antolamendua ezartzen da eremuaren hegoaldeko zonaldean ekipamenduzko sistema orokorrean eta gune berdeko espazio libreekin batera, Zadorra ibaia uholdegarria den eremuko lurzoruetatik gertu eta A-3302 errepidetik gertu.</p>	
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p> 	
<p>Eremu osoa EAEan Interes kultureko Ondasun bezala izendatuta dagoen Arkeologia Gunean dago, "Iruña-Veleiako Oppidium izena" duena, Monumentu multzoan sailkatua (Planaren Ondasun Babestuaren katalogoko T-1 IAG). Aurreikusitako erabilera motak afekzio arriskua murrizten duenez, oppidumeko hegoaldeko haranean kokatua dagoena, EJaren arabera, ez dira parte-hartze arkeologikorik egingo. Hala ere, egitura ezberdinak azaleratzen dira, airetik ikusten den argazkiarekin batera, eraikin garrantzitsuen existentzia azpimarratzen dute. Haietarako batzuk etxeko egiturei dagokie, baina beste batzuk bere tamainagatik, eraikin publiko bezala hobeto ulertzen dira.</p> <p>GR-25 "Araba Lautadako Birako" Ibilbide Berdea, eremuaren hego-ekialdetik doa.</p>	



AOP-V2	Tertziarioa
<p>“Zadorra Ibaiaren” KBE eremuak (eta mehatxatutako fauna espeziei buruzko Kudeaketa Planak) hegoaldeetik 60 metrotara agertzen dira, eta KBEaren kanpoaldeko babes eremuaren barruan geratuz. Hala ere, habitat naturalen gainean edo intereseko landaretik gertu ez dira afekziorik identifikatzen. Garatzeko Plan Bereziak, prebentziozko eta zuzentzeko neurri multzoak izan behar ditu, kultura ondarea babesteko, eta Zadorra ibaiko eremuarekin zeharkako afekzioak.</p>  <p>Nekazaritza-balioa duten lurzoruei eragin gabe, lehendik dagoen erabilera kontuan hartuta, baina mugakidea da ia perimetro osoan.</p> <p>Ikuspuntu akustikotik, industria-azpiindustrialak da, non erabilera globala sektore tertziarioko birkalifikatzea proposatzen baita (KAH 65/65/60 dBA), bizitegi-erabilerako azalera bat erreserbatzeaz gain (KAH 60/60/50 dBA). Eremu honetako zarata-maila nagusiak A-3302 errepideko trafikoa eta hortik Bilodetarako sarbideak (A-4314) eragindakoak dira. Errepidetik hurbil dagoen hirugarren sektoreko lurzoruen kasuan, KAH-tik gorako mailak galtzadaren ondoan baino ezin dira aurreikusi. Bizitegi-lurzatian aurreikus daitezkeen etorkizuneko mailak dagokienez, KAH-ak baino askoz txikiagoak dira, 50-52 ingurukoak egunez eta arratsaldez, eta 50 dBAtik beherakoak gauaz. Halaber, mailetan aurreikus daitezkeen igoera txikia da, dBA 1 baino txikiagoa. Horren arabera, eragina bateragarria da.</p>	




AOP-V2	Tertziarioa
<p><b>ARRISKUAK:</b></p> 	
<p>Zentzu honetan baldintzatzaileak ez daudenez, %20ko malda baino gehiago daukaten eremuetan eta akuiferoekin kutsatzeko arrisku handia daukate lurraldeak izan ezik, hego-ekialdean daudenak eta Zadorraren alubialetik gertu.</p> <p>Eremuaren hego-ekialdean, lurzoru kutsatu baten lursaila inbentariatua dago, nahiz eta ziur aski eremua praktikan baldintza berdina izan.</p> <p>Hegoaldeko eremuak uholdegarria (500 urteko errepikatzen denbora) den mugarekin bat egiten du, Ebroko konfederazio uholdegarriaren Arrisku Kudeaketa Planean agertzen den bezala.</p>	





AOP-G1	Garabo
<p><b>EREMUA:</b></p> 	
<p><b>ANTOLAMENDUA:</b></p> 	





AOP-G1	Garabo
<p>Finkatugabeko Hiri Lurzorua Bizitegi Saikapen Orokorra Etxebizitza kop.: 9</p> <p>6.167 m<sup>2</sup>-ko eremua, Billoda kontzejuaren hegoaldean eta antzinako espetxe eraikinaren ekialdean, Zadorra meandroaren hegoaldean.</p> <p>Existitzen diren etxebizitzaren zerbitzuen zuzkidura jarduketa bat da, bizitegi erabiliera bakarrik ohiko etxebizitza bezala erabiltzen ari diren eraikinetan.</p> <p>Bere antolamendua HBPB (Hiri Berrikuntza Plan Berezi) batera doa, zonaldea urbanizatzeko helburuarekin eta beharrezko zerbitzuak jartzeko, ura eramateko hodiak bezala, saneamendua eta hiri lurzoruen elektrizitatea.</p>	
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p> 	
<p>“Garaboko errota eta irin fabrika” eremuan dago, ondare arkitektonikoaren katalogoan dagoena eta ondasuna babesteko proposatu zena (BPNL V-59), bere inguruan izen berarekin deklaraturako interes arkeologikoa (IAGIP V-40), ezartzen den babes maila errespetatu behar da, ingurumen erregulazioan eraikuntza izateko, honekin ondoriozta dezakegu birgaitzapen obrak, zaharberritzea eta barneko egokitzapena, beti jatorrizko elementuaren tamaina errespetatuz, materialak, hutsune motak, etb. eta aldi berean, multzoaren gainontzeko elementu funtzionalak edo ornamentalak. Balizko Arkeologia Mailara babesa kautelazkoa da.</p>	



AOP-G1	Garabo
<p>Beste alde batetik, KBE-ko "Zadorra ibaiaren" ES2110010 mugak (mehatxatutako fauna espezetan onartutako kudeaketa planetan. Espeziak dira: Bisoï Europarra, Igaraba eta Zaparda) eremuaren iparraldeko ertzarekin muga egiten dute, KBE-ko 75 m<sup>2</sup>-ko azalera okupatzen dute eta babes eremu baben barruan dago. Hala ere, erantsitako irudian ikustenenez, eremua antzinako errota eta irin lantegiarekin bat egiteaz gain, ez dira afekzio zuzenik aurreikusten habitat naturaletan ezta intereseko landaredian.</p>  <p>Hala ere, Zadorraren erribera inguruko landaredia, batasun intereseko habitatak osatzen du 91E0* Haltzadiak eta Lizardiak (lehentasuna) eta 92A0 <i>Salix alba</i> eta <i>Populus alba</i> baso galeriak (lehentasunik gabe), egikaritze lanen zehar babes espezifiko eta intentsiboko neurriak egokitu behar ditu, eta garapen HBPB kontsideratu behar da.</p> <p>Nekazaritza-balioa duten lurzoruei eragin gabe.</p> <p>Ez da eragin akustikoaren ebaluaziorik behar izan, birgaitze-jarduketa bat baita, kalifikaziorik eta antolamendu xehaturik aldatu gabe</p>	
<p><b>ARRISKUAK:</b></p> 	





AOP-G1	Garabo
<p>Eremuaren iparraldeko eremua, Zadorra ibaiaren uholdegarri eremuaren UAHE ES091_ARPS_ZAD-01 dago, Ebro konfederazioaren Uholde Arriskua kudeatzeko Planean dago (uholdegarria 500 urteko errepikatze-denbora).</p> <p>Eremuaren azalera gehiena akuifero kutsatuaren ahultasun altuko lurraldean garatzen da.</p>	







## AOP INDUSTRIALAK

AOP-I1	Lehergaiak
<p><b>EREMUA:</b></p>	
<p><b>ANTOLAMENDUA:</b></p>	



AOP-I1	Lehergaiak
	<p>Finkatugabeko Hiri Lurzorua Saillkapen Orokorra industrialia Jarduketa zuzkidura</p> <p>838.288 m<sup>2</sup>-ko azalera duen eremua, Olabbarri nukleoaren hego-ekialdean kokatua, A-2622 errepidetik hurrun.</p> <p>Lurraldeen jabeak 2014.urteko apirilean hitzarmen bat sinatu zuen Udalarekin, hirigintza antolamenduko proposamen bat aurkeztu zuen bere lursailari erantsitako lurraldeei buruz, ekoizpen industrialeko hedapen eremu bat planteatuz gaur egungo lurzoru industrialen mugen barruan. Hirigintza eraikigarritasunaren hazkundeagatik sortzen den Finkatugabeko hiri lurzoruari buruz ari gara, hortaz eremu honen helburua: zuzkiduraren zama altzatzea da, <b>zuzkidura jarduketa</b> baten bidez. Hitzarmenak adostu zuen: lurzoruaren lagapena sistema orokorreko sare bateko ekipamendua lortzeko, 113.550 m<sup>2</sup>-ko azalera okupatzeko. Ekipamendu honen erabilera aisialdikoa da, tiru-zelai bat aurreikusten delako.</p> <p>Tokiko Sistemen sarera zuzendutako lagapenak Sistema orokorrean alboan eta ibilgailuentzako sarbideetan edukiko dute beraien kokapena. Lortutako azalera guztiaren erdia Gune Berdeko Espazio Libreetara bideratuko da eta beste erdia aparkaleku publikoetara zuzenduko da.</p> <p>Eraikuntza industrialaren hazkundera 40.800 m<sup>2</sup>-koa da, BS+1 altueran.</p> <p>Era berean, sektore tertziarioko beste erabilera osagarri batzuk baimenduko dira, sektoreko araudiaren arabera, lehergailuak ekoizteko, biltegitratzeko eta banatzeko industria-erabilerarekin bateragarritzat jotzen direnak, eta aplikatu beharreko segurtasun-neurri eta sektoreko araudi guztiak betetzen dituztenak.</p>
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p>	
	<p>Sistema orokorren eta sistema libren garapena proposatzen diren lurraldeetan (eremuaren hego-mendebaldeko eremua), kartografiatutako larrez eta sasiz okupatuak daude, lehentasunezko ez den 6210 (<i>Brachypodium pinnatum</i>-eko larre mesofiloak) bezala, 12 ha-ko afekzioarekin. Halaber,</p>



AOP-I1	Lehergaiak
<p>Erkamezti subkantauriarren mantxa txikiak agertzen dira (3.400m<sup>2</sup>) eta proposatutako gunean berdean geratuko dira.</p> <p>“Zadorra Ibaiaren” KBEn mugak, eremuaren ekialdetik 600 metrotara daude.</p>  <p>Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean mugatutako nekazaritza-balioko lurzoruei eragin gabe, nahiz eta lurzoru horien perimetro ia osoa mugakidea izan.</p> <p>Ez dago eragin akustikoa aztertu beharrik, SUNC-en zuzkidura-jarduketa bat delako eta ez delako birkalifikaziorik egiten.</p>	
<p><b>ARRISKUAK:</b></p> 	



<b>AOP-I1</b>	<b>Lehergaiak</b>
<p>Eremuaren atal handi bat, lurzorua kutsatzen duten jarduera kutsagarriak bezala inbentariatuak daude, irailak 30eko 165/2008 Dekretuaren arabera; bereziki hego-ekialdeko zonaldean, hortaz aplikagarria izango litzateke ekainak 25eko 4/2015 Legea, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.</p>	






AOP-I2	Los Llanos II
<p><b>EREMUA:</b></p> 	
<p><b>ANTOLAMENDUA:</b></p> 	




AOP-I2	Los Llanos II
<p>Sektorizatutako Lurzoru Urbanizagarria Saillkapen Orokorra industrialia</p> <p>Eremuak 437.255m<sup>2</sup>-ko azalera dauka, (erabiligabekolursail industrialek 207.475 m<sup>2</sup>) Los Llanos industrialdearen hegoaldean eta A-1 errepideaz bandanduta.</p> <p>Industrialdea nabarmendutako bi zonalde ezberdinetan banatzen dira; alde batetik, azaleraren zati handiena mendebaldean, erabilera industrialekin eta erabilera tertziarioa baimenduz erabilera nagusiari zerbitzua emateko, eta beste alde batetik, ekialdean dagoen aparkaleku ekipamendua eta nukleori eta Langraiz Okako espetxe berriari zerbitzuak eskaintzen duten erabilera tertziarioak. Zonalde honetan erabiltzen den landa-turismo bat existitzen da.</p> <p>Zonalde bi hauek Espazio Libreko Tokiko Sistemaz bananduak geratzen dira, ekialdean zuhaitziz osatutako eremu berde bat izango da. Gune berdeak espazio librean zehar Tokiko zuzkiduren lagapenak ez izatea, eta aparkatzeko erabilpena izango duen eremua osatuko dute edo sortzen den bestelako erabilpena. Industrialdea aldi berean, hego-ekialdeko mugan espazio libre berdeko beste tokiko sistema bat edukiko du, ingurunearen inguruntetik bereiziz eta aireportuko etxolako "Segurtasun Zonalde" eremuaren kanpoaldean kokatua.</p>	
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p> 	
<p>Basanko errekek eremua zeharkatzen du, ur gainazalen babesa kategoriarako afekzioak eta baldintzak kontuan izan behar dira LAG-ek eta Plan Orokorren Hirigintza Arauak ezartzen dutenaren arabera.</p> <p>Aldi berean, iparraldean eta landa-turismoa instalazioen alde bietan sastrak agertzen dira, lehentasunezkoak ez direnak 4090 (txilar kaltzikola genistadunak) eta gune berdea kontserbatzen da, okupatutako antolamenduaren azalera 0,5ha-koa da.</p> <p>"Zadorra ibaiaren" KBE eremuak, eremutik 750 metrotara agertzen dira eta A-1 errepideak suposatzen duen hesiaz bananduak.</p>	





AOP-I2	Los Llanos II
	
<p>Eremu horretan, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan mugatutako nekazaritza-balioko 34,86 ha hartzen dira, hau da, Planaren berrikuspenean mota horretako lurzoruei eragiten dien azalera osoaren %28,4. Hala ere, trantsizioko landa-paisaia (TLP) gisa kalifikatutako lurzorua da, balio estrategiko handiko (BEH) lurzoruetan eraginik ez duena.</p> <p>Lursail lauak dira, ia guztiak lehorreko zereal-laboreetarako erabiltzen direnak, 2,9ha inguruko lursail txiki bat izan ezik. Lursail hori ipar-ekialdeko muturrean dago, ureztatzeko putzu txiki batetik aurrera ureztatzeko belar-labore ureztatuarekin. Landu gabeko eremu batzuk ere agertzen dira, bai malda handiak dituztelako, bai hamarkada bat landatu gabe daramatelako.</p> <p>Inpaktu akustikoari dagokionez, proposatutako zonakatzeko akustikoan industria-erabilera bereizgarriko eremu bat dago (KAH 70/70/60 dBA), nahiz eta kalifikazioak ipar-ekialdean hirugarren mailako eremu bat aurreikusten duen (KAH 65/65/60 dBA).</p> <p>Egindako azterlanaren arabera (ikus eranskina), eremuaren inguruko soinu-mailak handitzeari dagokionez – Bereziki, autobien trafikoa eremuaren ipar-mendebaldeko muga mugakide batera eragindakoak –, proiektuaren horizonterako aurreikusitako IMDren hazkundeak soinu-mailak 1 dBA handitzea ekar dezake, eta hori bilakaera neurritsua da.</p> <p>Aurreikusitako erabileren eta foku mugakideek sortutako zarata-mailen arteko bateragarritasunari dagokionez, erabilera tertziarioko lurzoruen kasuan, egunez eta arratsaldez murriztaileagoa, KAHari dagokion 65 dBAko isofonoak 40 eta 65 m arteko zabalera izango luke A-1aren mugako muga. Ln = 60 dBA (gaueko KAH) isofonoak antzeko portaera du. <i>Industria-erabileraren</i> kasuan, A-1 errepidearekiko iparraldeko muga horretan ez da aurreikusten 65 dBAko KAHa gainditzea egunez eta arratsaldez, baina bai gauekoa (60 dBA) 50-60 zabalerako banda batean, hirugarren sektoreko erabileratik hurbilen dagoen eremuan. Hala ere, zerrenda horren zati bat barruko bide batek eta inguruko berdeguneek hartuko lukete.</p> <p>Burgos-Bilbo-Irun abiadura handiko linearen etorkizuneko trazadurarekin eta Burgos-Gasteiz zatiaren informazio-azterketan aurreikusitako trenbide-trazadurarekin eta -ustiapenarekin mugakide den hego-ekialdeko muga zehar, ez da aurreikusten eremu horretan KAHak gaindituko direnik.</p> <p>Ondorioz, eremuko sektore tertziarioko erabileretan izan daitezkeen inpaktuak eta horien tamaina bereziki kontuan hartuta, inpaktua neurritzeko dela balioesten da, eta neurri zuzentzaileak hartu behar direla.</p> <p>Sustatzailearen ardura izango da neurri zuzentzaileak sartzeko, eta dagokion azterlan akustikoa bidali beharko du hirigintza-izapideak egin bitartean. Udalak bermatuko du helburu horiek betetzen direla.</p>	





AOP-I2	Los Llanos II
<p data-bbox="352 421 480 450"><b>ARRISKUAK:</b></p> 	
<p data-bbox="352 1272 1353 1330">Eremuaren zati handi bat, akuiferoen kutsadurari kalteberatasun altuko lurzorua bezala inbentariatua agertzen da.</p>	




AOP-13	Subillabide II
<p><b>EREMUA:</b></p> 	
<p><b>ANTOLAMENDUA:</b></p> 	




AOP-13	Subillabide II
<p>Sektorizatutako Lurzoru Urbanizagarria Saillkapen Orokor industrialia</p> <p>Eremuaren azalera osoa 530.399m<sup>2</sup> -koa da, (erabilera industrialeko 294.262 m<sup>2</sup>), mendebaldetik trenbidea dauka eta ekialdetik Jundizko muinoa. Iparraldetik Vitoria-Gasteizko industrialdearekin muga egiten du eta hegoaldeetik Langraiz Okako Subillabidearen industrialdearekin.</p> <p>Antolamenduaren eremua ezinbesteko irizpidea kontsideratu da, Jundiz muinoaren ekosistema zaintzeko lotura naturala nahiz eta hau udalerriz gaindiko plangintzan korridore naturala bezala ez hartu. Horretarako espazio libreak egongo dira poligonoaren erdialdean, lotura ekologikoak bezala funtzionatzeko Jundizko muinoaren eta Badaia mendilerroaren artean, nekazaritza eta abeltzaintzako lurzoruen bidez Zadorra inguruan. Ahal dela, industrialdearen ertzeko eremuak naturalizatzen lagunduko dute berdeguneetako sistema lokalek. Espazio hauek Espazio Libreen Tokiko Sistemen menpean daudenak eta gunee berdeak izango direnak, oparo handitzen dira, Lurzoru Urbanizagarriko tokiko zuzkidura estandarren ratio handitzen da, eta lurzoru industrialentzako 123/2012 Dekretuaren 9.artikuluaren ezartzen da.</p> <p>Poligonoa bi eremu ezberdinetan argi eta garbi banatzen da, iparraldekoa eta hegoaldekoa. Ohiko erabilera industrialia izango da; iparraldeko zonaldean lurzoru zati bat gordeko da erabilera tertziarioetarako, eta hegoaldeko zonaldean simetrikoki, eta Jundiz muinoan erabilera generikoko ekipamenduzko zuzkidura murgilduko da.</p>	
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p> 	
<p>Ikus daitekeenez, eremuaren ia azalera osoa nekazaritzako laboreek hartzen dute gaur egun; izan ere, ekialdean definitutako mugek malda handieneko mendi-hegalak eta horiei lotutako landaretza naturala saihesten dituzte..</p> <p>Soilik aipa daiteke hic 4090 ez lehenasunez kotzat jotako sastrakadi-orban txikiak daudela (Aliagadun txilardi oromataneeo endemikoak), gehienak erdiko berdegune gisa kontserbatzen direnak, eta antolamenduak 0,2hektareako azalerari baino ez dio eragiten..</p> <p>"Zadorra ibaia" KBEaren mugak eremutik 150m baino gehiagora daude, mendebalderantz, eta AHTaren korridore berriak bereizten ditu.</p>	



AOP-13	Subillabide II
 <p>Eremu horretan biltzen da Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan mugatutako eta HAPOren berrikuspenean okupatutako lurzoru urbanizaezinaren %40,3 hau da, 30,23 ha TLP eta 17,96 ha BEH-lurzoru, guztira 48,19ha.</p> <p>Balio handieneko eremuak (AHT) 1,25 km luze eta 70 eta 240 m arteko zabalera aldakorreko bandan daude, eremuaren ipar-mendebaldeko muga zehar, trenbidea Madril-Hendaia linearekin muga. Belar-laboretarako eremu lauak dira, bai lehorreko zereatarako, bai produktibitate handiagoko laboreak (bazka-laboreak, merkataritzakoak) dituzten ustiategi ureztatuetarako. Zerrenda horrek Gasteiz udalerriarekin muga egiten du ipar-ekialdera, zehazki, Jundiz Mendebaldea industrialdearekin.</p> <p>Eragin akustikoei dagokienez, industria-erabilera bereizgarria duen garapen berri bat da (70/70/60 dBA KAH), baina bateragarri da hirugarren sektoreko erabileretarako eta ekipamenduetarako (65/65/60 dBA KAH) ekialdeko mugako bi partzelatan.</p> <p>Eremuaren mendebaldeko muga, hegoaldean, AHTaren etorkizuneko ibilbideak zehazten du, eta iparraldean, Madril-Irun egungo trenbide konbentzionalak. Iparraldeko erdialde horretan, eta aipatutako bi trenbideen artean, Jundizko geraleku intermodala (HAPO-ko AOS-SG1, udalez gaindikoa) aurreikusi da, eta haren eragin akustikoa ez da simulatu, ez baita aurreikusitako banaketa eta eraginkortasuna ezagutzen.</p> <p>Azterketa akustikotik ondorioztatzen denez (ikus eranskina), etorkizuneko mailarik handienak linea konbentzionalak sortuko ditu. Bidaariaren zirkulazio ia guztiak etorkizuneko Lav bidez egingo diren arren, ADIF linea konbentzionalen igoera handiak aurreikusten dira salgaien zirkulazioen kopuruan eta konposizioan, eta horrek 5 eta 10 dBA arteko soinu-bilobak handitzea ekar dezake linea horren inguruan. Sektorizazioan aurreikusitako ipar-hego bide nagusiari dagokionez, poligonoaren beraren trafikoak sortutako mailak bidearen beraren eta haren ertzen luzeran bakarrik igoko dira.</p> <p>Sektore tertziarioko erabilerako eremuak trenbidetik urrun daude, eta, beraz, ez da aurreikusten KAHak gaintutako direnik. <i>Erabilera industrialari</i> dagokionez, eremu horretan gehiengoa izanik, KAHen balizko gaintutzeak iparraldean daude, eta han FFCC linea da muga; izan ere, Lav berriak, hegoaldeetik hurbilen dagoenak, ez du batez besteko maila handirik sortuko.</p> <p>Iparraldeko erdialde horretan zentratuta, Ld/Le = 70 dBA (OCA) isofonoa gehienez 10 metroko distantziara hedatzen da AOPren barnealderantz, eta lur horiek perimetrotako berdegune baten banda batekoak lirateke, trantsizio gisa. Horrela, eragina bateragarria izango litzateke. Hala ere, gaueko BKEn kasuan (60 dBA), dagokion isofona eremuaren barnealderantz 35 metro ingurura dago; beraz, industria-erabilerako lurzatieta gaintu daitezke.</p>	







AOP-13	Subillabide II
<p>Egindako azterketaren arabera, eragina neurrizkoa da, eta neurriak hartu behar dira.</p> <p>Sustatzailearen ardura izango da neurri zuzentzaileak txertatzea, eta hirigintza-izapideetan dagokion azterketa akustikoa bidali beharko du, eta Udalak bermatuko du helburu horiek betetzen direla ikuskatuko dela.</p>	
<p><b>ARRISKUAK:</b></p> 	
<p>Iparraldeko eremuaren erdia baino gehiago, akuifero kutsatuen kalberatasun lurzoruetan inbentariatuak agertzen dira.</p> <p>Toki mailara, %20ko malda baino gehiago duten lurraldeak agertzen dira.</p>	



## SISTEMA OROKORRAK


### Udalerriaz gaindiko Antolamendu Eremua (AOS)

AOS-SG1	Terminal Intermodal
<p><b>EREMUA:</b></p> 	
<p><b>ANTOLAMENDUA:</b></p> 	



AOS-SG1	Terminal Intermodal
<p>UDALERRIAZ GAINDIKO ANTOLAMENDUA</p> <p>Trenbide komunikazioen Sistema Orokorreko Sailkapen Orokorra</p> <p>Eremua Udalerriaz gaindiko antolamenduarekin mugatzen da, udalerrriaren ipar-ekialdean 30,16 ha-ko azalerarekin, Vitoria-Gasteizko udalerrian Jundiz poligonoaren alboan, Madril-Irun trenbidearekin eta AHTarekin, bere mugaren hego-ekialdean. Egungo Lurzoru Urbanizagarrian kokatua dago, Balio Estrategiko handiko nekazaritza eta abeltzaintzako lurzoruan kokatua dagoen Lurzoru Urbanizaezinean kokatuta dago.</p> <p>Aurrerapen agiriak eta Lurralde Antolamendurako Gidalerroen (LAG) Hasierako Onespenak, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalen Aldaketa Ardatz bat planteatzen dute. Iruña Okako A1 errepidean eta Agurain-Salvatierra norabidean oinarrituz, eta Araba Lautadaren erdialdean kokatuz gero. Transformazio ardatz hau eredu logistiko bezala ulertzen da EAE-tik planteatutakoa, bere kokapen geografikoa Transeuropar ardatz handien barruan beharrezko pauso bezala bihurtzen delako. Euskal Herria europar batasunerako sarbide moduko bat da autonomi erkidego ezberdinentzako eta Portugalerako.</p> <p>LAGEk, Jarduera Industrialeko Eremu berrien sorrera planteatzen da, bateragarriak diren Araba-Jundizko Ardatz atean, oinarritzko industria batzuk batzeko Subillabide eta Jundiz-Forondako zonaldeak proposatuz Terminal Intermodal baten sorrerako. Bere kokapena pribilegiatua da trenbidearen intermodalitaterako abiadura handiko sarean eta iberiar zabaleran, eta aldi berean bide eta aireportuko sareen arteko intermodalitatean.</p> <p>LAGEk garapenean, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialak (LPP), Iruña Oka eta Vitoria-Gasteizen eragin zuzena daukaten eragiketa estrategiko bat planteatzen da. OE-3 eragiketa estrategiko zehatz mehatz: "Alaba-Jundizko Hegoaldeko Berrikuntzaren Arkua", zehaztapen loteslea da; berrikuntza arkuak jarduketa konplexua dauka oinarritzko helburu birekin: alde batetik, existitzen diren lurralde piezak, martxan dagoen aldaketa prozesu batean, operazio deigarri moduan lan egiteko, eta beste alde batetik, "trakziozko" eragiketa berriak sartuz, Araba Erdialdeko diferentziak aprobetxatuz deigarriak diren eragiten bidez eta Arabako etapa berriaren garapenerako.</p> <p>2014.urtean LPP aldatzen da bere zehaztapenetan sartzeko Iruña Okako eta Vitoria-Gasteizko udalerrien Jundiz-Billodako Merkataritza Transferentzia Terminal Intermodala eta LAGetan proposatzen den bezala.</p> <p>Vitoria-Gasteizko hiriaren Abiadura Handiko sarearen integrazio tartearen Informazio Ikerketaren behin betiko onarpenaren ondorioz, AHT hasierako aurreikuspenak asko aldatu dira eta tarte berria eremu egokia mugatu du Terminal Intermodala kokatzeko.</p> <p>Gaur egun Aldaketa Hasierako Onespenaren <b>Prozesuan dago baina izaera loteslea dauka Iruña Okako HAPOaren Hasierako Onespenaren agirirako</b>, aldaketen zain egongo da aipatutako aldaketa behin betiko onartzerakoan.</p> <p>2001.urteko EAE-ko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala (Eusko Jaurjaritza), halaber, bere aurreikuspenetan Jundiz merkantzien aldatzailea barne dauka.</p> <p>Hortaz, plangintzatik Udalerriz Gaindiko Antolamendu Eremuaren mugapena agertzen da, etorkizunean merkantzien transferentzia egiteko Terminal Intermodala eraiki ahal izateko, bertan ekonomia-jarduetarako lurzorua planteatzen da, inguruko pisu logistiko gogor batekin, bertan planteatzen den erabilera nagusia jarduera logistikoena da.</p> <p>Aipatuenez, IIE honetan ez da ebaluatuko.</p>	










AOS-SG2	AHT-aren trazadura
<p>UDALERRIAZ GAINDIKO ANTOLAMENDUA</p> <p>Trenbide komunikazioen Sistema Orokorreko Saillkapen Orokorra</p> <p>Burgos – Vitoria abiadura handiko tarte berria Madrilgo Abiadura Handiko lerroaren barran sartzen da, Euskal Herria Frantziarekin muga eginez. Europar mailaka Lehentasunezko 3. Proiektuaren parte osatzen du, Europar Trenbideko Atlantiko Ardatza, lurralde historiakoan Madril– Valladolid – Vitoria – Frantziako muga lerroari jarraitasuna emanez.</p> <p>2017.urteko ekainean <i>Burgos-Vitoria-Gasteiz tartearen</i> Informazio Ikerketaren idazketa onartzen da, 38/2015 Legearen arabera eta tartearen Ingurumen inpaktu ikerketaren idazketa, 21/2013 Legearen arabera.</p> <p>Udalerriaz gaindiko antolamendu Eremua mugatzen da INECO kudeaketa pribatuko enpresa publikoak egindako informazio ikerketan oinarrituz, Sustapen Ministerioaren arabera.</p> <p>Trazadurak udalerrria zeharkatzerakoan 7,3km zabalera du, 1,4km Vitoria-Gasteizko udalerritik pasatzen dira, hortaz 5,9km Iruña Oka udalerriko lurzoruetatik bakarrik pasatzen dira.</p> <p>Linea berria tunel baten bidez udalerrian sartzen da, N-1 autobidearen Hegoaldean zeru irekiarekin agertuz, “Los Llanos” industrialdearen parean; hemendik aurrera N-1 zeharkatu arte paralelo doa Subillabideko industrialdea zeharkatu arte, bihurgune leunago batekin irteten da hemendik, “Abiadura Handiko” baldintza teknikoengatik, ipar-ekialdeko udalerraren irteera arte, azkenengo zatian AOS-SG1 Terminal Intermodalaren ertzeraino.</p> <p>Aipatu denez, IIE honetan ez da ebaluatuko.</p>	



### Antolamendua Xehatuko eremuak (AOP)


AOP-SG3	Ibaiko parkea
<p><b>EREMUA:</b></p> 	
<p><b>ANTOLAMENDUA:</b></p> 	



AOP-SG3	Ibaiko parkea
<p>Lurzoru Urbanizaezina (548 m<sup>2</sup>) eta Finkatutako Hiri Lurzorua (2.247 m<sup>2</sup>) Gune Librean Sistema Orokorreko Sailkapen orokorra</p> <p>Torka erreken alboko lurraldeak eremu honetan daude, Langraiz Okaren hiri nukleoako iparraldetik daudenak, Herriko Enparantza gune libreraren heldu arte, itsas ertz 126 metro zeharkatuz.</p> <p>Torkako erreka iparraldetik hegoaldera Langraiz Okako nukleoa zeharkatzen dute, eta kontzejuan espazio libreen orno elementuetariko garrantzitsu bat da. Errekaren inguruko lurraldeak daude, haietariko batzuk hiri lurzoruaren egokitzapen tratamendu bat jaso du, nahiz eta ur parke bezala mugatu ez izana eta aurreko plangintzako sistema orokor barruan ez egon.</p> <p>Helburua ingurune natural baten babesa da eta hiri nukleoaren alboko natura sarbide zein aisialdirako espazio baten sorrerarako, aisialdirako zonalde pribilegiatu bat sortzeko bere ezaugarri bereiziek, AOP-N6 Torko eremuaren Gune Librean Sistema Orokorra osatuz. Horretarako, parkean urbanizaezinak bezala sailkatutako lurzoruak sartzen dira, gaur egun ez dira ur-parkeak bezala tratatzen baina egungo hiri parkean dena osatuko dute eta AOP-N6-an sartuko da.</p>	
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p> 	
<p>Hainbat kultur ondasunak identifikatzen dira eta Planaren Ondare katalogoan sartu dira:</p> <p>IO N-1 "Torkaren zubia": EJ kultura ondarearen ondasuna higiezin ondasuna izendatua, sailkatutako babes mailarekin.</p> <p>IPTM N-38 "San Martin Zubia": udalerrri mailan babesteko proposatutako ondasun higiezina, ingurumen babes mailarekin.</p> <p>IOP N-15 "Hamabi hodiko iturria": Ondasun higiezinak Kultura Ondare Ondasunak izendatzea proposatuak (hegoalde ertzeko mugetatik kanpo).</p> <p>Mugatutako eremua zortasun eremu eta poliziaren ibilgu publikoaren barruan daude, nahitaezko URAREN baimen hidraulikoaren txostena izango da, babesa eta kontserbaziorako plan bereziaren onarpenarako.</p>	





AOP-SG3	Ibaiko parkea
<p><b>ARRISKUAK:</b></p> 	
<p>Erreka ertzetan lurraldeen maldak %20 baino gehiagokoak dira. Eremuaren hegoaldean, hiria hornitzeko bilketa aurkitzen digu, 0708 kodearekin, "Erroten Urmaelak" izendatua.</p>	



**AOP-SG4**

**Trespondeko Sarbidea**


**EREMUA:**



**ANTOLAMENDUA:**







AOP-SG4	Trespondeko Sarbidea
<p>Finkatutako Hiri Lurzorua Komunikabide, kale eta errepideen Sistema Orokorreko Saillkapen orokorra.</p> <p>Eremua kontzejuaren hego-ekialdetik mugatzen da, A-4359 eta Iruñako Zubiaren ibilbidearen kaleko lurzorua hartuz. Bere azalera guztira 2.442 m<sup>2</sup> da.</p> <p>Bide garraioaren sistema orokor bat da Plan Berezi batera igorria, kontzejuaren sarbidea hobetzeko S-4359 bidetik.</p> <p>Helburu nagusia ibilgailu astunen, zaborren kamioa eta autobusak besteak beste, sarbide eta maniobra arazoa konpontzea da, eremua berrantolatzeko, zaborrontziak birkolokatuz eta bus geltoki berri bat sortuz, Trespondeko garraio eta hiri zerbitzuen kudeaketa errazteko.</p> <p>Eremuaren antolamendu xehatua oinezkoentzako kaleei jarraitasuna eman behar die, baina errepide eta kalearen erabilera ezarri, azpi-zonaldearen nagusia izanda, parke eta lorategien erabilera baimenduz.</p>	
<p><b>AFEKZIOAK:</b></p> 	
<p>Eremuan ez da ingurumen balio esanguratsuetan afekzio zuzenik igartzen. Hala ere, KBetik 35 metroara ES 2110010 "Zadorra ibaia" kokatua dago eta inguruneke babes eremuan. Beste kasu batzuetan, KBek onartutako mehatxatuta dauden lau animalia espezieen Kudeaketa Planekin bat etortzen dira (Bisoi Europarra, Igaraba arrunta, Uhalde-enara eta Zaparda). Ez dira afekziorik identifikatzen, ez habitaten gainean ezta intereseko landare formakuntzetan.</p> <p>Eremutik kanpo, zonaldean Kultura ondarearen elementu bi agertzen dira Planaren Ondasun Babestuen katalogoan:</p> <p>IOP T-24 "Santiago Apostoluaren Eliza": Ondasun higiezinak Kultura Ondare Ondasunak izendatzea proposatuak</p> <p>IPTM T-22 " Santiago Apostulu aren Eliza": Izendatutako Balizko Arkeologia Gunea.</p>	





AOP-SG4	Trespondeko Sarbidea
<p><b>ARRISKUAK:</b></p> 	
<p>Tokiko mailara, %20 baino gehiagoko malda duten lurraldeek.</p> <p>Eremu osoa kartografiatutako lurraldetan dago, akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun altuko eremuetan adibidez.</p> <p>Eremuaren zatirik handiena, uholdegarria den eremu osoa mugatzen du, Ebroko ur konfederazioaren Uholde arriskua kudeatzeko Planan 500 urteko errepikatze-denborarekin.</p>	





AOP-SG5	Zadorraren Bide Berdea
	<p>Lurzoru Urbanizaezina</p> <p>Oinezko eta bizikletentzako Sistema Orokorren Sailkapen orokorra.</p> <p>Zadorra bide berdearen ibilbidea mugatzen da (Bateragarria den Ibilbide Berdea IVC4), Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Arloko Lurralde Planak proposatua (ALHBBIB) Iruña Oka zeharkatzerakoan, AOS-SG5 eremu bezala.</p> <p>ALHBBIBk Ibilbide Berdeen sare bat proposatzen du, Ondare Natural, Paisaia eta Biodibertsitatearen kontserbaziorako aktibo bezala diseinatzen direnak.</p> <p>Helburua hiriarteko sare berriak sortzea da, ibilgailuak ez diren, oinezkoentzako eta bizikleten garapenerako. Aldi berean ondare naturala, paisajistikoa eta historiko-kulturala balioan jartzen da eta lotura ekologiko eta paisajistikoa berreskuratzen da, hurbiltasun moduak sustatuz eta ingurune naturala errespetatzen dituzten aisialdi ekintzak sortuz.</p> <p>Zadorraren bide berdeko ibilbidea Vitoria-Gasteiz eta Santa Katalinako hondamendi monasterio trazadurari dagokio. Gaur egun lorategi botanikoa da, Trespondetik 500 metrotara dagoena, Vitoria-Gasteiz eta Jundizko muinoa hiritik gertu dagoen lorategi botaniko bitxi honekin lotzeko, eta aldi berean, GR25 bidez Iruña-Veleiako Oppidumarekin lotzeko. Honela Zadorra Ibai Parkea luzatuko da Billodaraino, bertan Langraiz Oka nukleoaren adar bat planteatzen da.</p> <p>Eremu mugaren helburua bide berde honen egokitzapena izango da, plataforma baten egokitzapena zehartz-mehatz, bidearen tarte ezberdinei egokituz, eta lanen drainatzea beharrezko urak kentzeko. Aldi berean ibilbidean zehar beharrezko higiezinak, babesak, landaketak eta seinalizazioa jarriko da, norabidezkoa, prebentziozkoa edo informaziozkoa.</p>



## 6 Ingurumenaren gaineko ondorioak saihesteko, murrizteko eta konpentsatzeko neurrien proposamena

HAPO-aren Berrikuspenetik eratorritako diren jarduera eta jarduketa tipologia desberdinen artean, esan bezala, lurzoru-erabileran aldaketa bat suposatzen dutenak natura-ingurunean eragin handiena izan ditzaketenak dira eta, beraz, natura-ingurunearen elementuen gaineko ondorio negatiboen babeserako edo zuzenketarako neurrien aplikazioa behar dute.

Hala ere, ezin da alde batera utzi egun udalerraren hirigintza-plangintza maila orokorrean aztertzen ari dela eta dokumentu honek egun hasierako onespen fasean dagoen hirigintza-agiri baten ebaluazio estrategiko batekin bat egiten duela. Horregatik, Planean jasotako proposamenen garapenetik eratorritako ingurumenaren gaineko ondorio negatiboak saihesteko, murrizteko eta konpentsatzeko neurrien definizioak babeserako eta zuzenketarako gidalerro eta neurri orokorrak gisa osatzen dira, batez ere lurzoru-erabileran aldaketa bat suposatzen duten Planatik eratorritako aurrez ikus daitezkeen jarduketekin lotutakoak.

Hau ez da oztopo bat gero, Planatik eratorritako proiektu eta proposamenen garapen-planak laguntzen dituzten ingurumen-agirietan (Ingurumen-Agiri Estrategikoa, Ingurumen-Ebaluazio Estrategikoa, Ingurumen-Agiria edo Ingurumen-Inpaktuaren Ebaluazioa) indarreko araudiak edo ingurumen-organoak ezartzen duten IIE-ko araututako prozeduren barnean, saihesteko, babesteko, zuzentzeko edo konpentsatzeko neurri zehatzak eta proiektu edo plan zehatzaren errealitateari moldatuak jasotzeko.

Arreta berezia jarri beharko zaio prebentzio, inpaktuen neurri prebentibo, babestzaile edo zuzentzaile multzoaren diseinuari, ekintza bakoitzaren zehaztasuneei egokituak. Neurri zuzentzaileen arrakasta proiektuaren diseinuaren egokitasun mailaren arabera izango da, eta behin-betiko, proiektuaren idazkia edo jarduketari egokitutako berezko koordinazio mailarekin. Halaber, bereziki nabarmena izango da praktika onen garapena obren burutzearekin.

Jarraian, Plan Orokorretik eratorritako jarduketa bakoitzak barneratu behar dituen oinarritzko neurri zuzentzaileak proposatzen dira, horiek zeintzuk, adierazi denez, burutu, ñabartu edo handituko diren hurrengo faseetan eratorritako proiektu edo ingurumen prozeduraren barneko plan bakoitzean.

Era berean, nabarmendu behar da, nahiz eta berez saihesteko edo babesteko neurriak ez izan, tramitatuko eta onartuko den HAPO-aren Berrikuspenaren dokumentazioan jasoko diren Hirigintza-Arauen betetzeak zenbait kasutan suposatzen duela ingurunearen gaineko zenbait inpaktuen agerpenaren prebentzioa edo ingurunearen alderdi zehatz baten babesa hirigintza-garapenetik eratorritako inpaktu posibleen aurrean.



Horregatik, ondoren aurkezten den neurri-multzoa –potentzialki kaltetuak suerta daitezkeen ingurunearen faktore bakoitzaren arabera eta horietako bakoitzaren gaineko espero diren aldaketa nagusien arabera egituratua– ondorengo faseetan osatuko da Iruña Okako HAPO-aren Hirigintza-Arauetan ezarritako murrizketekin.

Era berean, neurri-multzo bakoitzean bi talde desberdindu dira:

- Alderdi eta neurri horiek, zeinen konponbideen azterketa eta diseinua plangintzan zehaztutako garapen-tresnen idazte-faseari lotuta egon behar den (plan partzialak, plan bereziak eta baita hirigintza-proiektuak ere).
- Babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko neurrien tipologiak, baita aurrez ikus daitezkeen afekzio zehatzen txikiagotzerako gomendio zehatzak.





NEURRI BABESTZAILE, ZUZENTZAILE ETA OINARRIZKO KONPENTSATZAILEAK		
Ingurumen faktoreak	Ingurumen aldaketak	Neurriak
Atmosfera	Partikula esekien gehikuntza	<p><u>NEURRI BABESTZAILE, ZUZENTZAILE ETA OINARRIZKO KONPENTSATZAILEA</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bide- eta ebaki-lanak ureztatzea eraikitze-lanetan.</li> <li>• Kamioien kutxen olanekin estaltzea.</li> <li>• Pantaila babesleak haizete zonaldeetan (landare hesiak, lur mendixkak, etb).</li> <li>• Gainazal bipilen landare-berritze (hidroereinetak eta landaketak).</li> </ul>
	Kutsadura mailen gehikuntza: gasak (CO, CO2, NOX, Sufre konposatuak, erre gabeko hidrokarburoak), metal pisutsuak, etab.	<p><u>DISEINU FASEAN HARTU BEHARREKO ARDUEN AZTERKETA ETA DEFINIZIOA</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Plan Orokorra indarrean dagoen garaian garatuko dira lurzoru urbanizagarrien Plan Partzialak. Urbanizazio obretan emisio atmosferikoak murrizteko neurriak barneratuko dira bere hirigintza-arauetan, batez ere, aireko partikulak. Horretarako, obrako faseetan, hauts produktorako prebentzio neurriak inplementatuko dira, hala nola, pisten ureztatzea, flokulanteen aportazioa, lan makinetan filtro eta katalizadoreen erabilera, etab.</li> <li>• Sustatu eta erraztuko da erregai kontsumo ezarpena edo energi erak, zeintzuk emisio kutsagarri gutxiago eragingo dituzten kokaleku ezberdin guztietan (etxebizitzak, lokalak, ekipamenduak, industriak,...), elektrizitatea edo Gas Naturala adibidez, eta bereziki, eguzkitiar energia.</li> <li>• Industri-tximini irteeretan garbitzaileen erabilera, bero-instalazio kolektiboak eta hotel, jatetxe eta kafetegiak bezalako kolektibitateetan ke eta lurrun irteerak derrigorrezkoak izango dira.</li> </ul> <p><u>BABES NEURRIAK, ZUZENTZAILEAK ETA OSABIDEZKOAK</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ibilgailuen eta obra publikoaren makineriaren isuri atmosferikoaren arloan aplikatzekoa den araudiaren betetzea.</li> <li>• Isurien kontrolerako eta murrizketarako sistemak dituzten motorren ezarpena.</li> <li>• Atmosfera-kutsatzaileak neurtzeko estazio finkoak edo mugikorren ezarpena.</li> </ul>

NEURRI BABESTZAILE, ZUZENTZAILE ETA OINARRIZKO KONPENTSATZAILEAK		
Ingurumen faktoreak	Ingurumen aldaketak	Neurriak
Atmosfera	Zarata	<p><u>DISEINU FASEAN HARTU BEHARREKO ARDUEN AZTERKETA ETA DEFINIZIOA</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Inpaktu Akustikoaren Ebaluazio baten sartzea, <i>Euskal Autonomia Erkidegoko poluzio akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik</i>. Beharrezkoak diren ondorio eta neurrien gehitzea.</li> <li>• Bibrazio Ebaluazio baten lanketa eraikitako zonalde sentikorrek (bizitegi-, ospitale- edo irakaskuntza-zonaldeak) burdinbide-trazaduretatik 75 m baino gutxiagora definitzekotan. Arreta berezia linea-tarte lurperatuenetan. Neurri zuzentzaileen proposamena.</li> <li>• Hiri-zonalde trinkoetan Hiriko trafikoagatik sortutako zarata-isurien neurri murriztatzaileen kontsiderazioa: gehienezko abiaduraren mugaketa, isuri txikiko bide-zoruen erabilera eta trafikoaren kontrolerako beste neurri batzuk.</li> <li>• Industria sektoreetan garatuko diren Plan Partzialek trafiko pisutsua ikertuko dute, honetatik eratorri daitezkeenak saihesteko, bai bide-sareetan eta baita zerbitzua ematen dien eremuetan, ikerketaren araudia egokituz.</li> <li>• Antolamendu zehaztuaren diseinuan hurrengo neurriak kontuan hartuko dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Soinu-moteltzerako banden azterketa eta definizioa (ez egoteko espazio libreak) trafiko handiko bideen ondoan, igorlearen eta zonalde hartzaileen arteko bereizketa fisikoa lortzeko.</li> <li>- Immisio-mailak txikiagotzea helburua duten eraikinen diseinu arkitektonikoa, kokapena eta antolamendua: fokuetatik urruntzea, bideetatik paraleloak ez diren fatxadak, estantzia sentikorragoak barneko zonaldeetan...</li> <li>- Babes akustikorako gailuak: lur-kabailoiak, itxiera jarraituak, bai zarataren kontrako hesiak...</li> </ul> </li> </ul>



NEURRI BABESTZAILE, ZUZENTZAILE ETA OINARRIZKO KONPENTSATZAILEAK		
Ingurumen faktoreak	Ingurumen aldaketak	Neurriak
Atmosfera	Zarata	<p style="text-align: center;"><u>BABES NEURRIAK, ZUZENTZAILEAK ETA KONPENTSATZILEAK</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Urbanizazio-lanak gauzatzeko fasean: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Makinak eta ibilgailuak erabiltzea sortutako zaratak minimizatzea bermatzen duten lanak egitean.</li> <li>- Makinen eta obren zarata-emisioak kontrolatzea.</li> <li>- Gaueko ordutegian lan egiteko mugak.</li> </ul> </li> <li>• Dagozkien plan partzialetan sartu beharreko neurriak: inpaktu akustikoari buruzko ikerketa xehatuak egitea, inpaktu akustikoari buruzko ikerlanean proposatutako neurri-tipologia hauen beharra, dimentsioak eta ezaugarriak zehazteko. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Finkatu gabeko hiri-lurzoruetan eta bizitegi-garapen berrietan (AOPs N2, N3, N4 eta N7): ibilgailuen zirkulazioaren emisioak minimizatzekeo neurriak, oinezkoen gehieneko kokapenari eta bizikletaren erabilera sustatzeari dagokienez, gehieneko abiadura mugatzea, zoladura fonoxurgatzailea, .....</li> </ul> </li> <li>• Industriako AOP-etan, zarata murrizteko gailuak dimentsionatzea eta diseinatzea, zirkulazio handiko komunikazio-azpiegiturekin muga egiten duten eremu horien mugetan, hala nola pantaila akustikoak edo lur-kabailoiak: AOP-I2 "Los Llanos II" (700 metroko luzera iparraldeko muga A-1 autobiarekin); AIP-I3 "Subillabide II" (1.250 metroko luzera mendebaldeko muga Madril-Hendaia trenbide sareko linearekin).</li> </ul>



NEURRI BABESTZAILE, ZUZENTZAILE ETA OINARRIZKO KONPENTSATZAILEAK		
Ingurumen faktoreak	Ingurumen aldaketak	Neurriak
		Bista ireki eta interes arkitektonikoa duten egiturak nabarmendu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Garrantzia eman ez zaien arkitektura-interesa duten egituren antzematea.</li> </ul> <p>Bista irekien gabezia.</p>	<p>Garrantzia eman ez zaien arkitektura-interesa duten egituren antzematea.</p> <p>Bista irekien gabezia.</p>
		Ikusizko oztopoen jartzea (lurra, zuhaitzak) eta balio paisajistiko urria duten ekintzen ezkutaketa topografikoa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diseinaturiko ikusizko pantailak dagokien funtzioa betetzen dutela baieztatu.</li> </ul>	<p>Paisaia-balio gutxiko jarduketan bista nabarmenak, ikusle asko dituzten puntuei arreta berezia jarritz.</p>
<b>Biztanleria</b>	Zerbitzuen etenaldi luzeak saihestu.	Berrezarri, ahalik eta arinen, obren betearazketen ondorioz, etendutako biztanleen zerbitzuak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Beharrezkoak diren etenaldien ondoren, zerbitzuak berehala birrezartzen direla kontrolatu.</li> </ul>	Behar baino denbora gehiago geldiarazitako biztanleentzako zerbitzuen antzematea.

Ingurumen zaintza programaren oinarrizko edukiak				
Ingurumen Faktoreak	Helburuak	Neurriak	Ingurumen kontrola	Adierazlea/ jaduketaren atalasea
Kultur Ondarea	Ondare historiko, artistiko eta arkitektonikoen ondasunetan kaltea saihestu.	Kaltetutako monumentu eta guneen zaharberritze eta errehabilitazioa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Beharrezkoak diren etenaldien ondoren, zerbitzuak berehala birrezartzen direla kontrolatu.</li> </ul>	Ondarearen elementuei eginiko kalteak.
	Ondare historiko-artistikoaren babesa	Prospekzio arkeologikoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aurkikuntzak egotekotan, aurrez ikusitako eta aurkikuntzetarako ezarritako arauen betetze kontrola: lur mugimenduen etetea eta aztarnen bilketa tekniko kualifikatuen bitartez.</li> </ul>	Ondare elementuen antzematea. Aurkitutako elementuen erabilpen desegokia.



## 7.2 INGURUMEN ADIERAZLEAK

Ebaluazioak erabilgarriak dira erabakia hartzeko prozesuan laguntzen badute. Horregatik, garrantzitsua da Ingurumen estrategikoaren Ebaluazioaren prozesu osoan ingurumen autoritateen parte hartze eta plangintza bateratua. Era honetan, ingurumen ebaluazioa bukatutakoan, beharrezkoa da dagokion inguru organoari Planaren eta azken emaitzen ebaluazioaren jarraipena egitea ahalbidetuko duen sistema bat prestatzea.

Fase honetan, ingurumen autoritateen parte-hartzea Planaren jarraipen eta ebaluaziorako ingurumen adierazleen diseinuan bermatzen da; eta, Plangintzarako autoritateekin batera azaldu nola plangintzaren helburuek garapen sostengarrirako bidera laguntzen duten, planifikazioaren ingurumen jarraipenerako sistema bat diseinatu eta honen jarraipenean eta ebaluaketan parte hartuz.

Planaren jarraipen eta ebaluazio prozesuaren orientabideek, hasierako egoeraren ingurumen ebaluazioaren informazio eta Planaren ingurumen ebaluazioko emaitzetatik eratorriak dira. Horretarako, oinarritzko informazioa da:

- Hasierako ingurumenaren egoera
- Planaren helburuak
- Helburuak lortzeko aurrez ikusitako ekintzak
- Inpaktu nagusietarako neurriak eta murriztu eta saihesteko gomendioak.

Informazio honetan oinarrituz, Planaren jarraipen eta ebaluaziorako adierazle egoki batzuk diseinatu behar dira, zeinek hurrengo irizpideak bete behar dituzten:

- Ingurumenaren helburu eta irizpideekin zerikusia izan behar dute kudeaketarako erreminta bezala funtzionatu ahal izateko. Horrela, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aplikazio eta formulazioan parte hartuko duten agenteen erantzukizuna ahalbidetuko dute.
- Planari batu ahal zaizkion jardueren adierazgarri izan behar dute.
- Denboraldietan neurgarri eta analizagarriak izan behar dira. Joera negatiboak aurrez ikusi edo zuzendu ahal izateko, denboran aldakortasuna islatu beharko dute.
- Planak dirauen garaian tarte erregularretan gaurkotzeko ahalmena beharko dute izan.
- Kopurua murriztua izan behar da eta helburutzat parte hartu behar duten agenteentzat ulergarria izatea izango du, horretarako interpreta erraza eta bakuna izango da.
- Erabilgarri egon behar dute eta bere lortzerako jatorri ezberdinen eskakizuna behar ez izana.



- Planaren jardueren inpaktuak argi azaldu behar dira.
- Berehalako datu erabilgarrietan oinarritu behar dira.

Erreferentziazko aldagaiak hautatzerakoan kontuan izan behar da, Plan Orokorraren jardueren tipologiekin harremana izan behar dutela. Horrela, Planean garatutako jarduera eta emango diren aldaketen artean harreman kausal bat ezar daiteke, Planak finkatutako inguru giro helburuen ondorioztatze emaitzen informazioa erraztuz.

Proposatutako adierazleek Iruña Okako Udalerriko egoera urbanistikoa konparatzea ahalbidetuko dute, gaur eguneko errealitatea (Planaren aurretik) eta proposaturiko Berrikuspen planeamendutik eratorriko denaren artean. Kasu askotan, plan bereko aldagai neurgarriei dagozkien eta planeamendu urbanistikoak era sistematiko batean batzeko proposatzen dira. Gainera jarraipen eta kontrol adierazleak batzen dira, ondorioak eta errealki planifikaturikoa betetzen direla baieztatu ahal izateko.

Hurrengo taulan zenbait ingurumen-adierazle proposatzen dira, zeinen definiziorako Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren Ingurumen Adierazleen Banku Publikoan (IABP), Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailean, eta EAEko iraunkortasuneko udal adierazleetan (Eustat) jasotakoetatik abiatu den, baina beti Iruña Okako udalerriaren errealitatea eta proposatutako HAPO-aren Berrikuspenaren ezaugarriak kontuan izanda.

Hasieran proposaturiko ingurumen adierazleen garrantzia, ondoren adierazleen taulan komentatuko dira.

«Biztanleriari» dagozkion adierazleek udalerriaren garapen-beharren arteko doikuntza-maila ezagutzea ahalbidetzen dute, aurreikusitako etxebizitzetara eta etxebizitza errealei dagokionez, bertan bizi den biztanleria kontuan izanda. Bestalde, biztanle-dentsitatea urbanizazio-prozesuaren analisirako hautatutako aldagaietako bat da, baina biztanleriaren kontzentrazioaren ondorioak zabaltasun gehiagorekin aztertzea ahalbidetzen duten beste aldagaiekin lotu behar da.

«Lurzoruaren okupazio» motetan aldaketa, definitutako adierazleen bigarren mota bezala eratzten dena, ekosistemetan modu zuzenean eragina izaten du, baita ingurumen-faktore multzo handi batean ere (ur-baliabideen iragazpen eta existentzia, kutsatzaileen xurgapena, landare-estaldura naturala, etab.). Lurzoruaren erabileraren aldaketek denboraldi luzeak behar dituzte aurreko egoeraren zaharberriketarako (mendeak barne) edo atzerazinezkoa izatera hel daiteke; beraz, zentzu honetan edozein proposamen egoki ebaluatua behar du izan, lurraldearen testuinguru zabalean.

Udalerritik mugitzeko garraio bide pribatuen aurreko garraio aldizkakoak erabiltzeak ingurunean poluzio atmosferikoaren eta akustikoaren txikiagotzera laguntzen du. Horregatik, «Mugikortasuna» kontzeptuaren azpian adierazle multzo bat definitzen da, udalerriaren garraio bide desberdinen eta oinezkoen mugikortasunaren garrantzia aztertzea ahalbidetzen duena.



Udalerrriaren Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorraren garapenaren ondorioak ingurunean balioztatzea ahalbidetzen duen beste adierazle multzo bat «Baliabide naturalak eta kulturalak» deritzonei dagokiena da. Honetan hirigintza-plangintza tresna garatzen joaten den heinean udalerriren erabilera desberdinen beharrak asetzeko beharrezkoak diren baliabide naturalen kontsumoak baloratzen dira (ura eta energia bereziki). Era berean, udalerrian eraikin, monumentu edo interes kulturala duten beste elementuei garrantzia ematearen kuantifikazioak hirigintza-plangintzatik eratorritako udal kultura-ondarearen gaineko ondorioen balorazioa egitea ahalbidetzen du.

«Isuriek (hondakin-ura, kutsatzaileak, akustikoa) eta hondakinekin» lotutako adierazleen kontsiderazioak bere ondorioen prebentzio-, zuzenketa- edo konpentsazio-beharen kuantifikazioa egitea ahalbidetzen du, ingurumen-kalitate egoki bat eta biztanleen bizi-kalitate egokia bermatzea ahalbidetzen dutenak, indarreko araudiak ezarritako hitzarmenekin bat etorritik.

Iruña Okako HAPO-aren proposamenetatik udalerrriaren landa-munduaren eta natura-balioen babesan bilakaera aztertzeke, adierazle multzo bat definitzen da, adierazle horiek «Biodibertsitatea, natura-ondarea eta landa-ingurunea» izenaren azpian elkartuz. Adierazle hauek plangintza-tresnatik berreskuratutako edo babestutako natura-balio nabarmenak dituen gunen azalera kuantifikatzen dute.

Azkenik, «Arrisku naturalen eta antropikoen» kontsiderazioak beste adierazle-kategoria batean zehazten da.

Jarraian proposaturiko Plana ebaluatzeke definituriko adierazle multzoa azaltzen da:

ADIERAZLEAK	
ALDAGAIA	
Adierazlea	Neurkeraren irizpideak
<b>1. BIZTANLERIA</b>	
1.A. Eskubide osoko populazioa	Biztanle kopurua
1.B. Iruña Okako populazio dentsitatea	Biztanle kopurua/km <sup>2</sup>
1.C. Iruña Okako eskubide osoko populazioaren hazkuntza indizea (segidako urteen zentsatutako populazioaren arteko konparazioa).	%Portzentaje



ADIERAZLEAK	
ALDAGAIA	
Adierazlea	Neurkeraren irizpideak
<b>2. LURZORUAREN OKUPAZIOA</b>	
<b>LURZORUAREN SAILKAPENA ETA KALIFIKAZIOA</b>	
<b>2.A.</b> Lurzoruaren sailkapenagatik okupaturiko gainazala eta Iruña Okako Udalerriko gainazal osoarekiko harremana.	% Portzentaje
<b>2.B.</b> Berregin edo barru eraldaketa prozesuak jasandako hiri lurzoru gainazala, Iruña Okako Udalerriko gainazal osoarekiko.	% Portzentaje
<b>2.C.</b> Kutsatu edo narriatutako hiri lurzoru gainazala berreskuratua, Iruña Okako Udalerriko gainazal osoarekiko.	% Portzentaje
<b>2.D.</b> Biztanle bakoitzeko hiri lurzoru gainazal (egoitzazkoa, industrialia eta beste erabilerak) kontsumitua.	m <sup>2</sup> /Biztanle
<b>2.E.</b> Biztanle bakoitzeko hiri lurzoru gainazal (egoitzazkoa, industrialia eta beste erabilerak) kontsumitua.	m <sup>2</sup> /Biztanle
<b>2.F.</b> Okupatu eta burututako etxebizitza kopurua, lurzoru mota bakoitza ezberdinduz.	Zenbakia
<b>2.G.</b> Aldaketak lurzoruaren okupazioan ezberdinduz: gainazal artifizialak, lanerako lurrak eta nekazaritzarako landaketak, belarditza eta alatokiak, baso eta oihantsu sasitza, ekoizkortasunik gabeko lurzoruak, hezeguneak eta ur laminak.	m <sup>2</sup>
<b>2.H.</b> Planteatutako beharra asetzeko aldatu behar den udalerraren natura-azalera, udalerraren azalera osoarekin konparatuz	% Portzentaje
<b>2.I.</b> Planteatutako beharra asetzeko aldatu behar den udalerraren natura-azalera, udalerraren azalera osoarekin konparatuz.	Zenbakia
<b>2.J.</b> Hiri-eraberritze eremuetan eta lurzoru urbanizagarrian guztira kokatzen diren etxebizitza berrien kopurua.	Zenbakia
<b>2.K.</b> Biztanleko dagoen azalera artifiziala.	m <sup>2</sup> /Biztanle kopurua
<b>2.L.</b> Guztizko azalerarekiko dagoen azalera artifizialatuaren protzentaia.	% Portzentaje
<b>2.M.</b> Hiri-lurzoruaren hektarearekiko dagoen biztanle kopurua.	Biztanle kopurua/ha





<b>ADIERAZLEAK</b>	
<b>ALDAGAIA</b>	
<b>Adierazlea</b>	<b>Neurkeraren irizpideak</b>
<b>2.N.</b> Ondare eta ingurumen balio edo ondasunen inguruko zonaldeen babeserako helburutzat duen gainazala.	m <sup>2</sup>
<b>ZUZKIDURA HELBURUTZAT DUTEN LURZORUAK</b>	
<b>2.Ñ.</b> Equipamenduetarako helburutzat duen udalerriko gainazal osoa, sailkapen eta portzentaiaगतिक eraskabetutakoa Iruña Okako udalerriko gainazal osoarekiko.	m <sup>2</sup> / % Portzentaje
<b>2.O.</b> Astiuneak helburutzat dituen udalerriko gainazal osoa, sailkapen eta portzentugatik eraskabetutakoa Iruña Okako udalerriko gainazal osoarekiko.	m <sup>2</sup> % Portzentaje
<b>2.P.</b> Astiuneak helburutzat dituen udalerriko gainazal osoa, sailkapen eta portzentugatik eraskabetutakoa Iruña Okako udalerriko gainazal osoarekiko.	m <sup>2</sup> % Portzentaje
<b>IRABAZIZKO LURZORUAREN ERABILPENA</b>	
<b>2.Q.</b> Urbanizagarri eta hiri lurzoruaren barnean egoitzazko erabilpena helburutzat duen gainazal osoa, sailkapen eta portzentajegatik eraskabetutakoa Iruña Okako udalerriko gainazal osoarekiko.	% Portzentaje
<b>2.R.</b> Urbanizagarri eta hiri lurzoruaren barnean egoitzazko erabilpena helburutzat duen gainazal osoa, sailkapen eta portzentajegatik eraskabetutakoa Iruña Okako udalerriko gainazal osoarekiko.	% Portzentaje
<b>2.S.</b> Planeamendu eta portzentajetik babestutako lurzoru gainazala, Iruña Okako udalerriko gainazal osoarekiko.	% Portzentaje
<b>2.T.</b> Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean bildutako babestutako lurzoru gainazal urbanizaezina, Iruña Okako udalerriko gainazal osoarekiko.	% Portzentaje
<b>NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LPSan DEFINITUTAKO LURZORU URBANIZAEZINEKO KATEGORIEI ERAGITEA</b>	



ADIERAZLEAK	
ALDAGAIA	
Adierazlea	Neurkeraren irizpideak
<b>2.U.</b> Azalera osoa eta nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpeneko lurzoruen eremuen arabera: balio estrategiko handia (BEH) eta trantsizioko landa-paisaia (TLP), garapen berriek okupatuak, termino absolutuetan eta Iruña Okako udal-mugartean dagokion kategoriaren azalera osoari dagokionez.	Azalera (m <sup>2</sup> ) / (%) Portzentaje
<b>2.V.</b> Azalera osoa eta baso-eremuen eremuen arabera: basoa, mendi bakana, larre menditarrak, larre menditarrak eta harkaitzak, garapen berriek okupatuak, termino absolutuetan eta Iruña Okako udal-mugartean dagokion kategoriaren azalera osoari dagozkionak.	Azalera (m <sup>2</sup> ) / (%) Portzentaje
<b>2.W.</b> Azalera osoa eta ingurumen-intereseko lurzoruen eremuen arabera: ingurumen-hobekuntza eta azaleko uren babesa, garapen berriek okupatuta, termino absolutuetan eta Iruña Okako udal-mugartean dagokion kategoriaren azalera osoari dagokionez.	Azalera (m <sup>2</sup> ) / (%) Portzentaje
3. MUGIKORTASUNA	
<b>3.A.</b> Erabilpenetatik erabesabetutako ibilgailu azpiegitureretako helburutzat duen gainazala.	Azalera (m <sup>2</sup> )
<b>3.B.</b> Herri lurzoruan aparkalekuetarako gainazala.	Azalera (m <sup>2</sup> )
<b>3.C.</b> Oinezkoen ibilbide eta ez motorizatuen luzera.	Luzera (m)
<b>3.D.</b> Ibilbideko bizikletentzat luzera.	Luzera (m)
<b>3.E.</b> Garraio azpiegituren dentsitatea.	Errepide km/km <sup>2</sup>
<b>3.F.</b> Herri garraioetarako gordetako ibilbideen luzera.	Luzera (m)
4. BALIABIDE NATURAL ETA KULTURALAK	
<b>4.A.</b> Etxeko ur kontsumo estimatua	Litro/biztanle/egun
<b>4.B.</b> Lurzorua erabilpenetatik urtean kontsumituriko ur bolumena (egoitzazko, industrial eta beste astiune batzuk, zuzkidurak eta udaleko beste zerbitzu batzuk).	m <sup>3</sup> / urte
<b>4.C.</b> Osasun sareen urteko eta % eskakizun osoko galerak	m <sup>3</sup> eta %



<b>ADIERAZLEAK</b>	
<b>ALDAGAIA</b>	
<b>Adierazlea</b>	<b>Neurkeraren irizpideak</b>
<b>4.D.</b> Isurien bolumena	m <sup>3</sup> /biztanle baliokide/urte
<b>4.E.</b> Iruña Okako Udalerrian ur eskakizun estimatua	m <sup>3</sup> /urte
<b>4.F.</b> Iruña Okako udalerriko urteko energi erabileraren kontsumo estimatua.	Petroleo baliokide tonak (pbt)/urte
<b>4.G.</b> Etxeko enegia kontsumo portzentaje, energi kontsumo osoarekiko	% Portzentaje
<b>4.H.</b> Herriko argien energi kontsumo portzentaje energi kontsumo osoarekiko	% Portzentaje
<b>4.I.</b> Energi alternatiboen kontsumo portzentaje energi kontsumo osoarekiko	% Portzentaje
<b>4.J.</b> Ziurtapen energetikoa duten eraikuntza kopurua	Zenbakia
<b>4.K.</b> Babestutako elementu kulturalen kopurua	Zenbakia
<b>4.L.</b> Eraikuntza, monumentu edo beste elementu interesgarriak bere mantenu eta balioa jartzeko parte hartzeak	Zenbakia
<b>5. EMISIOAK ETA HONDAKINAK</b>	
<b>5.A.</b> Ur isurien tratamendu egoki bati konektaturiko etxebizitza kopurua, etxebizitza kopuru osoarekiko	% Portzentaje
<b>5.B.</b> Araztu eta berrerabilitutako ur bolumena, kontsumitutako ur guztiaren bolumenarekiko	% Portzentaje
<b>5.C.</b> Kutsagarri ezberdinetara aurrez jarritako populazioa, Iruña Okako udalerriko populazio osoarekiko.	% Portzentaje
<b>5.D.</b> Sektoreko legerian zehaztutako kalitate akustikoko (KAH) helburuetatik gorako zarata-mailen eraginpean dauden biztanleak, Iruña Okako Sektoreko legerian zehaztutako kalitate akustikoko helburuetatik gorako zarata-mailen eraginpean dauden biztanleak, Iruña Okako udalerriko biztanleria osoari dagokionez udalerriko biztanleria osoari dagokionez	% Portzentaje
<b>5.E.</b> Etxe bakoitzeko eguneko hondakin ekoizpen estimatua	kg/Etxe/egun



<b>ADIERAZLEAK</b>	
<b>ALDAGAIA</b>	
<b>Adierazlea</b>	<b>Neurkeraren irizpideak</b>
<b>5.F.</b> Tratamendu egokiko etxean ekoiztutako hondakin kantitatea, ekoiztutako etxeko hondakinen bolumen kantitate osoarekiko	% Portzentaje
<b>5.G.</b> Puntu garbiaetan bildutako hondakin kantitate osoa, ekoiztutako hondakin kantitate guztiarekiko	% Portzentaje
<b>6. BIODIBERTSITATEA, ONDARE NATURALA ETA LANDA INGURUMENA</b>	
<b>6.A.</b> Lurraldean ingurumen balioagatik babesturik dauden habitat gainazalak eta bakoitzak hartzen duen gainazala, erdi-naturalizatuak eta naturalizatuak.	m <sup>2</sup> eta m <sup>2</sup>
<b>6.B.</b> Udal-plangintzak babestutako azalera (Babes Berezi eta Lurrazaleko Uren Babes kategoriak)	m <sup>2</sup>
<b>6.C.</b> Planetik sortutako korridore ekologiko berrien gainazala	m <sup>2</sup>
<b>6.D.</b> Berreskuratutako balio handiko gune ekologikoen gainazala (erriberak, padurak, bertako basoxka hostotsuak,...)	m <sup>2</sup>
<b>7. ARRISKU NATURAL ETA ANTROPIKOAK</b>	
<b>7.A.</b> Arrisku natural eta teknologikoengatik kaltetutako populazio eta gainazala (%udalerrinari dagokionez, tipo bakoitzean bereziak: hiri, urbanizagarri, landakoa).	m <sup>2</sup> /m <sup>2</sup> m <sup>2</sup> /Biztanle



## 8 Laburpena

Iruña Oka, Araba Erdialdeko zonaldean dago, Arabako Lautadaren mendebaldeko ertzean, Iruña eta Langraiz Okaren loturarekin sortu zena, eta bost Administrazio Batzarrez edo kontzejuez osatua dago: Langraiz, Olabarri, Mandaita, Tresponde eta Billoda. Udal-mugartearen azalera 53,3 km<sup>2</sup>-koa da eta Arabako Lautadaren eskualdean aurkitzen da. Administratiboki Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalean eta Añanako Kuadrillan dago.

Iruña Oka udalerririk, 2017.urtean 3.382 biztanle zeuzkan, %74aren populazioa Langraiz Okako nukleo nagusian murgilduta dago.

HAPO berrikusketaren Ingurumen Ikerketa Estrategiko (IIE) agiriaren helburua da: definizioan landutako aukera bakoitzeko garapenetik sortutako ingurumenaren eragina ebaluatzea da, udalerrriaren ingurumen ezaugarriari arreta jarriz, eta baita Hasierako Onespen fasearen planifikazio tresnaren garapen maila ere.

*Ingurumen Ebaluaketaren abenduak 9ko 21/2013 Legearen arabera*, Planak ohiko ingurumen ebaluaketa estrategikoaren prozeduraren menpe dago. Beste alde batetik, indarrean dagoen araudiaren arabera, 7.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrria izanik, aginpedun dagoen ingurumen organoa Araba Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Saila da.

Berrikusten diren Plangintzako Arau Subsidiarioak, 839 zenbakiko Arabako Foru Arauaren bidez behin betiko onartu ziren, 1998ko azaroaren 18an. Handik aurrera, Iruña Okan, EAeko eremuaren antolamendu hirigintzan aldaketa sakona eman da. Beharrezkoa da egungo AASSek EAeko antolamendu onarpen berrira, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra udalerrria modu koherenteago eta eraginkor batean kudeatzeko tresna izateko, Udalerrriaren helburuak, gidalerroak eta strategiak garatzeko epe luzera, eta sistema orokorren garapenerako aurreikuspenak eta epeak.

Iruña Oka Udalerriko HAPOaren Ingurumen Ikerketa Estrategikoaren prozeduran garatutako arau esparruko erreferentzia ondorengo da: *abenduaren 9ko Ingurumen Ebaluaketari buruzko 21/2013 Legea (estatala), otsailak 27ko 3/1998 Legea, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra (autonomikoa) eta urriak 16ko 211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.*

Agiri honen egituraren eskema egiteko ondorengo araudia jarraitu da: *211/2012/dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena eta abenduaren 9ko, ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearekin osatzen dena.*

Iruña Oka HAPOko berrikusketaren kasuan, aplikatu beharreko prozedura Ingurumen Ebaluaketa Estrategikoa da Ingurumen Estrategikoaren Deklarazioa lortzeko.



Halaber, agiri honetan aurkitzen dugun edukia *Ingurumen Ikerketa Estrategikoaren Irismen Agirian* agertzen denarekin bat dator, Ingurumen Irankortasun Zerbitzuak igorrita, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren menpean, 2016ko maiatzaren 4ean.

Hasierako kapituluetan Planaren helburua eta edukia ezartze da eta bere helburuen eta aukeren deskribapena ezartzen da (2.kapitulua), helburu nagusia bezala Plan Orokorra definituz: garatu gabeko hirigintza prozedurak bideratu, bakoitzaren arazo partikularrean modu xehatuan zentratuz, garapena posible izan ez den arazoak aztertuz eta beste aukerak garatuz gainontzeko hiriarekin bateragarriak direnak. Guztia udalerrirako esanguratsuenak diren balio naturalen, ekologikoen, geomordologikoen, hidraulikoen eta paisajistikoen ingurumen helburuen esparruaren barruan, lurzoru bakoitzean baimentzen diren erabileren barruan.

Agiriak planteatutako aukerak aztertzen ditu, hiriaren finkapenera eta hedapen parte-hartzei bideratuak. Honela, bizitegi hedapen hauek oraindik aldatugabeko lurzoruetan, Aurrerapen Agirian aurkeztutako proposamenean oinarrituko dira, bereziki Langraizko Administrazio Batzarraren ekialdean, Iparraldeko Auzoan dagoen zonalde baten salbuespenarekin eta gaur egun AASSen SAU-N1 mantentzen dena.

Hiru aukera zeuden, guztietan garapena ekialderantz da, Langraiz Etorbidea finkatuz eta eraikitako eskolako zonaldea antolatuz, 700-800 etxebizitza aurreikusten ziren. B eta C aukerekin konparatuz, Langraiz etorbideko hegoaldearen antolamedua ere egiten zen, eta ondorioz, etxebizitza kopurua handituz zihoan. B eta C aukerak etxebizitzaren hazkundera aurreikusten dute.

Ekonomia-Jarduerako lurzoruei dagokionez, **Aurrerapenaren proposamena mantentzen da**, AHT-aren trazadura berria kontuan hartu da eragin zuzena daukala Aurrerapen Agirian “Los Llanos” hegoaldearen lurzoru industrial berrietan, N-1 errepidearekin muga egiten zuen iparraldetik eta AHT trazadurarekin hegoaldean. Hortaz, lurzoru honen mugak aldatzen dira baldintzatzaile berriei egokitzeko.

Aire zabaleko ustiapenei dagokionez, alderdi garrantzitsu bat “Navarra Pequeña” harrobiaren zabalera da. Gaur egun, bere hedapena tramitatzen ari da, nahiz eta ingurumen ikuspuntutik erauzketa hazkunde gutxiagoko alternatiben ebaluaketa egin nahi da, ingurumenaren eragina murrizteko.

Edozein kasuan, harrobien kokapena eta hedapena udalerriaz gaindiko zehaztapen bat da, hau da, plangintzaren azkenengo proiektuan HAPOak Plan Berezi baten bidez sartu beharko du, eta bere erregulazioa agertu beharko da Araudi Sektorialera lotua

Etorkizuneko ustiapenaren finkapena Olabarri eta Langraiz Oka nukleotik gertu dago, hortaz, Plan Bereziak kontzejuetaraino segurtasun distantzia bat ezarri beharko du eta ingurune naturalean eta jendea bizi den zonaldeetan ezarpena ahalik eta kaltegarritasun gutxiago izateko baldintzatzaileak ezarri beharko ditu.




Kultur ekipamenduen gainazala handitzeko helburuak oinezkoen eta txirrindularien arteko komunikazioa eta Administrazio-batzordeetan, gainera, biztanleak erakartzeko eta biltzeko nortasuna eta gaitasuna duten espazioak berriz, iraunaldian jarraitzen dute.

Planak dituen proposamenen sintesiak, Iruña Okako udalerrri osoaren ondorengo lurzoruen sailkapen osoa suposatzen du, dagokion planoan perimetroa mugatuz ondorengo lurzoru motetan oinarrituz:

- Lurzoru Urbanizaezina, urbanizaziotik gordetzen den landa lurzorua, balio natural edota nekazaritza abeltzaintzako lurzorua zaintzeko. Azpibanatzen da atal espezifiko bakoitzaren kategorietan. Gainera lurzoru urbanizaezineko kategoria propioez gain, Sistema Orokorrak eta Asentamendu Bereziak sartu ahal dituzte.
- Hiri lurzorua, hiri bilbean aldatutako lurraldeak, integratuak edo integragarriak, ibilguentzako sarbidearekin eta oinarritzko hornigaiekin, eta hornigai nahiko ez dituen etorkizun eraikinerako proposatutako espazioa 2/3 okupatzen duena. Lurzoru mota hau bitan banatzen da: Finkatutako lurzorua eta Finkatugabeko lurzorua. Hiri lurzorian mugatutako AOPak eta jarduketa integratuei dagokionak: (AOP-N1, AOP-N2, AOP-N3, AOP-N4, AOP-N5, AOP-N8, AOP-M1, AOP-V1, AOP-V2 eta AOP-T2) udalerrriaren Finkatugabeko Hiri Lurzorua osatzen dute, eta bitartean gainontzeko lurzoru sailkatua urbanizazioaren Finkatutako Hiri Lurzorua osatzen du. AOP-G1 salbuespen bat da, urbanizaziogatik finkatugabeko hiri lurzorian aurkituko diguna, baina hala ere eraikigarritasunagatik finkatua dago
- Lurzoru Urbanizagarria. Landa egoeran dauden lurzoruak osatzen dituzte, eta hiriaren hazkunderako haztea aurreikusten da. Bi azpikategorietan banatzen dira, Sektorizatua eta Ez sektorizatua. Plan honetan sailkatutako Lurzoru Urbanizagarri guztia sektorizatua da, eta hiri lurzorian eta jarduera integratuaren bidez garatzen diren AOP-z osatuak daude, hau da, AOP-N6, AOP-N7, AOP-O1, AOP-T1, AOP-I2 eta AOP-I3.





Lurraldearen hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarria guztira eremuaren erabilera globalean oinarrituz sailkatu da, hau da, erabilera bereizgarria edo nagusia. Erabilera publikoak banandu dira (sistema orokorra edo ekipamendu publiko egituratzailea) erabilera pribatuetatik eta beraz irabazizkoetatik (bizitegikoak, tertziarioa, industrial, sistema pribatu orokorra edo egiturazko ekipamendu pribatuak), eta hiri lurzoru eta urbanizagarria azpi banandu da.


Finkatugabeko hiri lurzoru guztia eremuetan banandu da, eta lurzoru urbanizagarri guztia sektoreetan; mugatutako gainazalak antolamendu eremu xehatuak (AOP) osatzen dituzte, sailkapen globala egiten denaren arabera. Sailkapen globalaz gain,



eremuaren erabilera berezia dela, eremu bakoitzerako baimendutako erabilera zerrenda bat esleitu zaio, eta bere eraikigarritasuna guztira.


*Finkatutako Hiri Lurzorua* azpi-zonaldetan banandu da, honela zonalde bakoitza eremu homogeen bati dagokio eraikuntza morfologiari eta hirigintzari dagokionez., eremu bakoitzean erregulazio propioa izateko.

Zehaztapenak eta ezaugarriak Planaren *Hirigintza Araudietan* agertzen dira.





Planak antolamendu xehatuko proposamen eremuen multzoa definitzen du, ondorengo tauletan eta irudian agertzen den bezala:



Antolamendu Xehatuko Eremua	Izena	Sailkapena	Mota	Sailkapen Orokorra	Azalera (m <sup>2</sup> )	Etxeb. kop
AOP-N1	Razuela	Hiri Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	7.537	43
AOP-N2	Milagros-González	Hiri Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	2.767	21
AOP-N3	Errota	Hiri Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	9.490	50
AOP-N4	Kare-Labea	Hiri Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	4.358	40
AOP-N5	Iparraldeko Langraiz	Hiri Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	33.536	181
AOP-N6	Torko	Lurzoru Urbanizagarria	Sektorizatua	Bizitegia	33.915	79
AOP-N7	Eskolak	Lurzoru Urbanizagarria	Sektorizatua	Bizitegia	43.456	261



Antolamendu Xehatuko Eremua	Izena	Sailkapena	Mota	Sailkapen Orokorra	Azalera (m <sup>2</sup> )	Etxeb. kop
AOP-N8	Bolen	Hiri Lurzorua	Finkatuagabea	Bizitegia	1.128	2
AOP-M1	Mandaita	Hiri Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	2.867	3
AOP-O1 (AASSetan SAU-O2)	Olabarri	Lurzoru Urbanizagarria	Sektorizatua	Bizitegia	25.096	24
AOP-T1 (SAU-T1 AASSetan)	Tresponde	Lurzoru Urbanizagarria	Sektorizatua	Bizitegia	18.288	27
AOP-V1	Mendebaldeko Billoda	Hiri Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	8.734	7
AOP-V2	Tertziario	Hiri Lurzorua	Finkatugabea	Tertziarioa	32.565	16
AOP-G1	Garabo	Hiri Lurzorua	Finkatugabea	Bizitegia	6.167	
AOP-I1	Lehergaiak	Hiri Lurzorua	Finkatugabea	Industrialia	838.288	
AOP-I2	Los Llanos II	Lurzoru Urbanizagarria	Sektorizatua	Industrialia	437.255	
AOP-I3	Subillabide II	Lurzoru Urbanizagarria	Sektorizatua	Industrialia	530.399	
AOS-SG1	Terminal Intermodal	Lurzoru Urbanizaezina	Udalerriaz gaidiko antolamendua	Trenbide komunikazioaren S.O.	301.589	
AOS-SG2	AHT trazadura	Lurzoru Urbanizaezina	Udalerriaz gaidiko antolamendua	Trenbide komunikazioaren S.O.	185.100	
AOP-SG3	Torkako erreka	Lurzoru Urbanizaezina		Gune Libreen S.O.	554	
		Hiri Lurzorua	Finkatua		2.247	
AOP-SG4	Trespondeko sarbidea	Hiri Lurzorua	Finkatuagabea	Kale eta errepide komunikazioen S.O.	2.442	
AO2-SG5	Zadorraren bide berdea	Lurzoru Urbanizaezina	Udalerriaz gaidiko antolamendua	Oinezko eta bizikleten komunikazioen S.O.	---	

Agiriak udalerriko plangintzaren analisia egiten du, goi mailako plangintza tresnekin zerikusia daukatena, benetako lehiekin eta gai zehatzen gainean, tokiko eremuaren gainean zehaztapenak identifikatzeko (afekzio batzuk legalak eta beste batzuk gomendioak), eta gidalerroak HAPOa idazterakoan kontuan izan behar dira:

- Lurraldearen Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), bizitegi kuantifikazio justifikatzeko erabili ahal dena.
- Lurralde Plan Partzial honetan, Iruña Oka eta Vitoria-Gasteizen eragin zuzena daukan Estrategia planteatzen da besteak beste. Zehazki, OE-3 Estrategia bat da: "Hegoaldeko Berrikuntzaren Arkua", zehaztapen lotesle bat da. Gainera, hiri sistemari dagokionez, LPPak Iruña Oka eta Salvatierra-Agurain udalerriki kontuan hartzen ditu, "hiri espazio nagusien nukleo" barruan. Araba Erdialdeko hiri sistemaren barruan bigarren mailako hazkunde handiko hiri nukleoak



bultzatu behar dira. Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala aldatu zen, hasiera batean Araba Erdialdeko LPP Aldatzen da Jundiz-Billodako intermodal logistikoaren eraikuntza posible izateko (EHAA 2014.urteko apirilak 30). Helburua da Araba Erdialdeko Lurraldearen Zatiko Planaren artean Jundiz-Billodako Merkantzien Transferentziarako Terminal Intermodalaren kokapena sartzeko helburua duen Funtsik gabeko Aldaketa Puntuala da, Iruña Oka eta Vitoria-Gasteiz udalerrietan.

- Lurralde Plan Sektoriala (LPS):
  - Hezeguneen LPS, Iruña Okan 7 hezegune identifikatuak dauzka: DA9 Langraizko harrobiko urmaela; FA62: Mandaitako ureztaketarako urmaela Mandaitan; GA7: Badaiko ganaduantzako urmaelak (guztira 6); GA29: Bardaraneko urmaela; GA42: Tuyu mendizerrako putzuak (guztira 2); GA48: Barrerako putzua (Mandaita); GA63: Kostuia putzua.
  - Zadorra Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze LPS: Udalerria zeharkatzen duten Zadorra ibaitik ondorioztatzen diren afekzioei arreta jarritz.
  - Ebroko demarkazio hidrografikoaren plana eta erabilgarritasun hidrografikoaren erabileraren arriskua kudeatzeko plana: Intzidentzia zuzena Zadorra ibaiarekin Iruña Oka zeharkatzen duena, leku honetan sortzen diren uholdegarritasun arazoengatik.
  - Nekazaritza eta Basozaintzako LPS: laborantza eta baso erabileren Lurzoru Urbanizaezineko (LEU) araudian zentratua, HAPOaren Lurzoru Urbanizaezineko antolamendua onartutako Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren kategorizaziora egokituz.
  - EAEko Jarduera Ekonomikoetarako lurzorua sortzeko lurraldearen arloko plana sortu da, Langraiz eskualdeko Poligono berriaren zehaztapen espezifikoak agertzen dira, Subillabide industrialdearen garapena, 100 ha aurreikusten dira eta Jundiz-Billodako terminal multimodala.
  - Etxebizitzaren sustapen publikorako lurzorua antolatze LPS (tramitazioan).
  - Sare intermodal eta logistikoaren LPS (tramitazioan).
  - Energia eolikoaren LPS, Badaiko parke eolikoaren kokapena agertzen da, 2005.urteetik lanean dagoena eta 30 turbina elektrikoekin (50.100 KW potentzia sortzen dute, ingurumena zaintzeko planak izaera aldaketak zaintzeko kontrolak ezartzen ditu eta arrotz beltzaren (*Aquila chrysaetos*) eta sai zuriaren (*Neophron percnopterus*) ugalketa arrakasta) ingurunean habia egiten dutenak.



- Arabako Errepideen Plan Integrala (AEPI), bere analisisian udalerrriak zeharkatzen dituen errepide sarean ezberdintasunak aurkitu dituzte, gatazka gehien daukaten puntuak iparraldean daude: Tresponde-Mendoza A-3302, eta A-3302 eta A-4358 (Billodako nukleoa) lotura gunean.
- Arabako errepideetako zarataren aurkako ekintza Plana. 2016-2020 tartea: egindako zarata mapak batzen ditu, kalitate helburuen gaintzea Iruña Okako hiri nukleotik gertuko ardatzetan ez da aurkitzen.
- Arabako Lurralde Historikoaren Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Arloko Lurralde Plana: bizikleta bidea (egunero sortzen den derrigorrezko mugimendua jasotzeko) VC4\_Vitoria-Gasteiz- Langraiz Oka (6,35km/4,96Km), Vitoria-Gasteiz eta Langraiz Okako herrien arteko tartea. Jaundiz eremu industrialaren mendebaldeko hedapenetik hasita eta Langraiz Oka nukleoan bukatzen da. Ibilbide berdeei dagokionez (berreskuratutako bideak eta oinezkoentzako eginak eta bizikletentzako bideak), udalerrriaren hiru bide zeharkatzen dute: IV8-IL 282-Artzaintza naturbidea; IV14-IL-Done Jakue bidea; IL 25-Lautadako bira.

Ingurumen Ikerketa estrategikoa, 4. Kapituluari, Iruña Okako ingurumen balorazio eta diagnositiko eta sozial eta kultural analisia egiten du, HAPOan agertzen diren faktoreen gaineko afekzioak zehazteko. Jarraian, Iruña Okako ingurune eta kultur elementu nagusienak batzen ditu, HAPOan agertzen diren baldintzetan parte-hartzen dutenak eta afekzio murrizten duen aukeraren definiziorako.

- Hidrologia: Udalerrriaren sare hidrografikoa Zadorra eta Baia ibaien harroak osatzen dute. Hala ere, udalerrriaren ur ibilgu nagusia Zadorra ibaia da, ipar-ekialdetik hasten da hegoalderantz, meandroz osatutako trazadura bihurtuz. Bere bukaera “La Puebla de Arganzon”-en dago.
- Hidrogeologia: Udalerrriak Subillanako Unitate Hidrogeologikoaren gainean dago, Langraizko azpi-unitateetan eta Oto-Apodakan. Unitate azpian ezartzen den kare substratuak iragazkortasuna errazten du eta arroka barrurantz dagoen uraren xurgapena, Baia ibaiko harrobitik datozenak ere bai.
- Landaredi eta flora: Udalerrrian dagoen landaredi nagusia hau da: Pagadi harriduna edo eutrofoa (*Carici sylvaticae-Fageto sylvaticae*), Garriga Menditarra Azpi-hezea (*Spireo-Quercetum rotundifoliae*), Erkamezti subkantauriarra (*Spiraeo obovatae-Querceto fagineae*), Erkamezti ezpelduna (*Spiraeo obovatae-Querceto fagineae “buxetosum”*), Baso mistoa, Zurzuridi-haltzadi mediterranearra edota trantziziozkoa, Abaritzia, Ipurudi larre tuparrizalea eta pre-txilardi margosoa, Pre-txilardi subkantauriar harritarra, Landare belarkara, Landare antropogenikoa eta nitrofila. Ingurumen analisia arreta berezia jartzen du: ondo kontserbatutako tokiko basoetan, bereziki Badaia Mendilerroaren mendebaldeko hegaletan dauden garrigak eta Gasteizko Mendietan dauden erkameztia (erkameztiez edo erkametzeez *Quercus faginea*).



- Fauna: Langraiz Okaren kokapenagatik trantziziozko eremuan, eurosibear eta mediterranear munduaren artean, habitat mota ezberdinak eta ibaiaren harana eta mendilerroen elementu diferentzialak bezala, faunaren dibertsitate handia egotea suposatzen dute.

Euskal Herrirako mehatxatutako fauna bezala katalogatua dauden espezieak asko dira (1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbazetako Legearen Testu Bategina onartzen duena) eta Hegaztien zuzentzarauen erankinetan agertzen dena (Europako Parlamentuak eta Kontseiluak basoko hegaztien kontserbaziori buruz 2009ko azaroaren 30ean emandako 2009/147/EE Zuzentzarua) eta Habitaten Zuzentzarua (kontseiluaren 94/43/EE zuzentzarua 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora zaintzeari buruzkoa). Espezie hauetariko batzuk egoiliar izaera daukate udalerrian hazteko eremuekin eta beste batzuk habitat bezala kanpai eremua daukate, atsedena edo bizi zikloan zehar sedimentazio mugimendu bezala. Garrantzi handiko espezieak babestutako espazio naturalean identifikatu dira: KBE Zadorra ibaia (ES2110010), ibai-kabuxa espezia (arraina; *Salaria fluviatilis*;; zaparda (pez; *Squalius pyrenaicus*); Bisoi Europarra (hegaztuna; *Mustela lutreola*) edoigarabat arrunta (ugaztuna; *Lutra lutra*). Beraien babeserako kudeaketa plan espezifikoko berain babeserako, hortaz beraien kontserbazioa bermatzeko erabilera eta garapen Planean murrizketak sartu dira.

Iruña Okan, Euskal Herriko katalogoan agertzen diren interes bereziko eremuak bezala ondorengo espezieak ere kontuan izan dira: amiltxori txikia (arraroa bezala katalogatu dena) eta schreibers saguzarra (kaltebera bezala katalogatu dena).

- Natura 2000 Sarea eta Babestutako Espazio Naturalak: Babestutako Espazio Natural bakarra, egungo araudiarekin definitua dagoena, eta Iruña Okan aurkitzen duguna Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) den Zadorra Ibaia (ES2110010) da.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Espazio Natural azpimarragarrien katalogo irekia. Iruña Okan hiru daude: Mendebaldean dauden Gasteizko Mendiak, Tuyoko Mendilerroa eta Badaia-Arratoko Mendilerroa.
- Batasun intereseko habitat naturalak: Jarraian Zadorra Ibaiko BAGan dauden batasun intereseko habitat naturalen zerrenda agertzen da:
  - 3150 *Magnopotamion* edo *Hydrocharition* landaredia duten laku eutrofikoa naturalak.
  - 3240 Alpetar ibaiak, ibaiertzean *Salix elaeagnos* espeziearen landaretza zurkara dutenak





- 5210 Ipar-Orreen landaredia.
- 6210 kare substratu gainean (*Festuco Brometalia*) (\*orkideadun parajeak).
- 6220 Urteko gramineen alde subestepikoak (*Thero-Brachypodietea*).
- 8210 Kare-haitzak.
- 91EO Haltzadiak eta lizardiak (*Alnion glutinoso-incanae*).
- 9230 *Quercus robur* eta *Quercus pyrenaica* harizti galaiko portugesak
- 9240 *Quercus faginea*-ko hariztiak (Península Ibérica).
- 92A0 *Salix alba* eta *Populus alba*-ko Galeria basoak
- 9340 *Quercus ilex*-ko Basoak

Beste alde batetik, udalerrian dagoen landaredia, batasun intereseko habitatak osatzen dute, 92/43/CEE Zuzentarauaren I. eranskinean agertzen dena edo garapena eta jarduketa proposamen berrietan eragina daukana (\*lehentasuneko habitatak):

- 9340 *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia* basoak.
  - 4090 Otea duten txilardi mediterraneo endemikoak.
  - 6210(\*) Belardi erdi-natural lehorrak eta kare-substratuetako sastraka-faziesak. (*Festuco-Brometalia*) (\*orkideadun parajeak lehentasuneko habitatean).
  - 6220(\*) Gramineodun eta urteroko *Thero-Brachypodietea*-dun zona subestepikoak
- Arriskuan dauden kontserbaziorako interes bereziko eremuak: Arabako Foru Aldundiak bere eginkizunen artean udalerrian dauden mehatxatutako espezieen hainbat kudeaketa plan onartu ditu. Ugaztun espezie bi: Bisoia Europarra eta Igaraba arrunta, arrainen kasuan Zaparda eta hegaztifaunaren kasuan, Uholde-Enara. Espezien biziraupenerako beharrezkoak dira Interes Bereziko Eremuak.
- Halaber, Iruña Okan Interes Bereziko beste eremu batzuk daude, eta haietzako gaur egun kudeaketa plan proposamen bat definitu da. Adibidez: Amiltxori txikia (*Ixobrychus minutus*) eta Schreibers saguzarra (*Miniopterus schreibersii*).
- Korridore Ekologikoen Sarea: Valderejo, Gorbeia, Arkamo-Gibijo-Arrastaria eta Gasteizko Mendi Garaien BGLez osatutako nukleo eremuen arteko lotura korridoreak. Lotura eremuak bezala espazio hauen artean: Mendebaldean dauden Gasteizko Mendiak, Badaia eta Arratoko Mendilerroak (Badaiaiko Mendilerroa) eta Tuyoko Mendilerroak daude, Valderejo-Gasteizko Mendi



Garaien korridoreaz gain; guztien maila lurraldez gaindikoa da bere inpaktuen moteltze eremuekin.

Udal-mugartearen barruan ur-ibilgu bat kokatzen da, Zadorra ibaia, interes bereziko loturarekin, Mediterranearen Isurialdeko eskualde garrantziko kategoriarekin.

Hezeguneko LPSaren hezeguneko inbentarioan (III multzoa) urmaelak eta baltsak, ingurumen analisisan kontsideratu dira, Lurzoru Urbanizaezineko kategorian sartuz (Lur gaineko uren babes).a).

- Udalerrian zaharberritze ekologikoaren eremuak agertzen dira bere balio naturalen aldaketengatik, baina berreskurapenaren aukerarekin. Kasu honetan berreskuratzeko beharra daukaten ertzekin bat egiten dute, EAEko Erreka eta Ibai ertzen Lurralde Plan Sektorialean aipatzen den bezala, Zadorra ibaiko ertzei eta Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapenetik ondorioztatutako ingurumen hobekuntza eremuei buruz ari gara.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezi eta Bikainen katalogoa, Iruña Okan ondorengoak identifikatzen ditugu:
  - Paisaia Bikaina, Badaia Mendilerroaren 12. Zenbakia.
  - Paisaia Bikaina, Gasteizko Mendien 21. Zenbakia.
  - Paisaia Bikaina, Tuyoko Mendilerroaren 37. Zenbakia.
  - Paisaia Bikaina, ibilgu erdiko Zadorraren 45. Zenbakia.

Halaber, EAEko Paisaia Bikainen eta Berezien aurre-proiektuan Badaia eta Arratoko Mendilerroak agertzen diren eta baina Gasteizko mendiak bere balio paisajistiko altuagatik.

- Onura Publikoko Mendiak: ondorengoak identifikatu dira: 502, Billoda; 503, Tresponte; 566 eta 571 Mandaita eta Olabbarri; 567, 568 eta 569, Langraiz Oka eta Olabbarri; 570. Langraiz Oka. Azalaren okupazioei dagokionez bakarrik hiru eragina izan dute: 502, Larcueta; 570, Zurbeltza; eta 571, Goiko Mendia.
- Arrisku naturalak: akuiferoen kalteberatasunari buruzko espazio erlatiboak kontsideratu dira, higiduraren kalteberatasuna, eremu uholgarriak eta sute arriskuak. Beste alde batetik, arrisku teknologikoak suposatzen dute arrisku handiko jardueretan eta Iruña Okako udalerrira hunkitzen duena, Seveso Zuzentarauari eutsita.
- Lurzoru kutsatuak: Iruña Okako udalerrirako, irailaren 30eko lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen



inventarioari buruzko 165/2008 Dekretua kontuan izanik, kutsatutako lurzorua hiri lurzoruan industrialdean daude.

- **Kultura Ondarea:** Ondare Historiko-arkitektonikoaren elementuak sartu dira eta babestu nahi diren arkeologia guneak, Kultura Ondare zentroaren irizpideetan oinarrituz (Eusko Jaurlaritza).

5. Kapituluak identifikazioan, karakterizazioa eta ingurumen inpaktu balorazioan zentratzen da, HAPOaren proposamenetan eta neurrien inplementazioan eratorri daiteke. Kapitulu berezi bat egongo da neurriak saihesteko, murrizteko eta ingurumenaren gain egon daitezkeen efektu negatiboak garrantzitsuak murrizteko. Ezaugarri hauek baliagarriak izan daitezke Planaren garapenerako.

5.5.2 atalean zehatz mehatz, hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria izateko 24 guneen ebaluaketa zehatz bat egin da. Balorazioa fitxen bidez egin da, eremuaren mugen, helburuen, jarduketa proposamenen, ingurumen afekzioen eta identifikatutako arriskuen laburpenez osatzen direnak.

Analisia egin ondoren, ondorioztatu dezakegu proposatutako garapenak eta ingurumen merituak bateragarriak direla. Merituak kontserbatuz eta ingurumen inpaktu azpimarragarrienak sumatuz. Landutako eremu multzotik, afekzio azpimarragarrienak ondorengo antolamendu xehatuko eremuetan (AXE) gertatzen dira:

- **Bizitegiak:**
  - AOP-N2 Milagros González, Langraiz Okan: Balizko Arkeologia Gunea
  - AOP-N3 Errota, Langraizen: Balizko Arkeologia Gunea eta izendatutako kultura ondarearen ondasuna.
  - AOP-N6 Torko, Langraizen: Balizko Arkeologia Gunea eta 250m<sup>2</sup> hunkitutako lehentasunezko habitata (UE 6220\*kod).
  - AOP-M1 Mandaita: bertan zuhaizkara zurbeltzak aurkitzen ditugu.
  - AOP-T2 Zubia, Tresponden: KBeko ES2110010 "Zadorra Ibaitek" gertu, bere mugatik 9 metroko bide batekin banandua, ibilguari eta Zadorraren ertzei lotutako fauna mehatxatuaren Kudeaketa Planak. Afekzio zuzenik gabe.
  - AOP V-2 Tertiarioa, Billodasen (bizitegi portzentaje tertiarioa): eremu osoa EAE-ko Interes kulturalerako ondasun bezala izendatutako arkeologia gunean dago, "Oppidium de Iruña-Veleia" izendatua eta momumentu multzoa bezala sailkatua. Hala ere, industria bezala erabilitako lurraldeei buruz ari gara, gaur egun hondatuak daudenak.



- AOP-G1 Garabo, Billodan: “Zadorra Ibaiarekin” KBE muga egiten du eta eremu inguruan mehatxatutako faunaren Kudeaketa Plana eta 75m<sup>2</sup>-ko gainazaleko okupazioa. Ez da identifikatzen habitaten gaineko afekzio zuzena ezta intereseko landaredia.
- Industrialak:
  - AOP-I1 Lehergaiak: sistema orokorren eta sistema libren garapena proposatzen diren lurralde gehienak 6210 lehenasuna ez daukan BIH bezala kartografiatutako larrez eta sasiz okupatuak daude, jarduketaren afekzioa 12ha-koa izan daiteke. Inbentariatutako eremuaren zatirik handiena lurzoru kutsatuak bezala daude.
  - AOP-I2 Los Llanos II: iparraldean lehenasunik gabeko 4090 BIH agertzen dira txilardiz vetea, proposamenean gunen berdeak bezala kontserbatzen direnak. Azaleraren 0,5ha bakarrik hunkitzen dute. Afekzio akustikorik handiena: A-1 autobidetik eta abiadura handiko lerro berria.
  - AOP-I3 Subillabide II: lehenasunik gabeko 4090 BIH mugatuz txilardi mantxen agerpenarekin, gehienak eremu berdearen erdigunean, azalerare 0,2ha bakarrik hunkitzen dute. Afekzio akustiko handiarekin, Madril-Irun trenbide lerroetatik eta abiadura handiko trenbide berrietatik.

Iruña Okako HAPOan planteatutako aukerak (2 kapituluak eta 2.6 sintesia), identifikatutako inpaktuen arabera baloratu dira, konponbide ezberdinei arreta jarritz, lan multzoak baieztatze eta beraien aplikazioa eta eragindakoa ona dela ziurtatzeko, eragin negatiboaren aurkari. Lan eta kontrol jarduketak hauek Ingurumena Zaintzeko Programan agertzen dira (7.kapitulua), ingurumen adierazleak sartuz (7.2 kapituluak), balioen denboraren bilakaera neurtzeko, ingurumena konfiguratzeko parametro ezberdinen balioak, ingurune sozioekonomikoa eta Iruña Okako kultura neurtzeko, eta azkenik HAPOan planteatutako helburuak betetzeko.



Ayuntamiento de  
IRUÑA DE OCA

IRUÑA OKAKO  
Udala

**IRUÑA OKAKO HAPO**

BEHIN-BEHINEKO ONESPEN AGIRIA

**ERANSKINA**

**INPAKTU AKUSTIKOAREN AZTERKETA**



## IIE PLANOAK

- EAE01. Kokalekua
- EAE02. Litologia
- EAE03. Geomorfologia eta interes geologikoko guenak
- EAE04. Maldak
- EAE05. Edafologia
- EAE06. Hidrologia
- EAE07. Lurpeko Urak eta Ur-bilketak
- EAE08. Landaredia eta arriskuan dauden espezieak
- EAE09. Batasun intereseko habitat naturalak
- EAE10. Fauna
- EAE11. Babestutako Espazio Naturalak
- EAE12. Interesdun beste gune batzuk
- EAE13. Paisaia berezi eta bikainak
- EAE14. Kultura ondarea
- EAE15. Zonakatze akustikoa